# EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak 2012



EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

ISBN 978-84-457-3259-5

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

# EAEko boluntariotzari buruzko azterlana: kuantifikazioa eta ezaugarriak 2012

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
*Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**
Viceconsejería de Asuntos Sociales
*Dirección de Política Familiar y Comunitaria*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a, 2012ko iraila |
| Ale-kopurua: | 1.000 ale |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Egilea: | EDE Fundazioa |
| Itzulpena: | IZO (IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala) |
| Fotokonposaketa: | Composiciones RALI, S.A.<br>Costa, 12-14 – 48010 Bilbo |
| Inprimaketa: | Ona Industrias Gráficas |
| ISBN: | 978-84-457-3259-5 |
| L.G. | VI 666-2012 |

# Hitzaurrea

*Euskal Autonomia Erkideko boluntariotzari buruzko azterlana* burutzean eta argitaratzean bere egunean hartu zuen konpromisoa bete du Eusko Jaurlaritzak, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren 2011-2012rako luzapenean jasota dagoena. Lehen aldia da Euskal Autonomia Erkidegoa osorik hartzen duen azterlana egiten dena, eta beraz, hemen jasotzen den informazioak euskal boluntariotzaren errealitatera hurbilduko gaitu.

Azterlan hau egitean, boluntarioek gizarteari zerbitzua eskainiz arlo ezberdinetan egiten duten lana aitortzen du Eusko Jaurlaritzak; elkarte baten barruan modu altruista eta eskuzabalean egiten duten lana, eta horregatik Hirugarren Sektoreko elkarteen lana ere aintzat hartzen da.

Egunero gizartearen aldaketan ari diren boluntarioei ahotsa eman zaie azterlan honetan, eta elkarteetan boluntariotza nola kudeatzen den eta boluntariotzaz duten iritzia biltzen da hemen.

Gure asmoa hau da, Euskadiko boluntariotzari buruzko datuak eskaintzeaz gain, azterlan honek balio dezala arlo ezberdinetan gauzatzen den boluntariotza hobeto kudeatzeko.

Azkenik, eskerrak ematea dagokigu azterlan hau gauzatu ahal izateko modu eraginkorrean parte hartu duten pertsona eta alkarteei, boluntariotzari buruz duten iritzia eta balorazioa emanez.

*Gemma Zabaleta Areta*
Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua

# Aurkibidea


**1. Sarrera** . . . . 9

**2. Helburuak** . . . . 13

**3. Erreferentzia-esparrua** . . . . 17

**4. Aztergaia** . . . . 31

**5. Metodologia** . . . . 35

**6. Emaitzak** . . . . 41

6.1. Gaur egungo, galdutako eta izan litezkeen boluntarioen kuantifikazioa . . . . 44

6.2. Inoiz boluntario izan ez diren biztanleak . . . . 56

6.3. Gaur egungo boluntarioen profila . . . . 61

6.4. Gaur egungo borondatezko ekintzaren ezaugarriak . . . . 80

6.5. Boluntariotzaren eta hasierako motibazioen gaineko hurbilketa . . . . 111

6.6. Boluntariotzaren esanahia . . . . 121

6.7. Erakundeetan egiten den boluntarioen kudeaketari buruzko balioespena . . . . 126

6.8. Borondatezko lanaren gizarte-aintzatespena . . . . 155

6.9. Boluntario-esperientziaren balioespen orokorra . . . . 163

6.10. Galdutako boluntarioak . . . . 179

6.11. Boluntario potentzialak . . . . 190

**7. Laburpena eta ondorioak** . . . . 205

**8. Bibliografia** . . . . 227

**9. Eranskina** . . . . . . 235

9.1. Galdesorta . . . . . . 237
9.2. Gidoia_Eztabaida-taldeak . . . . . . 243
9.3. Parte-hartzea_Eztabaida-taldeak. . . . . . . 253
9.4. Unibertsoa eta lagina_TAULAK . . . . . . 258
9.5. Eranskina_Gorapen-faktoreak eta zenbatespenak. . . . . . . 260
9.6. Eranskina_TAULAK . . . . . . 262
9.7. Taulen eta grafikoen aurkibidea . . . . . . 270

# 1.

# Sarrera

Europako Batzordeak 2011. urtea «Herritar aktiboak sustatzen dituzten borondatezko jardueren Europako urtea» izendatzea erabaki zuela eta –Boluntariotzaren Europako Urtea izenez ezagunagoa–, ekimen ugarik hartu dute xedetzat boluntariotzari buruzko ezagutza hobetzea.

*Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak* ikerketa-proiektu bat jarri zuen abian urte horretan bertan, *Euskal Autonomia Erkidegoan boluntario gisa lanean zenbat pertsona ari diren jakiteko eta talde horren ezaugarriak zehazteko, bai eta zer motibazio eta beharrizan dituzten jakiteko ere*. *Gainera, gutxi gorabeherako informazioa bildu nahi izan da halako jarduerarik egiten ez duten pertsonek ematen dituzten arrazoien inguruan.*

Asmo handiko proiektua, arlo honetan dagoen informazio-hutsunea bete asmo duena, orain arte EAEn modu orientagarri eta partzialean heldu izan baitzaio gai horri. Dokumentu hau bat dator aipaturiko proiektuaren azken txostenarekin; hain zuzen, *EDE Fundazioko Ikerketa Sozialeko Zerbitzua* arduratu da proiektuaren garapen teknikoaz.

Egiturari dagokionez, bigarren atalean proiektuaren irismena zedarritzen duten helburuak azaltzen dira; hirugarrengoan, ohar labur batzuk egiten dira azterlanaren erreferentzia-esparruaren inguruan; eta laugarrengoan, aztergaia modu eraginkorrean mugatzen da. Bosgarren atala metodologiari eskaini zaio.

Hurrengo ataletan, ikerlanaren emaitza nagusiak aurkezten dira, hainbat azpiataletan bilduta: lehenengoan, gaur egungo, iraganeko eta izan litezkeen boluntarioen tasak ematen dira; bigarrengoan, inoiz boluntario izan ez diren biztanleek boluntariotza nola hautematen duten aztertzen da; hurrengo zazpi ataletan, gaur egungo boluntarioen profila eta ezaugarriak deskribatzen dira, eta boluntarioek beren esperientziaren inguruan egin duten balioespenean sakontzen da; ondoren, galdutako boluntarioei buruzko informazioa ematen da; eta azken atalean, emaitzei buruzkoan, boluntario potentzialak deskribatzen dira.

Azkenik, emaitza eta ondorio nagusien laburpena biltzen duen atal bat erantsi da, eta erreferentzia bibliografikoen beste atal bat.

Eranskinetan, ondokoak aurkezten dira: taula eta grafikoen aurkibidea, unibertso eta laginari buruzko datu nagusien laburpena, kontsultarako erabilitako galdesorta, eta taula iruzkindu batzuk, emaitzak azaltzen dituzten ataletan sartu ez direnak.

Azkenik, nabarmendu behar da txosten honetan egindako analisiak barne hartzen duela genero-ikuspegia; datuak sexuaren arabera bereizita ematen dira, baina, horrez gainera, interpretazioa egiteko orduan kontuan hartzen dira zenbait aldagaik gizonen eta emakumeen artean dituzten eragin eta ondorio desberdinak ere.

# 2.

# Helburuak

Ikerlan honen azken xedea da EAEko boluntariotzaren inguruan gaur egun dagoen ezagutza sistematikoa zabaltzea: gizarteak nola hautematen duen boluntariotza; EAEko erakundeetan zenbat boluntario ari diren lanean eta zer profil duten; boluntarioen motibazioak eta beharrizanak; etorkizuneko erronkak...

Helburu espezifikoak honako hauek dira:

| | |
|---|---|
| KUANTIFIKATZEA | 1. Kuantitatiboki zenbatestea zenbat pertsona izan ziren boluntario nahiz eta jadanik ez izan, zenbat pertsona diren gaur egun boluntario eta zenbat pertsonak ez duten baztertzen etorkizun hurbilean boluntario izatea. |
| INOIZ BOLUNTARIO IZAN EZ DIREN BIZTANLEEN IKUSPEGIA | 2. Inoiz boluntario izan ez diren biztanleek boluntariotza nola hautematen duten jakitea eta boluntarioen irudia kudeatzeko eta/edo sentsibilizazio-estrategiak ezartzeko aldagai espezifiko esanguratsuenak identifikatzea.<br>3. Boluntario ez diren pertsonek boluntario ez izateko zer arrazoi nagusi ematen dituzten jakitea eta eragozle nagusiak identifikatzea (aldagai soziodemografiko batzuen arabera). |
| IRAGANEKO BOLUNTARIOEN IKUSPEGIA | 4. Iraganean boluntario izan ziren pertsonen ikuspegira gerturatzea eta boluntario izateari uzteko faktoreak identifikatzea.<br>5. Iraganeko boluntarioen ezaugarriak ezagutzea, borondatezko ekintza-motari loturiko aldagai jakin batzuk oinarritzat hartuta (erakundearen jardun-esparrua, dedikazio-orduak, boluntariotzaren definizioa...). |
| BOLUNTARIO POTENTZIALEN IKUSPEGIA | 6. Boluntario potentzialen profila eta motibazioak ezagutzea eta arrastoak identifikatzea, atzemate-estrategiak egokitzeko. |

| | |
|---|---|
| GAUR EGUNGO BOLUNTARIOEN IKUSPEGIA | 7. Gaur egungo boluntarioen profil soziodemografikoa ezagutzea.<br>8. Gaur egungo boluntarioen ezaugarriak ezagutzea, borondatezko ekintza-motarekin loturiko aldagai jakin batzuk (erakundearen jardun-esparrua, dedikazio-orduak, antzinatasuna...) eta profil soziodemografikoarekin izan daitezkeen erlazioak oinarritzat hartuta.<br>9. Boluntario izatea aukeratzeko modu positiboan eragiten duten motibazio eta faktore nagusiak ezagutzea.<br>10. Boluntarioak beren lanarekin zenbateraino pozik dauden jakitea eta gogobetetze horretan nagusiki zer faktorek eragiten duten identifikatzea.<br>11. Boluntarioek boluntario-esperientziaren inguruan zer balioespen egiten duten jakitea (harrera, prestakuntza, asegurua, inplikazioa, aintzatespena...) eta izan daitezkeen zailtasun eta neurri zuzentzaileak identifikatzea.<br>12. Gizarte-eragileek (komunikabideak, administrazio publikoa...) borondatezko lanari egiten dioten gizarte-aintzatespenaren inguruan hausnartzea. |

# 3.

# Erreferentzia-esparrua

## Boluntariotzaren definizioa

Boluntariotzari buruzko ikerketa bati heltzeko orduan sortzen zaigun lehen arazoa da boluntariotzaz dihardugunean zeri buruz ari garen argitzea. Hain zuzen, auzi horri heldu dioten hainbat lanetan ikus liteke zein zaila den definizio bakar batekin asmatzea.

Ugari dira beren lanetan boluntariotza definitu duten nazioarteko erakundeak eta hainbat mailatako ikerlanak. Eskuarki, definizio horiek badituzte hainbat elementu batean; hain zuzen, azpimarratzen dute borondatezko lanak hauxe esan nahi duela: *lansaririk gabeko zerbitzuak edo jarduerak, komunitatearen, ingurumenaren eta hurbileko edo etxe berean bizi diren senitartekoak ez diren beste pertsona batzuen mesedetan egiten direnak.*

Nolanahi ere, definizioak ez datoz bat boluntariotzaren kontzeptuaren irismenarekin. Izan ere, zenbait ikuspegik gizartean parte hartzeko modu guztiak biltzen dituzte, horien barnean direla gizarte-mugimenduetako parte-hartze borondatezko eta altruista, asoziazionismoa eta abar. Beste ikuspegi batzuek, ostera, alde batera uzten dituzte hirugarren batzuei balioa



emateko ez diren jarduerak eta barne hartzen dute elkartasunezko laguntza zuzena, norberarenean ez eta beste etxeetan ematen dena. Badira, halaber, soil-soilik boluntariotza antolatua kontuan hartzen duten ikuspegiak, eta kasu batzuetan kanpoan geratzen da irabazi-asmorik gabeko erakundeen bidez egiten ez dena, eta beste kasu batzuetan, ostera, kontuan hartzen da Hirugarren Sektorearen esparrutik kanpoko beste erakunde batzuetan egiten dena ere.

Kontuan izan behar da, gainera, boluntariotzaren gertakaria ulertzeko modua estuki loturik dagoela herrialde eta eskualde bakoitzeko tradizio eta errealitate soziokulturalekin; boluntariotza modu batera ulertzen eta gauzatzen da herrialde bakoitzean. Horrek azaltzen du zergatik ez duen jasotzen gaur egungo legediak ere horren inguruko halako akordio bat; bai herrialde bakoitzeko araudiek eta bai erreferentzia autonomikoek boluntariotzaren definizio desberdinak hartu dituzte.

Kontuan hartuta badela kezka boluntariotza definitzeko zailtasun horiengatik, eta, ondorioz, lurraldeen artean konparazioak egiteko bide emango duten parametroen bidez kuantifikatzeko boluntariotza, berriki *Europako Boluntariotza Neurtzeko Proiektua*[1] jarri da abian, Johns Hopkins ikasguneak zuzendurikoa, eta hortik hainbat gogoeta interesgarri etorri dira horren inguruan. Proiektu horren esparruan, gaur arte boluntariotza definitzeko egin diren hainbat saio jaso dira, herrialde guztiek onartu eta erabiltzeko moduko definizio bat sortzeko zer aukera dauden argitzeko helburuarekin:

*Hur-hurreko familiari ez beste norbaiti (pertsonak edo taldeak) edo gertuko senitartekoei ez ezik beste norbaiti mesede egiteko edo ingurumenari on egiteko ordaindu gabeko zerbaitetan denbora pasatzea dakarren jarduera oro.* (National Centre for Social Research and the Institute for Volunteering Research, 2007).

*Jarduera-sorta handi bat, bereziki elkarlaguntzako eta ekimen pertsonaleko modu tradizionalak, zerbitzugintzakoak eta gizartean parte hartzeko beste modu batzuk, jendearen mesedetan libreki egiten direnak eta motibazio nagusia diruzko ordainsaria ez dutenak.* [Nazio Batuen Batzar Nagusia, 2001].

*Borondatezko lana da pertsona batek bere borondatez eta beste pertsona batzuen edo onurarik bilatzen ez duen kausa baten zerbitzura denbora era-*

1 EUROPEAN VOLUNTEER CENTER (CEV), *CENTRO DI SERVIZIO PER IL VOLUNTARIO DEL LAZIO (SPES), JOHNS HOPKINS CENTER FOR CIVIL SOCIETY STUDIES (CCSS). European Volunteer Measurement Project.* [online]. [Brusela, Belgika]: EVMP, 2011. [2011ko martxoaren 25eko erref.]. Webgunean eskuragarri: <www.evmp.eu>.

*biliz egiten duena eta ez ordainsaririk ez gauzazko ordainik ez duena.* [Butcher, 2010].

Bilketa hori abiapuntutzat hartuta, LNBk[2] «borondatezko lana» terminoa sortu du *Borondatezko lana neurtzeko gidaliburuan*, eta honela definitu du: «*Lan ordaindugabea eta ez nahitaezkoa, hau da, pertsonek beren etxeko kide ez diren beste pertsona batzuen aldeko jarduerei erakunde baten zein zuzenean eskaintzen dieten ordaindu gabeko denbora*».

Lan honetan, «lan ordaindugabea eta ez nahitaezkoa» kontzeptua erabiltzearen alde egin dugu, uste baitugu boluntariotza edo borondatezko lanarena baino argiagoa dela. Definizioaren indarra honetan datza: proiektuan parte hartu duten herrialdeek adostu dutela eta xedea estatistika-erakundeek kontuan hartzea dela, informazio-bilketa sistematizatzeko. Nolanahi ere, kontuan izan behar da ikuspegi zabal bat duela oinarri, eta ikuspegi horrek ez duela soilik kontuan hartzen boluntariotzako erakundeek egiten duten boluntariotza, baizik eta baita hirugarrenei zuzenean laguntzeko beste jarduera altruista batzuk ere.

Espainian, eta baita EAEn ere, boluntariotzako erakundeak gordetzen saiatzen diren boluntariotzaren kontzeptua ez dator bat ikuspegi anglosaxoitik eta antzekoetatik harturikoekin –horietan beste etxe batzuei emandako ordaindu gabeko laguntzak ez du pisu handiagoa erakundeen bidez ematen denak baino–. Gehienek honela ulertzen dute boluntariotza: gizartean parte hartzeko modu altruista bat, Hirugarren Sektoreko entitateek (irabazi-asmorik gabeek) ordezkatzen duten gizarte zibil antolatuaren bidez egiten dena eta ezaugarri bereziak dituena, konpromiso eta parte-hartze soziala ekar dezaketen beste erantzun sozial batzuen aldean.

Nolanahi ere, badirudi argi dagoela borondatezko jarduera eta zerbitzu gehienek gizarte-kohesioa, gizarteratzea eta integrazioa sustatzen dituztela. Borondatezko jarduerek gizartearen bizi-kalitatea hobetzen dute, pertsonen artean elkartasunezko loturak sortuta eta eguneroko bizitzari kapital soziala gehituta. Alabaina, zaila da boluntariotzaren alderdi soziala neurtzen edo balioesten, ez bakarrik ez dagoelako tresna egokiturik hori modu eraginkorrean egiteko, baizik eta boluntariotzaren sektorea ikusten ez delako eta egindakotzat jotzen delako, merezi duen arreta eman gabe. Bizitza boluntariorik gabe eta haien lanik gabe nolakoa litzatekeen imajinatzen dugunean baizik ez gara konturatzen duen balioaz.

---

[2] LANAREN NAZIOARTEKO BULEGOA. ESTATISTIKA DEPARTAMENTUA. *Manual de medición del trabajo voluntario*. Geneva: Lanaren Nazioarteko Erakundea, 2011.

Adierazitako horretan sakonduz, Boluntak, Bizkaiko Boluntariotza eta Partehartzerako Agentziak, azalpen hau ematen du[3]: «*Pertsona boluntarioa da bere kabuz eta bere probetxurako ezer lortu gabe konpromisoa hartzen duena komunitatearen zerbitzura dagoen ekintza antolatu batean*». Gainera, boluntariotza honela ulertzen da: «*Gizarte-ekimenetik beretik sorturiko forma bat, zertxobait behintzat antolatua, elkartasun izaera duena eta era guztietako herritar-taldeek libreki garatzen dutena. Parte-hartze sozialaren adierazpen konkretu bat da, modu espezifiko bat baina ez bakarra*».

Boluntarioei buruzko Euskal Legeak[4] boluntariotzaren inguruan ematen duen definizio formala bat dator lan honetan kontuan hartu dugunarekin. Horren arabera, «*pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte* (2. artikulua):

– *Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.*

– *Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebehar juridikoa ere.*

– *Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez*[5] *eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.*

– *Ordainsaririk gabeak izatea.*

– *Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzea.*

Gainera, legeak dio boluntariotzako erakundeak izateko baldintza hauek bete behar direla (8. artikulua): *legearen arabera osatuak izatea, nortasun juridiko propioa edukitzea, irabazi-asmorik ez izatea, beren jarduera interes orokorreko ekintzen barruan*[6] *garatzea, eta, kide gehienak boluntarioak dituztelarik, egiten dituzten programa edo egitasmo gehienak batik bat boluntarioen bidez egitea.*

---

3 BOLUNTA. *Ser voluntario... o voluntaria*. Bilbo: Bolunta, Bizkaiko Foru Aldundia eta BBKren Gizartekintza, 2002; eta *Ser una organización de voluntariado*. Bilbo: Bolunta, Bizkaiko Foru Aldundia eta BBKren Gizartekintza, 2005.

4 EUSKADI. *17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 1998ko uztailaren 13koa, 130. zk., 12943. or.

5 Hemen garrantzitsua da zehaztea definizio horrek baztertu egiten duela erakunde baten aterpean egiten ez den boluntariotza, hau da, kanpoan geratzen da *antolatu gabeko* boluntariotza.

6 Interes orokorreko jardueratzat hartuz gizartearen edo pertsonaren alde konpromiso bat dakartenak eta arlo hauetan mugitzen direnak: gizartea, komunitatea, herritarrak, kultura, garapenerako lankidetza, ingurumenaren babesa eta antzeko izaera duen beste edozein.

## Boluntariotzaren arloko legedia

Gero eta interes handiagoa dago lege-xedapenak bateratuz boluntariotza Europako esparru politiko batean ezartzeko, baina gaur egun borondatezko jardueren erakunde-esparrua oso irregularra da Europan.

Hain zuzen, boluntariotzak berez ez du lege-oinarririk Europako itunetan, herritartasun aktiboaren nozioaz bestela. Boluntariotza birritan aipatzen da Lisboako Itunean: 165. artikuluak borondatezko jardueran oinarritzen den kirolaren sektorearen egitura espezifikoaz dihardu, eta 214. artikulua, berriz, Europan borondatezko giza laguntzaren korporazio bat ezartzeaz mintzo da, baina hori ez da aski boluntariotzari lege-oinarri legitimo bat emateko[7].

Oro har, boluntariotzari buruzko politika gobernu-ministerio bakar baten eskumena da, edo hainbat ministeriotako sailena, eta herrialde gutxik garatu dituzte boluntariotzako estrategia nazionalak. Aniztasun handia dago, halaber, boluntariotzaren lege-esparruari dagokionez, tradizio askotarikoen eta sektore hori antolatzen den modu askotarikoen isla.

1996. urtetik, Espainian Boluntarioei buruzko estatu-esparruko Legea onartu zenetik[8], ia autonomia-erkidego guztiek sortu dituzte boluntarioei buruzko lege-arauak, zenbaitetan kasuan kasuko parlamentuek onarturiko legeak, beste kasu batzuetan dekretu administratiboak, beren lurrade-esparruaren eta eskumenen barruan.

Gainera, boluntariotza legez taxutzeko prozesua boluntariotza-planak eginez osatu da. 1997tik, Boluntariotzaren I. Estatu Plana onartu zenetik, beste bi etorri dira ondotik –2001-2004koa eta 2005-2009koa–; bi plan horiek jarraipena izan dute 2010-2014ko Boluntariotzaren Estatu Estrategian[9].

Euskal Autonomia Erkidegoan, boluntariotzaren araudia finkatzeko prozesua 1998. urtean hasi zen, Boluntarioei buruzko Euskal Legearekin[10].

---

[7] *Revista Española del Tercer Sector* [online]. Bartzelona: Luis Vives Fundazioa, 2011 [kontsulta: 2012ko martxoaren 21a]. ISSN Bertsio digitala: 1886/0419. Webgunean eskuragarri <http://www.fundacionluisvives.org/rets/18/articulos/76983/index>.

[8] ESPAINIA. 6/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa, Boluntarioei buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 1996ko urtarrilaren 17koa, 15. zk., 1239. or.

[9] OSASUN, GIZARTE POLITIKA ETA BERDINTASUN MINISTERIOA (MSPSI). *Estrategia Estatal de Voluntariado 2010-2014*. Madril: 2010eko abenduaren 23ko Ministroen Kontseilua, 2011, 35.

[10] EUSKADI. *17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko uztailaren 13koa, 130. zk., 12943. or.*

Legea aplikatuz, 2001. urtearen amaieran, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua[11] eratu zen, boluntariotzaren arloan elkartzeko, aholkuak emateko eta kontsultatzeko organo gisa. Kontseiluak, administrazio publikoko ordezkariek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) eta boluntariotzako erakundeetako ordezkariek osaturikoak (Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatuta daudenen artetik hautatuta[12]), sustatu ditu EAEk gaur arte dituen bi boluntariotza-planak. Gaur egun, Boluntariotzaren II. Euskal Plana dago indarrean. 2011-2012ko Luzapena[13].

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren luzapenean (Kontseiluak bermatua), esaten da boluntariotzaren gaineko ezagutzan aurrera egin bada ere oraindik ahalegin handiagoa egin behar dela sektoreari eragiten dioten gai guztiak ikertzeko[14]. Bestalde, nabarmentzen da Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra ez dela oraindik boluntariotzako erakunde guztien erakusgarria; horregatik da beharrezkoa ikerketak beste maila batean egitea.

## Boluntariotzaren garrantziari buruzko azterketa

Nahiz eta, lehen adierazi bezala, egia den definizio gehienek boluntariotzaren hiru elementu giltzarri nabarmentzen dituztela –ekintza altruista, norberaren hautuz garatzen dena eta lansaririk ez duena–, kontzeptu horiek hainbat errealitate hartzen dituzte Europako herrialdeetan[15]. Hain zuzen, Europan boluntariotzari buruzko definizio bateratu eta adosturik ez dagoenez oraindik, eta orain arte Europako datuak galdesorta eta txosten nazionaletan oi-

---

11 EUSKADI. 30/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 2003ko otsailaren 27koa, 188. zk., 2965. or.

12 EUSKADI. 169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa. Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 2000ko irailaren 29koa, 188. zk., 17198. or.

13 EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. *Boluntzariotzaren II. Euskal Plana. 2011-2012 Luzapena.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2012.

14 Boluntzariotzaren II. Euskal Planaren luzapenak 1. Estrategia Ildoan (borondatezko ekintzarekin sentikorrak eta aktiboak diren herritarrak sortzea) besteak beste helburu hauxe ezartzen du: *ikerketa eta EAEko boluntariotzaren egoeraren benetako errealitatearen ezagutza sustatzea.*

15 *Revista Española del Tercer Sector* [online]. Bartzelona: Luis Vives Fundazioa, 2011 [kontsulta: 2012ko martxoaren 21a]. ISSN Bertsio digitala: 1886/0419. Webgunean eskuragarri <http://www.fundacionluisvives.org/rets/18/articulos/76983/index>.

narritzen direnez eta neurtzeko parametroak izugarri aldatzen direnez herrialde batetik bestera, oso zaila da kasu guztietan gauza berari buruz ari direla bermatzea.

Alde horretatik, *Boluntariotza Europar Batasunean 2010*[16] azterlanak agerian jartzen du oro har Europan sistematizazioa falta dela eta ikuspegi ez oso egituratu bat dagoela erakundeetatik boluntariotzarantz. Txostenak, Espainiako boluntariotzaren errealitateari buruz ari denean[17], kopuru eta datu kontraesankorrak eta azterketa-metodologia oso desberdinak aipatzen ditu.

Alabaina, fenomeno hori neurtzeak eta herrialde batzuen eta besteen artean dauden antzekotasunak aztertu ahal izateko moduan egiteak duen garrantzia honetan datza: aukera ematen duela borondatezko lana ikusarazteko eta bere gizarte-ekarpena parametro objektibagarrietara ekartzeko, beste eragiketa estatistiko batzuei, hala nola etxeko lanaren kontu sateliteei, heldu izan zaien bezala.

Mugak gorabehera, azterlan honek aditzera ematen du Batasunean 92 eta 94 milioi pertsona bitartean aritzen direla boluntario-lanetan, hau da, 15 urtetik gorako europarren % 22-23 inguru daudela borondatezko lanean inplikaturik. Gainera, adierazten du azken hamarkadan Europako boluntariotzak oro har goranzko joera agertzen duela.

2007ko *Eurobarometro bereziak*[18] joera nazionalei buruzko ideia bat eman zuen, eta zenbatetsi zuen Espainiako biztanle heldu boluntarioak % 18 zirela; 25eko Europari zegokionez, ostera, datua % 34koa zen.

Espainian, estatu izaerako txostenak urriak izan dira 2010eko Gizartekintza Arloko Hirugarren Sektorearen Urtekaria[19] eta *Espainiako Gizartekintzako Boluntarioaren Egoerari buruzko Diagnostikoa 2011*[20] argitaratu direnetik.

---

[16] COMISIÓN EUROPEA, GHK CONSULTING. *Estudio sobre el Voluntariado en la Unión Europea (Study on Volunteering in the European Union)*. Brusela: Europako Batzordea, 2010.

[17] Ez bakarrik zedarritzen da modu desberdinean boluntariotzaren kontzeptua lan batetik bestera, baizik eta, gainera, denek ez dute kontuan hartzen erreferentzia-aldi berbera, eta zenbait kasutan boluntarioei zuzenean egiten zaie kontsulta eta beste batzuetan boluntariotzako erakundeek egiten dute bitartekari-lana informazio-bilketan.

[18] EUROPAKO BATZORDEA. *Eurobarómetro Especial*. Brusela: Komunikazio Zuzendaritza Orokorra, 2007.

[19] LUIS VIVES FUNDAZIOA, EDIS, S.A. *Anuario del Tercer Sector de Acción Social en España 2010*. Madril: Luis Vives Fundazioa, 2011.

[20] ESPAINIAKO BOLUNTARIOEN PLATAFORMA (PVE), FOLIA CONSULTORES. *Diagnóstico de la situación del voluntariado de acción social en España 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, 2011.

Gainera, azken urteetan autonomia-erkidegoetan argitaratutako txostenek[21], nahiz eta interesgarriak izan, ez diete erantzuten ez neurtzeko irizpide bateratuei eta ez metodologia adostuei.

*Espainiako boluntariotzaren egoerari buruzko 2011ko txostenak*[22] –Gizartekintzaren Arloko Hirugarren Sektorearen Urtekarian oinarritzen ditu datuak– zenbatesten du 4.170.043 bat espaniarrek egiten dituztela borondatezko ekintzak. Horietatik, 873.200 gizartekintzaren arloan aritzen dira, hots, espainiar biztanleen % 9,5ek egin litzake oro har boluntariotza-jarduerak.

Lehenengoz 2011ko martxoan, *CISen Barometroa*[23] arloa gehiago ezagutarazten saiatu zen, eta boluntarioen gaia aztertu zuen, Espainian informazioa eskala handian bilduta. Txostenak ondorioztatzen du inkestaturiko espainiar biztanleen ia % 31k egin dutela inoiz borondatezko lanen bat eta horietatik % 17k azken urtean egin dutela.

Nabarmentzekoa da, berriki, *Boluntariotzaren Berrikuntzarako Munduko Goi Bileraren* esparruan[24], jadanik aipaturiko *Europako Boluntarioak Neurtzeko Proiektuaren* eragile sustatzaileek[25] –Espainiako Boluntariotza Plataforma laguntzen ari da proiektu horretan– estatistikako erakunde ofizialetako eta boluntariotzako erakunde zibiletako ordezkariei eskatu dietela gogoeta egin dezatela Espainiako boluntariotzari buruzko informazio oinarrizkoa biltzeko premiaren inguruan eta bilketa hori hasteko modu egokiaren inguruan.

EAEko panorama espezifikoa aztertuz gero, lehenik eta behin 2004. urtean argitaratu zen azterlanaz hitz egin behar dugu[26]. Horren xedea zen euskal asoziazionismoaren errealitatean sakontzea –erreferentzia gisa aurrez estatuan egin zen eta aldi berean nazioarteko beste lan zabalago baten parte

---

21 Bibliografian kontsulta daiteke horietako batzuen erreferentzia.

22 ESPAINIAKO BOLUNTARIOEN PLATAFORMA (PVE), FOLIA CONSULTORES. *Diagnóstico de la situación del voluntariado de acción social en España 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, 2011.

23 CIS. IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA. *Barómetro de marzo de 2011. Estudio 2864. Estudio de opinión sobre el voluntariado: la imagen social del voluntariado*. Madril: CIS, 2011.

24 Goi-bilera, Meridian Nazioarteko Zentroak, AEBren Espainiako Enbaxadak eta Rafael del Pino Fundazioak antolaturikoa, 2012ko martxoaren 28, 29 eta 30ean izango da, Madrilen.

25 Op. cit.

26 EDEX KOMUNITATE BALIABIDEEN ZENTROA. *El sector no lucrativo de Acción Social: datos generales y situación en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, 2004.

izan zen azterlan[27] baten esparruan aurrera eramandako ikerketa[28] bat hartzen zuen–. Lanak hainbat arrasto eman zituen irabazi-asmorik gabeko sektorearen alderdi giltzarrien inguruan (erakunde-kopurua, kudeatutako bolumen ekonomikoa...), eta, zehazkiago, gutxi gorabeheherako zenbatespen bat egin zuen EAEn zeuden boluntarioen inguruan, bigarren mailako iturriek bildutako informazioa oinarritzat hartuta. Garai hartan, zenbatetsi zen 220.000 pertsona inguru izan zitezkeela.

Bestalde, urte horretatik bertatik 2009. urtera bitartean, *Boluntariotzako Erakundeen Egoerari buruzko Urteko Txostena*[29] argitaratu da. Lan horrek sistematikoki hurbildu gaitu EAEko boluntariotzaren errealitatera, eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren barruan horri buruz gogoeta egitea erraztu du. Dena dela, hurbilketa partzial bat da, eta, beraz, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatzean hala identifikatu diren boluntariotzako erakundeak izan ditu nagusiki aztergai.

2004an Boluntak, Bizkaiko Boluntariotza eta Elkarteentzako Agentziak, azterketa bat sustatu zuen[30] (Eusko Jaurlaritzak kofinantzatua), eta hori izan zen lehenengoz zuzeneko galdesorta baten bidez biztanleen artean zenbat boluntario zeuden kuantifikatzea xede izan zuen lana, nahiz eta Bizkaiko Lurralde Historikora mugatu zen[31]. Lau urte geroago, 2008an, Bizkaiko Foru Aldundiak erabaki zuen beste azterlan bat abian jartzea, taldearen ezaugarriei buruz informazio eguneratuagoa izateko. Azken lan horrek agerian jarri zuen 18 urtetik gorako bizkaitar biztanleen % 11 inguruk (107.400 bat pertsona) adierazi zutela boluntario zirela.

Hirugarren Sektoreari buruzko azterlan oraintsukoenek agertzen dute irabazi-asmorik gabeko erakundeak ugaritzen ari direla, eta, gainera, gero eta gehiago profesionalizatzen ari direla aipatzen dute. Faktore horiek boluntarioengan eragin dute, eta agerian jarri dute beharrezkoa dela boluntarioen

---

[27] RUIZ OLABUÉNAGA, J.I. (ZUZ.). *El Sector No Lucrativo en España. Una visión reciente*. Bilbo: BBVA fundazioa, 2006.

[28] DOBKIN HALL, P. *Inventing the Nonprofit Sector: And Other Essays on Philanthropy, Voluntarism and Nonprofit Organizations*, Baltimore: Johs Hopkins University Press, 1992.

[29] EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA, EDE FUNDAZIOA. *Informe anual de la situación de las organizaciones de voluntariado en la CAPV 2009*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2010.

[30] EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA, EDE FUNDAZIOA. *Voluntariado vasco 2005: análisis de un compromiso*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2006.

[31] BIZKAIKO FORU ALDUNDIA, EDE FUNDAZIOA. *Estudio sobre voluntariado en Bizkaia 2008*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2009, eta BOLUNTA, EDE FUNDAZIOA. *Estudio sobre voluntariado en Bizkaia 2004. Bilbo:* Bolunta, Bilbo Bizkaia Kutxa eta Bizkaiko Foru Aldundia, 2004.

ezaugarrietan zer bilakaera izan den ezagutzeko bide emango duten hurbilketak egitea.

Nahiz eta aurrekoak diren hemen aurkezten den azterlanaren erreferentziarik hurbilena (izan ere, oso antzeko metodologia erabiltzen dute, boluntariotzaren kontzeptu beretik abiatzen dira, e.a.), adierazi behar da berriki Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak ere argitaratu dituela pertsona boluntarioei buruz zenbatetsitako kopuru batzuk. Zehazki Hirugarren Sektorearen 2010eko Urtekarian jasotako informazioarekin bat etorriz[32] (Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zurian egindako aurretiazko liburuan oinarritua[33]) gaur egun Hirugarren Sektoreko hamar erakundetatik ia sei soil-soilik boluntarioz osaturik daude, eta pertsona boluntarioak ordainpekoak baino % 89,8 gehiago dira –batez beste, boluntariotzako erakundeek 28 pertsona boluntario dituzte–.

Lan honetan egin den zenbatespenak adierazten du 160.000 pertsonatik gora ari litezkeela gaur egun Bizkaiko Lurralde Historikoan arlo horretako erakunderen batean lanean.

## Ikerlan honen irismena eta mugak

Boluntariotza oso errotua dago gure komunitatean, eta mugimendu askotarikoa eta bizia da. Denboraren joanarekin, protagonismo handiagoa hartuz joan da gizartean, baina, gertakari zabal, heterogeneo eta konplexu bat denez, ez da erraza hurbilketa kuantitatibo bat egitea. Horregatik, ikerlan hau erronka handia da, eta lagungarri gertatuko da gizartean errealitate hori hobeto ezagutu dadin, eta, azken batean, oro har hirugarren sektoreak informazio fidagarria izan dezan, bere oinarri soziala gordetzeko eta zabaltzeko erronkei aurre egin ahal izateko.

Orain arte egindako lanez bestela, hemen aurkezten dugun ikerlanak lehenengoz hartzen du EAEko lurralde osoa, bigarren mailako iturrien eta Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribaturiko erakundeen analisi mugatua gaindituz.

Zehazkiago, lan honen balio erantsia hauxe da:

---

32 BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen 2010eko Urtekaria*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2011.

33 BIZKAIKO HIRUGARREN SEKTOREAREN BEHATOKIA. *Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuria*. Bilbo: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2010.

– aztergaia mugatzen du; izan ere, kontuan hartzen duen boluntariotza antolatuaren definizioak alde batera uzten ditu gizartean parte hartzeko beste modu batzuk, baina modua ematen du analisia zentratzeko, eta, beraz, ondorioak zehatzak eta esparru konkretu bati lotuak izateko;
– kontuan hartzen du biztanle boluntarioei egindako zuzeneko kontsulta, eta, beraz, informazioa boluntariotzako erakundeen bidez jasotzen denean baino bitartekaritza gutxiagorekin egindako hurbilketa bat da;
– informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzen ditu, eta horrek bide ematen du analisia sakonkiago interpretatzeko;
– ez du soilik gaur egungo boluntariotzaren errealitatearen berri ematen, baizik eta, horrez gain, jasotzen ere ditu inoiz boluntario izan ez diren biztanleek, iraganean boluntario izan zirenek eta izateari utzi ziotenek zein boluntario izatea baztertzen ez duten eta boluntario potentzial izendatu ditugun biztanleek gaiari buruz egindako ekarpenak.

# 4.

# Aztergaia

Ikerketa ororen oinarrizko analisi-unitatea multzo identifikatu bat da, eta horretarako beharrezkoa da albait zehatzen eta modurik eraginkorrenean definitzea eta mugatzea. Planteatutako helburuak kontuan hartuta, alde batetik, azterlan honen xede-biztanleria *EAEn bizi diren 18 urte edo gehiagoko biztanleak* dira, batetik, eta, bestetik, *EAEn bizi diren 18 urte edo gehiagoko boluntarioak*[34].

Esparruaren atalean azaldu dugu horrek zer zailtasun dakartzan, baina EAEn errotuen dagoen eta indarreko legediak aitortzen duen boluntariotza kontzeptua hartu dugu. Lan honen ondorioetarako, Boluntarioei buruzko 1998ko ekainaren 25eko Legean jasotzen den *boluntariotzaren definizioa* hartuko da[35], eta, beraz, baztertu egingo ditugu gizartean parte hartzeko beste modu batzuk: «Pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

– Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
– Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebehar juridikoa ere.
– Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraiki eginak izatea.
– Ordainsaririk gabeak izatea.
– Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzea».

---

34 Boluntarioen taldea berariaz kontuan hartu izana laginaren diseinuan islatzen da (ikus metodologiaren atala), eta, azken batean, horrek bermatzen du lehenengo helburuaz harago (boluntarioak kuantifikatzea...) analisi zorrotzago bat egin ahal izatea, planteatutako gainerako helburuekin bat etorriz.

35 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, boluntarioei buruzkoa (1998/07/13ko EHAA).

# 5.

# Metodologia

Egin beharreko azterlanaren helburu gehienak lortzeko, metodologia kuantitatiboa aukeratu dugu. Metodo horren xedea da mundu sozialeko gertakariak deskribatzea eta azaltzea, objektiboki existitzen diren eta ezagutza sistematiko egiaztagarri eta konparagarri, neurgarri eta ihardesgarriari lotzen zaizkion ezaugarri orokorrak azaldu ahal izateko moduan. Dena dela, azterlanak badu alderdi kualitatibo bat ere, zenbait alderdi osatzeko eta sakontzeko xedearekin.

## Telefono bidezko inkesta

Telefono bidezko inkesta bat egin zaie EAEn bizi diren 18 urte edo gehiagoko biztanleei. Modu horretara bildutako informazioak bide ematen du lehen aipaturiko helburu espezifiko gehientsuenei dagokienez (1-10 helburuak) gaur egungo errealitatea zein den azaltzeko. Inkestarako erabili den galdesorta eranskinean kontsulta daiteke.

Laginari dagokionez bi helburu lortu nahi zirenez, informazioa biltzeko planteamendua bi fasez osatu da.

Batetik, asmoa izan da EAEko 18 urtetik gorako biztanle guztien lagin adierazgarri bat lortzea, eta lagin horrek erlazio proportzionala gordetzea unibertsoaren banaketarekin, sexua, adina, lurralde historikoa eta bizilekuko udalerria kontuan hartuta[36]. Bestalde, boluntarioen lagin behar bezain adierazgarri bati egin nahi izan zaio inkesta[37].

[36] Gainera, saiatu gara biztanleen adina modu proportzionalean ordezkatzen, hala emakumeetan nola gizonetan, bai eta sexuaren araberako biztanleen egitura ere, lurralde historiko bakoitzean. Eranskinean kontsulta daitezke unibertsoaren banaketa xeheki azaltzen duten taulak eta mailen araberako lagina.

[37] Gutxienez zenbateko lagina beharko zen kalkulatzeko, hasieran aurreko azterlanetan zenbatetsitako boluntario-tasak hartu dira kontuan.

Horretarako, lehenengo fasean etapa anitzeko laginketa bat egin da, lurralde historiko bakoitzean bigarren mailako unitateak (udalerriak) eta azken unitateak (pertsonak) ausaz hautatuta, harik eta 2.600 pertsonak osaturiko lagin bat lortu dugun arte. Hori eginik, boluntarioen tasa kalkulatu ahal izan da, biztanleria osoari dagokionez –azterlan honek % 8,6 zenbatu ditu–, eta hortik abiatuz kalkulatu da, azkenik, bigarren laginaren tamaina.

Bigarren fasean, lokalizatu diren pertsona boluntarioei soilik egin zaie inkesta, lehen bezala bizilekuak ausaz hautatuta, harik eta 383 boluntariok osaturiko lagin bat lortu dugun arte[38].

### Untbertsoa eta lagina

- Lehenengo lagina 2.600 pertsonak osatu dute. Estatistikoki esanguratsutzat har liteke, eta datuak EAEko biztanleria osora estrapola daitezke, % 95eko konfiantza-mailarekin eta +/-% l,9ko errore-marjinarekin.
- Bigarren lagina 383 pertsonak osatu dute, eta hori ere estatistikoki esanguratsutzat har daiteke datuak taldera estrapolatzeko. % 95eko konfiantza-maila du, eta +/-% l,5eko errore-marjina.

### Landa-lan kuantitatiboa

- Landa-lana 2011ko azaroaren erdialdetik 2012ko urtarrilaren erdialdera bitartean egin da. Kontuan hartuta jendea bere etxeetan lokalizatu behar zela, deiak hainbat ordu-tartetan egin dira, asteko egun guztietan, igandeetan eta jaiegunetan izan ezik. Modu horretara, adin askotako pertsonak lokalizatu ahal izan dira, eta ez soilik etxean maizago egon ohi diren pertsonak; hala, aurrez ezarritako kuotak bete dira.
- Zailtasun nagusietako bat gazteak (30 urtetik beherakoak) etxean aurkitzea izan da. Batez ere, gizon gazteak aurkitzea izan da zaila. Ez zirudien inkesta egiteko ordutegiak askorik errazten zuenik talde hori aurkitzen, eta, horregatik, inkesta egiteko ordutegia iluntzera zabaltzea erabaki da. Badirudi bi ordutegiak egokiagoak izan direla talde hori harrapatzeko.
- Inkestagile guztiak prestatu dira landa-lana hasi aurretik, informazioa modu egokian bilduko dela eta irizpideak homogeneoak izango direla ziurtatzeko.

38 Guztira 2.762 pertsonari egin zaie inkesta. Lehenengo fasean, 221 boluntariori egin zaie inkesta, eta bigarrenean 162ri.

## Bigarren mailako iturrien bilketa eta analisia

Teknika horren helburua izan da inkesta zein egoeratan dagoen jakiteko eta informazioa lortzeko modua erraztea, erreferentzia-esparru bat ezarri ahal izateko. Aintzat hartutako erreferentzia bibliografikoak azken kapituluan kontsulta daitezke.

Dokumentazioa identifikatzeak eta berrikusteak ez bakarrik eman du bide informazio bidezko eta eguneratu bat oinarritzat hartuz kokatzeko ikerketaren testuingurua, baizik eta, horrez gain, bide eman du galdesortaren edukiak identifikatzeko. Bestalde, aurretiko erreferentzia-ikerlanetako datuak baliagarri gertatu dira analisia aberasteko.

## Eztabaida-taldeak

Galdesortan boluntarioen esperientziari buruz sartutako informazioa osatzeko helburuarekin, hiru eztabaida-talde eratu dira boluntarioekin, lurralde historiko bakoitzeko bat.

Eztabaida-taldeen edo foku-taldeen teknikaren bidez –beren iritzia emateko pertsona-kopuru bat biltzean datza–, informazioaren zati bat sakonkiago aztertu ahalko da.

Dinamika hori bi errealitate-mailaren eta elkarrekiko eraginaren artean mugitzen da, eta hor adierazten dena ez da ez banako bakoitzaren iritziaren isla, ez eta taldeak soilik adierazten edo baloratzen duenaren isla ere. Iritziek, nahiz eta soilik neurri batean izan, ezin diote itzuri egin taldearen eraginari, eta hark baldintzatuta daude. Taldearen egitekoa da hausnarketa bultzatzea eta erraztea, eta ideiak trukatzeko bidea ematea.

Alderdi kualitatibo honetarako, laginketa ez probabilistiko bat hautatu da, iritziaren araberakoa, «laginketa arrazoitua» deiturikoa. Iritziaren araberako laginketetan, ikertaldeak egokien iritzitzako pertsonak hautatzen ditu, informatzaile onentzat identifikaturiko pertsonek ikergaia hobeto ezagutzen dutelako edo garrantzi handiagoa dutelako.

Parte-hartzaileak hautatzeko orduan, talde albait heterogeneoena lortzea lehenetsi da, adinari, sexuari, dagokien erakundearen jardun-esparruari eta

abarrei dagokienez. Boluntarioekin zubi-lana egiten duten erakundeak identifikatzeko, Boluntariotzako hiru Euskal Agentzien laguntza izan dugu.

Taldeak gidoi erdiegituratu baten bidez dinamizatu dira[39]. Hain zuzen, gidoi horretan, sakondu nahi ziren edukiak bildu dira, eta bi ordu eta erdiko iraupena izan du.

**Landa-lan kualitatiboa**

- Bizkaiko taldea 2012ko martxoaren lean bildu zen, eta bertan 11 erakundetako 20 pertsonak hartu zuten parte.
- Gipuzkoako taldea 2012ko martxoaren 7an bildu zen, eta bertan 11 erakundetako 18 pertsonak hartu zuten parte.
- Arabako taldea martxoaren 12an bildu zen, eta bertan 5 erakundetako 11 pertsonak hartu zuten parte.
- Eranskineko 9.3 atalean kontsulta daiteke parte hartu zuten erakunde konkretuen zerrenda.

39 Eranskinean kontsulta daiteke.

# 6.

# Emaitzak

Kapitulu hau, lehen esan dugun bezala, sei azpiataletan egituratu da. Azpiatal horiek azterlanean eta analisian bildutako informazio osoa jasotzen dute. Kapitulu honetan, antzeko ikerketa-proiektuei buruzko erreferentzia ugari sartu dira, emaitzak testuinguruan kokatzen dituzten konparazioak egiteko asmoz.

6.1. Gaur egungo, galdutako eta izan litezkeen boluntarioen kuantifikazioa

6.2. Inoiz boluntario izan ez diren biztanleek boluntariotza nola hautematen duten.

6.3. Gaur egungo boluntarioen profila

6.4. Borondatezko ekintzaren ezaugarriak

6.5. Boluntarioen eta hasierako motibazioen gaineko hurbilketa

6.6. Boluntariotzaren esanahia

6.7. Erakundeetan egiten den boluntariotzaren kudeaketaren balioespena

6.8. Borondatezko lanaren gizarte-aintzatespena

6.9. Boluntario-esperientziaren balioespen orokorra

6.10. Galdutako boluntarioak

6.11. Boluntario potentzialak

## 6.1. Gaur egungo, galdutako eta izan litezkeen boluntarioen kuantifikazioa

**Zenbat pertsona dira, izan dira edo egongo lirateke prest boluntario izateko?**

Ikerketaren helburu nagusietako bat da gaur egun EAEko erakunderen batean boluntario-lanetan dabiltzan pertsonak kuantifikatzea. Azterlan honetatik ateratako datuek adierazten dute *gaur egun boluntarioak euskal biztanleen % 8,6 direla, hau da, zenbatetsitako kopurua*[40] *157.493 bat boluntariokoa da*.

Gainera, gaur egun halako lanik ez eginda ere iraganean lan horiei loturik zenbat pertsona egon ziren identifikatu nahi izan da. Zehazki, *kontsultatutako euskal biztanleen beste % 9,8k adierazi dute aurrez boluntario izan direla nahiz eta gaur egun ez izan*; *horrek adierazten du nolabait «galdutako» boluntarioak 178.965 inguru izan litezkeela*.

Bestalde, ezin garrantzizkoagotzat jo da etorkizun hurbilean borondatezko lanen bat egiten hasteko aukera nahiko edo oso litekeena dela dioten pertsonak kuantifikatzea. *Euskal biztanleen % 11k*, balio zenbatetsitan *202.325 pertsona* inguruk, osatzen dute gaur egun *boluntario «potentzialen» taldea.*

Dena dela, bi errealitate bereizi behar dira boluntario potentzialen taldearen barruan; izan ere, logikoa dirudi pentsatzeak halako lanetan hastea baztertzen ez duten pertsona horien artean aukera handiagoa dutela halako lanak egiten bukatzeko aurrez halako zereginetan esperientzia dutenek, inoiz era horretako ekimenetan parte hartu ez dutenek baino. Sailkapen hori oinarritzat hartuta, esan liteke euskal biztanleen % 3,4 ez bakarrik daudela prest boluntario izateko, baizik eta aukera handiagoa dutela boluntario izatera iristeko.

---

40 Balio absolutuak zenbatesteko, laginaren datuak biztanleria osora estrapolatu dira. Balioak albait modurik zehatzenean ondorioztatzeko, goratzaileak erabili dira, eta horiek lagineko pertsona bakoitza zenbat pertsonak ordezkatzen duten adierazten dute. Hala, esate baterako: *Gaur egun biztanleen artean boluntario direnen kopurua = lagineko gaur egungo boluntarioen kopurua x (biztanleria osoa/lagineko biztanleria)*. Goratzaileak kalkulatzeko, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren aldagaietatik eratorritako geruzak hartzen dira kontuan. Zifra orokorrak zenbatesteko, zenbatespen partzialak erantsi dira, geruza horiek kontuan hartuta. Eranskineko 9.5 atalean, goratzaile zehatzen datuak kontsulta daitezke, eta baita geruza bakoitzeko zenbatespenen taula xehatuak ere.

Laburbilduz, bildutako datuek agerian jartzen dute kontsultatutako pertsona gehien-gehienek (% 81,6) inoiz ez dutela izan erlaziorik boluntariotzarekin, eta, aldiz, 18 urte edo gehiagoko euskal biztanleen % 18,4 egon direla beren bizitzaren uneren batean mugimendu horri lotuta (bai gaur egun borondatezko lanen bat egiten duelako –% 8,6–, bai iraganean egin zuelako –% 9,8–).

### Galdutako, gaur egungo eta izan litezkeen boluntarioen proportzioa biztanleria osoaren gainean. Emaitza orokorrak. % eta absolutuen zenbatespena

1. TAULA

| | Biztanleria orokorra | |
|---|---|---|
| | % | Absolutuen zenbatespena |
| Galdutako boluntarioak | 9,8 | 178.965 |
| Gaur egungo boluntarioak | 8,6 | 157.493 |
| Boluntario potentzialak | 11,0 | 202.325 |
| Boluntario izateko probabilitate handia dutenak | 3,4 | 62.137 |
| Boluntario izateko probabilitate txikia dutenak | 7,6 | 140.188 |

EAEko datu horiek agertzen dituzten tasak zertxobait beheragо daude CISek berriki argitaratutako *2011ko martxoko Barometroak*[41] estatuan erregistratutakoetatik. Lan horretan zenbatetsitakoaren arabera, 18 urte edo gehiagoko espainiar biztanleen % 17k egin dute boluntario-lanen bat azken urtean.

Nolanahi ere, adierazi behar da alde horiek, behintzat neurri batean, datuak biltzeko moduagatik azal litezkeela; izan ere, desberdina da azterlan batek eta besteak kontuan hartutako erreferentzia-aldia. Aipaturiko lanak azken urtean boluntario izan diren pertsona guztiak erregistratzen ditu, eta azterlan honek, berriz, inkesta egin zen unean boluntario-lanak egiten zituzten pertsonak jasotzen ditu.

Horregatik, hurbileko erreferentzia konparagarriago bat *Bizkaiko Boluntariotzari buruzko 2008ko Ikerketak*[42] ematen duena izan liteke; izan ere, lan honetan erabili den erreferentzia-aldi bera erabili zuen. Ikerketa horreta-

41 Op. cit.

42 Op. cit.

tik ateratzen den kopurua askoz ere hurbilago dago hemen agertutakotik; hain zuzen, urte hartan bizkaitar boluntarioak % 11 zirela kuantifikatu zen.

Inkestatutako pertsonak bizi diren lurralde historikoaren arabera bildutako datuen analisiak agerian jartzen du *Arabak duela, lurraldeen artetik, boluntario-indizerik handiena (% 10,4), eta Gipuzkoak duela tasarik txikiena (% 8,2).* Nolanahi ere, kopuru absolutuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoak du boluntario-kopuru handiena guztizkoan.

Galdutako boluntarioek biztanleria osoarekiko duten proportzioa, bai eta boluntario potentzialek dutena ere, zertxobait handiagoak dira gaur egungo boluntarioena baino, baina lurraldeen arteko aldeek joera berari eusten diote.

Beraz, esan liteke Araba dela gaur egungo, galdutako eta izan litezkeen boluntarioen proportziorik handiena duen lurraldea, eta Gipuzkoan detektatu dela boluntariotzari loturiko pertsonen proportzio txikiena.

**Galdutako, gaur egungo eta izan litezkeen boluntarioen proportzioa biztanleria osoaren gainean. Emaitzak lurralde historikoaren arabera. %**

2. TAULA

| | Araba | | Bizkaia | | Gipuzkoa | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | Absolutuen zenbatespena | % | Absolutuen zenbatespena | % | Absolutuen zenbatespena |
| Galdutako boluntarioak | 11,8 | 31.607 | 10,2 | 99.488 | 8,2 | 47.871 |
| Gaur egungo boluntarioak | 10,4 | 27.660 | 8,4 | 81.837 | 8,2 | 47.996 |
| Boluntario potentzialak | 14,3 | 38.112 | 11,6 | 113.219 | 8,7 | 50.993 |
| Boluntario izateko probabilitate handia dutenak | 5,7 | 15.118 | 3,5 | 34.133 | 2,2 | 12.887 |
| Boluntario izateko probabilitate txikia dutenak | 8,6 | 22.995 | 8,1 | 79.087 | 6,5 | 38.106 |

Sexuaren arabera bereizitako datuek adierazten dute *emakumezko boluntarioen tasak gizonezkoen tasak baino handiagoak direla*. Gaur egungo emakumezko boluntarioak gizonezkoak baino bi puntu baino zertxobait gehiago dira: emakumeen % 9,7 dira boluntario, eta gizonen % 7,4. Gaur egungo biztanleria kontuan hartuta, 91.689 emakume boluntario eta 65.804 gizon boluntario zenbatetsi dira.

Beste alde batetik, euskal emakumeen % 10,1 eta gizonen % 9,5 izan dira noizbait boluntario, nahiz eta gaur egun ez izan; beraz, ehuneko puntu erdi gehiago dira «galdutako» emakumezko boluntarioak gizonezkoak baino.

Boluntario potentzialei dagokienez, sexuen arteko aldea oso da nabarmena; ostera ere, emakumeak gehiago dira gizonak baino (% 13,1 eta % 8,9 hurrenez hurren). Nolanahi ere, ehunekoak antzekoagoak dira kontuan soil-soilik boluntario izateko probabilitate handia dutenen tasak hartzen direnean (etorkizunean boluntario izatea baztertzen ez duten eta iraganean izan diren pertsonak); hain zuzen, emakumeen % 3,5 eta gizonen % 3,3.

**Galdutako, gaur egungo eta izan litezkeen boluntarioen proportzioa biztanleria osoaren gainean. Emaitzak sexuaren arabera. %**

3. TAULA

| | Gizonak | | Emakumeak | |
|---|---|---|---|---|
| | % | Absolutuen zenbatespena | % | Absolutuen zenbatespena |
| Galdutako boluntarioak | 9,5 | 83.796 | 10,1 | 95.169 |
| Gaur egungo boluntarioak | 7,4 | 65.804 | 9,7 | 91.689 |
| Boluntario potentzialak | 8,9 | 78.439 | 13,1 | 123.886 |
| Boluntario izateko probabilitate handia dutenak | 3,3 | 28.868 | 3,5 | 33.269 |
| Boluntario izateko probabilitate txikia dutenak | 5,6 | 49.571 | 9,6 | 90.617 |

Datuak inkesta egin zaien pertsonen adinaren arabera bereizita ere, hainbat diferentzia ikusi ahal izan dira tasetan:

*Gaur egungo boluntarioen tasarik handienak dituen adin-taldea 18 eta 29 urte bitarteko gazteak dira*; zehazki, inkestatutako adin horretako pertsonen % 17,2 dira boluntario gaur egun erakunderen batean.

Nabarmentzekoa da hurrengo adin-tarteak askoz ere tasa txikiagoa duela, eta batezbestekotik behera dagoela gainera; zehazki, 30 eta 39 urte bitarteko biztanleen artean, boluntarioen proportzioa % 7koa da. Antzeko tasa erregistratu da 40 eta 49 urte bitarteko pertsonen artean (% 6,8).

*Gaur egungo boluntarioen tasa handiena duten adin-taldeetan bigarrena 50 eta 64 urte bitarteko pertsonek osatzen dute*; hain zuzen, % 8,9 dira boluntario. Horrek esan nahi du, 65 urtetik gorako pertsonak alde batera utzita, bi adin -talde muturrekoenek tasa handiagoak dituztela.

65 urtetik gorako biztanleen taldeko boluntario-tasak egokiro interpretatzeko, kontuan hartu behar da adin-tarte horretako biztanleria osoa oinarritzat hartuz kalkulatzen direla; alabaina, adin-tarte horretan oso adin aurreratuko pertsonak sartzen dira, eta, ondorioz, beste adin-tarte batzuetan baino handiagoa da mendeko pertsonen proportzioa. Nahiz eta, itxuraz, 65 urtetik gorako biztanleen boluntario-tasak diren txikienak, ezin da zuzeneko konparaziorik egin beste adin-talde batzuen tasekin; izan ere, tasa horiek kalkulatzeko kontuan hartu den biztanleria-oinarriak ezaugarri bereziak ditu, jadanik aipatu ditugun horiexek. Hain zuzen, talde horrek beste batzuek baino nabarmen pisu handiagoa du gaur egungo boluntarioen guztizkoan (informazio hori xeheki azaltzen da 6.3 atalean).

Galdutako boluntarioen tasek boluntario-esperientzia bizi izan dutelarik azkenean bertan behera utzi duten pertsonen proportzioa adierazten dute. Tasarik handienetako bat 30 eta 39 urte bitartekoen taldean dago (% 12,3); horrek indartu egiten du gaur egungo boluntarioen tasetan ere ikusten den ideia hau: boluntario gazteenen galera izugarria dela 30 urtetik aurrera.

Bestalde, tasek adierazten dute 50 eta 64 urte bitartekoen taldeak soilik duela erregistratutako gaur egungo boluntarioen tasa galdutako boluntarioen tasa baino handiagoa, hau da, adin-tarte horretan sartzen direla boluntario lehenago inoiz halako lanetan jardun ez duten pertsonak.

Gazteenen artean (18-29 urte) dago etorkizun hurbilean boluntario izatea baztertzen ez duten pertsonen proportziorik handiena; zehazki, talde horretako % 21,4 jo litezke boluntario potentzial. Horren atzetik dago 40 eta 49 urte bitarteko biztanleen segmentua; hain zuzen, gaur egungo boluntarioen tasarik txikiena badute ere, % 14,1 dira halako lanetan hasteko prest egongo liratekeen pertsonak.

## Galdutako, gaur egungo eta izan litezkeen boluntarioen proportzioa biztanleria osoaren gainean. Emaitzak adinaren arabera. %

4. TAULA

| | 18-29 urte | | 30-39 urte | | 40-49 urte | | 50-64 urte | | 65 urte edo gehiago | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | % | Absolutuen zenbatespena | % | Absolutuen zenbatespena | % | Absolutuen zenbatespena | % | Absolutuen zenbatespena | % | Absolutuen zenbatespena |
| Galdutako boluntarioak | 14,2 | 39.593 | 12,3 | 44.420 | 11,4 | 39.493 | 7,5 | 32.278 | 5,6 | 23.181 |
| Gaur egungo boluntarioak | 17,2 | 47.755 | 7,0 | 25.220 | 6,8 | 23.611 | 8,9 | 38.191 | 5,5 | 22.715 |
| Boluntario potentzialak | 21,4 | 59.474 | 10,7 | 38.624 | 14,1 | 49.031 | 9,2 | 39.578 | 3,8 | 15.618 |
| Boluntario izateko probabilitate handia dutenak | 7,3 | 20.235 | 4,4 | 15.896 | 5,4 | 18.700 | 1,3 | 5.486 | 0,44 | 1.821 |
| Boluntario izateko probabilitate txikia dutenak | 14,1 | 39.239 | 6,3 | 22.728 | 8,7 | 30.331 | 7,9 | 34.092 | 3,3 | 13.797 |

Alabaina, adinaren araberako bereizketa eta sexuaren araberakoa aldi berean kontuan hartuz gero, errealitatea sakonkiago azter daiteke.

30 urteen aurretik, gaur egun boluntario diren emakumeen tasa gizonezkoen tasaren halako hiru da (% 26,2 eta % 8,5). Abiapuntuko tasa handia kontuan hartuta, lehenengo eta bigarren adin-tarteen artean emakumezko boluntarioen galera askoz ere ikusgarriagoa da gizonen artean izan dena baino, baina, hala ere, erdiko adin-tarteetan (30-39 urtekoak eta 40-49 urtekoak), bi sexuen tasak nabarmen gutxitzen direnean, emakumeek gizonek baino tasa handiagoak dituzte. Alabaina, joera hori alderantzikatu egiten da 50 urteetatik aurrera; hain zuzen, gizonezko boluntarioen proportzioa handiagoa da emakumezkoena baino.

Sexu bakoitzeko datuak luzetara irakurriz gero, ikus liteke emakumezko boluntarioen tasa oso handia dela adin goiztiarrenetan, txikitu egiten dela batez ere 30 urteetatik aurrera eta ostera gutxitzen dela 40 urteekin hasten den tartean, eta, azkenik, zertxobait igotzen dela 50 urteetatik aurrera. Gizonen kasuan, hasierako tasa askoz ere apalagoa da; 30 urteetatik aurrera

ere nabarmen gutxitzen da, baina emakumeen kasuan baino lehenago lehengoratzen da; 40 urteetatik aurrera tasa handitu egiten da, eta 50 urteetatik aurrera lortzen ditu kotarik handienak.

### Galdutako, gaur egungo eta izan litezkeen boluntarioen proportzioa biztanleria osoaren gainean. Emaitzak adinaren eta sexuaren arabera. %

5. TAULA

| | 18-29 urte | | 30-39 urte | | 40-49 urte | | 50-64 urte | | 65 urte edo gehiago | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak | Gizonak | Emakumeak |
| Galdutako boluntarioak | 12,9 | 15,6 | 8,8 | 16,1 | 11,1 | 11,0 | 8,8 | 6,3 | 5,8 | 5,4 |
| Gaur egungo boluntarioak | 8,5 | 26,2 | 5,6 | 8,5 | 6,2 | 7,4 | 9,9 | 7,9 | 6,6 | 4,6 |
| Boluntario potentzialak | 20,5 | 22,3 | 6,0 | 15,7 | 10,7 | 17,6 | 7,4 | 10,9 | 2,3 | 4,8 |
| Boluntario izateko probabilitate handia dutenak | 6,7 | 7,90 | 2,6 | 6,35 | 5,4 | 5,41 | 1,6 | 0,94 | 1,1 | 0,00 |
| Boluntario izateko probabilitate txikia dutenak | 13,8 | 14,43 | 3,4 | 9,38 | 5,4 | 12,16 | 5,7 | 9,96 | 1,2 | 4,82 |

Nahiz eta jendeak boluntario egiteko dituen arrazoiak askotarikoak izan, astia izatea da funtsezko faktoreetako bat, hala hasteko nola ez uzteko. Ikuspegi horretatik, *adinaren araberako tasen aldakuntza estuki lotuta dago biztanleen bizi-zikloekin*. Egiaztatu ahal izan denez, elkarri lotuta dago pertsona bat boluntario izatea eta pertsona horrek jarduerarekin duen erlazioa, bai eta boluntario izatea eta bere kargura seme-alabarik izatea edo ez izatea. Nolanahi ere, oso gogoan izan behar da aldagai horiek ez dietela modu berean eragiten gizonei eta emakumeei.

Datuen analisi orokorrak erakusten du *ikasleen artean dagoela boluntario aritzen direnen proportziorik handiena* (% 17,6), eta horren ondotik daudela langabeak eta landunak. Nahiz eta gainerako pertsona ez-aktiboen tasa batezbestekoa baino txikiagoa den, garrantzitsua da nabarmentzea ez duela egokiro islatzen errealitatea, aurrez 65 urtetik gorako biztanleen tasaren ka-

suan aipatu ditugun muga berberen ondorioz (kalkulua egiteko kontuan hartu den oinarriak gainerako kategorietan agertzen ez diren baldintzatzaile batzuk ditu, eta, beraz, ez da konparagarria). 6.3 atalean, gaur egungo boluntarioen profila deskribatzen denean, alderdi horren gaineko ikuspegi egokiago bat ematen da.

Nolanahi ere, gizonek eta emakumeek diferentzia handiak dituzte alde horretatik. Hala, gizonen artean langabeek dute gaur egungo boluntario-tasa handiena (% 10,1), eta ondoren ikasleek (% 8,5). Emakumeen kasuan, ikasleen taldeak lortzen ditu boluntario-tasarik handienak (% 27,3), eta ondoren emakume landunen taldeak (% 11). Aurretiazko azterlanek ez zuten langabeen artean halako boluntario-tasa handirik agertzen, eta litekeena da gaur egungo egoera ekonomikoak eragitea gizonezko langabe boluntarioen tasaren igoeran, landunen artean den boluntario-tasaren kaltetan.

Nahiz eta zuhur hartu behar diren «beste ez-aktibo batzuei» dagozkien tasen balioak, bai erakusten dute talde horretako emakumeek boluntario izateko asmo gutxiago dutela. Horrek zerikusia izan lezake gizonek eta emakumeek kategoria horretan duten profil desberdinarekin; badirudi ordainpeko lanetik erretirorako pausoak sustatu egiten duela boluntariotza gizonen artean, eta, aldiz, gaur egun aktibo ez daude emakumeetako asko lansaririk gabeko etxeko lanak egiten aritu izan direla eta ez dutela prozesu hori bizi izan.

**Gaur egungo boluntarioen proporatzioa, jarduerarekiko erlazioaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %**

6. TAULA

| | Guztira | Landunak | Langabeak | Ikasleak | Bestelako ez aktiboak |
|---|---|---|---|---|---|
| Orokorra (*) | 8,6 | 8,3 | 9,7 | 17,6 | 6,6 |
| Gizonak (*) | 7,4 | 6,0 | 10,1 | 8,5 | 8,0 |
| Emakumeak (*) | 9,7 | 11,0 | 9,3 | 27,3 | 5,6 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

2. oharra: Talde batzuetan kasuak gutxi dira; beraz, erakusten diren indizeak zuhurtziaz interpretatu behar dira.

Norberaren kargura seme-alaba mendekoak izateak ere ezartzen ditu alde esanguratsuak borondatezko jarduera bat egiteko orduan. Oro har, *seme-alabarik ez dutenen artean nabarmen handiagoa da boluntarioen ehunekoa, seme-alabak dituztenen artean baino* (% 9,6 eta % 5,8). Alabaina, nabarmen-

tzekoa da aldagaien arteko asoziazio hori berretsi dela emakumeen kasuan, eta, aldiz, diferentziak ez direla estatistikoki esanguratsuak gizonen kasuan; beraz, badirudi haiei ez diela modu berean eragiten.

**Gaur egungo boluntarioen proportzioa, seme-alabarik baduten edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %**

7. TAULA

| | Guztira | Badituzte seme-alabak | Ez dute seme-alabarik |
|---|---|---|---|
| Orokorra (*) | 8,6 | 5,8 | 9,6 |
| Gizonak | 7,4 | 4,6 | 8,3 |
| Emakumeak (*) | 9,7 | 6,8 | 10,8 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Sintesi moduan, esan daiteke 18 eta 30 urte bitartean, biztanle gehienak ikasten ari direnean, beren kargura mendeko pertsonarik ez dutenean eta eskuarki denbora libre gehiago izaten dutenean, boluntario-tasak handiagoak direla, baina batez ere nesken artean direla handiak. 30 eta 49 urte bitartean, lan- eta familia-erantzukizunek denbora gehiago eskatzen dute, eta horrek azal lezake zergatik egiten duten behera oro har boluntario-tasek, nahiz eta azpimarratu behar den adin-tarte horretan emakumeen artean oraindik ere handiagoa dela boluntario-tasa gizonen artean baino. 50 urtetik aurrera, aurretiko erretiroa eta erretiroa hartzeko prozesuek, bai eta seme-alaben emantzipazioak ere, bide ematen die biztanleei ostera ere denbora libre gehiago izateko eta tasa lehengoratu egiten da; dena dela, kasu honetan, boluntarioen proportzioa handiagoa da gizonen artean.

Zenbait lan-hipotesiri erantzun nahian, aldagaien artean beste gurutzaketa batzuk ere egin dira, horien eta boluntario izatearen artean loturarik ba ote den aztertzeko.

Batetik, ikasketa-mailaren eta boluntario-lanen bat egiteko aukeraren artean erlazio bat badela ikusten da; hain zuzen, *ikasketa-maila handienak dituztenen artean* (bigarren mailako ikasketak, LH edo unibertsitate-ikasketak) *boluntario-proportzioa nabarmen handiagoa da* ikasketarik ez dutenen edo oinarrizko ikasketak dituztenen artean baino.

Nolanahi ere, garrantzitsua da adieraztea biztanleria osoarentzat identifikatutako asoziazio horrek ez diela modu berean eragiten gizonei eta emakumeei; izan ere, soilik emakumeen kasuan dira diferentziak estatistikoki esanguratsuak.

## Gaur egungo boluntarioen proportzioa guztizkoaren gainean, ikasketa-mailaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

8. TAULA

| | Guztira | Ikasketarik ez | Oinarrizko ikasketak | Bigarren mailako ikasketak | Lanbide Heziketa | Erdi edo goi mailako unibertsitarioak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Orokorra (*) | 8,6 | 2,0 | 4,1 | 11,4 | 7,5 | 13,0 |
| Gizonak | 7,4 | 2,9 | 5,0 | 9,1 | 5,8 | 10,3 |
| Emakumeak (*) | 9,7 | 1,6 | 3,5 | 13,9 | 10,2 | 15,4 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2 < 0,05$).

2. oharra: Talde batzuetan kasuak gutxi dira; beraz, erakusten diren indizeak zuhurtziaz interpretatu behar dira.

Gainera, ikusi da erlazio esanguratsua dagoela lanbidearen eta borondatezko lanen bat egiteko aukeraren artean; hain zuzen, *gizarte-gaiekin loturiko lanbideak dituztenen artean* (arlo hauekin loturiko lanbideak: giza zientziak, gizarte-zientziak eta hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta politika, hirugarren sektorea zein gizarte-mugimenduak) *boluntarioen proportzioa nabarmen handiagoa da* gizarte-gaiekin zerikusia duen lanbiderik ez dutenen artean baino.

Nolanahi ere, ikasketa-mailekin gertatzen den bezala, biztanleria osoarentzat identifikatutako asoziazio horrek ez die modu berean eragiten gizonei eta emakumeei; izan ere, soilik emakumeen kasuan dira diferentziak estatistikoki esanguratsuak.

## Gaur egungo boluntario landunen proportzioa guztizkoaren gainean, lanbidearen arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak

9. TAULA

| | Landunak guztira | Gizarte-gaiekin loturiko lanbideak | Gizarte-gaiekin loturik ez dauden lanbideak |
|---|---|---|---|
| Orokorra (*) | 8,4 | 19,0 | 6,7 |
| Gizonak | 6,2 | 11,9 | 5,7 |
| Emakumeak (*) | 11,1 | 22,0 | 8,2 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

Ezin izan dugu egiaztatu kontsultatutako pertsonen maila sozioekonomikoak lotura garbirik ote duen borondatezko lanen bat egiteko probabilitatearekin; izan ere, norberaren diru-sarrerak[43] kontuan hartzen direnean nahiz etxeko diru-sarrerak hartzen direnean (alde batera utzita pertsona boluntarioak ekartzen dituen edo ez), kategoria bakoitzean erregistratutako tasen arteko aldeak ez dira esanguratsuak estatistikoki[44]. Alabaina, adierazi behar da *emakumezko boluntarioen proportzioa handiagoa dela hileko diru-sarrerak 3.000 eurotik gorakoak dituzten etxeetan bizi direnen artean; halakorik ez da gertatzen gizonen kasuan.*

### Gaur egungo boluntarioen proportzioa, etxeko hileko diru-sarreren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

10. TAULA

| | Guztira | Diru-sarrerarik ez | Hileko 1.000 € baino gutxiago | Hileko 1.001 eta 2.000 € bitartean | Hileko 2.001 eta 3.000 € bitartean | Hileko 3.001€ eta 5.000 € bitartean | Hileko 5.000 € baino gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Orokorra | 8,6 | 8,7 | 4,6 | 9,7 | 8,5 | 10,6 | 10,7 |
| Gizonak | 7,4 | 7,7 | 5,6 | 7,9 | 7,1 | 6,5 | 5,0 |
| Emakumeak | 9,7 | 10,0 | 4,0 | 11,6 | 10,3 | 15,9 | 25,0 |

Oharra: galdera honi erantzun ez diotenak % 31,3 izan dira; beraz, agertzen diren indizeak zuhurtziaz interpretatu behar dira.

Bestalde, nahiz eta azterlan honen asmoa ez den xeheki aztertzea parte-hartze sozialaren eremu zabala, inkestatutako pertsonen parte-hartze soziala modu orientagarrian neurtu da, erakunde edo gizarte-mugimendu jakin batzuekin, horietan boluntario izan zein ez izan, zenbaterainoko lotura duten kontuan hartuta. Hala, bereizketa hau egin da: elkarteren bateko kide diren pertsonak, alderdi politikoetan edo sindikatuetan aktiboki partaide direnak edo gizarte-mugimenduetan parte hartzen dutenak eta halakorik egiten ez dutenak.

Gaur egungo boluntarioen tasak inkestatutako pertsonen parte-hartze sozialaren arabera konparatzean –parte-hartzea lehen azaldutako eran ulertu-

[43] Gurutzaketa horri dagozkion datuak Eranskinean kontsulta daitezke.

[44] Kontuan hartu behar da aldagai horien arteko balizko erlazioa neurtzen duen proba estatistikoa fidagarria izateko beharrezkoa dela behar besteko lagin bat izatea, eta kasu honetan erantzun ez dutenen indizea handia da; beraz, interpretazioak zuhurtziaz egin behar dira.

ta–, *ikusten da gailendu egiten direla parte-hartze sozial aktiboagoaren profila dutenen artean* (% 15,1 eta % 1,4). Hau da, sumatzen da asoziazio bat parte-hartze sozial aktiboa izatearen eta borondatezko lanen bat egiteko probabilitatearen artean. Joera hori gizonetan zein emakumeetan ikusten da.

## Gaur egungo boluntarioen proportzioa, parte-hartze sozialaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

11. TAULA

| | Guztira | Parte hartzen du erakunde edo mugimendu sozialen batean | Ez du parte hartzen ezein erakunde edo mugimendu sozialetan |
|---|---|---|---|
| Orokorra (*) | 8,6 | 15,1 | 1,4 |
| Gizonak (*) | 7,4 | 12,6 | 0,9 |
| Emakumeak (*) | 9,7 | 17,7 | 1,8 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

Datuak xehekiago aztertuta, adierazi behar da pertsona boluntarioen proportzioa kasu guztietan parte hartzen duten pertsonen artean handiagoa bada ere, parte hartzen ez dutenekiko aldeak bereziki nabarmenak direla gizarte-mugimenduei eta parrokiei zein erakunde erlijiosoei loturiko pertsonen kasuan.

## Gaur egungo boluntarioen proportzioa, beren parte-hartzearen eta parte-hartze motaren arabera. Emaitza orokorrak. %

12. TAULA

| | Parte hartzen du | Ez du parte hartzen |
|---|---|---|
| Alderdi politikoak | 12,6 | 8,4 |
| Sindikatuak | 9,3 | 8,4 |
| Parrokiak edo erakunde erlijiosoak (*) | 24,6 | 7,3 |
| Kultur elkarteak (*) | 18,1 | 5,6 |
| Elkartasun-elkarteak (*) | 19,2 | 5,6 |
| Gizarte-mugimenduak (*) | 32,0 | 7,4 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

## 6.2. Inoiz boluntario izan ez diren biztanleak

Aurreko atalean esan den bezala, *euskal biztanleen zati handi bat (% 81,6) ez da behin ere boluntario izan* –ez iraganean eta ez gaur egun–. Biztanle horiek ere gertakariari buruz zer iritzi duten jakin nahian, bi galdera egin dizkiegu inoiz boluntario izan ez diren pertsonei: lehena, nagusiki zein arrazoirengatik ez diren behin ere boluntario izan; eta bigarrena, zer irizten dieten boluntariotzari eta boluntarioei.

### Zein dira arrazoi nagusiak biztanleak boluntariotzara ez hurbiltzeko?

*Inoiz boluntario ez izateko arrazoien artean, hauxe aipatu dute gehienik: «horretan aritzeko astirik ez dut, nire erantzukizunen ondorioz»; kontsultatutako pertsonen % 57,3k adierazi dute hori. Bigarren arrazoia, % 45,5ek aipaturikoa, «inoiz ez dut halakorik pentsatu» izan da, eta hirugarrena, «ez dut inolako interesik boluntario izateko edo jarduerak ez zaizkit interesatzen» (% 8,8,).*

Beraz, boluntario ez izateko arrazoi nagusiak ez dauka zerikusirik boluntariotzarekin berarekin, baizik eta alderdi pertsonalago bat aipatzen da, hala nola astirik ez izatea. Bigarrenak pentsarazten du biztanleriaren zati handi batek boluntario izateko aukera kontuan hartu ere egin ez badu, litekeena dela boluntariotza gizartean behar bezain agerikoa ez izatea. Bestalde, hirugarren arrazoia gogogabeziaren ikuspegiarekin lotzen da, ezaxolarekin, eta horrek urruntasun handiagoa agertzen du boluntariotzak esan nahi duenarekin.

Taulan agertzen den bezala, identifikatutako arrazoiak askotarikoak dira; hori dela eta, horietako asko ez dira oso maiz aipatu, baina horregatik ez dira adierazle batzuk alde batera utzi behar. Hala, aintzat hartu behar dira ondokook:

- Osasun-arazoak eta adina inoiz boluntario izan ez diren biztanleen % 6,5ek aipatu dituzte;
- % 5,1ek aipatu dute ez dagoela behar bezainbeste informazio erabilgarri (kontsultatutako pertsonen % 3,1ek diote ez dela aski borondatezko lanak nola eta non egin jakiteko duen informazioa; % 0,8k diote ez dutela ezagutzen boluntario den inor; eta % 1,2k adierazi dute ez dagoela aukerarik beren ingurune hurbilean boluntario-lanik egiteko).
- % 5ek nagitasuna edo iniziatibarik eza aipatu dituzte boluntario ez egiteko arrazoien artean;

– Badirudi biztanleen % 3,2 neurri batean ez direla fidatzen irabazi-asmorik gabeko erakundeez (% 2,1 nabarmen ez dira fidatzen, eta beste % 1,1ek adierazi dute ziurtasunik eza sortzen diela erakundeen atzean nor dagoen ez jakiteak);

– Inoiz boluntario izan ez diren biztanle kontsultatuen % 1,3k ikuspegi negatiboa daukate boluntariotzaren inguruan, eta ez daude ados horrek ordezkatzen duenarekin (zehazki, % 0,9k uste dute gizartea hobetzea erakunde publikoei dagokiela eta ez herritarrei; % 0,3k uste dute boluntariotzak lanpostuak kentzen dituela; eta % 0,1ek uste dute ez duela ezertarako balio).

## Inoiz boluntario ez izateko arrazoi nagusiak. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

13. TAULA

| Arrazoi nagusiak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Ez dut astirik horretan aritzeko, nire erantzukizunen ondorioz (lana, familia...) (*) | 57,3 | 50,3 | 64,1 |
| Inoiz ez dut halakorik pentsatu (*) | 35,5 | 42,7 | 28,5 |
| Ez dut inolako interesik boluntario izateko (*) | 8,8 | 11,9 | 5,8 |
| Nire adinak edo osasunak galarazi egiten didate (*) | 6,5 | 4,6 | 8,4 |
| Informazio gutxiegi | 5,1 | 4,6 | 5,6 |
| Informazioa falta zait, ez dakit non bilatu | 3,1 | 2,7 | 3,5 |
| Boluntario izateko aukerarik ez dago nire bizilekutik hurbil | 1,2 | 1,1 | 1,3 |
| Ez dut ezagutzen nire intereseko ezertan boluntario den inor | 0,8 | 0,8 | 0,8 |
| Nagitasuna edo iniziatibarik eza | 5,0 | 5,0 | 5,0 |
| Halako mesfidantza bat irabazi-asmorik gabeko erakundeetan | 3,2 | 3,9 | 2,5 |
| Ez naiz fidatzen irabazi-asmorik gabeko entitateez (elkarteak, GKEak...) | 2,1 | 2,7 | 1,6 |
| Erakundeen atzean nor dagoen ez jakiteak segurtasunik eza edo konfiantzarik eza sortzen dit. | 1,1 | 1,2 | 0,9 |

(…)

(…)

| Arrazoi nagusiak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Boluntariotzaren ikuspegi negatiboa | 1,3 | 1,4 | 1,3 |
| Gizartea hobetzea erakunde publikoei dagokie, ez herritarrei | 0,9 | 0,9 | 0,9 |
| Uste dut boluntariotzak lanpostuak kentzen dituela | 0,3 | 0,4 | 0,3 |
| Ez du ezertarako balio | 0,1 | 0,1 | 0,1 |
| Nahiago dut nire astialdia beste jarduera batzuetan erabili (aisialdia...) | 0,5 | 0,6 | 0,5 |
| Uste dut ez nagoela behar bezain trebatua | 0,3 | 0,3 | 0,4 |
| Nik parte har dezakedan jarduerak ez zaizkit interesatzen | 0,3 | 0,2 | 0,4 |
| Beste arrazoi batzuk | 5,5 | 5,6 | 5,4 |

Oharra: galdera hori erantzun anitzekoa da (gehienez hiru arrazoi inkestatutako pertsona bakoitzeko); beraz, ehunekoek ez dute % 100 egiten.
Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

*Emakumeen artean pisu handiagoa hartzen dute astirik ez izatearen eta adinarekin edo osasunarekin loturiko arrazoiek, eta alde handia ikusten da gizonei dagokienez. Gizonek, ostera, askoz ere irmotasun handiagoz aipatu dute ez dutela sekula halakorik pentsatu edo ez dutela interesik halako lanik egiteko.*

Datu horiek dezente hurbiltzen dira aurreko beste azterlan batzuetan bildutakoetara. Bizkaiko Foru Aldundiak 2008an egindako azterlanaren arabera[45], bizkaitar interesdunek borondatezko lanik ez egiteko arrazoi nagusia da ez dutela astirik, beste erantzukizun batzuen ondorioz (inkestatutako pertsonek faktore horri batez beste 7,9 puntu eman dizkiote, 0tik 10era bitarteko eskalan).

Estatu osorako bildutako datuek, CISek 2011n argitaraturikoek[46], hori nabarmentzen dute, eta agerian jartzen dute inkestatutako pertsonen % 35,6k aipatu dutela astirik eza jende gehiago ez izateko arrazoi gisa.

[45] Op. cit.

[46] Op. cit.

Inoiz boluntario izan ez diren biztanleek boluntariotzari eta boluntarioei buruzko iritziaren inguruan eman dituzten erantzunak hiru multzo handitan bildu dira: boluntariotzaren inguruan ikuspegi positiboa duten pertsonena; iritzi epela edo ezaxola adierazi dutenena; eta boluntariotza modu negatiboan baloratzen dutenena.

- *Boluntariotzaren gaineko iritzi positiboa:* boluntarioen balioak goraipatzen dituzten pertsonak dira (*eskuzabala da, altruista, elkartasunaren eta eskuzabaltasunaren adierazpena...*), meritua onartzen diete (*laudagarriak dira, goresgarriak, lan goraipagarria da, lan ezin baliotsuagoa, apartekoa, bikaina, primerakoa...*), bai eta emaitzak ere *(beharrezkoa da, baliagarria da, onura ekartzen dio gizarteari, oso garrantzitsua da, motorra da...)*.
- *Iritzi epela edo ezaxola:* talde hau osatzen dute, batetik, boluntariotza printzipioz gaizki iruditzen ez zaien pertsonak *(mundu guztia errespetatzen dut, bakoitzak nahi duena egin dezala*) baina boluntarioen ontasuna goraipatzen ez dutenak *(astia badute, gustuko badute...)*, eta, bestetik, horren inguruan iritzirik ez duten pertsonak (*ez zait interesatzen, ez dut gaia ezagutzen, ez dut iritzirik, e.a.)*.
- *Boluntariotzaren iritzi negatiboa:* boluntariotza baztertzen duten pertsonak dira, ez diotelako ez emaitzarik ez meriturik aitortzen; ikuspegi kritikoa dute erakundeen edo bertan laguntzaile dabiltzan pertsonen inguruan *(beti dago interesen bat atzean, iruzur handia dago, batzuk aprobetxatu egiten dira, negozio bat da, ez naiz fidatzen...)*, edo uste dute administrazioek erabili egiten dituztela *(hondatu dutena konpondu behar dute, instituzioek egin beharko lukete, lana kentzen du...)*.

*Inoiz boluntario izan ez diren pertsonen % 79k boluntariotzaren ikuspegi positiboa dute*, % 19,3k iritzi epela dute edo ezaxola dira, eta gainerako % 1,7k iritzi negatiboa dute.

Nahiz eta ez den alde handirik sumatu sexuari dagokionez, badirudi emakumeek ikuspegi zertxobait positiboagoa dutela gizonek baino: emakumeen % 81,8k eta gizonen % 76,1ek.

## Inoiz boluntario izan ez diren biztanleen banaketa, boluntariotzari eta boluntarioei buruz duten iritziaren arabera. Emaitza orokorrak. %

1. GRAFIKOA




## Inoiz boluntario izan ez diren biztanleen banaketa, boluntariotzari eta boluntarioei buruz duten iritziaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

2. GRAFIKOA




Inoiz boluntario izan ez diren gizonen hiru laurdenek baino gehixeagok (% 76,1) dute iritzi positiboa boluntariotzaren eta pertsona boluntarioen inguruan. Adinean aurrera egin ahala, zertxobait gutxitzen da portzentaje hori, eta, oro har, handitu egiten da iritzi epelagoa dutenena edo ezaxolago direnena, 65 urtetik gorakoen taldean izan ezik; izan ere, aurreko bi adin-taldeetakoek baino iritzi positiboagoa dute.

Inoiz boluntario izan ez diren emakumeen ia % 82k dute iritzi positiboa boluntariotzaren eta pertsona boluntarioen inguruan; iritzi hori ez da askorik aldatzen adinaren arabera.

**Inoiz boluntario izan ez diren biztanleen banaketa, boluntariotzari eta boluntarioei buruz duten iritziaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren eta sexuaren araberakoak. %**

14. TAULA

| Adina | Inoiz boluntario izan ez diren gizonak | | | Inoiz boluntario izan ez diren emakumeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Positiboa | Epela | Negatiboa | Positiboa | Epela | Negatiboa |
| 18 eta 29 bitartean | 82,3 | 17,0 | 0,7 | 80,9 | 18,1 | 1,1 |
| 30 eta 39 bitartean | 78,6 | 17,1 | 4,3 | 82,2 | 17,2 | 0,6 |
| 40 eta 49 bitartean | 73,8 | 23,8 | 2,4 | 81,1 | 18,9 | 0,0 |
| 50 eta 64 bitartean | 70,3 | 26,2 | 3,6 | 80,6 | 17,1 | 2,3 |
| 65 edo gehiago | 77,3 | 21,5 | 1,2 | 83,3 | 16,3 | 0,4 |
| **Guztira** | **76,1** | **21,3** | **2,6** | **81,8** | **17,3** | **0,9** |

## 6.3. Gaur egungo boluntarioen profila

Ikerlan honen lehentasunezko helburuetako bat da gaur egungo boluntarioen ezaugarriei buruzko ezagutza areagotzea. Gogorarazi behar da ikerlan honetan boluntariotza antolatuaren definizioa hartu dela kontuan, eta, beraz, soil-soilik gaur egun irabazi-asmorik gabeko erakunderen batean boluntario gisa parte hartzen duten 18 urteko edo gehiagoko pertsonak hartu direla aintzat, eta horiek, zehazki, adin nagusiko euskal biztanleen % 8,6 direla.

**Zein dira gaur egungo boluntariotzaren ezaugarriak?**
**Zein taldek osatzen dute gehienik?**

### Sexua

Kontsultaren bidez, *EAEko gaur egungo boluntario gehienak emakumeak direla* ikusi da: boluntarioen % 64,5 emakumeak dira, eta % 35,5 gizonak.

Kontuan hartuta kontsultatutako laginean –oro har biztanleriak duen banaketaren isla da– nahiko orekatua dela sexuaren araberako proportzioa, adierazitako datuek agerian jartzen dute emakumeek boluntariotzarekiko jarrera hobea dutela aurrez. Hori jasota geratu da lehenengo atalean agertutako tasetan ere (EAEko gizonen % 7,4 boluntarioak dira, eta emakumeen % 9,6).

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, sexuaren arabera. %** 3. GRAFIKOA




**Kontsultatutako biztanle guztien banaketa, sexuaren arabera. %** 4. GRAFIKOA




2010ean egindako Espainiako Gizartekintzako hirugarren sektorearen Urtekariaren arabera ere[47], nagusiki emakumeak dira boluntarioak (% 63,1).

[47] Op. cit.

## Adina

Kontsultatutako pertsona boluntario guztien batez besteko adina 49,89 urtekoa da, eta ia bat dator kontsultatutako pertsona guztien batezbestekoarekin (izan boluntario zein ez). Dena dela, kontuan hartu behar da ohiko desbiderapen handi horrek adin-barreiadura handia adierazten duela; izan ere, 18 urtetik 90 urtera bitarteko adinak hartzen ditu, eta, beraz, datu orokorra nolabaiteko zuhurtziaz hartu behar da.

Emakumezko boluntarioen batez besteko adina (49,20) txikiagoa izan ohi da gizonezko boluntarioena baino (51,14), nahiz eta gainerako estatistikek ez duten alde handirik adierazten.

### Gaur egungo boluntarioen adina. oinarrizko estatistikak

15. TAULA

| | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak | | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Batezbestekoa | 49,34 | 49,89 | 51,14 | 49,20 |
| Moda[48] | 39 | 68 | 53[49] | 50 |
| Mediana[50] | 48 | 51,00 | 53 | 50 |
| Ohiko desbiderapena[51] | 17,87 | 18,04 | 17,65 | 18,25 |
| Gutxieneko adina | 18 | 18 | 18 | 18 |
| Gehieneko adina | 92 | 90 | 80 | 90 |

Maiztasunak aztertuta, baiezta liteke *boluntarioen taldea nahiko heterogeneoa dela adinari dagokionez, nahiz eta azkeneko bi multzoetan (50 urtetik gorakoetan) boluntarioen % 53,6 biltzen diren.*

Datu horiek ez daude oso urrun 2008an aipaturiko lanean Bizkaiko Lurralde Historikorako jasotzen direnetatik[52]; izan ere, 30 urtetik beherako volunta-

[48] *Modak* gehien errepikatutako adina adierazten du.

[49] Kasu honetan, hainbat adin daude hein berean errepikatzen direnak. Horietatik denetatik baliorik txikiena erakusten da.

[50] *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

[51] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

[52] Op. cit.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, adinaren arabera. %

5. GRAFIKOA




rioen ehunekoa % 19koa zen orduan, eta kalkulatu zen boluntarioen % 48k 50 urte edo gehiago zituztela.

Azken datu horrek adieraz lezake boluntarioak zertxobait zaharrago direla; izan ere, lan hori egin zenetik igaro diren hiru urteetan, 50 urte baino gehiagoko boluntarioen ehunekoa 5,6 puntu handitu da.

Datu horiek kontsultatutako lagineko pertsona guztien adinaren araberako banaketarekin konparatuz gero, ikusten da *bai adin gehieneko pertsonak biltzen dituzten bi tarteak eta bai 30 urtetik beherako pertsonen tartea zertxobait gainordezkatuak daudela boluntarioen artean.* Adin-taldeek pertsona boluntarioen taldean duten pisua lotuta dago lehenengo atalean horietako bakoitzerako aztertutako indizeekin; hain zuzen, adierazi da boluntarioen proportzioa txikiagoa dela 30 eta 49 urte bitarteko biztanleen artean.

Joera hori bi sexuetan ikusten da, baina diferentzia batzuk nabarmendu behar dira horien artean. Zehazki, *ia 5 puntu gehiago da 50 urtetik gorako gizonezko boluntarioen ehunekoa, adin horretako emakumezko boluntarioena baino* (% 56,5 eta % 51,8 hurrenez hurren), eta, aldiz, *handiagoa da (6 puntu) 30 urtetik beherako emakumezko boluntarioen ehunekoa, gizonezko boluntarioena baino.*

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, adinaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

16. TAULA

| Adina | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak | | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| 18 eta 29 bitartean | 15,2 | 19,3 | 15,4 | 21,5 |
| 30 eta 39 bitartean | 19,7 | 12,0 | 13,2 | 11,3 |
| 40 eta 49 bitartean | 18,8 | 15,1 | 14,7 | 15,4 |
| 50 eta 64 bitartean | 23,6 | 27,2 | 28,7 | 26,3 |
| 65 edo gehiago | 22,7 | 26,4 | 27,9 | 25,5 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

## Bizilekua

Nahiz eta lehenengo atalean aurkeztutako tasei jarraiki Araban gainerako lurraldeetan baino handiagoa den boluntario izateko probabilitatea, biztanleria aldetik dauden aldeen ondorioz, *EAEko boluntario gehienak Bizkaian bizi dira* (% 58,7), gutxi gorabehera laurden bat Gipuzkoan bizi da (% 26,1), eta gainerako boluntarioak arabarrak dira (% 15,1).

Boluntarioek lurralde historikoaren arabera duten banaketa kontsultatutako biztanleen banaketaren oso antzekoa da, baina ikusten da Bizkaiko boluntarioak zertxobait gainordezkatuta daudela, eta Gipuzkoako boluntarioak, berriz, azpiordezkatua daudela.

Bestalde, adieraz liteke boluntarioen artean ordezkaritza handiagoa dutela Euskal Autonomia Erkidegoko hiru *hiriburuetako* batean bizi diren pertsonek; izan ere, berriki egindako zenbait azterlanetako datuekin bat etorriz, hor pilatzen dira boluntariotzako erakundeetako asko eta asko. Alde horretatik, Bizkaiko Hirugarren Sektorearen 2010eko Urtekarian argitaratutako datuen arabera[53], ikusten da populazio-gune handietatik kanpoko elkartegintza-sarea ahula dela. Zehazki, Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeen % 75 Bilbo Handian daude, eta % 42 Bilboko hirian.

[53] Op. cit.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, bizi diren lurralde historikoaren eta udalerriaren tamainaren arabera. Emaitza orokorrak. %

17. TAULA

| | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak |
|---|---|---|
| **Bizi diren lurralde historikoa** | | |
| Araba | 14,6 | 15,1 |
| Bizkaia | 53,5 | 58,7 |
| Gipuzkoa | 32,0 | 26,1 |
| **Guztira** | **100** | **100** |
| **Bizi diren udalerriaren tamaina** | | |
| 10.000 biztanle baino gutxiago | 22,6 | 24,3 |
| 10.000 – 120.000 biztanle | 37,9 | 30,5 |
| Hiriburua | 39,5 | 45,2 |
| **Guztira** | **100** | **100** |

## Jaioterria

*EAEn jaiotako euskal boluntarioen (% 77) hiru laurdenak baino zertxobait gehiago,* % 19,1, gainerako estatuan jaio dira, eta % 3,9 atzerrian. Datuek adierazten dute EAEn jaiotako biztanleek boluntarioen artean duten pisua zertxobait handiagoa dela kontsultatutako laginean duen pisua kontuan hartutako espero izatekoa zena baino.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, jaioterriaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

18. TAULA

| Jaioterria | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak | | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| EAE | 74,6 | 77,0 | 79,4 | 75,7 |
| Estatuko gainerako lekuak | 21,2 | 19,1 | 17,6 | 19,8 |
| Atzerria | 4,2 | 3,9 | 2,9 | 4,5 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Sexuaren arabera, ez da alde handirik ikusten, baina emakume boluntarioen artean atzerritarren proportzioa handiagoa da gizonezko boluntarioen artean erregistratutakoa baino.

## Egoera zibila

*Euskal boluntarioen erdiak baino gehiago (% 55,3) ezkonduta daude* eta herenak ezkongabeak dira (% 30,7). Ez da sumatzen alde handirik profil bakoitzak boluntarioen taldean duen pisuaren eta kontsultatutako biztanleriaren guztizkoan duen pisuaren artean.

Sexuaren arabera ikusten dira hainbat diferentzia azpimarragarri, hala nola boluntario guztiak emakumeak direla edo emakume ezkondu gutxiago dagoela gizonezko ezkonduak baino.

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, egoera zibilaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** 19. TAULA

| Egoera zibila | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak | | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Ezkonduak | 55,3 | 55,1 | 64,0 | 50,2 |
| Dibortziatuak / Bananduak (izatez, legez edo izapidetzen) | 3,8 | 2,6 | 2,2 | 2,8 |
| Ezkongabeak | 30,7 | 33,2 | 31,6 | 34,0 |
| Elkartze adostua, erregistratua edo erregistratu gabea (izatezko bikoteak...) | 2,3 | 3,1 | 2,2 | 3,6 |
| Alargunak | 7,9 | 6,0 | 0 | 9,3 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

## Etxe-mota

Euskal boluntarioen erdiak baino zertxobait gehiago (% 55,9) bikotekidearekin bizi dira, batzuk seme-alabarik gabe (% 28,3) eta beste batzuk seme-alabekin (% 27,6). % 19,4 gutxienez gurasoetako batekin bizi dira, eta % 10,2 bakarrik bizi dira.

Boluntarioren bat bizi den etxeen % 82,5etan, bi eta lau pertsona bitartean bizi dira. Gainera, boluntarioen % 22k seme-alaba mendekoak dituzte beren kargura, % 10ek adineko pertsonak dituzte beren kargura, eta % 5ek desgaitasunen bat duten pertsonak.

Datuek erakusten dute boluntarioen artean azpiordezkaturik daudela seme-alabak dituzten etxe nuklearretako pertsonak (non eurak diren bikotekideetako bat); izan ere, boluntario guztien % 27,6 dira, eta biztanleria osoa aintzat hartuta, berriz, % 34,2 dira. Aldiz, gainordezkaturik daude bikotekidearekin bizi diren seme-alabarik gabeko pertsonak; talde hori boluntario guztien % 28,3 dira, eta kontsultatutako biztanleen % 22,7.

Datu horiek bat datoz lehen atalean adierazitakoarekin; izan ere, tasek adierazi dute boluntario gehiago dagoela gazteen artean, batez ere beren kargura seme-alaba mendekorik ez duten emakumezkoen artean (beren kargura seme-alabak dituztenen % 9,6 dira boluntario, eta ehuneko hori % 5,8ra jaisten da seme-alabarik ez dutenen artean).

Azpimarratzekoa da boluntarioen artean proportzio handiagoa ikusi dela beren kargura desgaitasunen bat duten pertsonak dituzten biztanleen artean, oro har erregistratutakoa baino (% 5 eta % 3,2 hurrenez hurren). Datu hori bereziki egon liteke lotuta borondatezko lana pertsona kaltetuen erakundeetan egiten duten pertsonekin.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, etxe-motaren, etxearen tamainaren eta beren kargura mendeko pertsonak izatearen edo ez izatearen arabera. Xedapen orokorrak. %

20. TAULA

| | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak |
|---|---|---|
| **Bizi diren etxe mota** | | |
| Bakarrik bizi naiz | 10,3 | 10,2 |
| Beste pertsona batzuekin bizi naiz baina ez dugu familia-nukleorik osatzen | 3,0 | 2,9 |
| Bikotekidearekin bizi naiz, seme-alabarik gabe | 22,7 | 28,3 |
| Gurasoekin bizi naiz | 13,2 | 14,7 |
| Bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi naiz | 34,2 | 27,6 |

(…)

(...)

| | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak |
|---|---|---|
| Aitarekin edo amarekin bizi naiz (bietako batekin bakarrik) | 4,9 | 4,7 |
| Seme-alabekin bakarrik bizi naiz | 3,5 | 3,7 |
| Familia-nukleo zabala (beste ahaide batzuk bizi dira familia-nukleoarekin) | 8,2 | 7,9 |
| **Guztira** | **100** | **100** |
| **Etxearen tamaina** | | |
| Bat | 10,2 | 10,2 |
| Bi | 31,4 | 36,0 |
| Hiru | 26,3 | 24,8 |
| Lau | 24,8 | 21,7 |
| Bost edo gehiago | 7,3 | 6,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** |
| **Mendekoak kargura dituztenak (oharra)** | | |
| Pertsona nagusiak | 10,8 | 10,0 |
| Seme-alabak | 28,0 | 22,0 |
| Ezgaitasunen bat duten pertsonak | 3,2 | 5,0 |
| Beste mendeko pertsona batzuk | 0,3 | 0,5 |

Oharra: datuek ez dute % 100 egiten, ematen den informazioa hainbat galderari dagokielako (mendeko pertsonen talde bakoitzeko bat).

## Ikasketa-maila

*Gaur egungo boluntarioen % 42k erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte*, diferentzia handia, baldin eta talde horrek kontsultatutako biztanlerian zer pisu duen kontuan hartzen bada (% 27,4); beraz, horrek adierazten du gaur egungo boluntarioen ezaugarrietako bat goi mailako ikasketak izatea dela. Datu horiek bat datoz lehenengo atalean aurkezturikoekin; izan ere, gaur egun boluntario-lanak egiten dituzten eta goi-mailako ikasketak dituzten biztanleak % 13 direla kalkulatu da; tasa hori batezbestekotik ia bost puntura dago.

Talde horrek du pisurik handiena hala gizonezko boluntarioen artean nola emakumezko boluntarioen artean; dena dela, kontuan hartu behar da emakumezko boluntarioen bereizgarria dela oinarrizko ikasketak dituzten pertsona gehiago izatea, eta lanbide-heziketako ikasketak dituzten emakumeek ordezkaritza txikiagoa dutela.

Datu horiek bat datoz 2008ko Bizkaiko boluntariotzari buruzko azterlanean erregistratutakoekin[54]; izan ere, bertan ezarritakoaren arabera, % 42 ziren erdi-goi mailako eta goi-mailako ikasketak zituzten bizkaitar boluntarioak.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, ikasketa-mailaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

21. TAULA

| Ikasketa-maila | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak (*) | | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Ikasketarik ez | 3,8 | 1,6 | 0,7 | 2,0 |
| Oinarrizko ikasketak (OHO, oinarrizko Batxilergoa, Lehen Hezkuntza) | 28,9 | 19,8 | 14,7 | 22,7 |
| Bigarren mailako ikasketak (DBH, goi-mailako Batxilergoa, IEE, BBB, UBI) | 19,2 | 19,8 | 19,9 | 19,8 |
| Erdi mailako edo goi mailako Lanbide Heziketa | 20,7 | 16,7 | 22,1 | 13,8 |
| Erdi-goi mailako ikasketak eta goi-mailako ikasketak (diplomatura, lizentziatura eta abar) | 27,4 | 42,0 | 42,6 | 41,7 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

Ikasketa-mailaren eta adinaren aldagaiak argiro daude elkarri lotuta; hala, 65 urtetik gorako pertsonen taldeak behe-mailako ikasketak dituzten biztanle gehiago ditu, eta gazteenen taldearen bereizgarria da batezbestekotik gorako ikasketa-mailak dituela.

Hori dela eta, biztanle boluntarioen ikasketa-mailaren datuak haien adinaren arabera bereizita ikusi nahi izan ditugu. Pertsona boluntario adintsuenen

[54] Op. cit.

taldean, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa boluntario guztien batezbestekotik behera dago (batez ere gazteenei esker igotzen da batezbestekoa). Alabaina, adin gehieneko taldearen datuak ikustean, berariaz detektatzen da talde horretan goi-mailako ikasketak dituzten pertsona boluntarioek (are batezbestekoa baino talde txikiagoa izanik ere) askoz ere pisu espezifiko handiagoa dutela oro har biztanleriaren artean erregistratzen dena baino. Adineko pertsona boluntarioen % 27,7 unibertsitatetik igaro dira, eta kontsultatutako adin bereko biztanleen multzoan, ostera, ehunekoa % 12,2koa da.

*Guztiarekin, esan liteke adineko boluntarioen bereizgarria dela beren adin-taldearen batezbestekotik gorako ikasketa-mailak izatea.*

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, ikasketa-mailaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %**

22. TAULA

| Ikasketa-maila | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak (*) | | | | | | Kontsultatutako biztanleria |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago | 65 edo gehiago |
| Ikasketarik ez | 3,8 | 1,6 | 0 | 0 | 0 | 1,9 | 4,0 | 13,8 |
| Oinarrizko ikasketak (OHO, oinarrizko Batxilergoa, Lehen Hezkuntza) | 28,9 | 19,8 | 1,4 | 2,2 | 8,6 | 22,1 | 45,5 | 56,6 |
| Bigarren mailako ikasketak (DBH, goi-mailako Batxilergoa, IEE, BBB, UBI) | 19,2 | 19,8 | 41,9 | 8,7 | 13,8 | 21,2 | 10,9 | 8,2 |
| Erdi mailako edo goi mailako Lanbide Heziketa | 20,7 | 16,7 | 9,5 | 28,3 | 19,0 | 20,2 | 11,9 | 9,2 |
| Erdi-goi mailako ikasketak eta goi-mailako ikasketak (diplomatura, lizentziatura eta abar) | 27,4 | 42,0 | 47,3 | 60,9 | 58,6 | 34,6 | 27,7 | 12,2 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

## Jarduerarekiko erlazioa

*Euskal boluntarioen ia heren bat inoren kontura ari da lanean, eta % 40,4 ez dago aktibo* (halakotzat hartuta lanerako desgaitasunen bat dutenak, erretiratuak edo aurretiko erretiroa hartu dutenak, etxeko lanak egiten dituztenak eta lanik bilatzen ez dutenak, ikasleak alde batera utzita). Langabeak % 12,1 dira, ikasleak % 9,2, eta beren kontura lanean ari diren pertsonak % 5,8. Taldean gehiengo diren bi taldeak bi sexuetan dira hala, eta ez da alde esanguratsurik ikusten.

Datu horiek nabarmen dira desberdinak 2008ko Bizkaiko Boluntariotzari buruzko azterlanean erregistratutakoetatik[55]; izan ere, orduan inoren kontura aritzen ziren soldatapeko langileen pisua handiagoa zen (% 44) eta ez-aktiboena txikiagoa (% 36). Gainera, % 7 beren kontura aritzen ziren soldatapekoak ziren, % 7 ikasleak, eta % 4 lanik gabe zeudenak. 2008ko estatuko estatistika-erreferentziek ere[56] boluntarioen proportzio handiagoa agertzen zuten biztanle landunen artean; beraz, serioski pentsa liteke gaur egungo egoera ekonomikoa boluntario-aldaketan eragiten ari dela. Hau da, arrazoia ez da hainbeste boluntarioak aldatu direla, baizik eta boluntarioen inguruabar pertsonalak aldatu direla (lana galtzea).

Azken hiru urtean, aldakuntza hau izan da: lanik gabe dauden pertsonen pisua areagotu egin da eta gutxitu egin da pertsona landunen proportzioa boluntarioen artean; hori, neurri batean, krisiko egoera ekonomikoak azal lezake. Baina, gainera, *«ez-aktiboak» kategorian* sailkatutako boluntarioak, *ikasleez harago*, ugaritu egin dira, eta boluntarioen artean ordezkaritza handiena duten taldea bihurtu dira; hori bat dator adineko pertsonen proportzioaren igoerarekin ere.

Lehenengo atalean esan den bezala, pertsona ez-aktiboak nahasirik zeuden boluntarioen tasan eta ezin zen errealitate hori ikusi, baina hurrengo taulako datuek erakusten dute talde horren proportzioa handiagoa dela boluntarioen artean oro har biztanleen artean baino; talde horiek (ikasleak, erretiratuak...) hasiera batean asti gehiago izatearekin lotzen da hori.

Soldatapeko biztanle boluntarioen kontratu-motari buruzko datuek ez dirudi erlaziorik dutenik boluntario izateko probabilitatearekin. Inoren kontura lanean ari diren euskal boluntarioen hiru laurdenek kontratu mugagabea dute, eta gainerakoek iraupen mugatukoa; antzeko banaketa dago kontsultatutako biztanlerian ere.

[55] Op. cit.

[56] Op. cit.

Lanaldi-motak, ordea, hauxe erakusten du: gaur egungo boluntario landun gehienak (% 70,6) lanaldi osoz aritzen badira ere, *lanaldi partziala* duten pertsonen proportzioa ehuneko hamar puntu gehiago dela kontsultatutako biztanleria osoarena baino. Kasu honetan, sexuaren araberako diferentziak esanguratsuak dira; hala, emakumezko boluntarioen artean gizonezkoen artean baino handiagoa da lanaldi partziala duten pertsonen proportzioa, baina, neurri handi batean, oro har biztanlerian horri dagokionez sexuen artean dagoen distantziaren isla da hori.

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, jarduerarekiko erlazioaren, lan-kontratu motaren eta lanaldi-motaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %**

23. TAULA

| | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduerarekiko erlazioa** | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Inoren konturako landunak | 35,7 | 32,5 | 31,9 | 32,9 |
| Beren konturako landunak (autonomoak) | 7,4 | 5,8 | 5,2 | 6,1 |
| Langabeak | 14,4 | 12,1 | 14,8 | 10,6 |
| Ikasleak | 7,0 | 9,2 | 7,4 | 10,2 |
| Beste ez aktibo batzuk | 35,4 | 40,4 | 40,7 | 40,2 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |
| **Lan-kontratu mota (soldatapekoak)** | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Mugagabea | 79,1 | 76,0 | 81,0 | 73,4 |
| Mugatua | 20,9 | 24,0 | 19,0 | 26,6 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |
| **Lanaldi mota (landunak)** | Guztira | Guztira (*) | Gizonak | Emakumeak |
| Egun osoz | 80,3 | 70,6 | 83,7 | 63,8 |
| Egun zatiz | 16,8 | 26,6 | 14,3 | 33,0 |
| Lanaldi murriztua | 2,9 | 2,8 | 2,0 | 3,2 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

Jarduerarekiko erlazioa neurri handi batean adinarekin loturik dagoen heinean, hurrengo taulan ikus daiteke modu esanguratsuan dela desberdina talde bakoitzak adin-tarte bakoitzean duen pisua.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, jarduerarekiko erlazioaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

24. TAULA

| Jarduerarekiko erlazioa | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak (*) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | 18 eta 29 bitartean | 30 eta 39 bitartean | 40 eta 49 bitartean | 50 eta 64 bitartean | 65 edo gehiago |
| Inoren konturako landunak | 35,7 | 32,5 | 35,1 | 63,0 | 57,9 | 34,0 | 1,0 |
| Beren konturako landunak (autonomoak) | 7,4 | 5,8 | 4,1 | 6,5 | 14,0 | 7,8 | 0 |
| Langabeak | 14,4 | 12,1 | 16,2 | 23,9 | 22,8 | 7,8 | 2,0 |
| Ikasleak | 7,0 | 9,2 | 43,2 | 2,2 | 0 | 1,9 | |
| Beste ez-aktibo batzuk | 35,4 | 40,4 | 1,4 | 4,3 | 5,3 | 48,5 | 97,0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

## Lanbidea

Beste kontu interesgarri bat pertsona boluntarioen lanbidearekin loturikoa da. Erantzunak bi multzo handitan bildu ditugu: gizarte-gaiekin loturiko lanbidea duten pertsonena eta gizarte-gaiekin loturiko lanbiderik ez dutenena.

- *Gizarte-gaiekin loturiko lanbideak:* arlo hauekin loturiko lanbideak dira: giza zientziak (historiagileak, filosofoak, abokatuak...), gizarte-zientziak eta hezkuntza (psikologoak, gizarte-hezitzaileak, irakasleak, soziologoak, pedagogoak, psikopedagogoak eta abar), gizarte-zerbitzuak (gizarte-langileak, begiraleak, zaintzaileak...) eta politika, Hirugarren Sektorea edo gizarte-mugimenduak (sindikalistak, politikariak, kooperatzaileak...). Epigrafe honetatik kanpo utzi dira, nahita, osasun-arloarekin loturiko lanbideak.
- *Gizarte-gaiekin loturik ez dauden lanbideak:* epigrafe honen barruan biltzen dira aurreko taldean sartzen ez diren lanbide guztiak. Horien artean sartzen dira ingeniaritza guztiak (teknikoak, informatikoak eta abar), osasun-arloa-

ri loturikoak (medikuntza, erizaintza, laguntzaileak, lantalde teknikoa eta abar), langileak, lantalde teknikoa, funtzionarioak, eta, azken batean, lehen taldean ez dauden guztiak.

Nahiz eta galdera honi erantzun ez diotenen indizea handia izan den, esan liteke euskal boluntarioen zati handi batek (% 69,9) ez duela gizarte-gaiekin loturiko lanbide bat.

**Gaur egungo biztanle boluntarioen banaketa, lanbidearen arabera. Emaitza orokorrak. %** 6. GRAFIKOA




Dena dela, sexuaren arabera bereizitako datuek erakusten dute gaur egungo emakumezko boluntarioen artean gizonezkoen artean baino nabarmen handiagoa dela ordainpeko jarduera gizarte-arloarekin lotua duten profesionalen proportzioa.

**Gaur egungo biztanle boluntarioen banaketa, lanbidearen arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** 7. GRAFIKOA



Gizarte-gaiei loturik ez dauden lanbideak dira gehienak aztertutako adin-talde guztietan, eta bereziki nabariak dira 50 eta 64 urte bitartekoen artean.

### Gaur egungo biztanle boluntarioen banaketa, lanbidearen arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren eta sexuaren araberakoak. %

25. TAULA

| Adina | Gizonezko boluntarioak | | Emakumezko boluntarioak | |
|---|---|---|---|---|
| | Ez dute loturarik gizarte--gaiekin | Badute lotura gizarte--gaiekin | Ez dute loturarik gizarte--gaiekin | Badute lotura gizarte--gaiekin |
| 18 eta 29 bitartean | 75,0 | 25,0 | 52,9 | 47,1 |
| 30 eta 39 bitartean | 88,9 | 11,1 | 61,5 | 38,5 |
| 40 eta 49 bitartean | 85,7 | 14,3 | 54,5 | 45,5 |
| 50 eta 64 bitartean | 92,3 | 7,7 | 66,7 | 33,3 |
| 65 edo gehiago | – | – | – | – |
| **Guztira** | **87,9** | **12,1** | **58,0** | **42,0** |

Oharra: Galdera honi erantzun ez diotenen indizea handia da, guztizkoaren % 62,6 hain zuzen; beraz, emaitzak zuhurtziaz interpretatu behar dira.

## Maila sozioekonomikoa

Oro har, datuek ez dirudi egiaztatzen dutenik boluntario-taldearen bereizgarria diru-sarrera pertsonal asko edo gutxi dituzten pertsona gehiago izatea denik; izan ere, hileko diru-sarreren araberako banaketa kontsultatutako biztanle guztien inguruan erregistratutakoaren oso antzekoa da. Hala ere, maila sozioekonomikoaren erreferentziarik onentzat etxeko diru-sarrerak hartzean, ikus liteke boluntarioen artean dezente txikiagoa dela diru-sarrerarik ez duten edo hileko 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa, kontsultatutako biztanleen guztizkoarekin alderatuz gero.

Dena dela, sexuaren araberako diru-sarrera propioei buruzko datuak bereiziz gero ikusten dira desberdintasunak gizonezko boluntarioen eta emakumezkoen profilean. Emakumezko boluntarioen artean, diru-sarrerarik ez duten edo 1.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten pertsonen propor-

tzioa nabarmen da handiagoa, eta 3.000 eurotik gorako diru-sarrera pertsonalak dituzten emakumezko boluntarioen pisua, ostera, askoz ere txikiagoa da gizonezko boluntarioen kasuan erregistratutakoa baino. Nolanahi ere, garrantzitsua da kontuan izatea etxeko diru-sarrera guztiak kontuan hartzen dituzten datuak oso antzekoak direla gizonen eta emakumeen artean; beraz, adierazitako aldeak emakume batzuek duten mendekotasun ekonomikoaren isla izan litezke.

26. TAULA

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, diru-sarrera pertsonalen eta etxeko diru-sarreren arabera, sexua kontuan hartuta. %

| | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak | | |
|---|---|---|---|---|
| **Hileko diru-sarrera propioak (1. oharra)** | Guztira | Guztira (*) | Gizonak | Emakumeak |
| Hileko 1.000 € baino gutxiago | 32,5 | 28,9 | 19,5 | 34,1 |
| Hileko 1.000 eta 2.000 € bitartean | 35,3 | 37,7 | 47,5 | 32,2 |
| Hileko 2.000 eta 3.000 € bitartean | 8,9 | 9,3 | 16,1 | 5,6 |
| Hileko 3.000 eta 5.000 € bitartean | 1,4 | 0,9 | 1,7 | 0,5 |
| 5.000 € baino gehiago | 0,04 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Ez zuen diru-sarrerarik izan | 21,8 | 23,2 | 15,3 | 27,6 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |
| **Etxeko hileko diru-sarrerak (2. oharra)** | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Hileko 1.000 € baino gutxiago | 21,5 | 13,3 | 10,5 | 14,9 |
| Hileko 1.000 eta 2.000 € bitartean | 40,9 | 46,0 | 47,4 | 45,2 |
| Hileko 2.000 eta 3.000 € bitartean | 23,8 | 24,7 | 28,4 | 22,6 |
| Hileko 3.000 eta 5.000 € bitartean | 10,9 | 13,7 | 11,6 | 14,9 |
| 5.000 € baino gehiago | 1,6 | 1,1 | 1,1 | 1,1 |
| Ez zuen diru-sarrerarik izan | 21,5 | 1,1 | 1,1 | 1,2 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2 < 0,05$).
1. eta 2. oharra: kasu honetan, beharrezkoa da kontuan izatea ugari direla kontu ekonomikoei buruzko galderei erantzun ez dieten pertsonak, kasuen % 13,3 hileko diru-sarrera propioei dagokienez, eta % 31,3 etxeko hileko diru-sarrerei dagokienez. Horregatik, bi aldagaien arabera ematen diren emaitzak zuhurtziaz interpretatu behar dira.

## Parte-hartze soziala

Lehenengo atalean adierazitakoaren osagarri, boluntarioen artean gizartean aktiboki parte hartzen duten pertsonek zer presentzia duten ikusi nahi izan dugu.

Batez ere, nabarmentzekoa da boluntarioen % 49,3, boluntario gisa egiten duten lanaz harago, kulturarekin, kirolarekin, hezkuntzarekin, aisiarekin eta abarrekin loturiko elkarteren bateko kide direla. Ehunekoa % 24ra jaisten da, kontsultatutako biztanleria osoa kontuan hartzen bada. Bestalde, euskal boluntarioen % 16,8k era bateko zein besteko gizarte-mugimenduetan parte hartzen dute, eta biztanleria orokorrean, ostera, % 4,8 inguru dira.

Boluntarioen artean, hainbat diferentzia ikusten dira sexuaren arabera, biztanleria osoan ere badauden diferentzien isla; gizonezko boluntarioen % 8,9k alderdi politikoren batean parte hartzen dute, eta soilik emakumezko boluntarioen % 3,2k.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, parte-hartze sozialaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

27. TAULA

| Parte-hartze soziala (2. oharra) | Kontsultatutako biztanleria | Pertsona boluntarioak | | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| Alderdi politikoa | 3,7 | 5,2 (*) | 8,9 | 3,2 |
| Sindikatuak, elkarte/elkargo profesionalak, enpresa-elkarteak | 16,3 | 16,2 | 15,6 | 16,6 |
| Parrokiak edo beste era bateko erakunde erlijiosoak | 7,4 | 28,8 | 23,7 | 31,6 |
| Kultur, kirol, hezkuntza edo aisialdiarekin loturiko elkarteak | 24,0 | 49,3 (*) | 57,4 | 44,9 |
| Elkartasun-elkarteak (taldeentzako laguntza edo sustapena, GKE, giza eskubideak, eta abar. | 21,8 | 57,7 | 54,4 | 59,5 |
| Gizarte-mugimenduak (bakezaletasuna, feminismoa, globalizazioaren aurkakoak, ekologismoa, auzokoak, ingurumena eta abar) | 4,8 | 16,8 | 17,8 | 16,2 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2 < 0,05$).

2. oharra: datuek ez dute % 100 egiten, ematen den informazioa hainbat galderari dagokielako (mendeko pertsonen talde bakoitzeko bat).

Ondoren, gaur egungo boluntarioen profila zehazten duten elementu nagusien laburpen bat azaltzen da:

## Gaur egungo boluntarioen profila zehazten duten elementu nagusiak. %

8. GRAFIKOA



## 6.4. Gaur egungo borondatezko ekintzaren ezaugarriak

Atal honetan, ondoko galdera hauei erantzuten saiatuko gara: gaur egun EAEn boluntario diren pertsonek noiz hasi zuten beren boluntario-ibilbidea eta zein diren boluntarioak laguntzaile darabiltzaten erakundeen ezaugarriak. Bestalde, atal honetan gaur egungo boluntarioek zer-nolako jarduerak egiten dituzten azaltzen da, dedikazio mota, maiztasuna eta intentsitatea kontuan hartuta.

### Zer adinetan hasten da boluntario-esperientzia? Zenbat irauten du boluntario-esperientziak? Zenbateraino eteten da?

Bildutako datuekin bat etorriz, ez dirudi adin zehatzik dagoenik boluntario izaten hasteko; bada 12 urterekin hasi zenik eta boluntariotzan lehen esperientzia 78 urterekin izan zuenik. *Hala gizonek nola emakumeek halako lanetan hastean zeukaten batez besteko adina 35 urtekoa da*, baina ohiko desbiderapenak ohartarazten du datuak heterogeneoak direla eta beste parametro batzuk kontuan hartzera behartzen du.

**Gaur egungo boluntarioek hastean zeukaten adina. Oinarrizko estatistikak** — 18. TAULA

| Hastean zeukaten adina | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Media | 34,92 | 34,75 | 35,01 |
| Mediana[57] | 30 | 30 | 30 |
| Moda[58] | 18 | 17 | 18 |
| Ohiko desbiderapena[59] | 17,64 | 17,67 | 17,66 |
| Gutxienez | 12 | 13 | 12 |
| Gehienez | 78 | 72 | 78 |

[57] *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

[58] *Modak* gehien errepikatutako adina adierazten du.

[59] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

Errealitaterik ohikoena (moda) da gutxi gorabehera 18 urterekin hastea; gainera, kontsultatutako biztanleen erdiak 30 urte baino gutxiagorekin hasi zuten boluntariotzan beren ibilbidea, eta beste erdiak adin horretatik aurrera hasi zuten. Alde horretatik ere ez da sumatu alde esanguratsurik gizonen eta emakumeen artean.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, hastean zeukaten adinaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

29. TAULA

| Hastean zeukaten adina | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| 18 baino gutxiago | 17,5 | 21,1 | 15,6 |
| 18 eta 30 bitartean | 33,2 | 30,8 | 34,4 |
| 31 eta 45 bitartean | 20,4 | 20,3 | 20,5 |
| 46 eta 65 bitartean | 24,7 | 24,1 | 25,0 |
| 65 baino gehiago | 4,2 | 3,8 | 4,5 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

2008ko Bizkaiko azterlanaren arabera[60], boluntarioek borondatezko jardueretan hastean zeukaten batez besteko adina 32,4 urtekoa zen (dena dela, lan horretan erregistratutako ohiko desbiderapenak barreiadura handia zegoela ematen zuen aditzera), lan honetan azaldutakoaren oso antzekoa.

Boluntario gisa egindako ibilbide osoa kontuan hartuta, gaur egun EAEn boluntario diren pertsonek *batez beste 15 urteko esperientzia dute*, zertxobait gehiago gizonezko boluntarioen kasuan. Dena dela, kontuan hartu behar dira datu estatistiko batzuk; izan ere, horien arabera, balio ohikoena 2 urteko esperientzia izatea (moda) da, eta gaur egungo boluntarioen erdiek lanean 10 urte baino gutxiago daramatzate eta beste erdiek denbora hori gainditu dute (mediana).

[60] Op. cit.

## Gaur egungo boluntarioek boluntariotzan daramaten denbora (beren bizitzan zehar) emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. Oinarrizko estatistikak

30. TAULA

| Bizitzan zehar boluntario egindako denbora | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 15,52 | 17,15 | 14,62 |
| Mediana[61] | 10 | 11 | 9 |
| Moda[62] | 2 | 5 | 2 |
| Ohiko desbiderapena[63] | 14,7 | 15,76 | 14,04 |
| Gutxienez | 0 | 0 | 0 |
| Gehienez | 76 | 76 | 60 |

Zehazki % 51,9k 10 urte baino gehiago daramatzate boluntario (hamar pertsonatik hiruk 20 urte baino gehiago daramatzate), eta % 24,3k 5 urte baino gutxiagoko esperientzia dute. Ez da ikusi alde esanguratsurik sexuaren arabera, nahiz eta gizonen artean boluntario beteranoen ehunekoa handiagoa den emakumeen artean baino.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario gisa daramaten denboraren arabera (beren bizitzan zehar) emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

31. TAULA

| Bizitzan zehar boluntario egindako denbora | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| 5 urte baino gutxiago | 24,3 | 20,6 | 26,3 |
| 5 eta 9 urte bitartean | 23,8 | 22,1 | 24,7 |
| 10 eta 19 urte bitartean | 21,1 | 22,8 | 20,2 |
| 20 urte baino gehiago | 30,8 | 34,6 | 28,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

61 *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

62 *Moda* gehien errepikatutako balioa da.

63 *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

Aipaturiko 2008ko Bizkaiko boluntariotzari buruzko azterlanean jasotako datuen arabera[64], boluntarioak ez dira hain beteranoak; izan ere, bizkaitar boluntarioen % 45,5ek 10 urte zeramatzaten jardun horretan. 2010eko Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Urtekariko datuek[65], ordea, kopuru antzekoago bat ematen dute: boluntarioen % 49k 10 urtetik gorako esperientzia dute.

Nahiz eta boluntario gehienek modu jarraituan egiten duten lan, boluntarioen *% 15,9k onartu dute inoiz edo behin eten dutela borondatezko lana*. Sexuaren arabera ez da nabari alde esanguratsurik, nahiz eta inoiz borondatezko lana eten duten gizonen ehunekoa arinki handiagoa den emakumeena baino (% 18,4 gizonezkoen kasuan, eta % 14,6 emakumezkoen kasuan).

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, borondatezko lana eten duten edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

32. TAULA

| Borondatezko lana etetea | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Jarraitua denboran zehar | 84,1 | 81,6 | 85,4 |
| Inoiz etena | 15,9 | 18,4 | 14,6 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, borondatezko lana eten duten edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

33. TAULA

| Borondatezko lana etetea (*) | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jarraitua denboran zehar | 84,1 | 83,8 | 78,3 | 70,7 | 85,6 | 93,1 |
| Inoiz etena | 15,9 | 16,2 | 21,7 | 29,3 | 14,4 | 6,9 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

[64] Op. cit.

[65] Op. cit.

Adina kontuan hartuta, diferentzia estatistikoki esanguratsuak aurkitzen ditugu. 65 urte edo gehiagoko pertsonak dira egonkorrenak jarraitutasunari dagokionez (% 6,9k inoiz edo behin eten dute lan hori), eta 30 eta 49 urte bitartekoen artean etetearen ehunekoak areagotu egiten dira.

Aurrez aipaturikoarekin bat etorriz, datuek erakusten dute pertsona ez-aktiboak (ikasleak alde batera utzita) izan direla borondatezko lana gutxien eten dutenak (% 9,7), eta lanik gabe dauden hamar pertsonatik ia hiruk adierazi dute beren jarduera inoiz eten dutela.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, borondatezko lana eten duten edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta jarduerarekiko erlazioaren araberakoak. %

34. TAULA

| Borondatezko lana etetea (*) | Guztira | Landunak | Langabeak | Ikasleak | Beste ez-aktibo batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Jarraitua denboran zehar | 84,1 | 82,2 | 71,7 | 82,9 | 90,3 |
| Inoiz etena | 15,9 | 17,8 | 28,3 | 17,1 | 9,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Dirudienez, gaur egun boluntario diren pertsonek beren bizitzako uneren batean jarduera eteteko izan dituzten arrazoi nagusiak inguruabar pertsonaletan izandako aldaketak izan dira (aldaketak bizilekuan eta osasunean, bateraezintasuna lan-ordutegiarekin, eta abar), eta inola ere ez dirudi arrazoiak erakundearekiko diferentzia ideologikoak edo boluntarioen kudeaketa desegokia direnik.

Inoiz beren jarduera utzi duten boluntarioen % 15,9k aipatu dituzte inguruabar pertsonalak; ehuneko hori zertxobait handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino (% 18,4 gizonezkoak eta % 14,6 emakumezkoak), eta presentzia handiagoa dute gaur egun 40 eta 49 urte bitartean dituzten pertsonen artean (% 29,3). Bestalde, badirudi motibaziorik ezak eta nekeak neurri handiagoan eragiten dutela adin-talde horretan (% 3,4); hain zuzen, talde horrek bakarrik argudiatu du erakundearen funtzionamenduarekin pozik ez egotea.

## Borondatezko lana eteteko arrazoiak. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

35. TAULA

| Jarduera eteteko arrazoiak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Inguruabar pertsonalak aldatzea: bizileku-aldaketa, osasun-arazoak, boluntariotzaren ordutegiarekin bateraezina den lan bat lortu izana | 15,9 | 18,4 | 14,6 |
| Motibaziorik eza, nekea, «erreta» sentitzea eta abar. | 1,3 | 1,5 | 1,2 |
| Proiektua edo jarduera amaitzea | 0,8 | 0,7 | 0,8 |
| Erakundearen funtzionamenduarekin pozik ez egotea | 0,5 | 0,0 | 0,8 |
| Baliagarri ez sentitzea | 0,3 | 0,0 | 0,4 |
| Erakundea desegitea | 0,3 | 0 | 0,4 |
| Erakundeko aldia amaitu zela sentitzea | 0,3 | 0,7 | 0 |
| Boluntarioen kudeaketa desegokia: erantzukizun handiegia, ez baloratua izatea, babesik eza, kudeatzaileen ezaxola, orientabide eta prestakuntza mugatua eta abar. | 0 | 0 | 0 |
| Egindako jarduerari buruzko arazoak | 0 | 0 | 0 |
| Erakundearekin diferentzia ideologikoak izatea | 0 | 0 | 0 |
| Beste erakunde batera alde egitea, jarduera gehiago gustatzen zaiolako edo ordutegiagatik gehiago komeni zaiolako, esaterako | 0 | 0 | 0 |
| Arazo logistikoak / baliabiderik eza laguntzen jarraitzeko | 0 | 0 | 0 |
| Erakundean kontratatzea: boluntario gisa bolada bat egin ondoren | 0 | 0 | 0 |
| Denbora alferrik galtzen ari dela sentitzea | 0 | 0 | 0 |

Oharra: galdera erantzun anitzekoa da; beraz, ehunekoek ez dute % 100 egiten.

Soil-soilik kontsultatutako boluntarioak gaur egun denbora gehien ematen duen erakundean izandako esperientzia hartzen bada kontuan, ikusten da *hamar boluntariotik lau baino gehixeago beteranotzat har litezkeela dauden erakundean; izan ere, bertan hamar urte baino gehiago daramatzate lanean.*

## Borondatezko lana eteteko arrazoiak. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

36. TAULA

| Jarduera eteteko arrazoiak | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Inguruabar pertsonalak aldatzea: bizileku-aldaketa, osasun-arazoak, boluntariotzaren ordutegiarekin bateraezina den lan bat lortu izana | 15,9 | 16,2 | 21,7 | 29,3 | 14,4 | 6,9 |
| Motibaziorik eza, nekea, «erreta» sentitzea eta abar. | 1,3 | 1,4 | 2,2 | 3,4 | 1,0 | 0 |
| Proiektua edo jarduera amaitzea | 0,8 | 1,4 | 0 | 3,4 | 0 | 0 |
| Erakundearen funtzionamenduarekin pozik ez egotea | 0,5 | 0 | 0 | 3,4 | 0 | 0 |
| Baliagarri ez sentitzea | 0,3 | 0 | 0 | 1,7 | 0 | 0 |
| Erakundea desegitea | 0,3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1,0 |
| Erakundeko aldia amaitu zela sentitzea | 0,3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1,0 |
| Boluntarioen kudeaketa desegokia: erantzukizun handiegia, ez baloratua izatea, babesik eza, kudeatzaileen ezaxola, orientabide eta prestakuntza mugatua eta abar. | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Egindako jarduerari buruzko arazoak | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erakundearekin diferentzia ideologikoak izatea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Beste erakunde batera alde egitea, jarduera gehiago gustatzen zaiolako edo ordutegiagatik gehiago komeni zaiolako, esaterako | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Arazo logistikoak / baliabiderik eza laguntzen jarraitzeko | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erakundean kontratatzea: boluntario gisa bolada bat egin ondoren | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Denbora alferrik galtzen ari dela sentitzea | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |

Oharra: galdera Erantzun anitzekoa da; beraz, ehunekoek ez dute % 100 egiten.

Boluntario iritsi berriak % 4,5 dira (erakundean urtebete baino gutxiago daramaten boluntarioak), nahiz eta nahiko hasi berritzat har litezkeen beste % 30,4 ere, erakundeari lotuta 5 urte baino gutxiago daramatelako. Ez da alde esanguratsurik ikusten gizonen eta emakumeen artean alde horretatik.

Boluntarioen adinak eta erakundeari lotuta daramaten denborak estatistikoki lotura esanguratsua dute. Pertsona adintsuenen taldean, boluntario beteranoen proportzioa handiagoa da.

Adina eta jarduerarekiko erlazioa elkarri lotuta dauden bi aldagai diren aldetik, ikusi da pertsona ez-aktiboen, landunen eta abarren taldeek ere diferentzia esanguratsuak dituztela, aurrez adierazitako joerarekin bat etorriz[66].

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, erakundean duten antzinatasunaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

37. TAULA

| Antzinatasuna erakundean | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| 1 urte baino gutxiago | 4,5 | 3,7 | 4,9 |
| 1 eta 5 urte bitartean | 30,4 | 29,4 | 31,0 |
| 5 eta 10 urte bitartean | 24,1 | 22,1 | 25,3 |
| 10 baino gehiago | 40,9 | 44,9 | 38,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, erakundean duten antzinatasunaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

9. GRAFIKOA




[66] Eranskinean kontsulta daitezke aldagai horietarako bereizitako datuak.

## Zein faktorek eragiten dute laguntzeko erakunde bat hautatzeko orduan? Nolakoak dira boluntarioek parte hartzen duten erakundeak?

Hainbat faktorek eragin dezakete laguntzeko erakunde bat hautatzeko orduan? *Boluntarioen % 91k jarduerak beraientzat zuten interesa adierazi dute; % 81,2k erakundearekin bat datozela; % 79,5ek erakundea osatzen zuen giza taldea; eta % 76,4k atzean zegoen erakundea.*

Neurri txikiagoan agertu dira, nahiz eta horiek ere boluntarioen erdiek baino gehiagok aipatu dituzten, erakundean ezagunak izatea, erakundea gertu egotea eta jardueren ordutegia.

**Gaur egungo boluntarioengan erakundea hautatzeko orduan (asko edo dezente) eragin zuten faktoreak. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** 10. GRAFIKOA




Emaitza hauek ez dira oso desberdinak 2008an Bizkaiko biztanleei egindako kontsultari dagokionez[67]; izan ere, kontsulta horretan agerrarazi zenez, erakunde bat hautatzeko arrazoi nagusia jardueraren gaineko interesa zen, ondoren erakundea osatzen duen giza taldea, eta, horren ostean, erakundearen ideiekin bat egitea.

[67] Op. cit.

Adinaren arabera bereizitako datuak aztertuz gero, ikusten da planteatutako faktoreetako batean bakarrik direla diferentziak estatistikoki esanguratsuak: badirudi adinean aurrera egin ahala garrantzi handiagoa hartzen duela egiten den borondatezko ekintzaren atzean dagoen erakundeak.

**Gaur egungo boluntarioengan erakundea hautatzeko orduan (asko edo dezente) eragin zuten faktoreak. Emaitza orokorrak eta borondatezko ekintzan hasteko adinaren araberakoak. %** 38. TAULA

| Erakundea hautatzeko orduan eragiten duten faktoreak (2. oharra) | Guztira | 18 urte baino gutxiago | 18 eta 30 bitartean | 31 eta 45 bitartean | 46 eta 65 bitartean | 65 baino gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jarduerak zuretzat zuen interesa | 91,9 | 92,4 | 94,4 | 92,2 | 89,1 | 81,3 |
| Atzean zegoen erakundea (*) | 76,4 | 72,7 | 75,2 | 79,2 | 78,3 | 81,3 |
| Erakundea osatzen zuen giza taldea | 79,5 | 83,3 | 79,2 | 75,0 | 82,6 | 75,0 |
| Jardueren ordutegia | 55,9 | 45,5 | 48,8 | 57,1 | 69,2 | 56,3 |
| Etxetik edo lantokitik gertu egotea | 58,9 | 50,0 | 59,2 | 57,1 | 66,3 | 43,8 |
| Erakundearen ideiekin bat egitea | 81,2 | 81,8 | 80,0 | 85,7 | 79,3 | 81,3 |
| Erakundean ezagunak izatea | 68,0 | 68,2 | 69,4 | 58,4 | 71,7 | 75,0 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).
2. oharra: ehunekoek ez dute 100 egiten, erantzun aukerak ez direlako baztertzaileak.

Gaur egun boluntario diren pertsonen ia erdiek *erakunde batean baino gehiagotan lagundu dute beren bizitzan zehar.*

Nahiz eta ez den alde esanguratsurik ikusten, badirudi zertxobait ohikoagoa dela emakumeek beren boluntario-ibilbidean erakundez ez aldatu izana.

Horri dagokionez ezin izan da egiaztatu beste diferentziarik, adina, inkestatutako pertsona bizi den lurralde historikoa, bizilekuko udalerriaren tamaina eta beste aldagai batzuen arabera[68].

[68] Eranskinean kontsulta daitezke aldagai horietarako bereizitako datuak.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, beren bizitzan zehar boluntario erakunde batean baino gehiagotan izan diren edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

39. TAULA

| Beren bizitzan zehar erakunde batean baino gehiagotan laguntzea | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Bere bizitzan zehar erakunde batean baino gehiagotan lagundu du | 47,5 | 49,3 | 46,6 |
| Bere bizitzan zehar ez du lagundu erakunde batean baino gehiagotan | 52,5 | 50,7 | 53,4 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

## Gaur egungo boluntarioak beren bizitzan zehar boluntario ibilitako erakunde-kopurua. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

40. TAULA

| Beren bizitzan zehar erakunde batean baino gehiagotan laguntzea | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 3,08 | 3,29 | 2,96 |
| Mediana[69] | 3 | 3 | 3 |
| Moda[70] | 2 | 2 | 2 |
| Ohiko desbiderapena[71] | 1,4 | 1,7 | 1,2 |
| Gutxienez | 2 | 2 | 2 |
| Gehienez | 10 | 10 | 10 |

*Erakunde batean baino gehiagotan lagundu duten pertsonek batez beste hiru erakundetan hartu dute parte*. Dena dela, kasurik gehienetan, bi erakundetan aritu dira boluntario hasi zirenetik gaur egunera arte.

Boluntarioen sexuak eta adinak ez dirudi loturarik dutenik langutzaile ibili diren erakunde kopuruarekin.

---

69 *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

70 *Moda* gehien errepikatutako balioa da.

71 *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

## Erakunde batean baino gehiagotan jardun duten gaur egungo boluntarioak beren bizitzan zehar laguntzaile ibili diren erakundeen kopurua. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

41. TAULA

| Beren bizitzan zehar erakunde batean baino gehiagotan laguntzea | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 3,08 | 2,45 | 3,12 | 3,79 | 2,90 | 2,60 |
| Mediana | 3 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 |
| Moda | 2 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 |
| Ohiko desbiderapena | 1,4 | 0,71 | 1,61 | 2,07 | 1,54 | 1,10 |
| Gutxienez | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Gehienez | 10 | 4 | 7 | 10 | 10 | 6 |

## Erakunde batean baino gehiagotan jardun duten gaur egungo boluntarioak beren bizitzan zehar laguntzaile ibili diren erakundeen kopurua. Emaitza orokorrak eta boluntario gisa duten antzinatasuna (beren bizitzan zehar). Oinarrizko datu estatistikoak

42. TAULA

| Bizitzan zehar parte hartu duten erakundeen kopurua | Guztira | 5 urte baino gutxiago | 5 eta 9 urte bitartean | 10 eta 19 urte bitartean | 20 urte edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 3,08 | 2,35 | 2,60 | 2,97 | 3,60 |
| Mediana[72] | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 |
| Moda[73] | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| Ohiko desbiderapena[74] | 1,4 | 0,60 | 0,76 | 1,32 | 1,83 |
| Gutxienez | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| Gehienez | 10 | 4 | 5 | 7 | 10 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (F <0,05).

[72] *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

[73] *Moda* gehien errepikatutako balioa da.

[74] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

Dena dela, alde esanguratsuak ikusten dira beren bizitzan zehar boluntario gisa egin duten denboraren arabera; hain zuzen, boluntario denbora gehien daramaten pertsonek erakunde gehiagotan lagundu dute.

Gainera, kontsultatutako boluntarioen % 46,4k onartu dute *gaur egun* erakunde batean baino gehiagotan aritzen direla boluntario. Nahiz eta oraingoan ere gizonen eta emakumeen arteko aldeak ez diren estatistikoki esanguratsuak, badirudi kasu honetan emakumeak neurri handiagoan aritzen direla aldi berean erakunde batean baino gehiagotan.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, gaur egun boluntario erakunde batean baino gehiagotan dabiltzan edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

43. TAULA

| Gaur egun erakunde batean baino gehiagotan laguntzea | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Gaur egun erakunde batean baino gehiagotan laguntzen du | 46,4 | 41,8 | 49,1 |
| Gaur egun ez du laguntzen erakunde batean baino gehiagotan | 53,6 | 58,2 | 50,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Eskura ditugun datuekin ezin baiezta dezakegu estatistikoki elkarren artean lotuta daudenik adinaren aldagaia eta aldi berean erakunde batean baino gehiagotan laguntzea, baina adierazi behar da 50 eta 64 urte bitarteko boluntarioen artean dela ohikoena hori gertatzea.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, gaur egun erakunde batean baino gehiagotan laguntzen duten edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

44. TAULA

| Gaur egun erakunde batean baino gehiagotan laguntzea | Guztira | 18 eta 29 bitartean | 30 eta 39 bitartean | 40 eta 49 bitartean | 50 eta 64 bitartean | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gaur egun erakunde batean baino gehiagotan laguntzen du | 46,4 | 39,4 | 36,0 | 43,8 | 62,7 | 40,0 |
| Gaur egun ez du laguntzen erakunde batean baino gehiagotan | 53,6 | 60,6 | 64,0 | 56,3 | 37,3 | 60,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Lurralde historikoen arteko aldeak ere ez dira nabarmenak; hala ere, Gipuzkoa batezbestekotik gora dago, eta Arabak du gaur egun erakunde batean baino gehiagotan laguntzen duten boluntarioen tasarik baxuena. Halaber, boluntarioak bizi diren herriaren tamainaren arabera bereizitako datuak aztertuz gero, joera argi bat ikus daiteke[75].

### Gaur egungo boluntarioak gaur egun laguntzaile dabiltzan erakundeen kopurua. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

45. TAULA

| Gaur egun laguntzaile dabiltzan erakundeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 1,67 | 1,60 | 1,71 |
| Mediana[76] | 1 | 1 | 1 |
| Moda[77] | 1 | 1 | 1 |
| Ohiko desbiderapena[78] | 0,93 | 0,94 | 0,93 |
| Gutxienez | 1 | 1 | 1 |
| Gehienez | 6 | 6 | 6 |

### Beren bizitzan zehar erakunde batean baino gehiagotan lagundu duten gaur egungo boluntarioak laguntzaile dabiltzan erakundeen kopurua. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

46. TAULA

| Gaur egun erakunde batean baino gehiagotan laguntzea | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 1,67 | 1,45 | 1,68 | 1,69 | 1,94 | 1,48 |
| Mediana | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 |
| Moda | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 |
| Ohiko desbiderapena | 0,93 | 0,67 | 1,21 | 1,09 | 0,95 | 0,68 |
| Gutxienez | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Gehienez | 6 | 4 | 6 | 6 | 5 | 4 |

[75] Eranskinean kontsulta daitezke aldagai horietarako bereizitako datuak.

[76] *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

[77] *Moda* gehien errepikatutako balioa da.

[78] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

Gaur egun, boluntarioek batez beste 1,67 erakundetan laguntzen dute, nahiz eta kasurik gehienetan erakunde bakar batean diren boluntario.

Ez dirudi ez sexuak eta ez adinak markatzen duenik alde handirik horren inguruan, nahiz eta, aurrez esandakoarekin bat etorriz, 50 eta 64 urte bitartekoen taldean biltzen diren erakunde batean baino gehiagotan parte hartzen duten boluntario gehienak.

Kontsultatutako boluntarioak gaur egun denbora gehien zein erakundetan ematen duten kontuan hartuta, gaur egungo boluntarioak beren lan altruistari dagokion jardun-esparruaren arabera nola banatzen diren jakin ahal izan dugu.

*Boluntario gehien biltzen duen arloa*[79] *gizartekintza* da; hain zuzen, boluntarioen % 35,2k parte hartzen dute arlo horretako erakundeetan, hau da, babesik gabe edo oso egoera ahulean dauden taldeak gizarteratzeko lanean aritzen diren erakundeetan. Horren ondotik daude herritarren erakundeak, hala nola bizilagunen elkarteak, erretiratuen elkarteak, emakumeenak eta abar (% 17,2) eta kulturaren arloa (% 13,8).

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, laguntzaile dabiltzan erakundearen jardun-esparruaren arabera. %** 11. GRAFIKOA




Hiru lurralde historikoek antzeko egoera dute eremuei dagokienez, eta ez da ikusten diferentziarik biztanle-kopurua oinarritzat hartuz udalerri txikiago edo handiagoetan bizi direnen datuak konparatzean[80].

[79] Eranskineko 9.6 atalean kontsulta daitezke arlo bakoitzeko erakundeak sailkatzeko erabili diren irizpideak.

[80] Eranskinean kontsulta daitezke aldagai horietarako bereizitako datuak.

Gizonezko eta emakumezko boluntarioei buruzko datuen banaketa desberdinak asoziazio bat agertzen du sexuaren eta boluntario-lanak egiteko hautatzen den erakundearen jardun-esparruaren artean. *Emakumeek gizonek baino neurri handiagoan hautatzen dute gizartekintzaren esparrua, eta, hala ere, kulturaren, osasunaren eta batez ere kirolaren arloei lotzen zaizkien gizonezko boluntarioen pisua batezbestekotik gora dago.*

Datu horiek guztiz bat datoz CISek estaturako emandakoekin[81]; izan ere, datu horiek agertzen dutenez, gehienak gizonak dira kirolaren, aisialdi eta astialdiaren, ingurumenaren, animalien babesaren eta babes zibilaren arloetan. Gehienak emakumeak diren arloak desgaitasuna eta mendekotasuna, hezkuntza eta kultura, eta osasuna dira.

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, laguntzaile dabiltzan erakundearen jardun-esparruaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %**

47. TAULA

| Erakundearen jardun-esparrua (*) | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Garapenerako lankidetza | 8,4 | 7,4 | 8,9 |
| Herritarrak (horren barruan sartzen dira bizilagunen elkarteak, emakumeen elkarteak, erretiratuenak...) | 17,2 | 14,7 | 18,6 |
| Kultura (euskara barne dela...) | 13,8 | 16,9 | 12,1 |
| Gizartekintza (horren barruan daude bazterketa, desgaitasuna...) | 35,2 | 26,5 | 40,1 |
| Ingurumena | 2,1 | 2,2 | 2,0 |
| Aisialdia eta astialdia (gazteria barne dela) | 8,4 | 8,8 | 8,1 |
| Osasuna (horren barruan daude mendekotasunak, drogazaletasuna, gaixotasun arraroak) | 9,9 | 12,5 | 8,5 |
| Giza eskubideak | 1,6 | 2,9 | ,8 |
| Kirola | 3,4 | 8,1 | ,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

[81] Op. cit.

Adinak ere alde esanguratsuak ezartzen ditu erakundearen esparrua hautatzeko orduan. *Zenbait arlo bereziki lotzen zaizkie adineko pertsonei, hala nola gizartekintza eta herritarren arloa (bi kasuetan, 65 urtetik gorakoen taldeak batezbesteko orokorretik gorako ehunekoak ditu), eta 30 urtetik beherakoen artean ohikoagoa da aisialdia eta astialdia (ehuneko 13 puntu gehiago batezbestekoa baino) eta kultura hautatzea.*

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, laguntzaile dabiltzan erakundearen jardun-esparruaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

48. TAULA

| Erakundearen jardun-esparrua (*) | Guztira | 18 eta 29 bitartean | 30 eta 39 bitartean | 40 eta 49 bitartean | 50 eta 64 bitartean | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Garapenerako lankidetza | 8,4 | 8,1 | 17,4 | 6,9 | 10,6 | 3,0 |
| Herritarrak (horren barruan sartzen dira bizilagunen elkarteak, emakumeen elkarteak, erretiratuenak...) | 17,2 | 10,8 | 10,9 | 19,0 | 16,3 | 24,8 |
| Kultura (euskara barne dela...) | 13,8 | 18,9 | 23,9 | 10,3 | 15,4 | 5,9 |
| Gizartekintza (horren barruan daude bazterketa, desgaitasuna...) | 35,2 | 29,7 | 17,4 | 29,3 | 31,7 | 54,5 |
| Ingurumena | 2,1 | – | 4,3 | 3,4 | 1,9 | 2,0 |
| Aisialdia eta astialdia (gazteria barne dela) | 8,4 | 21,6 | 8,7 | 10,3 | 4,8 | 1,0 |
| Osasuna (horren barruan daude mendekotasunak, drogazaletasuna, gaixotasun arraroak) | 9,9 | 8,1 | 13,0 | 15,5 | 9,6 | 6,9 |
| Giza eskubideak | 1,6 | – | 2,2 | 5,2 | 1,0 | 1,0 |
| Kirola | 3,4 | 2,7 | 2,2 | – | 8,7 | 1,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki (X2 <0,05).

Gaur egungo boluntario gehien-gehienek, *hamar boluntariotik ia zazpik*, *zuzenean esku hartzekoak diren* lanak egiten dituzte, hainbat eratakoak (lagun egitea, aisialdiko jarduerak eta abar); gainerakoek kudeaketa- eta administrazio-lanak egiten dituzte edo *biak batera*, eta maiz soil-soilik edo gehienbat boluntarioz osaturiko elkarteetako zuzendaritzako kideak izan ohi dira.

Datu horiek ia bat datoz 2008. urteko Bizkaiko azterlanean agertzen direnekin[82]; izan ere, lan horretan kalkulatzen denez, bizkaitar boluntarioen % 77k egiten dituzte pertsonekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak (lagun egitea). Azterlan honek agerian jartzen du boluntarioek lan anitz egiten dituztela, hau da, hainbat eratako lanetan inplikatzen direla: % 57k animazio -lanak egiten dituzte, % 45ek koordinazio-zuzendaritza lanak, eta % 19k administrazio-, kontabilitate- edo finantza-lanak. Ildo berekoak dira Espainiako Hirugarren Sektorearen Urtekariko datuak ere[83]: boluntarioen egiteko nagusiak zuzeneko laguntza (% 85,6) eta sentsibilizazioa dira (% 78,8). Gainera, % 60,9 administrazioaz eta kudeaketaz arduratzen dira[84].

Nabarmentzekoa da alde esanguratsuak daudela sexuaren arabera: *lau emakumetik hiruk egiten dituzte esku-hartzekoak diren lanak, eta gizonen artean, ostera, % 57,4k egiten dituzte halako lanak*. Horrek esan nahi du gizonek neurri handiagoan hartu ohi dituztela beren gain erakundeen kudeaketa eta zuzendaritzarekin loturiko boluntario-lanak.

2010eko Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Urtekariak ere[85] ohartarazten du emakumeak azpiordezkaturik daudela sektoreko erakundeetako gobernu-organoetan. Emakumezkoak zuzendaritzen % 38,1etan baizik ez dira gehiengoa, nahiz eta emakumezko boluntarioak diren gehiengoa sektoreko erakundeen % 51,3tan.

---

82 Op. cit.

83 Op. cit.

84 Azterlan honetan, galdera honi emandako erantzunak ugari izan dira eta ez baztertzaileak; hori dela eta, erantzunen ehunekoek ez dute % 100 egiten.

85 Op. cit.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, egiten duten jarduera-motaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

49. TAULA

| Jarduera-mota (*) | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 21,7 | 30,1 | 17,1 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 68,8 | 57,4 | 75,2 |
| Biak | 9,4 | 12,5 | 7,7 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esangu-ratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Adinak eta jarduerarekiko erlazioak ere ezartzen dituzte alde aipagarriak; *administrazio- eta kudeaketa-lanak neurri handiagoan hartzen dituzte beren gain 30 eta 39 urte bitarteko pertsonek eta lanean ari diren pertsonek.*

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, egiten duten jarduera-motaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

50. TAULA

| Jarduera-mota (*) | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 21,7 | 10,8 | 30,4 | 25,9 | 22,3 | 22,8 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 68,8 | 82,4 | 56,5 | 62,1 | 64,1 | 73,3 |
| Biak | 9,4 | 6,8 | 13,0 | 12,1 | 13,6 | 4,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esangu-ratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, egiten duten jarduera-motaren arabera. Emaitza orokorrak eta jarduerarekiko erlazioaren araberakoak. %

51. TAULA

| Jarduera-mota (*) | Guztira | Landunak | Langabeak | Ikasleak | Beste ez aktibo batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 21,7 | 29,7 | 13,0 | 5,7 | 20,8 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 68,8 | 55,2 | 73,9 | 88,6 | 75,3 |
| Biak | 9,4 | 15,2 | 13,0 | 5,7 | 3,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

*Gaur egungo boluntarioen % 83,3k diote borondatezko lana modu jarraituan egiten dutela parte hartzen duten erakundean*, eta gainerakoak noizbehinkako boluntarioak dira. Ez da alde handirik sumatzen sexuaren arabera.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, dedikazioaren maiztasunaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

52. TAULA

| Dedikazioaren maiztasuna | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Aldizkakoa edo noizbehinkakoa | 16,7 | 14,7 | 17,8 |
| Jarraitua edo egonkorra | 83,3 | 85,3 | 82,2 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

2008ko Bizkaiko boluntariotzari buruzko azterlanak ematen dituen datuen arabera[86], % 68 dira eskuarki edo modu jarraituan erakundearen jardueretan laguntzen duten boluntarioak, eta gainerakoek noizbehinka jarduten dute.

[86] Op. cit.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, dedikazioaren maiztasunaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

12. GRAFIKOA




Adinak, ostera, ezartzen ditu hainbat diferentzia arlo honetan. *Aldizkako boluntarioen tasa handienak boluntario gazteenen* (18 eta 29 urte bitartean) eta 40 eta 49 urte bitarteko boluntarioen artean *erregistratu dira,* eta 65 urtetik gorako boluntarioen taldea, berriz, batez ere boluntario egonkorren proportzio guztiz handi batek osatzen du.

Era berean, aldeak ikusten dira biztanle boluntarioen datuak jarduerarekin duten erlazioaren arabera konparatzean. *Pertsona ez-aktiboek dute (ikasleak alde batera utzita) boluntario egonkorren tasarik handiena. Talde horretan, pertsona adintsuenen pisua oso handia da.*

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, dedikazioaren maiztasunaren arabera. Emaitza orokorrak eta jarduerarekiko erlazioaren araberakoak. %

53. TAULA

| Dedikazioaren maiztasuna (*) | Guztira | Landunak | Langabeak | Ikasleak | Beste ez aktibo batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Aldizkakoa edo noizbehinkakoa | 16,7 | 20,5 | 23,9 | 22,9 | 8,4 |
| Jarraitua edo egonkorra | 83,3 | 79,5 | 76,1 | 77,1 | 91,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

*Hamar boluntariotik seik astean 1 eta 5 ordu bitartean eskaintzen diote boluntariotzari.* Soilik % 3k eskaintzen diote astean 15 ordu baino gehiago, eta % 6,4k gutxienez astean ordu bat eskaintzen diote.

Badirudi asteko dedikazioa handiagoa dela gizonen artean emakumeen artean baino. Emakumezkoen artean handiagoa da astean ordubete baino gutxiago eskaintzen diotenen ehunekoa (emakumeen % 9 eta gizonen % 1,8), eta handiagoa da 10 ordu baino gehiago eskaintzen dioten gizonen ehunekoa (% 11,8 eta % 6,4).

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, astean boluntariotzari eskaintzen dioten denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

54. TAULA

| Eskainitako denbora (oharra) | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Astean ordu bat baino gutxiago | 6,4 | 1,8 | 9,0 |
| Astean 1 eta 5 ordu bitartean | 61,7 | 56,4 | 64,9 |
| Astean 6 eta 10 ordu bitartean | 23,5 | 30,0 | 19,7 |
| Astean 11 eta 15 ordu bitartean | 5,4 | 8,2 | 3,7 |
| Astean 16 eta 20 ordu bitartean | 2,3 | 1,8 | 2,7 |
| Astean 20 ordu baino gehiago | 0,7 | 1,8 | 0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: garrantzitsua da kontuan hartzea galdera honi erantzun ez diotenen indizea handia dela (% 22,2k ez dute erantzun); beraz, datuak zuhurtziaz interpretatu behar dira.

Aurreko datuak errazago interpretatu ahal izateko, beste sailkapen bat egin da, astean 5 ordu edo gutxiago aritzen diren boluntarioak eta dedikazio handiagoa dutenak bereizita.

Gaur egungo boluntarioen ia % 32k 5 ordu baino gutxiago eskaintzen dizkiote astean borondatezko lanari, eta gainerakoen dedikazioa txikiagoa da. Kasu honetan, gizonen eta emakumeen arteko diferentziak guztiz dira aipagarriak; izan ere, astean 5 ordu baino gehiagoko dedikazioa duten *emakume boluntarioen proportzioa (% 26,1) batezbesteko orokorra baino ia sei puntu txikiagoa da, eta gizonena baino ehuneko ia 16 puntu txikiagoa.*

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, astean boluntariotzari eskaintzen dioten denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

55. TAULA

| Eskainitako denbora (*) (2. oharra) | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Astean 5 ordu edo gutxiago | 68,1 | 58,2 | 73,9 |
| Astean 5 ordu baino gehiago | 31,9 | 41,8 | 26,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).
2. oharra: garrantzitsua da kontuan hartzea galdera honi erantzun ez diotenen indizea handia dela (% 22,2k ez dute erantzun); beraz, datuak zuhurtziaz interpretatu behar dira.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, astean boluntariotzari eskaintzen dioten denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta egiten den jarduera-motaren araberakoak. %

56. TAULA

| Jarduera-mota (*) | Guztira | Astean 5 ordu edo gutxiago | Astean 5 ordu baino gehiago |
|---|---|---|---|
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 21,7 | 20,7 | 27,7 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 68,8 | 72,4 | 55,3 |
| Biak | 9,4 | 6,9 | 17,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

2010eko Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak jasotakoaren arabera ere[87], lurralde horretan Hirugarren Sektoreko erakundeetako boluntarioen % 27,5ek eskaintzen diote astean 5 ordu baino gehiago. Ildo horretan bertan, Espainiako Gizartekintzako Hirugarren Sektorearen Urtekariko datuen arabera[88], boluntarioen % 32,5ek 5 ordu edo gehiago eskaintzen dizkiote.

Erlazio esanguratsu bat ikusi da boluntariotzari eskaintzen zaion denboraren eta egiten dituzten lan-moten artean. *Borondatezko lanari denbora gutxien eskaintzen dioten pertsonek gehienbat zuzenean esku hartzekoak diren lanak*

[87] Op. cit.
[88] Op. cit.

*egiten dituzte (10etik 7k), eta boluntariotzari denbora gehien eskaintzen diotenen artean % 44,7k soil-soilik kudeaketa-lanak egiten dituzte edo kudeaketa esku-hartzearekin konbinatzen dute.*

Kasu honetan, ezin izan da diferentzia estatistikoki esanguratsurik baieztatu adinaren edo ordainpeko jarduerarekiko erlazioaren arabera, baina ehunekoek ematen dute modua halako joera bat identifikatzeko. *Badirudi pertsona adintsuenen artean, eta baita ez-aktiboen artean ere, kasu honetan ikasleak barne direla, zertxobait handiagoa dela erakundeari 5 ordu baino gehiago eskaintzen dizkioten boluntarioen pisua.*

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, astean boluntariotzari eskaintzen dioten denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

57. TAULA

| | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Astean 5 ordu edo gutxiago | 68,1 | 69,1 | 74,3 | 69,4 | 67,1 | 65,6 |
| Astean 5 ordu baino gehiago | 31,9 | 30,9 | 25,7 | 30,6 | 32,9 | 34,4 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, astean boluntariotzari eskaintzen dioten denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta jarduerarekiko erlazioaren araberakoak. %

58. TAULA

| | Guztira | Landunak | Langabeak | Ikasleak | Beste ez aktibo batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Astean 5 ordu edo gutxiago | 68,1 | 70,5 | 78,1 | 66,7 | 64,2 |
| Astean 5 ordu baino gehiago | 31,9 | 29,5 | 21,9 | 33,3 | 35,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Nahiz eta norberaren kargura mendeko pertsonak izatea modu negatiboan erlazionatzen den boluntario izateko probabilitatearekin, hala ere ez dirudi boluntariotzari eskaintzen zaion denborari eragiten dionik.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, astean boluntariotzari eskaintzen dioten denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta beren kargura mendeko pertsonarik baduten edo ez kontuan hartuta. %

59. TAULA

| | Guztira | Baditu mendeko pertsonak | Ez du mendeko pertsonarik |
|---|---|---|---|
| Astean 5 ordu edo gutxiago | 68,1 | 67,7 | 68,1 |
| Astean 5 ordu baino gehiago | 31,9 | 32,3 | 31,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario-lana asteko zein egunetan egiten duten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

60. TAULA

| Asteko egunak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Astegunetan | 52,9 | 47,1 | 56,2 |
| Asteburuan | 13,8 | 15,4 | 12,8 |
| Astegunetan eta asteburuan | 33,3 | 37,5 | 31,0 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

*Boluntarioen erdiek baino gehixeagok borondatezko lana astegunetan egiten dute, eta heren batek adierazi du astegunetan zein asteburuetan egiten duela*. Ez da alde esanguratsurik identifikatu sexuaren arabera, nahiz eta boluntariotzan astegunetan soilik jarduten duten emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino handiagoa den (emakumeen % 56,2 eta gizonen % 47,1).

Datua zertxobait aldentzen da 2008ko Bizkaiko azterlanean emandakotik[89]; izan ere, horren arabera, bizkaitar boluntario gehienek (% 43) era berean laguntzen dute lanegunetan zein asteburuetan.

[89] Op. cit.

Alabaina, adinak alde garrantzitsuak ezartzen ditu jarduteko uneari dagokionez; hala, *batez ere pertsona adintsuenek jarduten dute boluntariotzan astegunetan* (65 urte edo gehiagoko 10 pertsonatik ia 8k egiten dute borondatezko lana astegunetan), eta *gazteenek gehiago konbinatzen dute beren jarduna astegunetan eta asteburuan* (ia 30 urte baino gutxiagoko boluntarioen erdiek).

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario-lana asteko zein egunetan egiten duten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

61. TAULA

| Asteko egunak (*) | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Astegunetan | 52,9 | 31,1 | 32,6 | 47,3 | 56,9 | 77,2 |
| Asteburuan | 13,8 | 21,6 | 23,9 | 23,6 | 9,8 | 2,0 |
| Astegunetan eta asteburuan | 33,3 | 47,3 | 43,5 | 29,1 | 33,3 | 20,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Pertsonek jarduerarekin duten erlazioak ere ezartzen ditu alde esanguratsuak, eta, aldagai hori eta adina erlazionaturik dauden neurrian, boluntariotzan soilik astegunetan jarduten duten pertsona ez-aktiboen (ikasle ez direnen) ehunekoa nabarmen da gainerakoena baino handiagoa.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario-lana asteko zein egunetan egiten duten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta jarduerarekiko erlazioaren araberakoak. %

62. TAULA

| Asteko egunak (*) | Landunak | Langabeak | Ikasleak | Beste ez-aktibo batzuk |
|---|---|---|---|---|
| Astegunetan | 39,0 | 45,7 | 31,4 | 73,4 |
| Asteburuan | 19,1 | 17,4 | 28,6 | 3,9 |
| Astegunetan eta asteburuan | 41,8 | 37,0 | 40,0 | 22,7 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

*Biztanle boluntarioen erdiek arratsaldez jarduten dute*. Ez da alde esanguratsurik ikusten sexuaren arabera, nahiz eta borondatezko lana arratsaldez egiten duten emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino zertxobait handiagoa den. Ez da alde esanguratsurik ikusten pertsonen adinaren edo lan-egoeraren arabera ere[90].

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario-lana zer ordutan egiten duten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %**

63. TAULA

| Ordutegia | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Goizez | 15,9 | 16,2 | 15,8 |
| Arratsaldez | 51,7 | 44,9 | 55,6 |
| Goizez eta arratsaldez | 15,1 | 16,9 | 14,1 |
| Gauez | 1,6 | 2,2 | 1,2 |
| Goizez, arratsaldez eta gauez | 10,3 | 13,2 | 8,7 |
| Beste konbinazio batzuk | 5,3 | 6,6 | 4,6 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario-lana zer garaitan egiten duten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %**

64. TAULA

| Garaia | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Oporraldian (uda, Aste Santua...) | 2,7 | 1,5 | 3,3 |
| Ikasturtean zehar | 44,3 | 44,1 | 44,4 |
| Oporraldian eta ikasturtean zehar (urte osoan) | 53,1 | 54,4 | 52,3 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

*Boluntarioen erdiek baino gehiagok urte osoan jarduten dute* (bai ikasturtean zehar eta bai oporraldian). Txikia da soilik oporraldian jarduten duten boluntarioen ehunekoa (% 2,7).

90 Eranskinean kontsulta daitezke aldagai horietarako bereizitako datuak.

Estatistikoki ez da alde esanguratsurik ikusten sexuaren, adinaren edo lan-egoeraren arabera, nahiz eta ñabardura batzuk egin litezkeen.

Badirudi adinean zenbat eta aurrerago egin, handiagoa dela ikasturtean soilik inplikatzen direnen kopurua. Hala, 65 urte edo gehiagoko pertsonen ia % 55ek ikasturtean soilik jarduten dute. Gainera, batez ere boluntario gazteenek jarduten dute boluntario-lanetan oporraldian.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario-lana zer garaitan egiten duten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

65. TAULA

| Garaia | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oporraldian (uda, Aste Santua...) | 2,7 | 6,8 | 4,3 | 3,7 | 0 | 1,0 |
| Ikasturtean zehar | 44,3 | 40,5 | 47,8 | 31,5 | 42,2 | 54,5 |
| Oporraldian eta ikasturtean zehar (urte osoan) | 53,1 | 52,7 | 47,8 | 64,8 | 57,8 | 44,6 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntario-lana zer garaitan egiten duten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta jarduerarekiko erlazioaren araberakoak. %

66. TAULA

| Garaia (*) | Guztira | Landunak | Langabeak | Ikasleak | Beste ez-aktibo batzuk |
|---|---|---|---|---|---|
| Oporraldian (uda, Aste Santua...) | 2,7 | 2,1 | 4,3 | 11,4 | 0,6 |
| Ikasturtean zehar | 44,3 | 36,4 | 47,8 | 42,9 | 51,3 |
| Oporraldian eta ikasturtean zehar (urte osoan) | 53,1 | 61,4 | 47,8 | 45,7 | 48,1 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Joera hori bera agertzen dute biztanleek jarduerarekiko duten erlazioari buruzko datuek. Batez ere ikasleak aritzen dira boluntario-lanetan soil-soilik oporraldian (ikasleen % 11,4 eta guztizkoaren % 2,7). Gainera, ikasle ez diren biztanle ez-aktiboen erdiek (erretiratuak, langabeak eta abar) ikasturtean

zehar jarduten dute, eta hamar landunetik sei, berriz, urte osoan aritzen dira boluntario-lanetan.

*Boluntarioen % 41,5ek adierazi dute denborarekin areagotu egin dela borondatezko ekintzan duten inplikazioa,* eta % 44,9k uste dute beren inplikazioa ia berbera izan dela urterik urte. Urteekin beren inplikazioa gutxitu dutela diotenak % 13,6 dira.

Datuak 2008ko Bizkaiko azterlanean erregistratutakoen antzekoak dira[91]; hain zuzen, azterlan horretan esaten denez, bizkaitar boluntarioen % 42k baieztatu zuten beren konpromisoa areagotu egin zela denborarekin, % 37k ziurtatu zuten ez zela aldatu, eta gutxienek baieztatu zuten beren konpromisoa gutxitu zela (% 21).

Badirudi gizonek eta emakumeek modu nabarmenki desberdinean sumatzen dutela inplikazio aldetik izan duten aldaketa; hala, emakumeek sumatzen dute neurri handiagoan denborarekin inplikazioa gutxitu egin dutela.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, inplikazio aldetik izandako aldaketaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

67. TAULA

| Inplikazio aldetik izandako aldaketa (*) | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Bai, urteekin areagotu egin da | 41,5 | 44,9 | 39,7 |
| Bai, urteekin gutxitu egin da | 13,6 | 6,6 | 17,4 |
| Ez, ia ez da aldatu | 44,9 | 48,5 | 42,9 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Adinaren arabera badira alde estatistikoki esanguratsuak ere. 50 urtetik gorako pertsona gehienek uste dute beren inplikazioa ez dela aldatu, eta, aldatu bada, areagotu egin dela. Gazteenen artean, 30 urtetik beherakoetan, denborarekin inplikazioa handitu dutela dioten boluntarioak erdiak dira, baina inplikazioa gutxitu dutela diotenak % 13,5 dira. Inplikazioa gehien gutxitu duen taldea 30 eta 39 urte bitarteko pertsonen taldea da.

91 Op. cit.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, inplikazio aldetik izandako aldaketaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

68. TAULA

| Inplikazio aldetik izandako aldaketa (*) | Guztira | 18 eta 29 bitartean | 30 eta 39 bitartean | 40 eta 49 bitartean | 50 eta 64 bitartean | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bai, urteekin areagotu egin da | 41,5 | 50,0 | 39,1 | 43,1 | 42,3 | 34,7 |
| Bai, urteekin gutxitu egin da | 13,6 | 13,5 | 26,1 | 17,2 | 6,7 | 12,9 |
| Ez, ia ez da aldatu | 44,9 | 36,5 | 34,8 | 39,7 | 51,0 | 52,5 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Badirudi bildutako datuek adierazten dutela erakundean zenbat eta antzinatasun handiagoa izan handiagoa dela inplikazioa areagotu duten pertsonen proportzioa, 10 urtetik gorako ibilbidea duten beteranoen taldea alde batera utzita; izan ere, talde horretan indizea aurreko tarteetan baino txikixeagoa da.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, inplikazio aldetik izandako aldaketaren arabera. Emaitza orokorrak eta erakundean duten antzinatasunaren araberakoak. %

69. TAULA

| Inplikazio aldetik izandako aldaketa (*) | Guztira | 1 urte baino gutxiago | 1 eta 5 urte bitartean | 5 eta 10 urte bitartean | 10 baino gehiago |
|---|---|---|---|---|---|
| Bai, urteekin areagotu egin da | 41,5 | 23,5 | 44,8 | 44,6 | 39,1 |
| Bai, urteekin gutxitu egin da | 13,6 | 0 | 8,6 | 17,4 | 16,0 |
| Ez, ia ez da aldatu | 44,9 | 76,5 | 46,6 | 38,0 | 44,9 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Gaur egun boluntario-lanetan astean 5 ordu baino gehiago sartzen dituztenek 5 ordu edo gutxiago sartzen dituztenek baino neurri handiagoan areagotu dute beren inplikazioa (% 60 eta % 37,4).

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, inplikazio aldetik izandako aldaketaren arabera. Emaitza orokorrak eta boluntariotzari eskainitako denboraren araberakoak. %

70. TAULA

| Inplikazio aldetik izandako aldaketa (*) | Guztira | Astean 5 ordu edo gutxiago | Astean 5 ordu baino gehiago |
|---|---|---|---|
| Bai, urteekin areagotu egin da | 41,5 | 37,4 | 60,0 |
| Bai, urteekin gutxitu egin da | 13,6 | 13,3 | 8,4 |
| Ez, ia ez da aldatu | 44,9 | 49,3 | 31,6 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

Inplikazio aldetik izandako aldaketak sumatzeko orduan eragina duen beste aldagai bat egiten dituzten lanak dira; hala, kudeaketa- eta administrazio-lanak eta esku-hartze lanak batera egiten dituzten pertsonek neurri handiagoan areagotu dute inplikazioa.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, inplikazio aldetik izandako aldaketaren arabera. Emaitza orokorrak eta egiten dituzten lan-moten araberakoak. %

71. TAULA

| Inplikazio aldetik izandako aldaketa (*) | Guztira | Kudeaketa- eta administrazio-lanak | Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | Biak |
|---|---|---|---|---|
| Bai, urteekin areagotu egin da | 41,5 | 43,4 | 37,6 | 66,7 |
| Bai, urteekin gutxitu egin da | 13,6 | 16,9 | 13,7 | 5,6 |
| Ez, ia ez da aldatu | 44,9 | 39,8 | 48,7 | 27,8 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esanguratsuak direla estatistikoki ($X^2$ <0,05).

## 6.5. Boluntariotzaren eta hasierako motibazioen gaineko hurbilketa

Atal honetan, pertsonek boluntario egitea zergatik erabakitzen duten eta, batez ere, bertan zerk eusten dien ulertzen laguntzen duen informazioa ematen da. Lehenik eta behin, datu kuantitatibo batzuk ematen dira, inkestaren bidez lorturikoak hain zuzen, eta, ondoren, datuak interpretatzen dira, eztabaida-taldeetan bildutako ekarpen kualitatiboekin.

Nahiz eta motibazioak desberdinak diren, boluntariotzak bide ematen du era guztietako pertsonek laguntzen duten erakundeetan antzeko esperientziak izan ditzaten. Nolanahi ere, oso kontuan izan behar da boluntarioen gogobetetzea lotuta dagoela hasierako motibazioak betetzearekin, eta, horregatik, giltzarri da pertsona bakoitza bere kabuz erakunde batera nola eta zergatik gerturatu den aztertzea.

### Zerk motibatzen ditu biztanleak boluntario sartzeko?

Kontsultatutako boluntarioen % 33,1ek pertsonen bizi-kalitatea hobetzen duela adierazi dute arrazoi nagusi gisa, hau da, *gehien aipatu duten arrazoia hirugarren pertsonei laguntzea da*. Bigarrenik, % 27,2k *eraldatze eta justizia sozialaren* gertakaria aipatu dute; hori aurreko ideiari estuki loturik dago. Gainera, % 10,8k *aberaste pertsonala* aipatu dute, eta % 10,3k adierazi dute beste pertsona batzuentzat *baliagarri* edo garrantzitsu sentitu nahi izatea. Bestalde, borondatezko lanean hasteko lagungarri izan ziren beste faktore batzuk aipatu dira, hala nola denbora libre asko izatea (% 12,4) eta erakundean ezagunen bat izatea (% 10,3).

Boluntarioek borondatezko lanean hasi zirenean zuten adinaren arabera, hainbat diferentzia ikusten dira. Nahiz eta arrazoi nagusiak pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea eta gizarte-eraldaketa sustatzea diren oraindik ere, boluntario 65 urte baino gehiagorekin egin ziren pertsonen kasuan pisu handia du beste pertsona batzuen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeak, eta horixe da adin horretako pertsonen % 56,2k gehien aipaturiko arrazoia.

Gainera, astia izatea da boluntario 45 urtetik aurrera sartu ziren pertsonentzat pisu gehien duen faktorea (46 eta 65 urte bitarteko pertsonen % 24,2k adierazi dute astia izatea, eta % 31,2k 65 urte baino gehiagoko pertsonen kasuan. Bestalde, gozatzeak eta ondo pasatzeak pisu handiagoa dute boluntario oso

gazterik sartu ziren pertsonen artean (18 urte baino gutxiago) edo 65 urtetik aurrera sartu zirenen artean (% 12 inguru bi kasuetan). Halaber, badirudi ideia erlijiosoekin koherente izateak pisu handiagoa duela nagusiago zirelarik hasi ziren pertsonen kasuan.

72. TAULA

**Gaur egungo boluntarioek borondatezko lanean hasteko izan dituzten arrazoi nagusiak. Emaitza orokorrak eta hasiera-adinaren araberakoak. %**

| Boluntario sartzeko arrazoi nagusiak (oharra) | Guztira | 18 baino gutxiago | 18 eta 30 bitartean | 31 eta 45 bitartean | 46 eta 65 bitartean | 65 baino gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko | 33,1 | 25,8 | 31,1 | 32,5 | 35,2 | 56,2 |
| Eraldatze eta justizia soziala sustatzeko | 27,2 | 27,3 | 34,4 | 18,2 | 25,3 | 31,2 |
| Denbora libre asko zutelako | 12,4 | 4,5 | 8,2 | 9,1 | 24,2 | 31,2 |
| Aberaste pertsonala, gogobetetze pertsonala | 10,8 | 13,6 | 9,0 | 10,4 | 12,1 | 0 |
| Baliagarri sentitzeko, beste pertsona batzuentzat garrantzitsu sentitzeko | 10,3 | 12,1 | 10,7 | 7,79 | 8,8 | 18,7 |
| Erakundean boluntario ezagunen bat zutelako | 10,3 | 12,1 | 5,7 | 14,3 | 13,2 | 6,2 |
| Etorkizunari begira esperientzia lortzeko eta prestatzeko | 6,3 | 4,5 | 9,0 | 9,1 | 2,2 | 0 |
| Esperientzia berriak bizitzeko | 6,3 | 9,1 | 6,6 | 5,2 | 4,4 | 12,5 |
| Gozatzeko, ondo pasatzeko... | 6,3 | 12,1 | 5,7 | 6,5 | 2,2 | 12,5 |
| Zaletasunagatik | 6,3 | 10,6 | 7,4 | 5,2 | 3,3 | 0 |
| Auzoan/gizartean sartzeko | 4,8 | 7,6 | 6,6 | 3,9 | 2,2 | 0 |
| Kaltetua zelako edo ahaide kalteturen bat zuelako | 4,5 | 1,5 | 8,2 | 2,7 | 4,4 | 0 |
| Gai sentitzen nintzen borondatezko lana egiteko | 4,2 | 4,5 | 4,1 | 5,2 | 3,3 | 6,2 |
| Taldearekin bat egiten nuelako | 3,4 | 6,1 | 4,1 | 2,6 | 1,1 | 0 |

| Boluntario sartzeko arrazoi nagusiak (oharra) | Guztira | 18 baino gutxiago | 18 eta 30 bitartean | 31 eta 45 bitartean | 46 eta 65 bitartean | 65 baino gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Nire ideia erlijiosoekin koherente izatea | 3,2 | 3,0 | 4,1 | 0 | 4,4 | 6,2 |
| Familiaren eraginagatik | 2,9 | 6,1 | 1,6 | 2,7 | 2,2 | 0 |
| Kausarekin bat egiteagatik | 2,9 | 1,5 | 4,9 | 5,2 | | 0 |
| Bizi guztian bizi izan duelako | 2,9 | 6,1 | 4,1 | 1,3 | 1,1 | 0 |
| Jende berria ezagutzeko, nire gizarte-sarea handitzeko | 2,1 | 0 | 2,5 | 3,9 | 2,2 | 0 |
| Nire arazoak ahazteko | 2,1 | 0 | 0,8 | 2,6 | 5,5 | 0 |
| Gizarteari zerbait ekartzeko | 1,9 | 0 | 1,6 | 2,6 | 3,3 | 0 |
| Proposatu edo gomendatu egin zioten | 1,9 | 3,0 | 1,6 | 1,3 | 2,2 | 0 |
| Medikuntzako profesionalen batek (psikologoak eta abar) gomendatu zidalako | 1,1 | 1,5 | 0,8 | 0 | 2,2 | 0 |
| Boluntarioak behar direlako | 1,1 | 0 | 1,6 | 1,3 | 0 | 6,2 |
| Erakundean eta erakundearen proiektuan sinesten dudalako | 1,1 | 1,5 | 0,8 | 2,6 | 1,1 | 0 |
| Berari eman zioten laguntza ematea | 0,8 | 1,5 | 0 | 1,3 | 1,1 | 0 |
| Boluntariotza hitzaldien edo prestakuntzaren bidez ezagutu zuen | 0,5 | 0 | 0,8 | 1,3 | 0 | 0 |

Oharra: ehunekoek ez dute 100 egiten, erantzun-aukerak ez direlako baztertzaileak.

CISen 2011ko txostenak ere[92] azken 12 hilabeteetan borondatezko lanen bat egin duten pertsonek emandako arrazoi nagusi gisa jasotzen ditu, hurrenez hurren lehen eta bigarren lekuan, besteei laguntzea (% 39,5) eta beharrezko eta baliagarria sentitzea (% 22,2); hori ez da asko urruntzen azterlan honetan emandako emaitzetatik.

[92] Op. cit.

## Motibazioak banakakoak dira, baina askotarikoak eta partekatuak

Pertsonek boluntario egiteko dituzten motibazioak interes, gurari edo igurikimen pertsonalei loturik daude. *Persona bakoitzak bere motibazioa du oinarri, eta hainbat dira boluntarioen munduaren parte izatera iristeko arrazoiak.*

Esan liteke eskuarki batera agertzen diren *bi motibazio handi daudela:* motibazio *altruista* (beste pertsona batzuei laguntzea, jaso den guztia itzultzea, gizarte-aldaketa sustatzea eta abar) eta motibazio *pertsonala* (zerbait berria probatzea, gizarte-gaien mundua ezagutzea, esperientzia lortzea lanean errazago sartzeko, gogobetetze eta garapen pertsonala, eta abar).

Motibazio altruista –borondatez eskaintzen den eta norberarentzat onurarik espero gabe beste pertsona batzuei mesede egingo dien laguntza da– zaila da pertsonaletik askatzea; izan ere, borondatezko ekintzak atsegin handia ematen die «ematen duten baino gehiago» jasotzen dutela diotenei, nahiz eta a priori badirudien egindako ahaleginak ez duela inolako saririk. Besteei emateko eta laguntzeko ekintza altruistaren beraren bereizgarria eta ezaugarria ekintza hori egiten duenak hartzen duen gogobetetze eta atsegin pertsonala da.

Motibazio pertsonalaren esparruan, elementu hauez hitz egin daiteke: zerbait baliagarria egitea astialdiarekin, gaitasunak eta trebetasunak lortzea, lan-esperientzia lortzea, beste errealitate batzuk ezagutzea eta beste bizipen batzuk izatea, eta abar.



Motibazio altruistaren esparruan, aldi berean bereiz litezke *elementu etikoak, gizatiarrak eta moralak* –gizartearentzat baliagarri izatea, besteei laguntzea, gehien behar dutenen egoera hobetzea, gizarteari jaso den hori itzultzea eta abar– eta *gizartea eraldatzeko edo aldatzeko* guraria (azken bi horiek estuki loturik egon ohi dira maiz).

Motibazio horietako hainbat izan ditzakete pertsona batek baino gehiagok, eta, eskuarki, elkarri lotuta eta elkarreraginean dauden arrazoiak dira, boluntariotza oraindik errealitate bat izateko bide ematen dutenak.

«Banuen astia, eta barrutik lagunduko ninduen zerbaitetan erabili nahi nuen. Horrez gainera, beste errealitate eta bizipen batzuk ezagutu nahi nituen. Boluntariotzan jende asko ezagutu dut, eta izugarri eman didate».

### Motibazio etikoak, moralak eta gizatiarrak

«Sentikorra izatea giza alderdiarekin, giza ahultasunarekin, ondoan egotearekin».

«Banuen astia. Nire denbora nire gurariez haragoko zerbaiti eskaini nahi nion».

### Gizartea eraldatzeko motibazioak

«Ni motibatu ninduena izan zen baztertuta dauden pertsonen gabeziak asko direla, eta nire aletxoa jarri nahi nuen».

### Motibazio materialak eta pertsonalak

«Baliagarri izateko gogoa. Gizaki guztiok behar dugu baliagarri izan. Gauzaez deitzea da gerta dakigukeen gauzarik okerrena».

«Nahiz eta bigarren lekuan besteei laguntzea dagoen, batez ere zeure burua hornitzeko eta gehiago ikasteko sartzen zara».

«Esperientzia hartzeko eta lan-merkatuan sartzeko jo nuen erakundera».

Boluntariotzaren parte izatea erabaki duten atzerritarren artean, lan hori egiteko motibazio nagusiez gain, gizarteratzearekin zerikusia duen motibazio bat ikusten da, bai eta boluntariotzaren bidez kultura ezagutzeko aukera izateko motibazioa ere.

Boluntario gazteenen artean, laneratzea erraztuko duten esperientzia eta gaitasun profesional batzuk lortzeko guraria dago, bai eta etorkizunean ordainpeko lan bat egin ahal izango duten erakundeetara gerturatzekoa ere. Ez da gazte guztietan agertzen den motibazio bat, baina bai dira adin-talde honek soilik aipatzen dituen arrazoiak.

«Asko balioesten da boluntariotza edo zure ikasketekin zerikusia duen jarduera bat konbinatzea».

«Osasuna interesatzen zaidalako sartu nintzen. Sartu ahala ohartzen zara jendearen esker onaz, zer ematen diezun».

## Boluntariotzara gerturatzen laguntzen duten zenbait faktore

Nahiz eta pertsonak nolabait ohartzen diren boluntariotzara gerturatzeko dituzten motibazioez, deigarria da zenbat pertsonak adierazi duten boluntariotzara a priori motibazio zehatzik gabe, halabeharrez edo egoera konkretu baten ondorioz gerturatu direla. Pertsona horiek besteak beste adierazi dute lagunengatik edo ahaideengatik, denbora libre asko dutelako, erretiroa hartu dutelako eta desgaitasun baten zioz bajan daudelako gerturatu direla boluntariotzara.

«Nahiko itsuan hasi nintzen. Ez neukan oso garbi non sartzen ari nintzen, baina nire anai-arrebak lehenago egonak ziren eta, uda hartan ezer egitekorik ez nuenez, bada, izena eman nuen».

Aipagarria da zenbat pertsonak adierazi duten boluntariotzara *lagun edo ahaideen* bidez gerturatu direla, horri buruz informatu edo parte hartzera bultzatu zituztelako. Eskuarki, pertsona horiek a priori ez zuten borondatezko ekintzaren inguruan interes konkreturik, baina, lagun edo ahaideek parte hartzen zuten erakundeari edo proiektu konkretu batzuei buruzko

informazioa jaso ondoren, ekimena ezagutzea erabaki zuten eta partaide izaten amaitu zuten.

Lagun eta ahaideek duten eragin edo inpaktu zuzena adierazgarria da; izan ere, modu horretara, motibatzeko gaitasun handia duten eta eskuarki erakundean inplikaturik dauden hurbileko pertsonen bidez ezagutzen da borondatezko ekintza. «Ahoz ahokoak» eta informazio ez-formal eta hurbilekoak borondatezko ekintza ezagutarazteko eta jende berria sartzeko duten eraginaren etsenplu argi bat da.

> «Lagun batek esan zidan; hark Gizakia Helburun parte hartzen zuen, semea han eduki zuela eta. Egun batzuetan joaten hasi nintzen, kontatu zidanak liluratu egin ninduen».
>
> «Inoiz ez nuen halakorik pentsatu, baina aurreko udan egon zen lagun batek akuilatu ninduen».

Boluntarioak boluntariotzara hurbilarazten dituen beste giltzarri egiaz garrantzitsu bat *astia izatea da*, batez ere pertsona ez-aktiboen kasuan; horien artean, erretiratuak eta desgaitasunen bat duten pertsonak daude.

> «Erretiroa hartu nuenean, nire denboraren parte bat ematea pentsatu nuen».
>
> «Erretiroa hartu nuenean ondo sentitzen nintzen zerbait egiteko».
>
> «Alaba bat gizarte-hezitzailea dut. Erretiroa hartu nuenean astia nuen, eta, oso bazterturik zeuden pertsonekin lan egin nahi nuenez, alabak erakunde horretaz hitz egin zidan».
>
> «Pentsatu nuen erretiroa aukera ona zela gizartean aktiboki parte hartzen jarraitzeko».

Bestalde, boluntariotzak barne hartzen du beste profil bat ere, hain zuzen ere *kaltetuen (edo haien ahaideen) erakunde bateko erabiltzaile edo onuradun izan ondoren* zuzenean edo zeharka haietatik jaso dutenaren zati bat itzuli nahian boluntario bihurtu diren pertsonei loturikoa. Esker oneko sentimendu horri erakunde horiek laguntzen dituzten taldeen egoera hobetzeko norberaren esperientzia agertzeko asmoa lotzen zaio; izan ere, lehen eskutik bizi eta ezagutzen dituzte haien zailtasunak eta gabeziak. Profil hori izan ohi da nagusia gaixotasun edo desgaitasunen bati loturiko erakundeen kasuan.

«Bere garaian Gizakia Helburu programa egin nuen, eta itzuli egin nahi nuen hura, aspaldi egin nahi nuen».

«Gaztetatik beti izan nituen kezkak. Lehenik amarekin eta ondoren aitarekin alzheimerraren ondorioak bizi izan nituenean, familien beharrizanez jabetu nintzen».

Boluntariotzako erakunderen batek esku hartzen zuen edo borondatezko ekintzari (garapenerako lankidetzari buruzko ikastaroak eta abar) buruzkoak ziren *ikastaro, lantegi edo hitzaldietara joan izana* ere aipatu dute boluntariotzara gerturatzeko bide gisa. Aldizka, boluntario gisa parte hartzera bultzatu dituzten faktoreen artean aipatu dira komunikabideek emandako informazioa edo borondateko ekintzarekin zerikusirik ez duen lan-harreman bat eduki izana.

«Beti erakarri izan ninduen lankidetzak. Ikastaro bat egin nuen, eta haren bidez sartu nintzen gaur kide naizen erakundean».

«Herri Irratian entzun nuen elkarteak jendea behar zuela eta hots egin nuen».

Edonola ere, ikusten da, beren esanei jarraiki, kasurik gehienetan bazela elkartasunaren inguruko gurari edo aurretiko jarrera bat; beraz, faktore horiek har litezke pertsona horiek azkenik boluntariotzara gerturatzeko eragile gisa, baina ez *leit motiv* gisa. Horregatik, bada motibazioez hitz egitean aurretik «pertsonengan existitzen den zerbait» dela dioenik, eta ez boluntario egiten dituen zerbait konkretu bat; horren harira, solidario izatea, baliagarri sentitzeko beharra izatea, gizartea eraldatu nahi izatea eta abar aipatu dituzte. Alde horretatik, boluntariotza balio pertsonalen adierazpide gisa uler daiteke.

«Bizilagun batek atzeman ninduen. Mezatan izan zen, eta han Gizakia Helburuz hitz egin zuten (...). Motibatua nengoen edozein motatako boluntariotza egiteko eta horrek akuilatu ninduen».

«Boluntariotzan gabiltzan guztiok beti pentsatu dugu horretan, baina astirik ez duzula edo lana, seme-alabak eta abar direla, une jakin batean esaten diozu zeure buruari, 'orain egingo dut'. Denok motibatu gaitu besteak laguntzeak».

Bestalde, *haurtzarotik «ikasten den» boluntariotzaz* hitz egin liteke. Haurtzarotik beren erreferentziako ingurunean boluntarioz inguraturik egon diren pertsonak dira, edo boluntariotzako erakundeen onuradun izan direnak, batez ere aisialdiko erakundeenak. Kasu horietan, borondatezko lana presente egon da beren bizitzaren zatirik handienean; boluntariotza «bizi-estilotzat» hartu ohi da, eta inplikazioa oso handia izaten da, bai eta kide izatearen lotura edo boluntario-nortasuna ere.

«Gaztetan, boluntariotzan eta aisialdiko erakundeetan parte hartu nuen. Erretiroa hartu eta adinekoen egoera ikusi nuenean, alor interesgarria iruditu zitzaidan eta pentsatu nuen erretiroa aukera ona zela gizartean parte hartzen jarraitzeko. Ekarpen bat egiteko eta zer gertatzen den jakiteko modu bat da».

Gainera, haurtzarotik edo gaztarotik boluntario izan diren pertsonen artean ohikoagoa da jarduera eten ondoren (lanagatik, familiagatik eta abar) aurrerago ostera heltzea; izan ere, parte-hartze soziala oso barneratua dago.

Profil horren beste bereizgarri bat da boluntariotzaren bidez jaso dena gizarteari itzuli nahi zaiola, eta, horrez gainera, beste pertsona batzuei erakutsi nahi zaiela esperientzia horren bidez ikasi eta bizi izan dena.

«Gure etxean jadanik egiten zen borondatezko lana; amak jadanik egiten zuen, eta, beraz, berez etorri zaidan zerbait da».

«Txikitatik egon izan naiz aisialdiko jardueretan inplikatua; beraz, itzultze natural bat izan da».

«Txikitatik egon izan naiz aisialdiko talde batean. Asko eman zidan, eta ez nuen utzi nahi (…) niri eman zidana eman nahi nien besteei».

*Kontsultatutako euskal boluntarioen erdiek baino gehixeagok adierazi dute ez dituztela aldatu borondatezko ekintza hasi zutenean zituzten motibazioak,* eta 10etik 2k, ostera, adierazi dute guztiz aldatu dituztela, eta % 26,4k motibazio-aldaketaren bat izan dutela.

Ez da ikusten alde estatistikoki esanguratsurik sexuaren, adinaren edo erakundean duten antzinatasunaren arabera[93], baina, emakumeen eta gizonen

[93] Eranskinean kontsulta daitezke aldagai horietarako bereizitako datuak.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, hasierako motibazioetatik gaur egungoetara izandako aldaketaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

73. TAULA

| Hasierako motibazioetan izandako aldaketak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Ez du aldaketarik sumatu | 53,8 | 58,1 | 51,4 |
| Bai, guztiz | 19,8 | 16,9 | 21,5 |
| Bai, behintzat neurri batean | 26,4 | 25,0 | 27,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

erantzunak kontuan hartuta, esan liteke motibazioa guztiz aldatu zaien emakumeen ehunekoa gizonena baino zertxobait handiagoa dela.

Eskuarki, hasierako motibazioek ibilbide osoan zehar irauten dute boluntarioengan. Alabaina, badirudi motibazio pertsonalekin loturikoak pisua galtzen doazela, eta, aldiz, gainerakoei lagundu nahi izatea, gizartea eraldatu edo hobetu nahi izatea edo baliagarri sentitu nahi izatea gailentzen direla eta konstante gisa irauten dutela.

Beste modu batera esanda, aldaketak ondoko honekin lotuta egon ohi dira: inplikazioa areagotu egin dela gizartea eraldatzeko edo talde jakin batzuen egoera hobetzeko gurariari dagokionez, eta, aldiz, gutxitu egin direla hasieran boluntariotzara gerturatzeko zio izan ziren interes pertsonalenak (esperientzia hartzea, baliagarri sentitzea, harremanen gizarte-sarea handitzea eta abar).

Esan liteke, orobat, motibazioa areagotu egiten dela halako esperientzia jakin bat hartu ondoren. Denborarekin estutu egiten da erakundearekiko lotura, egiten diren lanetan sakontzen da, gehiago parte hartzen da erakundean eta beste arlo guztietan, eta areagotu egiten da gogobetetzea.

«Hasieran, geure burua hornitzeko sartzen gara (…) Ondoren, jende horrengandik zer jasotzen duzun ikustean, zer bilakaera duten ikustean eta abar, horrek geraraztzen zaitu. Baina sartzean badago zerbait pertsonala ere, jendeari laguntzeaz harago».

«Sartzen zarenean, gehiago da zeurekoikeria, gehiago ari zara pentsatzen zeure buruarengan bestearengan baino. Zerk betetzen nauen ni, ez besteak laguntzarik behar duen».

## 6.6. Boluntariotzaren esanahia

Ikerketa testuinguruan kokatzen duen txosten honetako atalean aipatu dugu jadanik zer zailtasun dauden gaur egun oraindik boluntariotza definitzeko eta testuinguru desberdinetan eta tradizio desberdinak dituzten gizarteetan onartzeko moduko definizio eraginkorrak adosteko. Hain zuzen, gertakari konplexua da, eta zer alderdi azpimarratzen den, definizio bat edo beste lor liteke.

Arrazoi horrexegatik hartzen du hainbesteko garrantzia definiziora beste ikuspegi batetik hurbiltzeak. Zehazki, azterlan honen xedea da euskal boluntarioentzat kontzeptu horrek zer esan nahi duen jakitea.

Boluntariotzak biltzen dituen errealitate ugariak gorabehera, boluntariotzan jarduten dutenek ideia bera dute ondoko honen inguruko funtsari buruz: beren jardueratik datorren laguntza eta gizarte-eraldaketa, egiten den lanak ematen duen gogobetetzea eta boluntariotzak oro har euskal gizarteari egiten dion ekarpen soziala.

### Zer esan nahi du boluntariotzak boluntarioentzat?

Boluntarioek galdesortari emandako erantzunak, boluntariotza zer den galdetzean adierazitako iritziari dagokionez, hiru talde handitan bildu dira[94]: beren diskurtsoan boluntariotzaren ikuspegi traszendentalista azpimarratzen duten pertsonena, ikuspegi pragmatikoagoa dutenena eta boluntariotza modu pertsonalistan ikusten dutenena.

- *Ikuspegi traszendentalista:* pertsona horiek boluntariotzaren balioak goratzen dituzte, *bizi-estilo bat, jarrera bat, betebehar bat edo konpromiso bat* bihurtzen dute. «Hondokoa» dei genezakeen ikuspegi horrek *justizia soziala*, *kontzientzia* hartzea, *konpromisoa*, *militantzia*, *aktibismoa* eta halakoak nabarmentzen ditu, eta erantzukizun-ariketa gisa ikusten da.
- *Ikuspegi pragmatikoa:* epigrafe horren barruan biltzen dira boluntariotza elkartasunez eta modu altruistan parte hartzeko modutzat daukaten per-

[94] Sailkapen hori estuki lotuta dago «boluntariotzaren inguruko hurbilketa, hasierako motibazioak eta igurikimenak betetzea» atalean azaldu diren boluntarioen motibazio nagusiekin.

tsonak. Ikuspegi horrek praktikotasuna, funtzionaltasuna, hobekuntza, *laguntzea* eta halakoak azpimarratzen ditu, hau da, «emaitza».

- *Ikuspegi pertsonalista:* pertsona horientzat, boluntariotza, esan gabe doa, probetxurik espero gabe eta doan egiten den zerbait da, baina jasotako gogobetetze eta sari pertsonala, eskuzabaltasuna eta gauzatze pertsonala nabarmentzen dituzte. Ikuspegi horrek ondoko honetan jartzen du arreta: boluntario jarduten duten pertsonengan, *boluntarioentzat duen ondore positiboan*, *elkarrekikotasunean*, atzeraelikaduran eta boluntarioen eta borondatezko jardueratik onura ateratzen duten gainerakoen arteko sinergietan.

*Pertsona boluntarioen ia erdiek (% 47,5) dute boluntariotzaren ikuspegi pragmatikoa, % 30ek traszendentalista, eta gainerako % 22,5ek pertsonalista.*

Nahiz eta ez diren oso nabarmenak, ikusten dira aldeak gizonen eta emakumeen ikuspegiaren artean. *Emakumezko boluntarioen artean ikuspegi pertsonalistak pisu handiagoa du, eta ikuspegi txikiagoa ikuspegi traszendentalistak.*

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, 'boluntariotza' terminoari ematen zaion definizioaren arabera. Emaitza orokorrak. %** — 13. GRAFIKOA




Boluntarioen ia erdiek (% 47,3) boluntariotzaren ikuspegi pragmatikoa dute, nahiz eta ikuspegi traszendentalistaren pisua handiagoa den 40-49 urte bitartekoen eta 65 urtetik aurrerakoen artean. Ikuspegi pertsonalista apalena da adin guztietan, baina gazteenen artean batezbestekotik zertxobait gorago dago.

Emakumezko boluntarioen ia erdiek (% 47,7) boluntariotzaren ikuspegi pragmatikoa dute; gehienen iritzia da hori adin guztietan, 30-39 urtekoen tartean izan ezik; izan ere, % 44,4k ikuspegi traszendentalista dute. Ikuspegi pertsonalista areagotu egiten da, ikuspegi traszendentalistaren kaltetan, 50 urtetik aurrera.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, 'boluntariotza' terminoari ematen zaion definizioaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

14. GRAFIKOA




### Gaur egungo boluntarioen banaketa, 'boluntariotza' terminoari ematen zaion definizioaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren eta sexuaren araberakoak. %

74. TAULA

| | Gizonak | | | Emakumeak | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Traszendentalista | Pragmatikoa | Pertsonalista | Traszendentalista | Pragmatikoa | Pertsonalista |
| 18 eta 29 bitartean | 33,3 | 47,6 | 19,0 | 30,0 | 46,0 | 24,0 |
| 30 eta 39 bitartean | 31,3 | 50,0 | 18,8 | 44,4 | 40,7 | 14,8 |
| 40 eta 49 bitartean | 52,6 | 42,1 | 5,3 | 27,0 | 51,4 | 21,6 |
| 50 eta 64 bitartean | 21,6 | 59,5 | 18,9 | 26,7 | 43,3 | 30,0 |
| 65 edo gehiago | 55,6 | 36,1 | 8,3 | 9,8 | 54,1 | 36,1 |
| **Guztira** | **38,8** | **47,3** | **14,0** | **25,1** | **47,7** | **27,2** |

Boluntariotza definitzeko orduan nabarmentzen dutenaz harago, inkestaren emaitzak baieztatzen du gaur egungo boluntarioak guztiz jakitun direla beren ekintza lan zabalago baten parte dela eta lan horren xedea kontuan hartzen dela. Zehazki, kontsultatutako 10 boluntariotik 9k hala uste dute.

75. TAULA

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, boluntariotza gogoan hartzen den lan zabalago baten parte gisa hartzen den kontuan hartuta. Emaitza orokorrak. %**

| Boluntariotza lan zabalago baten parte gisa | Guztira |
|---|---|
| Asko edo dezente | 90,3 |
| Gutxi edo ezer ez | 9,7 |
| **Guztira** | **100,0** |

## Boluntarioen balio erantsia

Boluntariotza *Hirugarren Sektoreko erakunde askoren oinarria da*. Boluntarioek erakundeetatik sustatzen den hobekuntza eta eraldaketa sozialaren oinarri den giltzarritzat daukate beren ekintza.

Boluntarioek uste dute beren lana *erakundearen biziraupena bera dela*; izan ere, haien parte-hartzeari esker, erakundeek abian jartzen dituzten *jardueretako asko garatzen dira, eta are zabaltzen ere*, eta *pertsona gehiagori eman dakieke arreta*. Pieza giltzarria da hori, zeina gabe erakunde asko desagertu egingo liratekeen.

Eztabaida-taldeetan bildutako informazioaren arabera, esan liteke ondoko hiru lotura hauetan boluntarioak giltzarri direla erakundeen garapenean:

- *Erakundearen eta gizartearen arteko maila:* boluntarioek beren burua gizarteak erakundeen berri izateko bidetzat daukate. Egiten dituzten lan zehatzek, beren ingurune hurbila sentsibilizatzeko lanek eta halakoek bide ematen dute gizarteak erakundeen ondoriozko ekintza konkretua ikus dezan.
- *Erakundearen eta boluntario potentzialen arteko maila:* boluntarioak, erakundeak gizarteratu eta ikusarazten dituzten bideetako bat diren aldetik, boluntario berriak atzemateko bide bat ere badira. Ahoz ahokoak ezagu-

nen artean duen eragina funtsezkoa da boluntarioak atzemateko. Baina, batez ere, egiten den sentsibilizazio-lana nabarmentzen da.

- *Erakundearen eta erabiltzaileen arteko maila:* nahiz eta erakunde bakoitza desberdina den, zein eratako pertsonak laguntzen diren (gizartean baztertuta dauden pertsonak, gaixotasunen batek erasandakoak, haurrak eta nerabeak, eta abar) eta zer beharrizan dituzten kontuan hartuta (arreta nahiko profesionala), boluntarioak, askotan, erabiltzaileen edo kaltetuen eta erakundearen arteko lotura nagusitzat hartzen dira.

Boluntarioek ez dute baztertzen zenbait erakundetan lan egiten duten profesionalen lana, baizik eta eskuarki goratu egiten dute. Alabaina, profesionalen eta arreta eman zaien pertsonen arteko harremana edo tratua noizbehinkakoa denean edo arreta nagusiki lagun egitea denean, boluntarioen egitekoa giltzarria da: presente daude erabiltzailearen eguneroko bizitzan, hurbileko tratua dute, konfiantza handiagoko loturak sor ditzakete, gizarteratzen laguntzen dute, eragin handiagoa izan dezakete ordainetan ezer espero gabe aritzen direnez sinesgarritasun handiagoa transmititzen dutelako, eta abar.

Horregatik, boluntarioek bide ematen dute erakundearen helburuak erabiltzaileen beharrizanekin lotzeko, eta, azken buruan, bide zuzen eta fidagarri bat dira profesionalentzat eta arduradunentzat, laguntzen duten taldea ezagutzeko. Horrek berekin dakar erakundeen ekintzak eta proiektuak hobetzea eta aberastea.

Azken finean, erakundeen *balio erantsia dira*, batez ere egitura hierarkikoago eta profesionalizatuago bat dagoen horietan. Haiek betikotzen dituzten ezaugarriak, hots, hurbiltasuna, giza alderdia, probetxurik atera gabe egiten den ekintza, eta, azken batean, erakundearen *alderdi sozialena,* kalteturik geratuko lirateke boluntariorik ez balego.

Aldi berean, balio erantsi hori pertsona boluntarioek *gizartea eraldatzeko* duten gurariarekin eta inplikazioarekin lotuta dago, eta hori erakundeaz beraz harago doa: hurbileko inguruneko pertsonak informatu eta sentsibilizatzen dira, borondatezko lana edozein lekutan egiten da, etab. Azken batean, *erakundearen egitekoaren berezko igorleak dira*. Hori da boluntarioek ordainpeko langileei dagokienez identifikatu duten alde nagusia; izan ere, *boluntarioen egitekoak ez du lanaldirik, jarraitua da, eta ez da bukatzen erakundetik kanpo daudenean*.

Lana probetxurik atera gabe egitea eta hartzen duten konpromisoa ere badira boluntarioen ekarpenaren inguruan aipatu diren beste giltzarrietako

batzuk. Inplikazioan eta motibazioan oinarritutako dedikazio bat da, norberaren ahalmen eta gurarien araberakoa, eta erakundearen zerbitzura ezagutza eta gaitasun pertsonalak jartzen ditu, bai eta bizi-esperientzia ere. Aldi berean, talde hori *ideia eta ekimen berrien sortzaile* izan liteke; beraz, erakundeak aukera du halako ekarpenak bideratzeko.

Horrez gain, denak bat datoz boluntarioek ahalbidetzen dutela oro har Hirugarren Sektorea existitzea; izan ere, *sistemaren beraren gabeziak* eta erakunde publikoek *betetzen ez dituzten beharrizanak betetzen dituzte*. Boluntarioek beren burua ez bakarrik ikusten dute erakundearen makineria gisa, baizik eta babes-sistema osoaren makineria gisa, eta, beraz, guztiz jakitun dira zer aurrezki sortzen duten aurrekontu publikoetan.

Pertsona askok uste dute boluntariorik ez balego galdu egingo litzatekeela erakundeen eta oro har gizartearen *alderdi gizatiarrena*; izan ere, profesionalizaziorantz joko litzateke, eta horrek gastu handiagoa ekarriko luke eta gutxitu egingo lirateke Hirugarren Sektoreari esker egiten diren ekintzak.

Baina boluntarioek erakundeei ekartzen dietenaz harago, boluntarioak guztiz jabetzen dira oro har gizarteari zer ekartzen dioten. Borondatezko ekintzaren garapena *gizartean aktiboki parte hartzeko* modu bat da, eta, beraz, *ingurunea aldatzeko sustatzaile* dira, eta, azken buruan, *gizarte-ongizatearen sortzaile*.

## 6.7. Erakundeetan egiten den boluntarioen kudeaketari buruzko balioespena

Borondatezko ekintza hobeto ulertzeko eta taldearen beraren ikuspegian sakontzeko helburuarekin, galdesortan bildutako informazioa eztabaida-taldeen bidez bildutakoarekin osatu da. Hain zuzen, eztabaida-talde horietan landu diren alderdiak garrantzikotzat jotzen dira erakundeetan boluntarioen kudeaketa zenbateraino formalizatuta dagoen, kudeaketa hori nola baloratzen duten eta zer erronka identifikatzen dituzten ulertzeko, bai eta boluntarioek erakundeetan zenbateraino parte hartzen duten eta haien lana zenbateraino aintzatesten den ulertzeko ere.

Kontuan izan behar dira boluntarioek zer eratako erakundeetan egiten duten beren lana (jardun-esparruak, talde hartzailea, erakundearen tamaina edo egitura, eta abar), zer jarduera egiten dituen pertsona bakoitzak (lagun egitea, kudeaketa- edo administrazio-lanak, sentsibilizazio-kanpainak eta abar),

zenbat denbora daramaten boluntario-lanetan edo zenbateraino dauden erakundean inplikatuta; izan ere, aldagai horiek aztertu diren galderen gaineko balioespenetan eragiten dute; beraz, atal honetan errealitate horiek guztiak kontuan hartzen saiatu gara, balioespenak testuinguruan kokatuta.

## Zenbateraino dago formalizatuta boluntarioen kudeaketa?

Erakunde askok, batez ere boluntario ugari dituztenek, boluntarioen arduradunaren bitartez kudeatzen dituzte boluntarioak. Hain zuzen, boluntarioen arduradunak eginkizun aktiboa du entzuteko, informazioa transmititzeko eta boluntarioen artean eginkizunak banatzeko. Hamar boluntariotik zortzik adierazi dute beren erakundean badutela arduradun bat, eta, zalantzarik gabe, harekin oso pozik daude; izan ere, % 95,6k adierazi dute oso edo nahiko pozik daudela boluntarioen arduradunarekin duten harremanarekin.

Bestalde, EAEko Boluntarioei buruzko Legeak ezartzen du boluntariotzako erakundeek borondatezko ekintza zaindu behar dutela, beste hainbat moduren artean boluntarioen kode etiko bat onartuta –erakundeko pertsonen lan-ildoak ezartzen dituzten eginkizun eta betebeharren inguruko orientazio-gida bat– eta beren boluntarioak ziurtatuta.

Horri dagokionez, inkestari esker jakin ahal izan dugu kontsultatutako boluntarioen % 65ek ez dutela Lege hori ezagutzen. % 35,1ek adierazi dute badutela nahitaezko erantzukizun zibileko aseguru bat. Gainera, kontsultatutako 10 pertsonatik 7k adierazi dute beren erakundean badela boluntarioen kode etiko edo estatutu bat.

### Boluntarioei buruzko legearen eta boluntarioen arduradunaren, kode etikoaren eta boluntarioen aseguruaren existentziaren ezagutza. Emaitza orokorrak. %

76. TAULA

| | Bai (%) |
|---|---|
| Ezagutzen du Boluntarioei buruzko Legea | 34,9 |
| Bere erakundean bada boluntarioen arduradun bat | 84,6 |
| Bere erakundean bada boluntarioen kode etiko bat | 72,1 |
| Badu boluntarioen asegurua | 35,1 |

*10 boluntariotik ia 8 pozik daude boluntario gisa egiten dituzten lan konkretuekin*. Pozik ez daudenen ehunekoa ez da % 1,3ra iristen, eta ez da ikusten diferentziarik sexuaren, adinaren, egiten dituzten lan-moten edo boluntario -lanetan daramaten denboraren arabera.

**Gaur egungo boluntarioek egiten dituzten lanekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak. %**

15. GRAFIKOA




Boluntarioen % 94k uste dute egiten dituzten lanen helburuak argi zehaztuta daudela, eta % 93,2k erraz jakin dezakete borondatezko lanak egiten ari diren bitartean ondo betetzen ari diren edo ez. Bestalde, soilik % 53,3k adierazi dute gehien gustatzen zaizkien lanak hauta ditzaketela.

Bestalde, adieraz liteke boluntarioen % 20,5ek uste dutela beren lanak monotonoak direla; faktore hori kontuan hartu behar dute erakundeek boluntarioen gogobetetzea eta iraupena ziurtatzeko orduan.

77. TAULA

### Ñabardura batzuekin egiten dituzten lanekin pozik edo oso pozik dauden gaur egungo boluntarioak. Emaitza orokorrak. %

| Eginkizunen inguruko ñabardunak | Pozik + Oso pozik |
|---|---|
| Eskuarki egiten ditudan lanen helburuak argi zehaztuta daude | 94,0 |
| Erraz jakin dezaket borondatezko lanak egiten ari naizen bitartean ondo egiten ari ote naizen | 93,2 |
| Gogoko dut boluntario gisa egiten dudana | 98,7 |
| Egiten ditudan borondatezko lanak nahiko monotonoak dira | 20,5 |
| Gehien gustatzen zaizkidan lanak hauta ditzaket | 53,3 |

Oharra: datuak ez dira 100era iristen, ematen den informazioa hainbat galderari dagokielako.

## Gogobetetze handia eginkizunekin, baina etsipen handiagoa lanek emaitza zuzenik ekartzen ez dutenean

Boluntarioak oso pozik ageri dira egiten dituzten lanekin, eta horietan aurkitzen dute motibazioaren zati handi bat eta aintzatespen pertsonala. Pertsona bakoitzak egiten dituen lanak askotarikoak dira, erakunde-motaren, laguntzen dituzten taldeen, jardun-esparruaren eta abarren arabera. Eginkizun horiek lagun egitea, kudeaketa edo administrazioa, sentsibilizazio -kanpainak eta halakoak izaten dira.

Badirudi gogobetetze handiagoa dagoela lagun egiten aritzen diren eta, beraz, lagundutako pertsonekin harreman zuzena duten pertsonen artean. Boluntarioentzako aintzatespen garrantzitsuena beren jardueraren zuzeneko onuradunengandik datorrena da. Boluntarioek egiten duten lanaren lorpenak ikustea zaila bada edo lorpen horiek epe ertain edo luzera badatoz, badirudi boluntarioek, nahiz eta gogobetetzea adierazten duten, halako etsipen bat sentitzen dutela, emaitza ezin ukituzkoa delako.

Oso modu positiboan balioesten dute *boluntarioek egin nahiko lituzketen jarduerak hautatzeko ematen zaien aukera*, eta, aldi berean, onartzen dute erakundeek orienta ditzaten, pertsona bakoitzaren gaitasunen eta ezagutzen arabera. Nolanahi ere, entzuten dituztela sentitzen dute. Batez ere, erakunde handi eta egituratuagoetako kide diren boluntarioen artean (boluntarioen arduraduna dutenak, boluntarioentzako prestakuntza dutenak eta abar), kudeaketa horren gaineko gogobetetzea oso handia da. Boluntarioek auke-

ra dute egin nahi dituzten lanak aukeratzeko, eta, esperientziarik ez badute, prestakuntza eskaintzen zaie.

Eskuarki, badirudi erakundeek ahalegina egiten dutela boluntarioak ondoen egin ditzaketen jardueretara bideratzeko, albait etekinik handiena lortzeko; horrek azal dezake zergatik diren % 50 inguru beren jarduera hauta dezaketela dioten boluntarioak. Alabaina, badirudi boluntarioek onartzen dutela errealitate hori, eta uste dute badutela dauden eginkizunen berri eta ahal den neurrian hauta ditzaketela jarduerak.

Dena dela, badirudi ez direla behar beste aintzatesten kontu administratibo, burokratiko edo bulegokoekin lotuen dauden borondatezko zenbait lan, baina horiek ere garrantzia dutela eta ez direla beti aintzatesten.

## Zenbateraino daude pozik boluntarioak harrerarekin, jarraipenarekin eta laguntzarekin?

Boluntarioen % 97,4 nahiko pozik edo oso pozik ageri dira erakundean egin zieten harrerarekin. Bildutako datuek adierazi dute harreraren inguruko batez besteko gogobetetze-maila 8,89 puntukoa dela 0tik 10era bitarteko eskalan, nahiz eta emakumezkoak gizonezkoak baino gogobeteago ageri diren.

Ez dirudi hurrengo taulan kontuan hartutako gainerako aldagaiek balioespen horretan eragiten dutenik, nahiz eta badirudien zuzenean esku hartzen duten pertsonek eta erakundean denbora gutxien daramaten boluntarioek batez beste gainerakoek baino gogobetetze handixeagoa agertzen dutela.

### Gaur egungo boluntarioek harrerarekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak. %

16. GRAFIKOA



## Gaur egungo boluntarioek harrerarekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak eta sexuaren, adinaren, erakundean duten antzinatasunaren eta egiten dituzten lanen araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

78. TAULA

| Harreraren gaineko gogobetetzea | Batez-bestekoa | Ohiko desbiderapena[95] | Gutxienez | Gehienez |
|---|---|---|---|---|
| **Orokorra** | | | | |
| Orokorra | 8,89 | 1,36 | 3 | 10 |
| **Sexua** | | | | |
| Gizonezkoak | 8,77 | 1,38 | 5 | 10 |
| Emakumezkoak | 8,96 | 1,35 | 3 | 10 |
| **Adina** | | | | |
| 18 eta 29 bitartean | 8,84 | 1,51 | 3 | 10 |
| 30 eta 39 bitartean | 9,02 | 1,20 | 6 | 10 |
| 40 eta 49 bitartean | 8,80 | 1,49 | 5 | 10 |
| 50 eta 64 bitartean | 8,83 | 1,41 | 3 | 10 |
| 65 edo gehiago | 8,98 | 1,19 | 5 | 10 |
| **Antzinatasuna erakundean** | | | | |
| 1 urte baino gutxiago | 9,35 | 1,11 | 7 | 10 |
| 1 eta 5 urte bitartean | 8,71 | 1,43 | 3 | 10 |
| 5 eta 10 urte bitartean | 9,01 | 1,32 | 4 | 10 |
| 10 baino gehiago | 8,92 | 1,33 | 3 | 10 |
| **Egiten dituzten lan-motak** | | | | |
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 8,74 | 1,44 | 5 | 10 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 8,92 | 1,36 | 3 | 10 |
| Biak | 9,03 | 1,21 | 5 | 10 |

[95] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

## Gaur egungo boluntarioek jarraipenarekin eta laguntzarekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak. %

17. GRAFIKOA




## Gaur egungo boluntarioek jarraipenarekin eta laguntzarekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak eta sexuaren, adinaren, erakundean duten antzinatasunaren eta egiten dituzten lanen araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

79. TAULA

| Gogobetetzea jarraipenari eta laguntzari dagokionez | Batez-bestekoa | Ohiko desbide-rapena[96] | Gutxienez | Gehienez |
|---|---|---|---|---|
| **Orokorra** | | | | |
| Orokorra | 7,77 | 1,77 | 0 | 10 |
| **Sexua** | | | | |
| Gizonezkoak | 7,73 | 1,77 | 3 | 10 |
| Emakumezkoak | 7,80 | 1,77 | 0 | 10 |
| **Adina** | | | | |
| 18 eta 29 bitartean | 7,22 | 1,86 | 0 | 10 |
| 30 eta 39 bitartean | 7,61 | 2,30 | 0 | 10 |
| 40 eta 49 bitartean | 8,07 | 1,68 | 3 | 10 |
| 50 eta 64 bitartean | 7,94 | 1,70 | 4 | 10 |
| 65 edo gehiago | 7,93 | 1,48 | 4 | 10 |

(…)

[96] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

(…)

| Gogobetetzea jarraipenari eta laguntzari dagokionez | Batez-bestekoa | Ohiko desbide-rapena | Gutxienez | Gehienez |
|---|---|---|---|---|
| **Antzinatasuna erakundean** | | | | |
| 1 urte baino gutxiago | 8,62 | 1,19 | 6 | 10 |
| 1 eta 5 urte bitartean | 7,50 | 2,00 | 0 | 10 |
| 5 eta 10 urte bitartean | 7,81 | 1,74 | 3 | 10 |
| 10 baino gehiago | 7,87 | 1,62 | 0 | 10 |
| **Egiten dituzten lan-motak** | | | | |
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 7,76 | 1,63 | 4 | 10 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 7,81 | 1,77 | 0 | 10 |
| Biak | 7,40 | 2,10 | 0 | 10 |

Erakundeak egiten duen jarraipena eta laguntza ere kontsultatutako boluntarioen % 89,3k baloratu dute ondo.

Alabaina, kontu horrek batez beste orain arte aipaturikoek baino puntu gutxiago lortu ditu, zehazki 10etik 7,77.

Kasu honetan, ezin izan da alde esanguratsurik egiaztatu sexua, adina, lan-mota, erakundean duten antzinatasuna eta halako aldagaiak kontuan hartuta, baina azken kasu horretan batez besteko gogobetetze-maila zertxobait handiagoa ikusten da erakundean laguntzen denbora gutxien daramatenen artean.

Boluntarioen kudeaketari buruzko balioespenaren inguruan ahalik eta informaziorik zehatzena biltzen saiatu gara, bai eta erakundeek entzuteko duten erarekin, bilerekin eta beren arazoei ematen dieten irtenbidearekin nahiko pozik edo oso pozik dauden pertsonen portzentajearen inguruan ere. Horietan guztietan ikusten da gehien-gehienak pozik daudela.

## Ñabardura batzuekin jarraipenarekin eta laguntzarekin pozik eta oso pozik dauden gaur egungo boluntarioak. Emaitza orokorrak. %

80. TAULA

| Jarraipenaren eta laguntzaren inguruko ñabardurak | Pozik + Oso pozik |
|---|---|
| Erakundeak boluntarioen eskariak nola entzuten dituen eta nola hartzen dituen kontuan | 91,9 |
| Boluntarioek aurkitzen dituzten arazoak konpontzeko mekanismoak | 89,9 |
| Erakundeak boluntarioei lagun egitea eta babestea | 93,8 |
| Erakundeak egiten dituen bileren kopurua | 88,0 |
| Erakundeak egiten dituen bileren dinamika eta edukia | 92,7 |

Oharra: datuak ez dira 100era iristen, ematen den informazioa hainbat galderari dagokielako.

### Harreraren balioespen positiboa, baina jarraipen eta laguntza handiagoa izateko beharra

Boluntarioek aitortzen diote erakundeari boluntarioak eta haiek egin beharreko lanak kudeatzeko egiten duten lana. Aurretiko barne-lan horri esker, arazo gehiagorik gabe sar daitezke buru-belarri eman zaizkien lanetan. Antolaketarik ez denean, orduan sor liteke boluntarioei beren jarduna bertan behera utzaraz diezaiekeen frustrazioa.

> «Nire kasuan, eskertzen dut erakundea».
>
> «Niri erakundeak dena antolatzen dit neska-mutilekin kanpaldietara joaten naizenean; beste kontu bat da gero nik erabakitzen dudala, boluntario edo jardueren arduradun gisa, nola eramango dudan. Ni frustratu egingo ninduke ikusteak egun batean neska-mutilak ez direla joaten, beste egun batean bai, eta abar».

Nahiz eta ez erakunde guztiek izan beren boluntarioei harrera eta jarraipena egiteko protokolo bat, boluntarioek oso balioespen positiboa egiten dute halakorik badute.

*Harrera* giltzarria da. Izan ere, horri esker hurbilagotik ezagut daitezke erakundearen egitekoa eta helburuak, bai eta garatzen dituen ekintzak ere, eta,

batez ere, espazio horretan borondatezko lanak egiteko baliagarri gerta daitezkeen kezkak eta gaitasunak adieraz daitezkeelako.

Jarraipena funtsezkotzat jotzen da, erakundearen eta borondatezko jardueran azaleratzen diren bizipen, zailtasun edo beharrizanen arteko lotura den aldetik. Gainera, bide ematen du boluntarioei haien profilari edo igurikimenei hobekien egokitzen zaizkien eta denborarekin eboluzionatuz joan daitezkeen eginkizunak emateko. Erakundearen zein pertsona boluntarioaren aldaketara egokitu ahal izango dela bermatzeko modua da. Eta, gainera, modu horretan sumatzen dute boluntarioek erakundeak babesten eta entzuten dituela, eta, horregatik, garrantzi bizia du.

Gainera, positiboki balioesten da *boluntarioen arduraduna* aintzat hartzea; izan ere, boluntarioek erreferentetzat hartzen dute, arazoak sortzen direnean badutela norengana jo eta bera arduratzen dela informatzeaz eta boluntarioez kezkatzen dela. Oro har, erakundearen eta boluntarioen arteko giza loturatzat hartzen da.

Boluntarioek egiten dituzten lanak etengabe berrikustea garrantzitsua da, orobat, *zenbait pertsonak geldialdi bat bizi dezaketelako beren lanean ohikerian eroriz gero,* eta horrek inplikazioa edo ilusioa galtzea ekar dezakeelako. Berrikuspen hori boluntarioek eskatu beharko lukete, eta erakundeak hori bideragarri egiteko bideak ezarri beharko lituzke.

Boluntario berriak sartzeari begira, hainbat proposamen egin dira, hala nola *probaldi bat ezartzea* boluntarioek jarduera ezagut dezaten, gogoko duten eta egiten dituzten lanekin gustura sentitzen diren jakin dezaten. Nahiz eta boluntariotza, izenak berak adierazten duen bezala, ez den nahitaezko jarduera bat, pertsonek hasieran senti dezakete halako deserosotasun bat benetan zer irizten dioten esateko.

Kontu horren harira, boluntarioak hautatzeko aukera ere aipatu da; izan ere, pertsona guztiek ezin dituzte behar bezala egin erakundeek eskatzen dituzten lanak. Hautatzeko orduan, pertsona bakoitzaren jarrera, konpromiso-maila, profila edo gaitasun pertsonalak hartu beharko lirateke oinarritzat. Ez dago adostasun handirik proposamen horrekin; izan ere, boluntarioak ez dira asko, eta, gainera, ez dira ezagutzen boluntario berriek izan ditzaketen gaitasunak eta konpromiso-maila. Baina, zalantzarik gabe, horrek adierazten du beharrezkoa dela lanak behar bezala banatzea, pertsonen interesez harago, bai eta garrantzitsua dela boluntarioak erakundean inplikatuta egotea ere.

Halaber, behar bezala bideratu gabeko boluntario potentzialak ere identifikatu dira, zehazki a priori boluntariotzari lotzen ez zaizkion profil profesionaletakoak. Borondatezko ekintza gizarte-izaerako ekintzei lotzen zaie, eta horietara bideratzen da gehienbat (adineko pertsonei lagun egitea, haurrentzako aisi jarduerak eta abar); beraz, gizarte-izaerako profil profesionalak dituzten pertsonak (hezitzaileak, psikologoak eta abar) edo gizarte-jarrera eta -gaitasun konkretuak dituztenak (zaintzea, entzutea eta abar) errazago sartzen dira halako boluntarioak nagusi diren erakundeetan. Aldiz, profil teknikoagoak dituzten pertsonek, hala nola informatikariek eta ingeniariek, ez dirudi ikusten dutenik zer laguntza eman diezaieketen inguruko erakundeei.

«Jarduerak gizarte-gaiei oso lotuta daude. Batez ere, zuzeneko laguntzaren kasuan, jarduera asko sorostekoak izaten baitira. Informatika ikasi duen pertsona bati ez zaio bururatzen zer egin dezakeen… Pentsatzen dute haiek egiten dutenak ez duela ezer ekartzen eta uste dute boluntariotza gizarte-gaiei dagokiela».

## Zenbateraino daude pozik prestakuntzarekin?

Prestakuntza garrantzitsua da boluntarioentzat. Horregatik, % 78,9k garrantzizkotzat jotzen dute borondatezko lana hastean prestakuntza-ekintzaren bat egitea eta % 79,8k uste dute garrantzizkoa dela denboran zehar prestakuntza jasotzea. Bildutako informazio kualitatiboa kontuan hartuta, askok uste dute garrantzitsua dela boluntarioentzako prestakuntza izatea.

### Prestakuntza nahiko edo oso garrantzizkotzat jotzen duten gaur egungo boluntarioak. Emaitza orokorrak. %

81. TAULA

| Prestakuntzak duen garrantzia | Nahiko + Oso garrantzitsua |
|---|---|
| Borondatezko lana hastean prestakuntza-ekintzaren bat egitea | 78,9 |
| Denboran zehar prestakuntza jasotzen jarraitzea | 79,8 |

Oharra: datuek ez dute 100 egiten, ematen den informazioa hainbat galderari dagokielako.

Alabaina, hamar boluntariotik lauk adierazi dute ez dutela egiten dituzten lanei loturiko inolako prestakuntzarik. Prestakuntza-motaren bat egin dutenen % 95,1ek uste dute prestakuntza hori oso edo nahiko egokia dela.

## Gaur egungo boluntarioen banaketa, egiten dituzten lanei loturiko prestakuntzarik egin duten edo ez kontuan hartuta. Emaitza orokorrak. %

18. GRAFIKOA




## Gaur egungo boluntarioek jasotako prestakuntzarekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak. %

19. GRAFIKOA




Boluntario gisa lana behar bezala egitea ez da zailtasun oso ohikoa, baina hor eragina izan lezake lana gauzatzeko behar den prestakuntza ez jasotzeak, batez ere oso talde zehatzekin lan egiten den kasuetan. Baina boluntarioek eginkizunak garatzeko duten garrantzia ez ezik, *erakundean inplikazio handiagoa* izateko prestakuntza zein garrantzitsua den ere adierazi da eztabaida-taldeetan.

Boluntarioen % 88,6k adierazi dute beren erakundean badirela boluntarioak informatzeko eta parte hartzeko bideak, eta % 81,4k adierazi dute badutela informazio-mekanismo formalen bat eta horren bidez badutela erakundearen lorpenen berri. Zehazki, boluntarioen % 92,3k adierazi dute pozik edo oso pozik daudela parte hartzeko bideekin.

### Informatzeko eta parte hartzeko bideak badiren edo ez, gaur egungo boluntarioen arabera. Emaitza orokorrak. %

82. TAULA

| Informatzeko eta parte hartzeko bideak izatea | Bai (%) |
|---|---|
| Informatzeko eta parte hartzeko bideak izatea erakundearen barruko boluntarioentzat | 88,6 |
| Informatzeko mekanismo formalen bat izatea, boluntarioek erakundearen lorpenen berri izateko | 81,4 |

### Gaur egungo boluntarioen gogobetetze-maila erakundeak haien eskura jartzen dituen parte hartzeko bideei dagokienez. %

20. GRAFIKOA




*Parte hartzeko bideek batez beste 7,98ko puntuazioa dute 10etik.* Ez da alde esanguratsurik ikusten sexuaren, adinaren, lan-motaren, erakundean duten antzinatasunaren eta halako aldagaien arabera, baina ikusten da batez besteko gogobetetzea zertxobait handiagoa dela erakundean urtebete baino gutxiago daramatenen artean (8,53).

## Gaur egungo boluntarioek parte-hartzearen inguruan duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak eta adinaren, erakundean duten antzinatasunaren eta egiten dituzten lanen araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

83. TAULA

| Parte-hartzearen inguruko gogobetetzea | Batez-bestekoa | Ohiko desbide-rapena[97] | Gutxienez | Gehienez |
|---|---|---|---|---|
| **Orokorra** | | | | |
| Orokorra | 7,98 | 1,60 | 0 | 10 |
| **Sexua** | | | | |
| Gizonezkoak | 7,98 | 1,42 | 3 | 10 |
| Emakumezkoak | 7,99 | 1,70 | 0 | 10 |
| **Adina** | | | | |
| 18 eta 29 bitartean | 7,93 | 1,40 | 5 | 10 |
| 30 eta 39 bitartean | 7,74 | 2,04 | 0 | 10 |
| 40 eta 49 bitartean | 7,94 | 2,00 | 0 | 10 |
| 50 eta 64 bitartean | 8,01 | 1,42 | 4 | 10 |
| 65 edo gehiago | 8,14 | 1,40 | 3 | 10 |
| **Antzinatasuna erakundean** | | | | |
| 1 urte baino gutxiago | 8,53 | 0,99 | 7 | 10 |
| 1 eta 5 urte bitartean | 7,97 | 1,70 | 0 | 10 |
| 5 eta 10 urte bitartean | 8,05 | 1,61 | 4 | 10 |
| 10 baino gehiago | 7,90 | 1,54 | 0 | 10 |
| **Egiten dituzten lan-motak** | | | | |
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 7,84 | 1,90 | 0 | 10 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 8,01 | 1,53 | 0 | 10 |
| Biak | 8,09 | 1,35 | 5 | 10 |

[97] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

## Boluntarioek erakundeetan duten parte-hartzea: mugak eta erantzukizunak

Erakundeetako parte-hartzeaz hitz egiteko orduan garrantzitsua da zenbat erakunde eta zenbat eratakoak dauden kontuan hartzea (erakunde handiak edo txikiak, profesionalizatuak edo ez hain profesionalizatuak, era bateko zein besteko beharrizanak dituztenak eta abar). Esate baterako, baliteke parte hartzeko aukerak ez izatea berdinak erabiltzaileen ahaideentzako erakunde batean lagun egiten aritzen den pertsona batentzat edo aisialdi eta astialdiko erakunde baten barruan begirale-lanak egiten dituen boluntario batentzat. Alde horretatik, ezin da ahaztu erakunde bakoitza zein unetan dagoen edo zenbateraino egituratuta dagoen ere (erakunde sortu berriak, gaur egun harrera-eskuliburuak egiten ari diren erakundeak, boluntarioen arduraduna baduten edo ez duten erakundeak eta abar).

Modu berean daude elkarreraginean pertsona bakoitzak egiten duen borondatezko jarduera eta pertsona horrek erakundearen barruan duen inplikazio-maila, boluntarioek erakundeetan nola parte hartzen duten balioetsi behar denean. Parte-hartzeaz hitz egitean ez da gauza bera erakundearen muina izan ohi den zuzendaritzako kide baten ikusmoldea edo ikuspegia eta zuzenean esku hartzekoak diren lan zehatzagoak egiten dituen pertsonarena, nahiz eta horrek ere konpromiso eta inplikazio handiak izan (hala denbora aldetik nola dedikazio aldetik). Desberdina izan daiteke, orobat, aldizka ekintza jakin batzuetan parte hartzen duten boluntario ez hain inplikatuen ikuspegia.

Oro har, boluntarioak oso pozik ageri dira erakundeak parte hartzeko ematen dizkieten aukerekin. Erakunde bakoitzak bere bideak ditu, baina, dirudienez, denak balioesten dira ondo: aldian behingo bilerak boluntarioekin, ekintza konkretuak, gogobetetze eta hobekuntzaren inguruko galdesortak, bilerak boluntarioen arduradunarekin, bilerak boluntarioen artean esperientziak partekatzeko, eta abar.

Gogobetetze handi hori oso loturik dago ondoko hau sentitzearekin: galdetzen zaiela, entzuten zaiela, iritzia eskatzen zaiela eta iritzi hori aintzat hartzen dela, batez ere han egiten dituzten jarduera zehatzei dagokienez. Boluntarioek beharrezkotzat jotzen dute hori, are ezinbesteko ere, eta askotan erakundeak berak eskatzen du, ideia berriak eta «haize freskoa» behar dituelako. Aldizka baizik ez da aipatu boluntarioak ez dituztela kontuan hartzen; esate baterako, aipatu da oso zaila dela erakundeetan aldaketa esanguratsuak ezartzea boluntarioek hala proposatuta.

Badirudi, gainera, badela halako lotura bat jasotako informazioaren eta sumatutako parte-hartze mailaren arabera. Zenbat eta informatuago egon boluntarioak, orduan eta partaideago sentitzen dira eta parte hartzeko aukera gehiago sumatzen dute. Horregatik eskatzen dira eta jotzen dira garrantzizkotzat erakundearen makineria eta planteamenduak hobeto ezagutzen laguntzen duten informazio-bideak.

Zalantzarik gabe, parte hartzeko hainbat maila daude. Boluntarioek parte hartzeko bi maila identifikatzen dituzte: egiten dituzten jarduera zehatzekin lotuta dauden kontuetan parte hartzea eta erakundearen erabakietan parte hartzea. Nahiz eta parte hartzeko moduak oso garrantzizkoak diren, gaur egun, boluntario gehienek nabarmendu dute garrantzitsua dela beren zuzeneko jarduerarekin zerikusia duten horretan parte hartzea.

Boluntario gehienek uste dute erakundean duten parte-hartzea oso loturik dagoela egiten dituzten ekintza konkretuekin. Kasu askotan, «kaleko» boluntarioak dira, erakundearen xede diren erabiltzaileekin zuzenean lan egiten dutenak, eta, beraz, haien beharrizanak ezagutzen dituztenak. Horregatik, gehienek beren lanak egitean aurkitzen dituzten premien berri ematera bideratzen dute beren parte-hartzea (autobus gehiago laguntzen diren pertsonak lekuz aldatzeko, eta abar), eta parte-hartze mota horri ematen zaio garrantzi handiena eta hor sentitzen dira partaideen.

Boluntarioek onartzen dute ez dela gauza bera iritzia ematea edo iritziak kontuan hartzea, baina egindako eskariak betetzen diren edo ez alde batera utzita, eta nahiz eta horren inguruan gogobetetze handia dagoen, boluntarioek eskatzen dute arreta handiagoa jar diezaietela beren jarduerak garatzean egiten dituzten hobekuntza-proposamenei, jarduera horiek zuzenean ezagutzen dituztenez gero.

Alde horretatik, aukera handiagoa izan nahiko lukete beren lanak garatzeko bidezkoa den prestakuntza hautatzeko.

Hobekuntzarekin loturiko proposamenak betetzeko baliabide ekonomikoetan inbertitu behar denean ere, erakundeek ekiteko gaitasun mugatua dutela ikusten da; izan ere, nekez har ditzakete beren gain kostu horiek.

Boluntarioek egiten dituzten jarduerek jadanik bide luzea egina dutenean, antolaketa- eta kudeaketa-dinamikak argiroago egon ohi dira arautuak. Kasu horretan, parte hartzeko aukerak mugatuagoak izan ohi dira; izan ere, erakundeak pentsatu ohi du gutxi izan litezkeela ekintza behar bezala garatzeko berrikusi beharreko alderdiak.

«Ni, boluntario gisa, otzan sentitzen naiz erakundearekin. Nik ez dut aldatuko hain egituratua eta antolatua dagoen erakunde bat. Horrela antolatu bada, dagoen horretara egokitzen zara».

Nahiz eta erakunde egituratuenak itxuraz zertxobait zorrotzago agertzen diren boluntarioekin, hartu beharreko erabakietan eragiteko aukerari dagokionez edo kontuan har daitezkeen proposamenak egiteko aukerari dagokionez, era honetako erakundeek badituzte parte hartzeko bideak, gogobetetze-inkestak eta abar.

Horregatik, erakunde egituratuetako boluntarioen sektore kritikoenek parte-hartze handiagoa eskatzen dute, ez bakarrik boluntarioei loturiko alderdietan, baizik eta baita erabakiak hartzeko orduan ere, erakundean aritzen diren ordainpekoek egiten duten bezala.

Bada uste duenik boluntarioek soil-soilik haiei dagozkien jardueretan parte hartu beharko luketela, eta beste batzuek, nabarmen pisu gutxiago dutenek, beste maila batean gehiago parte hartzearen alde egiten dute: erakundearen antolaketan eta kudeaketan parte hartzea (nora jo, helburuak zehaztea eta abar) eta erakundearekin edo boluntarioek egiten dituzten jarduerekin zerikusia duten erabakietan parte hartzea.

Ez dago aho bateko adostasunik parte hartzeko ereduaren inguruan. Batzuek batzar bidezko parte-hartzearen alde egiten dute, hau da, boluntarioek erakundeko gainerako pertsonek duten pisu bera izatearen alde, eta beste ahots batzuek, ostera, uste dute formula hori kaotikoa izan daitekeela eta funtzionamendua geldotu dezaketela.

Erakundeko zuzendaritzan partaide izateko aukera lantzen ari diren boluntarioen ekimen batzuk identifikatu dira. Kasu horretan, irizten diote boluntarioek badituztela erantzukizun batzuk, eta, gainera, haien profil profesionala edo arloaren gaineko ezagutzak ordainpeko beste pertsonek dituztenen antzekoak izan daitezkeela, eta, beraz, erabakitzeko aukera antzekoa izan beharko luketela.

«Erakundean parte hartzeko, zuzendaritzan parte hartzen saiatzen ari gara, boluntarioek zuzendaritzan parte hartuta. Hori guregandik atera da eta ondo hartzen ari dira».

«Guk aholkatzen ditugu, esaterako, etorkinak edo babesa bilatzen ari direnak. Abokatu batek bere langela badu eta hiru orduz bere borondatez joaten bada aholkuak ematera eta pertsona horrek erakundeak ordaintzen duen abokatuak bezainbeste badaki... bada, eskubide bera dute haiek nola tratatu, prozedura zein den eta halako alderdien inguruan iritzia emateko».

Era horretako ekimenak oso egituratuak dauden edo boluntario profesionalki oso kualifikatuak dituzten erakundeetako boluntarioen eskutik datoz. Eskuarki, erakunde horietako boluntarioek ibilbide luzea dute egina, ondo ezagutzen dute erakundea eta oso inplikatuak daude bertan.

Nahiz eta denak ez datozen bete-betean bat boluntarioek zenbateraino parte hartu beharko luketen edo nola parte hartu beharko luketen, argi dago boluntarioek dagozkien arlo guztietan parte hartu behar dutela, batez ere haiek egiten duten jarduerarekin badute zerikusia. Horrek bide ematen du erakundearen parte sentitzeko eta, aldi berean, gogobetetzea areagotzen du. Azken batean, lotura hori honela definitzen da: *zenbat eta parte-hartze handiagoa, aintzatespen handiagoa, inplikazio eta konpromiso handiagoa, orduan eta gogobetetze handiagoa.*




Boluntarioentzat garrantzitsua da parte-hartze hori nola kudeatzen den; izan ere, boluntarioak tartean sartuta eta parte hartzeko bideak ezarrita, saihestu egiten da boluntarioak bide gisa erabiltzea.

«Boluntario zarenean eta erakundearen parte zarenean eta erakundearen parte sentitzen zarenean sentitzen zara baliagarrien, eta orduan sentitzen parte eta ez tresna».

Adostasun argia dago, halaber, *boluntarioen parte-hartzea zedarritzen duten mugei dagokienez.*

Batetik, bat datoz iritzia emateko eta erabakiak hartzeko orduan beharrezkoa dela arloa *ezagutzea* eta ez duela balio prest egoteak, baizik eta prestakuntza ere behar dela.

Aldi berean, erabiltzaileei laguntzeko *profesionalak* behar dituzten erakundeetan funtsezkoa da haien lanean ez esku hartzea. Uste dute boluntarioek erakundeak ezarritako jarraibideak bete behar dituztela.

> «Badakit noraino iritsi. Badakit zer dagoen ni baino gorago. Badakit gizarte-laguntzaileak daudela».

Nabarmentzekoa da, halaber, boluntarioek parte-hartze handiagoa izateak dakarren konpromiso eta erantzukizunari buruz duten ikuspegia. Batez ere erakundean inplikatuen dauden boluntarioek azpimarratu dute *parte-hartze handiagoa izateak konpromiso handiagoa ere badakarrela*.

Parte-hartzea = Konpromisoa + Erantzukizuna

*Konpromiso hori erantzukizun gisa hartzen da;* beraz, pertsona bakoitzak ohartu behar du zeren ardura hartuko duen, hala denbora aldetik nola eginkizun aldetik. Zalantzarik gabe, horri dagokionez boluntarioek jakin behar dute ezetz esaten ere, arrazoizko denaren mugak ez gainditzeko.

Boluntarioen parte-hartzea sustatzeko formulak abian jarri dituzten borondatezko zenbait ekimenen arabera, ereduzko boluntarioak hiru konpromiso-maila izan behar ditu: konpromisoa eginkizunekin, erakundearekin eta haren kudeaketarekin, eta eraldatzeko egitekoarekin.

> «Hiruretan hartu behar da parte. Eginkizunean parte hartzea errazagoa da; erakundean parte hartu behar da, nahiz eta zailagoa izan; eta, zalantzarik gabe, misioan parte hartu behar da, sinetsi egin behar duzu erakundeak egiten duena; hemen, gainera, boluntarioek zer ekarri franko dute».

Baina bada ohartarazten duenik parte-hartze handiagoak edo konpromiso handiagoak *beldurra edo errefusa* sor dezakeela boluntarioengan, erantzukizunaren eta betebeharraren pisuagatik, eta horrek erakundea uztea ekar dezakeela. Erabiltzen jakin behar den *bi ahoko arma gisa* definitzen da.

Garbi dago boluntarioak erakundean lotu eta partaide egingo dituen parte-hartze bat izatearen alde daudela, batez ere haiei zuzenean dagozkien gaietan. Ez dago garbi oraindik erabakiak hartzeko orduan inplikazio handiagoa izateko jauzia egin behar den edo ez, konpromiso eta erantzukizun handiagoa dakartzan aldetik. Alabaina, hasiak dira agertzen boluntarioek erakundeetan pisu handiagoa izatea xede duten ekimenak.

## Nola balioesten dute boluntarioek erakundeen aldetik jasotzen duten aintzatespena?

Adierazitako motibazioak oinarritzat hartuta, kontuan hartu behar da borondatezko ekintzan bi alderdi agertzen direla batera: pertsonak *ematen* duena eta *jasotzen* duena. Zalantzarik gabe, *jasotze* hori oso lotuta dago ekintzak berak sortzen duen gogobetetze pertsonalarekin (lagundutako pertsonen saria, ikaskuntza pertsonala eta profesionala, eta abar). Horregatik da boluntarioentzat aintzatespenik handiena arreta ematen edo lagun egiten dieten pertsonen eskutik datorrena. Aintzatespen horrek, gainera, egindako ekintzaren emaitza zuzena den aldetik, erabateko gogobetetzea dakar. Beste aintzatespen batzuk ingurunetik datoz; esate baterako, erakunde publikoek edo beste talde sozial batzuek erakundeak eta erakundeetako boluntarioak aintzat hartzea ekintza konkreturen bat garatzeko.

Baina borondatezko ekintza aintzatesten denean beharrezkoa da erakundeek beren boluntarioak ere aintzatestea; izan ere, horrek areagotu egin dezake haien gogobetetzea, eta, horrekin, erakundean duten inplikazioa edo jarraipena.

Boluntarioei egiten zaien aintzatespena faktore hauek markatzen dute: erakunde-motak, erakundean duten inplikazioak eta are norberak aintzatespen hori ulertzeko duen moduak ere. Nolanahi ere, denak ere borondatezko lanari egiten zaion aintzatespena ulertzeko moduak dira, beharrezkotzat jotzen dira, erakundean inplikazio edo lotura handiagoa izaten laguntzen dute, eta gogobetetasuna sortzen dute.

Zenbait kasutan, *giza keinu bat, eskerrik asko bat edo behar bezalako agur bat* nahikotzat jotzen dira boluntarioak erakundea uzten duenean aintzatespena adierazteko modu gisa. Beste batzuetan, aintzatespena *boluntarioentzat antolatzen diren jardunaldi edo foroei* lotzen zaie (hitzaldiak, bilerak, eta abar), *edo ekimen konkretuei*, hala nola boluntarioekin senidetasun -bazkari bat egiteari. Beste maila batean, erakundeak hartzen dituen *erabakietan parte hartzeko aukera handiagoa* izateari loturiko aintzatespena dago.

Erakunde txikietan, soil-soilik boluntarioek osaturikoetan, aintzatespena, neurri handi batean, funtzioak eta eginkizunak banatu edo eskuordetzeko orduan pertsonengan *jartzen den konfiantzak* dakar. Taldearen aintzatespen hori pertsonak egiten duen lana balioesteko modu bat da.

Erakunde profesionalizatuagoetan, aintzatespen-faktoretzat hartzen da *boluntarioek egin behar dituzten lanak behar bezala antolatzea eta kudeatzea,* eta, beraz, *lan horiek egiteko modua erraztea*. «Lana erraztea» era askotara egin daiteke: behar bezala identifikatzea boluntario batek zuzentzen duen lantegi batera zenbat pertsona joango diren, boluntarioen eginkizunak argitzea, erakundeari edo gizarte-aldaketei buruz informatzea nahiz prestakuntza ematea, boluntarioek beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten. Azken batean, erakundeak boluntarioen esku lan egiteko behar duten guztia jartzeak erakundearen inplikazioa eta babesa adierazten du.

Boluntarioak *informatzea eta prestatzea* ere badira aintzatespenaren giltzarriak. Informazioari dagokionez, azpimarratu da garrantzitsua dela erakundearen egitekoa eta helburuak ezagutaraztea, bai eta erakundearen garapen-ildoak, lortutako lorpenak eta aurrekontu-xedea ezagutaraztea ere. Erakundeak garden izan behar duela edo boluntarioek informazio osatua izan behar dutela ere adierazi da. Prestakuntzak, lehen adierazi dugun bezala, erraztu egiten du borondatezko ekintza hobeto betetzea.

> «Egia da boluntarioak doakoak eta jarraitzaile leialak direla, baina pertsonak gara eta giza detaileak behar ditugu».
>
> «Askotan jota ateratzen gara, egoera zailen bat bizi izan dugulako, eta horregatik behar dugu babesa».

Aintzatespenaren giltzarri nagusietako bat honela laburbiltzen da: *boluntarioek sentitzea erakundeak babestu eta entzuten dituela*. Babes hori jadanik

aipatu ditugun alderdien batura da (boluntarioek egin behar dituzten lanak behar bezala kudeatzea, beren eginkizunak hobeto betetzeko prestatzea eta abar), baina, horrez gain, giltzarri gizatiarrago eta pertsonalago bat barneratzen du; hain zuzen, giltzarri horrek adierazpide hauek ditu: esker ona, hurbiltasuna, harrera egokia, pertsonak sentitzen duenaren jarraipena, eta abar. Azken batean, egiten diren lanen gaineko interesa zein boluntarioen euren bizipenen gaineko interesa da; izan ere, zenbaitetan giza errealitate zailei, egoera emozional konplexuei eta halakoei egin behar izaten diete aurre.

Boluntarioek adierazitako ideien arabera, *harrerak*, *jarraipenak* eta *boluntarioen arduradun bat izateak* erakusten du erakundeak entzun eta babesten dituela. Kontu horiei garrantzi handia ematen zaie, eta boluntarioekin hurbileko konexioa izateko modu bat da erakunde askorentzat.

Zenbait erakundetan, «*barne-sustapena*» ere bada aintzatesteko modu bat, oso modu positiboan balioesten dena. Esate baterako, zenbait erakundetan ordainpeko lanpostu bat hutsik geratzen denean, lehen-lehenik jadanik kontratatuta dauden langileei eskaintzen zaie, eta ondoren boluntarioei, profilarekin bat badatoz. Haien ekarpena aintzat hartzen dela eta haien ezinbesteko beharrizanak kontuan hartzen direla erakusteko modu bat da.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, *boluntarioak erakunde barruan parte hartzera akuilatuz egiten den aintzatespena* aipatu da. Erakunde barruan parte hartzea aintzatesteko modu argia da boluntarioentzat, eta oso loturik dago erakundearen «*parte sentitzearekin*» eta «*partaide*» izatearekin. Horregatik iritzi diogu egoki kontu honi atal espezifiko bat eskaintzeari, garrantzia duelako eta erakundeentzat giltzarri izan daitezkeelako.

Laburbilduz, esan liteke boluntarioak behar bezala kudeatzea, informazioa eta prestakuntza eskaintzea eta erakunde barruan parte hartzea direla boluntarioek aintzatespenaren giltzarritzat dauzkaten alderdi nagusiak.

Boluntarioen profila bezain korapilatsuak dira boluntarioek parte hartzen duten erakundeen ezaugarriak eta berezitasunak. Konplexutasun horren ondorio dira, orobat, boluntarioek beren eginkizunak betetzean aurkitzen dituzten zailtasunak; hain zuzen, eginkizun horiek hartu dira abiapuntutzat erakundeek zer erronkari aurre egin behar dieten erakusteko.

Garrantzitsua da zehaztea boluntarioek beren jarduerarekin erakusten duten gogobetetze handiak eta erakundera batzen dituen loturak zaildu egiten duela zer hobekuntza-arlo landu behar diren identifikatzea. Batez ere, erakundearen kudeaketan inplikatuen dauden boluntarioek ezagutzen dute ondoen erakundearen funtzionamendua edo erakundean denbora gehien daramatenek azaltzen dute errazen zer zailtasun aurkitzen dituzten. Hori dela eta, identifikatutako zailtasun asko erakundearen garapenari lotuta daude, boluntarioek egiten duten jarduera konkretu bati baino gehiago.

## Zuzendaritza- eta kudeaketa-lanetan inplikazio handiagoa izango duten boluntarioak lortzea

Erakunde txikienen artean edo bertan lanean profesional gutxi dauzkaten erakundeetan pertsonen inplikazioarekin loturiko zailtasunak identifikatu dira. Elkartearen zuzendaritza-, antolaketa- eta kudeaketa-lanetan jarduten duten boluntarioak urri izan ohi dira, eta nekez lortzen da boluntarioek halako lanetan inplikatu nahi edo ahal izatea. Horregatik, soil-soilik boluntarioz osaturiko zuzendaritza daukaten erakundeetan, zailtasunak izaten dituzte zuzendaritza berritzeko. Horrek berekin dakar erantzukizunaren pisua pertsona gutxi batzuen gain izatea eta denborarekin zail gertatzea ideia berritzaileak lantzea, inplikatutako pertsonak gutxi direnez gero.

Oro har, era horretako zailtasunak erakunde barruan zuzendaritza-funtzioak betetzen dituzten boluntarioek identifikatu dituzte, eta boluntarioen profil horrek agertu ohi ditu gogobetetze handiena edo zailtasun gehienak borondatezko lana egiteko orduan.

«Gabezia konpromisoari dagokionez, gurdiari tira egiteari dagokionez. Aurki dezakezu jendea jarduera konkretuetarako, baina gurdiari tira egin behar zaionean eta erabateko dedikazioa izan behar denean… horregatik da hain zaila zuzendaritza berritzea».

«Dugun zailtasuna da ez dugula aurkitzen zuzentzeko, pentsatzeko, gurdiari tira egiteko pertsonarik. Hori da daukagun arazo handiena, nola ordezkatu urteetan aurrera doazen pertsonak, urte luzeetako lana egin dutenak…».

«Ahaideren bat gaixo dutenak, seme-alabak dituztenak, adineko pertsonak dituztenak, zailago duten mendeko belaunaldi berriak, sandwich efektu horrek denak bihurtzen du gizartea baliaezinago».

## Boluntarioak atzematea, batez ere boluntario gazteak

Nahiz eta gero eta indar handiagoa hartzen duen «gutxi eta ona» hobe delako ideiak, erakundeek oraindik ere behar-beharrezko dituzte boluntarioak, garatzeko modua izateko eta «erretzera» irits litezkeen boluntarioei karga kentzeko. Oro har, ikusten da gizartearen aldetik inplikazioa falta dela, eta, nahiz eta badiren erakunde batzuk gehienbat boluntario gazteek osaturikoak (aisialdia eta astialdia, kirola eta abar), zenbait arlotan gazteak falta direla sumatzen da.

Nahiz eta ez dagoen profil argirik, erakunde horietako batzuen bereizgarria da zahartzaroari loturiko gaixotasun jakin batzuek erasandako taldeak laguntzen dituztela edo duten egitekoagatik eta filosofiagatik ez dutela lortu biztanle gazteen muinera iristea (izaera erlijiosoagoa duten entitateak, esate baterako).

Bestalde, aipatu da gazteak ez direla inplikatzen gizartean oro har eta parte hartzeko modua ematen dieten bideetan.

«Beren denbora eskaintzen ari direnetako asko eta asko adinean sartuxeak daude, halako bizi-esperientzia bat dute eta gizarteari zerbait itzultzeko gogoa dute. Niri izugarrizko pena ematen dit gazte jenderik ez egoteak. Nire lagunen artean ez dakite boluntariotza zer den ere, ez zaie interesatzen, ez dute botorik ematen, ez ezer».

Gainera, boluntarioak argiro gutxitzen dira adin jakin batzuetatik aurrera (30 urtetik aurrera gutxi gorabehera), batez ere karga eta bizi-lehentasun berriak

(lana, adingabeak eta abar) izateari oso lotuta, horrek boluntariotza uztea ekarri ohi baitu; dena dela, boluntariotza ostera pisua hartzen hasten da pertsonek asti gehiago dutenean (erretiroa hartu ondoren, seme-alabak jadanik hazi direnean eta abar).

## Erakunde gazteenek jarraitzeko dituzten zailtasunak

Abian denbora gutxien daramaten edo egituratzen hasi berriak diren erakundeen kasuan, proiektuari jarraipena ematea zein zaila den azpimarratu da. Erakunde bat sortzeko ahalegin handia egin behar da, baina areago mantentzeko, eta erantzukizunak hasieran uste baino pisu handiagoa hartzen hasten dira.

Kasu honetan, emaitza agerikorik ez duten edo emaitza epe ertain-luzera lortzen duten erakundeen kasuan gertatzen den bezala, berehalako emaitzarik ez badago ezinbestekoa da boluntarioak oso motibatuta eta sentsibilizatuta egotea.

## Kudeaketa boluntarioen profil guztietara egokitzea

Boluntarioak askotarikoak dira, ez bakarrik egiten dituzten jarduera-motengatik (lagun egitea, administrazioa eta abar), baizik eta baita erakundearen barruan duten inplikazioagatik ere. Inplikazio-maila ez da lotzen bakarrik borondatezko ekintzari eskaintzen zaion denborarekin, baizik eta baita egiten den jarduerak erakundearen garapenean duen pisuarekin ere.

Erakundearen kudeaketaz arduratzen diren boluntarioen zailtasunetako bat da boluntarioen aukerak eta beharrizanak erakundearen eta haren jardueren aukera eta beharrizanetara egokitu ahal izatea. Pertsona batzuek denbora gehiago eskaintzen dute, beste batzuek gutxiago, boluntario aldizkakoak edo iraunkorrak daude, inplikazio nahiko sakona duten boluntarioak, eta abar. Horrek guztiak zaildu egiten du jarduerak egituratzea, eta egin beharreko ahalegina nekez egin dezakete horretaz arduratzen diren boluntarioek.

Nahiz eta izan litekeen diferentzia bat boluntario inplikatuenen eta aldizka edo jarduera zehatzagoetan parte hartzen duten boluntarioen artean, denak bat datoz horietako inori ezin zaiola meritua kendu eta pertsonak beren aukera eta gurarien arabera inplikatzen direla.

> «Pertsona bat izan daiteke boluntario astean bi orduz lau seme-alaba dituelako eta asti gehiagorik ez duelako; beraz, ezin diozu gehiago eskatu. Egoerak hain dira askotarikoak... Jendea erabakitzen duen horretan da boluntario, eta eskaintzea erabakitzen duen denboraz».

Alabaina, premiazko egoeretan, eskuarki boluntario inplikatuenengana eta, beraz, lan-kargarik handiena dutenengana jotzen da. Horrek ez du laguntzen boluntarioak pozik egon daitezen eta erakundean jarrai dezaten.

Hainbat boluntario-profil izateak ere parte-hartzea desberdina izatea dakar. Zenbaitetan, zailtasunak sumatzen dira boluntarioek zuzenean eragiten dieten kontuetan parte hartzeko.

### Izapide burokratikoak azkartzea

Kide guztiak hala kudeaketan nola ekintzan inplikatutako boluntarioak diren erakundeetan (eskuarki txikienak), zailtasun nagusietako batzuk oztopo burokratikoak, paper-kontuak, diru-laguntzak nola aurkeztu ez jakitea eta halakoak izaten dira. Zalantzarik gabe, hori are garrantzitsuagoa da jardueretako askok aurretiaz finantzabiderik ez badute.

### Boluntarioen kudeaketa hobetzea, lanak, rolak eta eginkizunak zehazteari dagokionez

Oro har, gogobetetze handia sumatzen da erakundeek boluntarioen jarduerak kudeatzeko duten moduarekin; izan ere, antolatuta egon ohi dira, eta boluntarioek badakite zehazki zein lan egin behar duten eta zein muga dituzten.

Alabaina, zenbaitetan, eraginkortasunik eza sumatzen da kudeaketa horretan, esate baterako boluntarioentzat lan zehatzik ez dagoelako edo beren eginkizunak betetzeko jarraibiderik ez dagoelako. Eskuarki, erakundeen kudeaketan eta antolaketan inplikatutako pertsonarik ez izatearen ondorio da boluntarioen lan eta jarduerak antolaturik ez egotea, eta nagusiki horrek eragiten du frustrazioa eta erakundea uztea.

«Iristen zarenean eta ikusten duzunean elkartea zutaz ahaztu dela, ez duelako eginkizunik prestatuta edo ez dakielako azaltzen zer nahi duen zutaz egun horretan edo zer egin dezakezun baliagarri izateko, orduan sartzen zaizu frustrazioa; izan ere, zu zure borondate onenarekin zoaz, eta esaten dizute `gaur ez dut ezer zuretzat´».

Nahiz eta hori ez den ohikoena, rolen eta eginkizunen definizio egokirik ez dagoenean zailtasunak handiagoak izaten dira. Alde horretatik, zenbaitek zailtasunak izaten dituzte arreta ematen dieten pertsonekin mugak ezartzeko orduan edo beste boluntario batzuekin harremanak izateko orduan (boluntario berriak prestatu beharra eta abar).

Gainera, boluntarioak eta profesionalak dauden erakundeetan, nahiz eta harremana ona den eta profesionalek egiten duten lana oso ondo balioesten den, zenbaitetan zailtasunak sumatzen dira batzuek eta besteek gauzak ikusteko duten modua uztartzeko orduan, eta haserrealdiak eta ez-ulertzeak sortzen dira, bakoitzak egiten duen lan desberdinaren ondorioz.

Zehazki, zalantzan jartzen da profesionalek zenbateraino ezagutzen duten beren lanaren oinarri den errealitatea, eta esaten da zein zaila den boluntarioen iritzia eta ekimenak –horiek baitaude kalean– ondo hartzea eta praktikan jartzea. Haien iritziz, horrek berekin dakar oraindik ere beren jarduerak behar bezala garatzeko hutsuneak izatea.

«Zu bulegoan bazaude egunero, eta ez bazoaz oinarrira eta lantzen ari zaren arazoa zaila bada. Nik hitz egin dezaket gauza horiez».

Zailtasun horiek gainditzeko, irizten zaio rolak eta eginkizunak zehaztu behar direla, erakundeko profil bakoitzaren mugak (profesionalenak eta boluntarioenak) gaindi ez daitezen, eta modu positiboan balioesten dira betebehar eta eskubideen dekalogoak –halakorik bada–, bide ematen baitute boluntarioez zer espero den argitzeko (Boluntarioen Barne Estatutua).

«Informazio ona baduzu, badakizu zein diren zure mugak eta badakizu ezin dituzula gainditu».

Halaber, konfidentzialtasun-itunak izatearen alde egiten da (gainera, positiboki balioesten dira existitzen direnean); horien arabera, boluntarioek konpromisoa hartzen dute isiltasun profesionala gordetzeko. Era berean, boluntarioek profesionalen taldea ezingo dutela ordezkatu zehazten duten itunen alde egiten da.

### Instituzioek erakundeei ematen dieten babesa areagotzea, laguntza ekonomikoak eta komunikazioa hobetuta

Boluntarioek instituzioen babes falta sumatzen dute diru-laguntzei dagokienez. Hori, batez ere, erakunde txikienetan da hala, laguntzak pertsona boluntarioen bidez kudeatzen dituztenetan; izan ere, kasu askotan ez dute esperientziarik edo ez dute behar beste denborarik eskabideak prestatzeko. Erakundeen baliabide ekonomikoak mugatuak izateak gutxitu egiten ditu laguntzen kudeaketa hobetzeko aukerak (prestakuntzaren bidez, kudeaketa-lanetan kualifikatuta dauden pertsonak kontratatuz, eta abar).

Bestalde, krisi estrukturalak ekarritako azken murrizketa ekonomikoen ondorioz, gutxitu egin dira erakundeak egiten ari ziren jarduerak eta erakundeek eskaintzen zuten estaldura. Horregatik, beharrezkoa da finantzabide berriak bilatzea.

Kudeaketa-lanak egiten dituzten boluntarioek adierazi dute, zehazki, zailtasunak dituztela Administrazio Publikoarekin komunikatzeko (luzamendutan ibiltzen direlako, ez dituztelako ulertzen, eta abar).

### Erakundeen eta boluntarioen arteko koordinazioa hobetzea

Erakundean inplikatuen dauden edo zuzendaritza- eta kudeaketa-lanak egiten dituzten boluntarioek adierazi dute beharrezkoa dela sinergiak ezartzea erakundeen artean, beren jardueraren garapena hobetu ahal izateko, elkarrekintzaren eta ideia-trukaketaren bidez. Sarean lan egiteko eta Hirugarren Sektorea koordinatzeko premia sumatzen da.

Gainera, zenbait iritziren arabera, beharrezkoa da desberdinak baina elkarrekin erlazionaturik dauden erakundeetako boluntarioak antolatzea eta inguruko erakundeek eta beste boluntario batzuek egiten duten borondatezko lana hobeto ezagutzea.

## Nekea, arnasa hartzeko beharra eta muga pertsonalak kontuan hartzea

Nahiz eta borondatezko jarduerarekin oso pozik egon, ikusi da une batzuetan boluntarioak beren jarduerarekin nekatu, «erre» edo frustratu ere egin direla.

Batzuetan hori izaten da borondatezko ekintza egiteko denbora behar delako eta inplikatu beharra dagoelako (egiten den lana edozein eratakoa dela ere); izan ere, nahiz eta poztasunak ematen dituen, zenbaitetan gehiegi pisatzen duten betebeharrak ere sortzen ditu. Horregatik hitz egiten da zenbaitetan boluntarioek arnasa hartzeko duten beharraz.

> «Nekea ere hor dago. Gogo handia izanik ere, iristen da une bat errutina moduko batean sartzen zarena, eta orduan lanera joatea bezala da».

Bestalde, pertsona batzuek adierazi dute muga pertsonalak zituztela zenbait lan egiteko, eta sakrifizioa egin eta hobetu beharra izan dutela horiei aurre egiteko.

## Erakundeak profesionalizatzeko bidean aurrera egitea

Nahiz eta gutxi diren betetzen ez diren igurikimenak, boluntariotzarekin lotura estua duten pertsonek (haurtzarotik boluntariotza ezagutu dutenak, hainbat erakundetan lan egin dutenak, gizartekintzara bideratutako profil profesionalak dituztenak, atzerrian boluntario ibili direnak, eta abar) zertxobait kritikoago ageri dira besteak baino. Pertsona horiek, batez ere, erakundetik espero zituzten eta aurkitu ez dituzten alderdiez hitz egiten dute; laburbilduz, erakundean boluntarioen kudeaketa hobetzearekin loturikoak dira. Erakundearen aldetik espero dute boluntarioak egoki bideratuko dituen kudeaketa profesional bat egitea, eta profil profesionalago eta ez hain «borondatetsu» bat izatea.

«Kulturalki gizarte anglosaxoi batetik nator; han, erakundeak enpresak bezala kudeatzen dira; enpresa zientzietako jendea, kudeaketan esperientzia duten kudeatzaileak eta abar, erakundeak modu profesionalagoan kudeatzen dituen jendea. Hemen askoz ere boluntarismo handiagoa dago eta ez dio axola erakundean sartzen diren pertsonek zer ikasi duten. Filosofia, soziologia ikasi dutenak, gauzak aldatzeko gogo handia dutenak baina ez dutenak ezagutzarik eta esperientziarik jendea, proiektuak eta prozesuak kudeatzeko eta eskaria bideratzeko. Gogo handia, boluntarismo handia, baina…».

## 6.8. Borondatezko lanaren gizarte-aintzatespena

Gizarte-aintzatespena lotuta dago boluntariotzaren inguruan dagoen eta eskaintzen den irudiari, hura ikusteko moduari, borondatezko lanari ematen zaion balioari eta, oro har, boluntarioen sustapenari. Erakundeen aintzatespenaren garrantziaz hitz egin den bezala, beharrezkoa da, orobat, gizartearen eta eragileen aintzatespenean sakontzea.

2011ko martxoko Barometroaren datuen arabera[98], espainiar biztanleen % 72k uste dute boluntariotza ez dagoela oso aintzatetsia gizartean; % 70,3k uste dute boluntarioek egiaz ematen dietela irtenbidea arazo askori; eta % 62,1ek uste dute borondatezko lanak aukera ematen duela jendeak lagundu ahal izan dezan, eta lan hori zerbitzu publikoek egiten dutenaren gehigarria dela. Gainera, biztanleen % 71,6k uste dute borondate ona eta lan egiteko gogoa duen edonor izan daitekeela boluntario, eta % 53k, ostera, uste dute boluntarioen lana eraginkorra izateko beharrezkoa dela boluntariotzako erakunde batek kudeatua egotea.

Txosten honetan bertan egiaztatu ahal izan denez, inoiz boluntario izan ez diren euskal biztanleen % 79k boluntarioen ikuspegi positiboa dute.

Kontsultatutako EAEko boluntarioen % 95 pozik edo oso pozik ageri dira erakundeak egiten dien aintzatespenarekin. Gogobetetze hori % 73,6ra jaisten da gizartearen kasuan, eta % 57ra administrazioak boluntarioen egitekoari egiten dion aintzatespenari dagokionez.

98 Op. cit.

**Boluntarioen egitekoari egiten zaion aintzatespenarekin pozik eta oso pozik dauden gaur egungo boluntarioak. %**

84. TAULA

| Aintzatespenaren gaineko gogobetetzea | Pozik + Oso pozik |
|---|---|
| Erakundeek boluntarioen egitekoari egiten dioten aintzatespenarekin pozik daudenak | 95,2 |
| Gizarteak boluntarioen egitekoari egiten dion aintzatespenarekin pozik daudenak | 73,6 |
| Administrazioak boluntarioen egitekoari egiten dion aintzatespenarekin pozik daudenak | 57,0 |

Informazio kualitatiboak ematen ditu halako arrasto batzuk boluntarioek gizartean haiei buruz dagoen irudia nola hautematen duten jakiteko. Informazio horrek osatu egiten du boluntarioen egitekoari egiten zaion gizarte-aintzatespenaren gaineko gogobetetzeari buruzko datua; izan ere, nahiz eta inkestatutako lau boluntariotik ia hiru pozik egon aintzatespen horrekin, askotariko sentipenak dituzte horri buruz.

## Nola hautematen dute boluntarioek beren ekintzak transmititzen duen irudia?

### Boluntarioen gizarte-irudia: positiboa baina desitxuratua

Boluntarioen iritziaren arabera, gizartean duten irudiak bi joera argi ditu: bata boluntarioen irudi positiboa, konpromisoa eta elkartasuna bereizgarri dituena; eta bestea negatiboa, ekintza bera ikusezin bihurtu izanaren ondorioz.

Denak ez datoz bete-betean bat bi ikuspegietatik zein gailentzen den, ez eta gizarteak behar beste aintzatesten ote duen boluntarioek egiten duten lana ere; bat datoz, ordea, *irudirik positiboena ingurune hurbilenekoak tartean direnean izaten dela* (lagunak, familiakoak eta abar); izan ere, boluntarioek eurek emandako informazioari esker, boluntariotza gehiago ezagutzen dute.

Oro har, badirudi gizarteak irudi ona duela pertsona boluntarioez, eta *konpromisoa* eta *elkartasuna* duten pertsonatzat jotzen direla. Gainera, *doako lan* bat denez, ez dirudi arrazoirik dagoenik jarduera hori zalantzan jartzeko.




«Askotan esaten dizute zer meritu duzun».

«Gizartean balio faltaz hitz egiten denean, boluntarioak jartzen dira kontrakoaren etsenplu gisa».

Alabaina, hori hala izanik ere ez dio uzten *lan ezezagun edo ikusezin bihurturiko* bat izateari. Ez da ezagutzen zer dagoen boluntarioen eta erakundeen atzean, ez eta egiten den gizarte-lanak zer pisu duen ere. Badirudi lagunek eta ahaideek baizik ez dutela ezagutzen, eta gizarteak oro har ez dakiela balio hori badenik eta zenbaterainokoa den.

«Lanean orduak eskatu ditudanean boluntariotzako prestakuntzaren batera joateko, esan didate `zer lelokeria da boluntariotzaren kontu hori?´»

Ezjakintasunak *irudi desitxuratu bat* sortzen du, eta, horren ondorioz, boluntarioak *arraro* edo *ameslari* gisa ikusten dira. Batez ere, zenbait talderekin lan egiten duten boluntarioen kasuan (buruko gaixotasunen bat duten pertsonak, eskizofrenia dutenak eta abar) edo gai sozialki gatazkatsuetan (doluan lagun egitea eta abar) sumatzen da gehien norberaren borondatez pertsona jakin batzuei nola lagun dakiekeen ulertzen ez duten pertsonen ezin ulertua.

«Ongi ikusia dago, baina praktikatzen ez duen jendeak arrarotzat gauzka».

«Boluntarioen gaineko irudia oso lotua dago lan egiten duten taldeari. Guk garuneko paralisia duten pertsonekin lan egiten dugu eta jendea izutu egiten da».

Boluntarioek *sentitzen dute ez dituztela ulertzen*, eta batzuetan borondatezko ekintzatik onuraren bat jasotzea leporatzen diete; izan ere, jendeak ez du ulertzen nola eta zergatik egiten diren boluntariotza-lan batzuk trukean onura ekonomikorik jaso gabe. Gainera, badirudi boluntariotza *denbora pasatzeko modu gisa* ikusten dela eta ez hainbeste gizartea eraldatzeko lan gisa.

«Gaur egungo gizartean pentsatzen da doako gauzek tranpa dutela».

Dirudienez, boluntarioek beren lana transmititzeko eta ezagutarazteko duten zailtasunaren zioa da *boluntariotzari datxezkion balioak* ez datozela bat *materialismoa bereizgarri duen gizarte honekin*.

«Gizarteak ez daki ezertxo ere erakundeetan egiten denari buruz. Ez gara gai egiten ari garena transmititzeko eta ikusarazteko. Ez daukagu komunikazio-gaitasunik».

Gizarteak duen irudi hori aldatzeko helburuarekin, boluntarioek ezinbestekotzat jotzen dute beren esperientziaren bidez *igorle-lanak egiten jarraitzea beren ingurune hurbilean*. Horrez gain, erakunde bateko eta besteko boluntarioen artean ekimen bateratuak egitea proposatzen dute, boluntarioen taldea indartzeko asmoz.

«Boluntarioek beren inguruan boluntario direla jakinarazi eta sentiarazi beharko lukete. Geure burua ikusarazi, gure esperientziak kontatuz».

Halaber, erabiltzaileak edo era batera zein bestera ekintzaren onura jasotzen dutenak ere giltzarri dira zer lan egiten den ezagutarazteko.

> «…erabitzaileek boluntarioen baliagarritasuna ikusten dutenean, irudi hori itzultzen diote gizarteari…».

## Zer proposatzen dute boluntarioek borondatezko ekintza sustatzeko?

Bestalde, kontuan hartuta boluntarioek administrazioaren aldetik aintzatespen handiagoa eskatzen dutela (boluntarioen ia erdiak ez daude pozik administrazioaren aintzatespenarekin), boluntarioen hainbat proposamen jaso ditugu, pisu gehien duten bi gizarte-eragileek borondatezko ekintza sustatzeko egin dezaketenaren inguruan: Administrazio Publikoa eta komunikabideak.

### Administrazio Publikoa

Boluntarioek boluntariotza-gaietan erabateko inplikazioa izatea eskatzen diete administrazio publikoei; izan ere, zenbat eta handiagoa izan administrazioen inplikazioa, sendoagoa izango da gizartea parte-hartze eta inplikazio aldetik. Alabaina, gizartearen garapena ezin da soilik boluntarioen eta Hirugarren Sektoreko erakundeen mende egon; beraz, Administrazioak bere gain hartu behar du bere egitekoa. Horrez gain, diskurtso politikoaz harago benetako aintzatespena eskatzen zaie administrazio publikoei, bai eta abian jartzen diren ekintzek irismen onargarri bat izatea ere.

#### Sentsibilizazioarekin eta atzematearekin loturiko proposamenak

– *Kanpainak eta publizitate-iragarkiak* egitea boluntariotza eta boluntarioek egiten duten lana ezagutarazteko. Publizitate-iragarki bakoitzak erakunde bat izan lezake ardatz, eta, horren bidez, zer egiteko duen, zer lan egiten duen eta abar azal liteke.

– Ezjakintasunagatik *arbuioa sortzen duten egoera eta talde jakin* batzuen inguruan gizartea sentsibilizatzea eta kontzientziatzea (dolua eta era horre-

tako gaiak, toxikomanoak, presoak eta bestelako talde estigmatizatuak, eta abar).

– *Borondatezko ekintza eta gizarte-sentsibilizazioa* sustatzea *hezkuntza-esparrutik, haurtzaroa eta unibertsitateko aldia lehenetsiz*. Proposamen zehatzak bildu dira, besteak beste: boluntarioek emango dituzten hitzaldiak eta lantegiak antolatzea, ikastetxeetan hainbat ordu gordetzea gizartekintzaren gainean sentsibilizatzeko eta erakundeek egiten duten lana ezagutarazteko, ikastetxeetan boluntariotza-orduak sustatzea (praktikako orduak dauden bezala). Ikasleek era horretako ekintzak aisialdian egitearen garrantzia azpimarratu da, bestela betebehar gisa har bailitezke.

– *Gizarte-gabeziez eta* Hirugarren Sektoreko *erakundeen zailtasunez* informatzea.

– Boluntariotza sustatzea, *informazioaren eta komunikazioaren teknologiak* erabiliz.

– *Ekintza zehatzak* sustatzea *erakunde bateko eta besteko boluntarioen artean,* Hirugarren Sektoreko pertsonen artean ezagutza handitzeko eta boluntarioen artean ezagutza sortzeko.

– *Biztanleek borondatezko ekintzak egiteko nora jo dezaketen* informatzea.

– *A priori gizarte-izaeratik ez duten profil profesionalen artean (informatika, ingeniaritza eta abar)* boluntarioak atzemateko eragitea, zer gizarte-arazo dauden eta arazo horiek hobetzeko zein erakunde ari diren laguntzen azalduta, profil horrek erakundeei nola lagun diezaiekeen azaltzen duten bideak eskainita, eta abar.

– *Boluntariotza* sustatzen jarraitzea, *boluntariotzako agentzien bidez*, baina, aldi berean, emaitzak exijitzea.

– *Boluntarioak atzemateko erakundeen ekimenak* laguntzea.

## Boluntarioei aintzatespen formala egitearekin loturiko proposamenak

– Boluntarioei *merkataritza-onurak* eskaintzea: deskontuak sentsibilizazioa agertzen duten saltokietan eta abar.

– Boluntarioentzat zerga-onurak izan daitezen laguntzea. Proposamen horren inguruan ez dirudi adostasun argirik dagoenik; izan ere, ekintzaren izaera altruista zalantzan jar dezake, nahiz eta lagungarri ere izan daitekeen pertsona gehiago erakartzeko.

– *Borondatezko ekintza ofizialki aintzatestea* lana eskatzeko orduan balioko duen esperientzia gisa.

– *Erakundeetan egiten den prestakuntza ofizialki egiaztatzea* (tituluen bidez, unibertsitateko kredituen bidez, eta abar). Ez dago adostasunik proposamen horretan; izan ere, curriculuma lortzeko aldi gisa har liteke boluntariotza.

### Erakundeen babesari loturiko proposamenak

– Erakundeei *baliabide eta lokal* gehiago ematea.

– Boluntarioen *prestakuntza-ekintzak* diruz laguntzea.

– *Boluntarioak sustatzeko* diru-laguntzetan eragitea.

– Beren ekimena sendotzeko baliabideak eskatzen dituzten *erakunde berriak* finantzatzea.

– *Erakundeei* beste aukera batzuk ematea *artatu ezin dituzten kasuetarako* (esate baterako, aisialdiko eta astialdiko erakunde batek beharrizan bereziak dituzten gazteak dituenean: psikologoak eta abar).

## Komunikabideak

Komunikabideak, izan dezaketen irismenagatik, boluntarioen irudia zabaltzeko eta hobetzeko eragile nagusietakotzat hartzen dira. Duten eragin mediatikoagatik, gizarte-erantzukizun handia ere eskatzen zaie. Alabaina, irudipena dago boluntariotzak «ez duela saltzen»; beraz, nekez izango du erabateko presentzia komunikabideetan.

### Boluntarioen tratamendua eta irudia hobetzearekin loturiko proposamenak

– Komunikabideek boluntarioei ematen dieten *irudia* eta *tratamendua* hobetzea, halako moldez non boluntariotza ez den gertaera gisa tratatuko; albisteak pisu garrantzizkoa eta sakona har dezala; albisteak ez daitezela izan unean unekoak eta oportunistak, eta abar.

– Erakundeetatik bertatik datozen boluntarioen irudi egiati bat ematea.

- *Erantzukizun handiagoa hartzea* egunkari edo albistegien *online argitalpenetan jendeak idazten dituen iruzkinen atalei dagokienez* (albiste jakin batzuen inguruan argitaratzen diren iruzkin arrazistak eta abar).
- *Borondatezko ekintzari loturiko albisteetan lekukotasun* bat eskaintzea eta ez unean unekoa (Boluntarioen Eguna, Alzheimerraren Eguna eta abar).

## Igorpen-bideekin loturiko proposamenak

- Ikus-entzule askoko edo irismen mediatiko handiko uneak edo espazioak aprobetxatzea boluntariotza ezagutarazteko, boluntarioen edo erabiltzaileen esperientzia konkretuen bidez, boluntarioen lana gizarteari ezagutaraziko dioten historiak eskainita.
- Gaur egun boluntariotzari eta erakunde jakin batzuek egiten duten lanari tarte bat eskaintzen dioten *irrati- eta telebista-programetako emanaldiak* ugaritzea.
- Borondatezko ekintzaren berri ematea *tokiko hedabideetan*, pertsonengana modu hurbilago batean iristeko.

## Sentsibilizazioarekin loturiko proposamenak

- Sentsibilizazio handiagoa azaltzea zaurgarri diren edo baztertuta dauden talde edo egoera jakin batzuen inguruan.
- *Publizitate-kanpainak* egitea boluntario ospetsu eta ez ospetsuekin.
- *Erakundeen lana ezagutaraztea boluntarioei eurei ahotsa emanda:* helburuak, talde hartzaileak, bertan lan egiten duten pertsonak, beharrizanak eta abar.

## Hedabideen konpromisoarekin loturiko proposamenak

- *Konpromiso handiagoa hartzea borondatezko ekintzarekin eta ekintza hori ikusaraztearekin. Horretarako, beharrezkoa da komunikabideen ildo editorialaren, filosofiaren edo ideien eta kode deontologikoaren parte izatea.*
- Boluntarioak *modu altruistan* sustatzea.

– *Erraztasunak ematea erakundeak komunikabideetara erraz iritsi* ahal izan daitezen, batez ere erakunde txikienen kasuan.

– Erakundeetara gerturatzea, erakundeak izan beharrean gerturatzen direnak.

**Erakundeak eta boluntarioak**

Halaber, boluntariotzako erakundeek garatzekoak diren zenbait proposamen ere jaso ahal izan ditugu; honako hauek hain zuzen:

– Borondatezko ekintza *informazio- eta prestakuntza-hitzaldien* bidez ezagutaraztea (garuneko paralisia zer den informatzea eta abar), bai eta ingurune hurbilean ezagutaraztea ere.

– *Inguruko pertsonei gonbit egitea egun batez boluntario gisa parte har dezaten.*

– *Gainerako erakundeak eta egiten dituzten jarduerak ezagutzea,* gizarteari Hirugarren Sektorearen ikuspegi globalago bat eskaini ahal izateko.

– *Boluntarioak batzea, presentzia handiagoa izateko,* elkar gehiago ezagutzeko eta boluntariotza ezagutarazi ahal izateko.

– *Boluntarioak prestatzea, komunikabideetan presentzia handiagoa izateko.*

## 6.9. Boluntario-esperientziaren balioespen orokorra

Aurreko lau ataletan, boluntarioen ikuspegia azaldu da, ondoko honetarako garrantzizkotzat jotzen diren alderdiei dagokienez: jendeak boluntario izatea zergatik erabakitzen duen ulertzea (motibazioak); beren lanari zer garrantzi ematen dioten eta haien ekarpena zein den ulertzea; ezagutzea nola baloratzen duten erakundeek boluntarioak kudeatzeko duten modua, zenbateraino parte hartzen duten erakundeetan, eta arlo horretan zer erronka dituzten; beren lanaren gizarte-aintzatespenaren inguruan sakontzea eta zer irizten dioten jakitea.

Alderdi horiek denak estuki lotuta daude boluntarioen *gogobetetzearekin*, eta borondatezko ekintzak egiten jarraitzeko giltzarritzat jotzen dira; izan ere, neurri batean boluntarioei zerk eusten dien azaltzen dute.




Nahiz eta euskal boluntario gehienak oso pozik ageri diren egiten duten lanarekin, gogobetetze horrekin lotzen diren giltzarriak ulertzea ezinbestekoa da haien jarraipena bermatuko duten hobekuntza-ekintzak ezartzeko. Gainera, giltzarri horiek lagungarri gerta daitezke boluntarioak atzemateko eta gizartea borondatezko ekintzaren garrantziaz sentsibilizatzeko.

## Pozik al daude boluntarioak egiten duten lanarekin?

*Boluntarioak oso pozik daude egiten duten borondatezko jarduerarekin; zehazki, batez besteko gogobetetzea 8koa da 10etik.* Ez da ikusten ia alderik sexuaren, adinaren edo egiten duten lanen arabera, baina badirudi, erakundean laguntzen daramaten denboraren arabera, denbora gutxien daramatenak daudela gogobeteen (8,41 puntu), eta ondoren denbora gehien daramatenak (8,08 puntu).

## Gaur egungo boluntarioek beren jarduerarekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak eta adinaren, erakundean duten antzinatasunaren eta egiten dituzten lanen araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

85. TAULA

| Borondatezko ekintzari loturiko gogobetetzea | Batez-bestekoa | Ohiko desbide-rapena | Gutxienez | Gehienez |
|---|---|---|---|---|
| **Orokorra** | | | | |
| Orokorra | 8,00 | 1,36 | 0 | 10 |
| **Sexua** | | | | |
| Gizonak | 7,99 | 1,30 | 3 | 10 |
| Emakumeak | 8,01 | 1,39 | 0 | 10 |
| **Adina** | | | | |
| 18 eta 29 bitartean | 8,01 | 1,05 | 5 | 10 |
| 30 eta 39 bitartean | 8,04 | 1,28 | 5 | 10 |
| 40 eta 49 bitartean | 7,97 | 1,47 | 3 | 10 |
| 50 eta 64 bitartean | 7,92 | 1,68 | 0 | 10 |
| 65 edo gehiago | 8,08 | 1,16 | 5 | 10 |
| **Erakundean daramaten denbora** | | | | |
| Urtebete baino gutxiago | 8,41 | 1,50 | 4 | 10 |
| 1 eta 5 urte bitartean | 7,96 | 1,29 | 5 | 10 |
| 5 eta 10 urte bitartean | 7,86 | 1,46 | 2 | 10 |
| 10 baino gehiago | 8,08 | 1,33 | 0 | 10 |
| **Egiten duten lan-mota** | | | | |
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 7,84 | 1,35 | 2 | 10 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 8,05 | 1,39 | 0 | 10 |
| Biak | 7,97 | 1,16 | 5 | 10 |

Zehazki, boluntarioen % 96,3 nahiko edo oso pozik daude beren borondatezko ekintzarekin; beraz, ehuneko benetan txikiak dira ezaxola direnena (% 2,6) eta pozik ez daudenena (% 1).

## Gaur egungo boluntarioek beren jarduerarekin duten gogobetetze-maila. Emaitza orokorrak. %

21. GRAFIKOA




Datuak ia 2008ko Bizkaiko azterlanean erregistratutako berberak dira; izan ere, bertan boluntario-esperientzia 8,02 punturekin balioesten zen, eskala berean. Gainera, CISek[99] estaturako jasotzen duenez, boluntarioen % 92k diote oso edo nahiko pozik daudela beren boluntario-lanarekin, % 79 beren erakundeak lortutako lorpenekin (emaitzak), eta % 75,4 beren erakundearen funtzionamenduarekin.

Erakundean urtebete baino gutxiago daramaten pertsonen % 88,2 oso pozik daude beren jarduerarekin, nahiz eta ehuneko hori % 63ra ere gutxitzen den 1 eta 10 urte bitartean daramatenen artean. Nolabait, esan liteke lehenengo esperientzia-urtetik aurrera gogobetetzea handia dela oraindik, baina «oso» pozik egotetik «nahiko» pozik egotera igaro diren pertsonen proportzioa handia dela.

*Bestalde, adieraz liteke ezin dela esan erlazio linealik dagoenik gogobetetze-mailaren eta erakundean daramaten denboraren artean; izan ere, bi tasa handienak aurkako muturretan erregistratu dira.*

[99] CIS. IKERKETA SOZIOLOGIKOEN ZENTROA. *Encuesta sobre Participación social*. 2008ko Barometroa. Madril: CIS, 2008.

**Gaur egungo boluntarioek egiten duten jarduerarekin duten gogobetetze-maila. Emaitzak erakundean duten antzinatasunaren arabera. %**

22. GRAFIKOA




## Zein dira alderdi positiboenak eta negatiboenak?

Boluntarioek beren boluntario-esperientziaren alderdi positiboenak zein diren galdetuta eman dituzten erantzunak (hiru aipatzeko eskatu zitzaien) hiru multzotan sailkatu dira[100].

- *Kontzientzia hartzea:* pertsona hauentzat oso garrantzitsua da *gauzak aldatzea* (bidegabekeriak eta abar), gizartea eraldatzen laguntzea, kontzientzia pertsonala (*bilakaera eta haziera pertsonala*) eta kolektiboa (*proiektu kolektibo batean parte hartzea*) oinarritzat hartuta. Adierazi dute zer gauza ona den *ekitea*, *inplikatzea*, agente aktibo izatea, *beste pertsona batzuengan eragitea*, *justizia soziala*, ingurua hobetzeko *gogoa*, talde bateko *kide izatearen sentimendua, sareko lana* eta halako balioak transmititzea, lagungarri baitira pertsona gehiago erakartzeko. Horrek guztiak lagundu egiten die une oro gizarte-errealitatearekin harremanetan ego-

[100] Sailkapen horrek badu nolabaiteko antza boluntarioen arrazoiei eta boluntariotzari buruzko ikuspegiari dagokionez ezarri diren sailkapenekin.

ten (*lehen ezagutzen ez nuen mundu bat ezagutu dut, ikusten duzu badela laguntza behar duen jendea),* beren arazoak erlatibizatzen eta gauzak beste modu batera ikusten.

- *Emaitzak:* pertsona horientzat garrantzitsuena da jakitea ahaleginaren atzean sari bat dagoela, ikusten direla emaitzak. Esate baterako, nabarmendu dute zer positiboa den jakitea *laguntzen duzula, jendea zoriontsu egiten duzula eta haien bizi-kalitatea hobetzen dela*, baina emaitza nabariak ere azpimarratu dituzte, hala nola aterpea, janaria, zerbitzuak eta abar ematea *(egiten duzun hori besteengana iristen dela jakitea, helburuak beteta ikustea...).*
- *Gogobetetze pertsonala:* talde honetan, beste gauza guztien gainetik boluntarioen giza alderdia nabarmentzen duten pertsonak sartu ditugu. Jendea ezagutu ahal izatea, gustura egotea, lagunak egitea, giro onaz gozatzea, beste kultura batzuk ezagutzea, bidaiatzea, esperientziatik ikastea, astialdia betetzea, arazoak ahaztea, ondo pasatzea... horrek denak aberastu egiten ditu pertsona gisa.

*Euskal boluntarioen erdiek baino gehixeagok adierazi dute beren esperientziaren alderdirik positiboena gogobetetze pertsonala dela, heren batek ekintzaren emaitzak aipatu ditu, eta gainerakoek kontzientzia hartzea.*

**Boluntarioen banaketa, boluntarioen alderdi positiboenen arabera. Emaitza orokorrak. %** 23. GRAFIKOA




Sexuaren arabera, ez da alde handirik ikusten, nahiz eta emakumezko boluntarioen artean pisu handiagoa duten gogobetetze pertsonalak eta emaitzek, eta zertxobait txikiagoa kontzientzia hartzeak.

## Boluntarioen banaketa, boluntarioen alderdi positiboenen arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

24. GRAFIKOA




Adierazi behar da hala biztanleek boluntario sartzeko dituzten hasierako arrazoien kasuan nola boluntarioek beren lanari berari buruz duten ikuspegiaren kasuan (informazio hori aurreko ataletan aztertu da), lehenik eta behin elkartasunezko laguntzaren pragmatismoa edo ikuspuntua nabarmentzen dela, bigarrenik ikuspegi transzendentala edo gizartea eraldatzekoa, eta azkenik alderdi pertsonalarekin lotuta dagoena.

Alabaina, kasu honetan, boluntarioen ustez pozik egoteko eta lanean jarraitzeko modurik positiboenean eragiten duten alderdiez ari garelarik, lehen lekuan gogobetetze pertsonalarekin loturiko elementuak daude. *Nolabait, ondoriozta liteke gogobetetze pertsonala, arrazoi nagusia ez izanik ere eta borondatezko ekintzaren xedea ez izanik ere, badela emaitza edo onura bat, eta horri izugarrizko garrantzia ematen zaiola eta segur aski beste ezerk baino gehiago laguntzen duela boluntarioek lanean jarrai dezaten.*

Nahiz eta gehienbat alderdi positiboak aipatzen diren, zenbaitek adierazi dituzte *boluntario gisa izan duten esperientziaren alderdi negatiboak* ere. Egiaz, alderdi positiboak baino askoz ere alderdi negatibo gutxiago identifikatu dira, eta, gainera, askotarikoak eta garrantzi gutxikoak dira. Horiek denak aztertu, eta 9 kategoriatan bildu ditugu:

- *Norberaren astialdia gutxitzea, inplikazio handiaren ondorioz:* pertsona batzuek adierazi dute boluntario-lanak *dedikazio* handia eta *sakrifizio pertsonal* handia eskatzen duela; izan ere, *beste gauza batzuei egin behar zaie uko*

*(batzuetan ez zara iristen, zure aisialdia kontsumitzen duzu, orduak falta zaizkizu...)*, eta, gainera, beste betebeharrekin uztartu behar dituzte *(lana, ikasketak, familia...)* eta hori dena bateragarri egitea ez da lan erraza.

- *Esperotako emaitzak ez lortzeak sortzen duen frustrazioa: logikoa den bezala, batzuetan gauzak gaizki irteten dira, mantso doaz...* beste batzuetan ez da erraza talde jakin batzuekin lan egitea, *badakizu inoiz ez zarela helmugara iritsiko...* eta horrek, zenbaitetan, porrot eta ezintasun sentimendu bat sortzen du boluntarioen artean.
- *Zailtasunak administrazio publikoekin:* gehiegizko burokrazia eta erakundeentzako finantzabidea eta baliabideak lortzeko zailtasunak aipatu dira. *Batzuetan baliabideak falta dira eta eragozpen asko jartzen dizkizute, instituzioen babesik ez dago...*
- *Erakundearen egunerokoarekin loturiko zenbait alderdi:* batzuetan, boluntarioak bakarrik sentitzen dira, *erantzukizun* eta *tentsio* handiegiarekin, *haserretu* egiten dira, eta entitateen arteko lankidetza handiagoaren falta sumatzen dute. Beste batzuetan aspertu egiten dira, beren lana *monotonoa* edo *errutinazkoa* delako.
- *Gizartearen ulertezintasuna eta ezaxola, eta inplikaziorik eza:* oro har argudiatzen dute gizartean ez dela aintzatesten haien lana, ez dira *errespetatuak* sentitzen, *kritikatu* egiten dituzte... Gainera, horrek ez du laguntzen jendea boluntario egiten; aitzitik, zaildu egiten du *belaunaldi-ordezpena*.
- *Zenbaitetan boluntarioez egiten den abusua:* pertsona batzuek agerian jarri dute, teorian mugatu egiten badira ere borondatezko lanak eta *profesionalek* (kontratatutako langileak) egiten dituzten lanak, zenbaitetan hori ez dela hala izaten, eta erakunde batzuk *aprobetxatu* egiten direla *boluntarioez*, profesionalen lana egiten dutelako.
- *Zenbait errealitateren gordintasunak dakarren higadura emozionala:* zenbaitetan, boluntarioek aurre egin beharreko egoerek (muturreko pobrezia, gaixoak...) higadura izugarria dakarte, *ikusi nahiko ez zenituzkeen gauzak ikusten dituzu, errealitatea oso gogorra da...*
- *Gatazka pertsonalak:* zenbaitetan, erakundeen barruan haserrealdiak ere sortzen dira boluntarioen arteko harremanetan edo boluntarioen eta kontratatutako langileen artekoetan, bakoitzak duen nortasunaren edo lankidetza zein talde-lana ulertzeko duen moduaren ondorioz.

*Euskal boluntarioen erdiek baino gehixeagok astialdia gutxitzea eta esperotako emaitzak ez lortzeagatiko frustrazioa aipatu dituzte beren esperientziaren alderdi negatibo bezala. Gehien aipaturiko alderdietan hirugarrena administrazioarekin izandako zailtasunak izan dira.*

## Boluntarioen banaketa, boluntariotzaren alderdi negatiboenen arabera. Emaitza orokorrak. %

25. GRAFIKOA




## Boluntarioen banaketa, boluntariotzaren alderdi negatiboen arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

26. GRAFIKOA



Eskuarki, gizonezko boluntarioek emakumezko boluntarioek baino gehiagotan aipatu dituzte astialdiaren benetako galera eta administrazioarekiko zailtasunak, eta emakumezko boluntarioentzat, ostera, gizonezko boluntarioentzat baino pisu handiagoa dute esperotako helburuak ez lortzeagatiko frustrazioak, gizartearen ulertezintasun eta ezaxolak eta higadura emozionalak.

## Bete dira zure igurikimenak?

Zalantzarik gabe, baiezta liteke boluntarioen igurikimenak bete direla; izan ere, *% 92k adierazi dute dezente edo asko bete* zaizkiela boluntario-lanetan hasi zirenean zituzten igurikimenak, zeinahi direlarik ere sexua, adina, egiten duten lan-mota eta erakundean parte hartzen daramaten denbora[101].

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, igurikimenen betetze-mailaren arabera. %

86. TAULA

| Igurikimenen betetze-maila | Guztira |
|---|---|
| Dezente edo asko | 92,1 |
| Batere ez edo gutxi | 7,9 |
| **Guztira** | **100,0** |

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, igurikimenen betetze-mailaren arabera. Emaitza orokorrak eta erakundean daramaten denboraren araberakoak. %

87. TAULA

| Igurikimenen betetze-maila | Guztira | Urtebete baino gutxiago | 1 eta 5 urte bitartean | 5 eta 10 urte bitartean | 10 baino gehiago |
|---|---|---|---|---|---|
| Dezente edo asko | 92,1 | 82,4 | 90,4 | 92,4 | 94,9 |
| Batere ez edo gutxi | 7,9 | 17,6 | 9,6 | 7,6 | 5,1 |
| **Guztira** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |

[101] Eranskinean kontsulta daitezke aldagai horietarako bereizitako datuak.

Alabaina, ikusten da pozik ez daudenak zertxobait gehiago direla erakundean denbora gutxien daramatenen artean; izan ere, % 17,6k adierazi dute gutxi edo batere ez zaizkiela bete igurikimenak. Badirudi badela logika bat boluntarioen igurikimenak eta gogobetetzea beren jarduera garatu ahala handituz doazelako ideiarekin.

### Igurikimenak betetzea, espero gabeko onurak dakartza boluntariotzak

Boluntariotzaren parte izateko pausoa hasierako motibazioengatik ematen da; motibazio horiek igurikimen batzuk sortzen dituzte, eta igurikimen horiek betetzeak dakar, zalantzarik gabe, boluntarioen gogobetetzea, beteko den edo ez den hasierako imaginario bat osatzen duten aldetik.

Nahiz eta pertsona bakoitzak bere ikuspegi propioa izan dezakeen borondatezko ekintzatik espero edo nahi duenaren inguruan, bai galdesortarekin bildutako datuekin bat etorriz eta bai eztabaida-taldean adierazitako ideiekin bat etorriz, ederki bete dira gehienek boluntariotzaren parte izateko zituzten abiapuntuko igurikimenak.

Areago, badirudi esperotakoa baino «zerbait gehiago» ematen duela boluntariotzak, eta, hain zuzen ere, horrexek laguntzen du boluntario-lana egiten jarrai dezaten. Denek adierazi dute *boluntariotzak espero zuten baino gehiago eman diela, ekarpen ukiezinak, pertsona bakoitzarengan modu batera edo bestera eragin dutenak.*

> «Osasunaz interesatzen nintzelako sartu nintzen. Behin sartu zarelarik, jendearen esker ona ikusten duzu, zer ematen diezun. Uste dut horrek jarraiarazten dizula. Zerbait pertsonalagatik sartzen zara, baina jendeak nola eskertzen dizun eta zer lortzen duzun ikusita, geratu egiten zara».
>
> «Eraman egin ninduten eta gustatu egin zitzaidan. Zoriontsu egoten naiz. Gogo biziz nago».
>
> «Erakundearekiko erlazioa lan-harreman gisa hasi zen. Mugiarazten zituen espirituak gerarazi zidan. Besteentzat baliagarri sentitzeak».

Nabarmentzekoak dira beste giltzarri batzuk ere, boluntarioen diskurtsoan *borondatezko ekintzaren* ekarpenari eta *onurei* dagokienez gailentzen direnak eta eskuarki hasierako igurikimenen parte ez zirenak:

### *Harreman pertsonal berriak...*

Boluntariotzaren bidez sortzen diren harreman pertsonalak dira gehien nabarmendutako alderdietako bat. Harreman horien ezaugarria da hurbileko harremanak direla (etxekoak), adiskidetasunezkoak, gauzak partekatzekoak.

Batetik, beste boluntario batzuekin boluntariotza-harremanaz harago sortu diren adiskidetasunezko loturak nabarmendu dira. Adiskidetasun berriak dira, zenbaitetan boluntario gazteenen kasuan ereduzko adiskidetasun bihurtzen direnak (koadrila).

Positiboki balioesten dira, orobat, erakundeetako profesionalekin ezartzen diren harreman pertsonalak, boluntarioei ematen dieten tratu hurbilagatik, bai eta boluntarioei egiten zaien harrera eta aintzatespena ere.

Erabiltzaileekin edo kaltetuekin lan egiten duten boluntarioek haiekin sortzen den harreman-lotura ere nabarmendu dute. Alde batetik, adierazi dute deuseztatu egiten direla gizarte-estigma handiena duten taldeen gaineko aurreiritziak (toxikomano izandakoak, presoak, etorkinak eta abar), eta, bestetik, pertsona horiek gauza asko ematen dizkiela boluntarioei (gizatasuna, balioak eta abar). Horregatik da, itxuraz, gehien harritzen duten loturetako bat, eta horregatik ikusten da hor modurik argienean harremanaren elkarrekikotasuna (ematea eta hartzea).

### *Haziera eta ikaskuntza pertsonala...*

Boluntariotza, pertsona askorentzat, pertsonalki hazten lagundu dien esperientzia bihurtu da, edozein delarik ere haien adina edo boluntario-lanetan daramaten denbora.

> «Ez nuen ezer espero eta nire harridurarako neure burua aurkitu nuen, neure burua ezagutu nuen, eta konturatu nintzen laguntzeak egiten nauela zoriontsu eta sentiarazten nauela baliagarri».

Haziera hori hainbat alderdiri lotzen zaie: bizi-esperientzia hornitzaileak, pertsonekiko harreman aberasgarriak, norberaren burua eta taldea ezagutzen laguntzen duten gaitasunak eta talde-lana, eta abar.

Nahiz eta badiren boluntariotzaren ondorioz bizi izan diren alderdi negatiboak ere (errealitate zailak ezagutzea, egoera korapilatsuak bizitzea eta abar), pertsonalki hazteko modutzat hartzen dira eskuarki.

### *Esperientzia eta garapen profesionala...*

Nahiz eta esperientzia lortzea eta profesionalki garatzea izan zen pertsona batzuen igurikimena boluntariotzan sartzeko orduan, beste kasu batzuetan ustekabean aurkitu duten zerbait izan da. Nolanahi ere, batez ere boluntario gazteenen artean, borondatezko ekintzak esperientzia garrantzitsua ekarri die beren garapen profesionalerako. Kasu batzuetan, borondatezko ekintzaren ondoren, lanean jarraitu dute erakundean; beste kasu batzuetan, egiten den edo egin nahi den jarduera profesionalaren osagarri bat izan da; eta ikasketen ibilbidea ere markatu du.

### *Ikuspegi bateratua gizarte-eraldaketarantz...*

Boluntariotza talde jakin batzuei laguntzea eta hobetzen laguntzea ahalbidetzen duen jarduera konkretu bat edo ekimen jakin batzuk abian jartzea baino gehiago den neurrian, borondatezko ekintzak espazio bat ekarri du gizarte-eraldaketaren ikuspegi bateratu bat eta aldaketa eta justizia sozialaren alde borrokatzeko motibazioa partekatzeko.

### *Talde bateko kide izatearen sentimendua: boluntarioen espiritua...*

Ezartzen diren harreman pertsonalek lagundu egiten dute integrazioa eta talde bateko kide izatearen sentimendua. Kide izate hori ez dagokio soilik boluntario-lana egiten den erakundeari, baizik eta bide ematen du, halaber, boluntariotza eta boluntario-taldea bera eratzen duten pertsonak ulertzeko.

> «Nik neure burua talde bateko kide gisa ikusten dut, baina boluntario-talde abstraktu batekoa, ez nire taldekoa. Boluntarioaren espiritua. Erakunde baten parte naiz, eta harekin ideiak parteka ditzaket edo ez, baina horrek ez du esan nahi bihar ez dudanik beste erakunde batean partaide izan nahiko, nire espiritua boluntarioarena baita. Horregatik ematen dut faltan boluntarioen sare bat, gure helburua pertsona boluntarioak direlako».

### *Beste gizarte-errealitate batzuen ezagutza...*

Zenbaitetan, boluntariotza beste gizarte-errealitate batzuk ezagutzeko modua eman duen bide gisa definitzen da, beste pertsona batzuen egoera eta bizipenetara hurbiltzeko modu gisa.

> «Egoera pertsonal askotarikoak ezagutu ditut, denak ere premia handikoak (etxebizitza, osasuna, lana, afektua eta abar)».

### *Errutinari ihes egiteko bidea...*

Boluntariotzaren bidez, zenbait pertsonak errutinari ihes egiteko bide bat aurkitu dute, batez ere aktibo ez daudelako edo familia-kargarik ez dutelako asti gehiago duten adineko pertsonen kasuan.

### *Baliagarri izatearen sentimendua...*

Baliagarri sentitu ahal izatea da pertsonak boluntariotzara daramatzan alderdi garrantzitsuenetako bat, eta, zalantzarik gabe, boluntariotzak ahalbidetzen duen zerbait da.

Zenbaitetan, baliagarri sentitzea boluntario-lanetan hasi aurretik jadanik egiten ziren jardueren bitartez etorri da, eta beste batzuetan, boluntariotzaren bidez gaitasun berriak garatu dira.

> «Inoiz ez nuen pentsatu egiten dudan jarduera egin nezakeenik. Orain egiten dudan jarduera horrekin hornitzen dut neure burua».

### *Aisialdi aktiboa...*

Pertsona batzuek aisialdi aktibo bat izateko modua aurkitu dute boluntariotzan; horrek aukera ematen die hainbat jarduera egiteko, lekuak ezagutzeko eta aisialdiko esperientziak era guztietako pertsonekin partekatzeko.

### *Bizitza ikusteko beste modu bat...*

Boluntariotzak bizitza ikusteko beste modu bat eskaini die zenbait pertsonari, era errazago bat eta bizitzaren gauza txikiak balioesten dituena.

### *Hirugarren Sektoreko erakundeak ezagutzea*

Nahiz eta oro har boluntarioek aitortu duten faltan ematen dutela Hirugarren Sektorea eratzen duten erakundeak gehiago ez ezagutzea (beren erakundeaz eta antzekoez harago), pertsona batzuentzat borondatezko ekintza izan da erakunde berriak eta oro har Hirugarren Sektorearen lana ezagutzeko bidea.

Bestalde, adierazi behar da igurikimenak gutxi bete dituztenek edo batere bete ez dituztenek (% 7,9 dira) batez ere arrazoi hauek adierazi dituztela: errealitatea aldatzeko zailtasuna, emaitzak ez ikusteagatiko frustrazioa, ho-

betu ezin diren errealitateak badaudela pentsatzeak sorturiko gogogabezia, eta abar.

Badirudi zenbait pertsonak beren igurikimenak doitu egin behar izan dituztela konturatu direnean ez dela beti posible egiten ari diren lanaren emaitza epe laburrera ikusaraztea. Nahiz eta boluntario batzuentzat abiapuntuko igurikimen bat izan hori, esperientziak erakutsi die *beti ez dela erraza egindako ekintzen emaitza ikustea,* batez ere laguntzen dituzten pertsonek bide luzea egin behar badute oneratu aurretik.

> «Nik espero nuen egiten dudanaren fruitua ikustea, baina hain gaizki dauden pertsonekin egiten da lan, oraindik ez dut ikusi oneratu den pertsona bat bera ere. Ez dakit erakundetik joan ondoren zer bide egin duten, baina kosta egiten da toxikomano bat sendatuta ikustea».

Bestalde, zehazki aipatu da boluntarioek lan mordoa dutela eta erakundean baliabide eta bitartekoak falta direla, eta horrek zaildu egiten duela borondatezko ekintza.

## Zer asmo dituzte etorkizunerako?

Boluntarioak beren lanarekin zein pozik dauden ikusita, logikoa dirudi pentsatzeak datozen urteetan ere lan horretan jarraituko dutela. *Kontsultatutako hamar pertsonatik bederatzik aurreikusten dute datozen urteetan boluntario-lanean jarraituko dutela*. % 5,8k adierazi dute batzuetan boluntario-lana uztea pentsatzen dutela, eta % 3,4k uste dute oso litekeena dela laster boluntario -lana uztea.

### Gaur egungo boluntarioen banaketa, etorkizuneko asmoen arabera. %

88. TAULA

| Etorkizunerako asmoa | Guztira |
|---|---|
| Hurrengo urteetan boluntario-lanean jarraituko dut | 90,8 |
| Batzuetan boluntario-lana uztea pentsatzen dut | 5,8 |
| Segur aski laster utziko dut boluntario-lana | 3,4 |
| Guztira | 100 |

Boluntario-lana uztea pentsatzen ari direla esan duten pertsonek (guztira % 9,2) emandako arrazoietan sakondu nahi izan dugu. Nahiz eta uzteko arrazoiak asko diren, nagusiki hauek nabarmentzen dira: boluntario-lanetan emandako urteen ondoriozko nekea, pertsona batzuen adina eta jarraitzeko motibaziorik eza.

Horrez gain, arrazoi pertsonalak (osasun-arazoak, beste lehentasun batzuk eta abar), astirik ez izatea eta ikasketekin edo lanarekin bateraezina izatea ere aipatu dituzte. Ez dirudi uzteko arrazoietako bakar batek ere zerikusirik duenik erakundearekin, gainerako boluntarioekin edo arduradunekin ados ez egotearekin edo harreman txarra izatearekin, ez eta balioespenik ez izatearekin edo borondatezko ekintza egiteko behar den erantzukizunarekin ere.

### Gaur egungo boluntarioek borondatezko ekintza uzteko izan litzaketen arrazoiak (batzuetan uztea pentsatzen dutenak eta beharbada laster utziko dutenak). %

89. TAULA

| Uzteko izan litzaketen arrazoiak | Guztira |
|---|---|
| Nekatu samar nago erakundean hainbeste urte egin eta gero | 2,6 |
| Adina | 1,6 |
| Jarraitzeko motibaziorik eza | 1,3 |
| Arrazoi pertsonalak | 1,0 |
| Astirik ez izatea | 1,0 |
| Ikasketekin edo lanarekin bateraezin izatea | 1,0 |
| Jende berriari bide emateko | 0,5 |
| Erakundez aldatu nahi dut | 0,3 |
| Besterik | 1,3 |
| Ez naiz baloratua sentitzen | 0 |
| Erantzukizun handiegia da | 0 |
| Ez daukat harreman onik beste boluntarioekin | 0 |
| Ez daukat harreman onik nire arduradunarekin | 0 |
| Borondatezko lanak ez ditu bete nire igurikimenak | 0 |
| Ez nago ados erakundearen alderdi batekin/batzuekin | 0 |

Oharra: ehunekoek ez dute 100 egiten, erantzun anitzeko galdera bat denez.

## 6.10. Galdutako boluntarioak

Lehenengo atalean ikusi den bezala, boluntariotzaren gertakariari buruzko analisi sakon bat egiteko orduan, gaur egun boluntario diharduten pertsonak kontuan hartzeaz gain (aurreko kapituluak haien gainekoak izan dira), bidezko da gaur oraindik halako lanik egiten ez badute ere iraganean boluntario-esperientziaren bat izan duten pertsonen taldeari erreparatzea. Atal honetan, «galdutako boluntarioak» deitu ditugun talde horri buruzko datuak aztertuko ditugu. Gutxi gorabehera kontsultatutako pertsonen % 9,8 dira.

Atal honetako funtsezko helburuetako bat da pertsona horiek boluntario-lana zergatik utzi zuten eta zer ezaugarri dituzten jakitea, halako eran non boluntario-lana utz dezaten saihesteko arrastoak atera ahalko diren. Baina, gainera, kontuan hartuta ez dagoela aurretik beste lanik luzetarako konparazio zehatz bat egiteko modua emango duenik, atal hau baliatu nahi izan dugu gutxi gorabeherako zenbait konparazio egiteko boluntarioen gaur egungo errealitatearen eta iraganean pertsona horiek bizi ahal izan zuten errealitatearen artean.

Lehenik eta behin, bidezko iritzi diogu «galdua» terminoa mugatu eta kategorizatzeari, inkesta egin zaien boluntario ohiek zein garaitan jardun zuten identifikatzeko, eta horrekin, haien erantzunak testuinguruan kokatzeko. Galdutako boluntarioen lau talde ezarri dira: duela urtebete baino lehenago baina bost urte baino gutxiago boluntario izan ziren pertsonak (edo gauza bera dena, 2006tik 2010era bitartean boluntario izateari utzi ziotenak); boluntariotza duela 5 urte edo gehiago baina 10 baino gutxiago utzi zuten pertsonak (boluntario-lana 2001 eta 2005 bitartean amaitu zutenak); boluntario duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago izan ziren pertsonak

**Galdutako boluntarioen banaketa, borondatezko lana noiz utzi zuten kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** 90. TAULA

| | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Duela 5 urte baino gutxiago | 29,7 | 25,9 | 33,1 |
| Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | 19,7 | 19,0 | 20,3 |
| Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | 30,1 | 31,0 | 29,3 |
| Duela 20 urte edo gehiago | 20,5 | 24,1 | 17,3 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

(boluntariotza 1991tik 2000. urtera bitartean amaitu zutenak); eta duela 20 urte edo gehiago utzi zuten pertsonak (1991tik boluntario ez direnak).

## Zer adinekin uzten da boluntariotza?
## Zerk utzarazten du boluntariotza?

*Inkestatutako pertsonek batez beste 31,1 urterekin utzi zuten boluntariotza*[102], *eta boluntario gisa 7 bat urteko esperientzia izan dute batez beste.*

### Galdutako boluntarioek borondatezko lana amaitzean zuten adina. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

91. TAULA

| Amaitzean zeukaten adina | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 31,1 | 31,1 | 31,1 |
| Moda[103] | 22 | 25 | 22 |
| Mediana[104] | 26 | 25,5 | 26 |
| Ohiko desbiderapena[105] | 13,2 | 13,2 | 13,2 |
| Gutxieneko adina | 17 | 17 | 17 |
| Gehieneko adina | 80 | 80 | 76 |

### Galdutako boluntarioen esperientzia-urteak. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. Oinarrizko datu estatistikoak

92. TAULA

| Esperientzia | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 7,03 | 7,02 | 7,04 |
| Moda | 2 | 2 | 2 |
| Mediana | 5 | 5 | 5 |

(…)

[102] Eranskinean kontsulta daitezke galdutako boluntarioek hasi zirenean zuten adinari buruzko datuak.

[103] *Modak* gehien errepikatutako adina adierazten du.

[104] *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

[105] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

(…)

| Esperientzia | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Ohiko desbiderapena | 7,5 | 8,1 | 7,0 |
| Gutxieneko denbora | 0 | 0 | 0 |
| Gehieneko denbora | 63 | 63 | 50 |

Nolanahi ere, adierazi behar da talde hori osatzen dutenen ia erdiek (% 51) 1 eta 5 urte bitartean lagundu dutela eta % 27 inguruk 5 eta 10 urte bitarteko esperientzia dutela era horretako jarduereetan.

**Galdutako boluntarioen banaketa, laguntzaile zenbat denboran ibili ziren kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %**

93. TAULA

| Esperientzia | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Urtebete baino gutxiago | 4,5 | 4,3 | 4,6 |
| Urtebete baino gehiago eta gehienez 5 | 51,0 | 53,4 | 48,9 |
| 5 baino gehiago eta gehienez 10 urte | 26,7 | 25,0 | 28,2 |
| 10 urte baino gehiago | 17,8 | 17,2 | 18,3 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

*Borondatezko lana ikasketekin edo lanarekin bateragarri ez izatea edo astirik ez izatea* dira boluntarioek jarduera hori uzteko izan zituzten arrazoi nagusiak. Ez dirudi boluntariotza utzi zen garaiak edo aldiak uzteko arrazoia baldintzatu zuenik.

Uzteko arrazoi nagusiak bat datoz Bizkaiko azken azterlanean[106], 2008koan, zehaztutakoekin (hiru aipatzen dira, garrantziaren arabera ordenatuta): gehien aipaturikoa lana edo ikasketak dira (% 22,5), eta ondoren familia-betebeharrak (% 22) eta norberarentzat eta etxekoentzat astialdirik ez izatea (% 13).

CISek ere, 2011ko Barometroan[107], boluntario-lanerako bi oztopo nagusi identifikatzen ditu estatuan, antzeko ehunekoarekin (% 36-% 35): astirik ez izatea eta interes pertsonalik ez izatea.

[106] Op. cit.

[107] Op. cit.

## Galdutako boluntarioek borondatezko lana amaitzeko izan zituzten arrazoiak. Emaitza orokorrak eta borondatezko lana utzi zen garaiaren araberakoak. %

94. TAULA

| Amaitzeko arrazoiak | Galdutako boluntarioak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Duela 5 urte baino gutxiago | Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | Duela 20 urte edo gehiago |
| Ikasketekin edo lanarekin bateraezin izatea | 39,8 | 40,5 | 40,8 | 30,7 | 49,0 |
| Astirik ez izatea | 30,1 | 24,3 | 32,7 | 28,0 | 37,3 |
| Inguruabar pertsonaletan izandako aldaketak | 15,2 | 13,5 | 16,3 | 18,7 | 13,7 |
| Sentitzen nuen amaitu zela erakundeko nire aldia | 7,8 | 10,8 | 8,2 | 6,7 | 3,9 |
| Nekatu samar sentitzen nintzen erakundean hainbeste urte egin eta gero | 6,3 | 4,1 | 4,1 | 6,7 | 11,8 |
| Ez nengoen ados erakundeko alderdi batekin/batzuekin | 5,9 | 8,1 | 8,2 | 5,3 | 0,0 |
| Borondatezko jarduera amaitu zen | 4,7 | 5,4 | 4,1 | 8,0 | 0,0 |
| Jarraitzeko motibaziorik eza | 3,9 | 4,1 | 4,1 | 2,7 | 5,9 |
| Erakundea utzi nahi nuen | 2,3 | 2,7 | 0,0 | 1,3 | 5,9 |
| Borondatezko lanak ez zituen bete nire igurikimenak | 1,6 | 1,4 | 4,1 | 1,3 | 0,0 |
| Erantzukizun handiegia zen | 1,2 | 1,4 | 2,0 | 1,3 | 0,0 |
| Ez nintzen baloratua sentitzen | 0,4 | 0 | 2,0 | 0 | 0 |
| Ez neukan harreman onik beste boluntarioekin | 0,4 | 1,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |

Interesgarria da boluntario izan zirenek lan horretatik zein arrazoirengatik aldendu ziren ikustea, orduan zuten adina kontuan hartuta. Analisiak bide ematen du arrazoi batzuk pertsonen adin edo bizi-ziklo jakin batzuekin lotzeko. Ikusten da *ikasketekin edo lanarekin bateragarri ez izatea edo astirik ez izatea direla boluntario-lana amaitzeko arrazoi nagusiak batez ere 50 urtetik beherakoen artean* –gogorarazi behar da boluntariotza uzteko tasarik handienak hain zuzen ere adin horretako pertsonetan izaten direla[108]–.

Adin horretatik aurrera, bi faktoreen garrantzia nabarmen gutxitzen da, batez ere astirik ez izatearekin loturikoa –aldi berean, beste alderdi batzuk garrantzi handiagoa hartzen doaz–. *Inguruabar pertsonaletan izandako aldaketak* dira gehien aipaturiko faktorea. Gainera, talde horretako askok eman dute arrazoi gisa *erakundeko beren aldia jadanik amaitu zela sentitzea.*

### Galdutako boluntarioek borondatezko lana amaitzeko izan zituzten arrazoiak. Emaitza orokorrak eta boluntariotza amaitu zuten adinaren araberakoak. %

95. TAULA

| Amaitzeko arrazoiak | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ikasketekin edo lanarekin bateraezin izatea | 39,8 | 49,6 | 28,6 | 29,6 | 22,2 | 9,1 |
| Astirik ez izatea | 30,1 | 31,4 | 42,9 | 22,2 | 5,6 | 0,0 |
| Inguruabar pertsonaletan izandako aldaketak | 15,2 | 7,3 | 20,4 | 33,3 | 27,8 | 45,5 |
| Sentitzen nuen amaitu zela erakundeko nire aldia | 7,8 | 3,6 | 10,2 | 7,4 | 16,7 | 27,3 |
| Nekatu samar sentitzen nintzen erakundean hainbeste urte egin eta gero | 6,3 | 5,1 | 12,2 | 3,7 | 11,1 | 0,0 |
| Ez nengoen ados erakundearen alderdi batekin/batzuekin | 5,9 | 5,1 | 6,1 | 7,4 | 11,1 | 0,0 |
| Borondatezko jarduera amaitu zen | 4,7 | 5,1 | 4,1 | 0,0 | 11,1 | 0,0 |

(…)

108 Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 6.1 kapitulua.

(…)

| Amaitzeko arrazoiak | Guztira | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Jarraitzeko motibaziorik eza | 3,9 | 5,1 | 0,0 | 3,7 | 5,6 | 9,1 |
| Erakundea utzi nahi nuen | 2,3 | 2,2 | 4,1 | 0,0 | 5,6 | 0,0 |
| Borondatezko lanak ez zituen bete nire igurikimenak | 1,6 | 0,7 | 0,0 | 3,7 | 0,0 | 9,1 |
| Erantzukizun handiegia zen | 1,2 | 1,5 | 2,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Ez nintzen baloratua sentitzen | 0,4 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 9,1 |
| Ez neukan harreman onik beste boluntarioekin | 0,4 | 0,7 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |

Oharra: (*) ikurrak adierazten du erakusten diren aldagaiak gurutzatzean sorturiko diferentziak esangu-ratsuak direla estatistikoki ($X^2 <0,05$).

## Zertan dute antza eta zertan desberdintzen dira gaur egungo errealitatea eta duela urte batzuk boluntario izateari utzi ziotenek bizi izan zutena?

Interesgarria da aztertzea zein alderdi zehatzek eragin zuten pertsona horiengan boluntario gisa zein erakundetan jardun erabakitzeko orduan, bai eta boluntariotza utzi zutenetik igarotako denboraren arabera zer desberdintasun dauden ikustea ere.

Lehenik eta behin, adierazi behar da, *alde batera utzita boluntariotzan noiz jardun zen, jarduerak zuen interesa* izan zela alderdi erabakigarriena zein entitatetan lagundu erabakitzeko orduan. Gaur egungo boluntarioek ere faktore hori hartzen dute garrantzi handienekotzat.

## Galdutako boluntarioegan erakundea hautatzeko orduan (asko edo dezente) eragin zuten faktoreak. Emaitza orokorrak eta borondatezko lana utzi zuten garaiaren araberakoak. %

96. TAULA

| Erakundea hautatzeko orduan eragin zuten faktoreak | Gaur egungo boluntarioak | Galdutako boluntarioak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Duela 5 urte baino gutxiago | Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | Duela 20 urte edo gehiago |
| Jarduerak zuretzat zuen interesa | 91,9 | 91,6 | 90,3 | 95,9 | 90,5 | 91,8 |
| Atzean zegoen erakundea | 76,4 | 70,5 | 69,0 | 67,3 | 73,0 | 74,0 |
| Erakundea osatzen zuen giza taldea | 79,5 | 83,6 | 83,3 | 79,6 | 83,6 | 89,8 |
| Jarduerak egiten ziren ordutegia | 55,9 | 62,4 | 65,3 | 53,1 | 65,8 | 63,3 |
| Etxetik edo lantokitik gertu egotea | 58,9 | 55,2 | 60 | 46,9 | 55,4 | 58 |
| Erakundearen ideiekin bat egitea | 81,2 | 73,8 | 72,2 | 71,4 | 70,3 | 84,0 |
| Erakundean zegoen jendea ezagutzea | 68,0 | 68,3 | 63,9 | 67,3 | 67,6 | 76,0 |

Boluntario izateari utzi dioten lau pertsonatik hiruk erakunde batean soilik lagundu zuten, eta gaur egun ratioa bitik bat da. *Badirudi erakunde batekin baino gehiagorekin konprometitzeko joera gorantz egiten ari dela*; izan ere, boluntariotza duela 10 urte edo gehiago utzi zutenen artean % 80tik gorakoa da erakunde batean soilik lagundu zutenen ehunekoa, eta geroago amaitu zuten pertsonen artean, berriz, ehuneko hori pixkanaka gutxituz doa.

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, beren bizitzan zehar erakunde batean baino gehiagotan lagundu duten edo ez kontuan hartuta emaitza orokorrak eta borondatezko lana noiz utzi zuten kontuan hartuta. %**

97. TAULA

| Beren bizitzan zehar erakunde batean baino gehiagotan lagundu duten edo ez | Gaur egungo boluntarioak | Galdutako boluntarioak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Duela 5 urte edo gutxiago | Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | Duela 20 urte edo gehiago |
| Bai, erakunde batean baino gehiagotan laguntzen nuen | 47,5 | 24,3 | 36,5 | 30,6 | 17,3 | 12,0 |
| Ez, erakunde batean lagundu nuen | 52,5 | 75,7 | 63,5 | 69,4 | 82,7 | 88,0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

*Iraganean boluntario izandako pertsonak laguntzaile ibili ziren erakundeen jardun-esparruari dagokionez, ikusten da Gizartekintzari loturiko erakundeak direla nagusi, eta gaur egun oraindik ere hala direla.*

Dena dela, badirudi urteen joanarekin zenbait arlok indarra hartu dutela eta boluntario gehiago erakartzea lortu dutela, eta beste batzuk, ostera, «ospea» galtzen joan direla.

Galdutako boluntario gehien biltzen duen arloa Gizartekintza da, baina arlo horrek du pisurik handiena guztizkoan; beraz, boluntarioen galera pertsona berriak sartuta orekatu ahal izan da.

Aldiz, osasunaren eta aisialdi eta astialdiaren arloek beste zori bat eduki ahal izan dute. *Osasunaren* arloari (% 20,5) eta *aisialdi eta astialdiaren* arloari (% 13) loturiko entitateetan parte hartzen zuten galdutako boluntarioek pisu handiagoa dute guztizkoan, arlo horiek multzoan duten proportzioa baino. Beste muturrean, *kulturaren* arloan izandako galera ere ez da proportzionala duten ordezkagaitasunean; beraz, esan genezake hori dela kalte gutxien izan dutenetako bat eta horrek lagundu ahal izan duela guztizkoan duen pisua areagotzen.

98. TAULA

## Galdutako boluntarioen banaketa, laguntzaile ibili ziren erakundearen jardun-esparruaren arabera. Emaitza orokorrak eta borondatezko lana utzi zuten garaiaren araberakoak. %

| Erakundearen jardun-esparrua | Gaur egungo boluntarioak | Galdutako boluntarioak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Duela 5 urte baino gutxiago | Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | Duela 20 urte edo gehiago |
| Gizartekintza (horren barruan daude bazterketa, desgaitasuna...) | 35,2 | 37,8 | 38,9 | 38,8 | 36,0 | 37,3 |
| Herritarrak (horren barruan sartzen dira bizilagunen elkarteak, emakumeen elkarteak, erretiratuenak...) | 17,2 | 10,6 | 13,9 | 8,2 | 8,0 | 11,8 |
| Kultura (euskara barne dela...) | 13,8 | 3,9 | 4,2 | 4,1 | 4,0 | 3,9 |
| Osasuna (horren barruan daude mendekotasunak, drogazaletasuna, gaixotasun arraroak) | 9,9 | 20,5 | 16,7 | 16,3 | 25,3 | 23,5 |
| Aisialdia eta astialdia (gazteria barne dela) | 8,4 | 13,0 | 16,7 | 14,3 | 12,0 | 9,8 |
| Garapenerako lankidetza | 8,4 | 6,3 | 2,8 | 6,1 | 9,3 | 5,9 |
| Kirola | 3,4 | 4,3 | 2,8 | 10,2 | 2,7 | 3,9 |
| Ingurumena | 2,1 | 0,8 | 1,4 | 0,0 | 0,0 | 2,0 |
| Giza eskubideak | 1,6 | 2,4 | 2,8 | 2,0 | 1,3 | 2,0 |
| Lana | 0,0 | 0,4 | 0 | 0 | 1,3 | 0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Datuek adierazten dute galdutako boluntarioen artean aldizka aritzen ziren pertsonen proportzioa handiagoa dela gaur egungo batezbestekoa baino, eta horrek pentsaraz lezake profil horrek hein handiagoan uzten duela boluntariotza.

**Galdutako boluntarioen banaketa, dedikazio-maiztasunaren arabera. Emaitza orokorrak eta borondatezko lana utzi zuten garaiaren araberakoak. %** 99. TAULA

| Dedikazioaren maiztasuna | Gaur egungo boluntarioak | Galdutako boluntarioak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Duela 5 urte baino gutxiago | Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | Duela 20 urte edo gehiago |
| Aldizkakoa edo noizbehinkakoa | 16,7 | 31,7 | 31,9 | 25,0 | 36,5 | 31,4 |
| Jarraitua edo egonkorra | 83,3 | 68,3 | 68,1 | 75,0 | 63,5 | 68,6 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Galdutako boluntarioen % 57,8k astean bost ordu baino gutxiago sartzen zituzten, baina kontuan hartzen bada talde horrek gaur egun boluntarioen guztizkoan duen pisua, pentsa liteke proportzionalki bost ordu baino gehiago sartzen zituzten boluntarioak gehiago galdu zirela. Bestalde, taulako datuek erakusten dute pixkanaka behera egin duela boluntariotza utzi zutenean astean 5 ordu baino gehiago sartzen zituzten boluntarioen proportzioak.

### Galdutako boluntarioen banaketa, astean boluntariotzari eskaintzen zioten denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta borondatezko lana utzi zuten garaiaren araberakoak. %

100. TAULA

| Dedikazioa astean | Gaur egungo boluntarioak | Galdutako boluntarioak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Duela 5 urte baino gutxiago | Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | Duela 20 urte edo gehiago |
| Astean 5 ordu edo gutxiago | 68,1 | 57,8 | 60,4 | 57,1 | 54,5 | 55,9 |
| Astean 5 ordu baino gehiago | 31,9 | 42,2 | 39,6 | 42,9 | 45,5 | 44,1 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

Galdutako boluntarioen % 11,3 baizik ez ziren aritzen administrazio- eta kudeaketa-lanetan, eta guztizkoaren gainean duten pisua zertxobait handiagoa da. Pentsa liteke galtzen doazen boluntarioak batez ere zuzenean esku hartzekoak diren lanei loturikoak direla.

### Galdutako boluntarioen banaketa, borondatezko jarduera garatzen zutenean egiten zuten lan-motaren arabera. Emaitza orokorrak eta borondatezko lana utzi zuten garaiaren araberakoak. %

101. TAULA

| Jarduera-mota | Gaur egungo boluntarioak | Galdutako boluntarioak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Guztira | Duela 5 urte baino gutxiago | Duela 5 urte edo gehiago eta 10 baino gutxiago | Duela 10 urte edo gehiago eta 20 baino gutxiago | Duela 20 urte edo gehiago |
| Kudeaketa- eta administrazio-lanak | 21,7 | 11,3 | 12,2 | 14,3 | 10,7 | 7,8 |
| Taldeekin zuzenean esku hartzekoak diren lanak | 68,8 | 85,2 | 82,4 | 79,6 | 86,7 | 92,2 |
| Biak | 9,4 | 3,5 | 5,4 | 6,1 | 2,7 | 0,0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

## 6.11. Boluntario potentzialak

Ikerlan honen lehentasunezko helburuetako bat da etorkizun hurbilean borondatezko jardueraren bat egitea baztertzen ez duten boluntario potentzialen[109] ezaugarriei buruzko ezagutza handitzea.

Atal honetan, batetik taldearen profil soziodemografikoa aztertzen saiatuko gara, eta, bestetik, borondatezko zer jarduera egiteko prest leudekeen aztertzen (erakundearen jardun-esparrua, borondatezko lanari eskainiko lioketen denbora, eta abar).

### Zein dira boluntario potentzialen ezaugarriak?

*Boluntario potentzialtzat jotako 10 pertsonatik 6 emakumeak dira.* Adina kontuan hartuta, esan liteke *batez beste 39* urte dituztela, nahiz eta 18 urtetik hasi eta ia 90 urtera bitarteko pertsonak ere badauden, eta ez dutela baztertzen etorkizun hurbilean borondatezko jardueraren bat egitea.

**Gaur egungo boluntarioen banaketa, sexuaren arabera. %** 27. GRAFIKOA




[109] Etorkizun hurbilerako dituzten asmoei buruzko galderari etorkizun hurbilean boluntario izatea *oso gertagarria* edo *nahiko gertagarria* dela erantzun duten pertsonak dira.

## Boluntario potentzialen adina. Oinarrizko datu estatistikoak

102. TAULA

| Adina | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Batezbestekoa | 39,3 | 39,0 | 39,5 |
| Moda[110] | 39 | 39 | 39 |
| Mediana[111] | 39 | 25 | 39 |
| Ohiko desbiderapena[112] | 13,7 | 14,7 | 13,1 |
| Gutxieneko adina | 18 | 18 | 18 |
| Gehieneko adina | 88 | 88 | 76 |

*Borondatezko ekintzaren bat egitera irits litezkeen 10 pertsonatik 3 inguruk 30 urte baino gutxiago dituzte, eta erdiek baino gehiagok (% 52,4) 40 urte baino gutxiago.* Nolanahi ere, boluntario potentzial asko identifikatu dira pertsona adintsuagoen artean; izan ere, etorkizunean boluntario izatea baztertzen ez duten pertsonen % 23,2k 50 urte edo gehiago dituzte.

## Boluntario potentzialen banaketa, adinaren arabera. %

28. GRAFIKOA




[110] *Modak* gehien errepikatutako adina adierazten du.

[111] *Mediana* datu ordenatuen multzo batean erdian dagoen balioa da.

[112] *Ohiko desbiderapenak* bildutako datuen aldakortasunaren edo barreiaduraren berri ematen du, eta datuek batezbesteko aritmetikoari dagokionez dituzten distantzien batezbesteko gisa definitzen da.

Sexua eta adina batera kontuan hartuta, ikusten da etorkizun hurbilean boluntario izatea baztertzen ez duten 30 urtetik beherako gizon gazteen ehunekoa handiagoa dela (% 36,5 gizonetan eta % 27,8 emakumeen kasuan). Aldiz, prest dauden 30 eta 39 urte bitarteko emakumeen proportzioa nabarmen handiagoa da (% 24,3 eta % 16,5).

## Boluntario potentzialen banaketa, adinaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

103. TAULA

| Adina | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| 18 eta 29 bitartean | 31,3 | 36,5 | 27,8 |
| 30 eta 39 bitartean | 21,1 | 16,5 | 24,3 |
| 40 eta 49 bitartean | 24,3 | 22,6 | 25,4 |
| 50 eta 64 bitartean | 20,4 | 20 | 20,7 |
| 65 edo gehiago | 2,8 | 4,3 | 1,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

*Boluntario potentzialak hiriburuetan pilatzen dira batez ere* (% 47,2), hala gizonezko boluntario potentzialak (% 54,8) nola emakumezkoak (% 42). Dena dela, egiaztatu ahal izan da udalerri txikietako emakumeak boluntario aritzeko dezente gertuago agertu direla (emakumeen % 25,4 eta gizonen % 16,5).

## Boluntario potentzialen banaketa, bizi diren udalerriaren tamainaren arabera. %

29. GRAFIKOA



### Boluntario potentzialen banaketa, bizi diren udalerriaren tamainaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

104. TAULA

| Udalerriaren tamaina | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| 10.000 biztanleraino | 21,8 | 16,5 | 25,4 |
| 10.000-120.000 biztanle | 31,0 | 28,7 | 32,5 |
| Hiriburua | 47,2 | 54,8 | 42,0 |
| **Guztira** | **100** | **100,0** | **100** |

Boluntario potentzialen ezaugarri nagusia da *goi-mailako ikasketak* dituztela (10etik 4k). % 20,6 Lanbide Heziketa egindakoak dira, eta % 26,2k bigarren mailako ikasketak dituzte (DBH, goi-mailako Batxilergoa, IEE, BBB, UBI).

### Boluntario potentzialen banaketa, ikasketa-mailaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

105. TAULA

| Ikasketa-maila | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Ikasketarik ez | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| Oinarrizko ikasketak (OHO, oinarrizko Batxilergoa, Lehen Hezkuntza) | 13,1 | 10,5 | 14,9 |
| Bigarren mailako ikasketak (DBH, goi-mailako Batxilergoa, IEE, BBB, UBI) | 26,2 | 27,2 | 25,6 |
| Erdi-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketa | 20,6 | 22,8 | 19,0 |
| Erdi-goi mailako ikasketak eta goi-mailako ikasketak (diplomatura, lizentziatura eta abar) | 40,1 | 39,5 | 40,5 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

Gainera, etorkizunean boluntario izatea baztertzen ez dutela adierazi duten pertsonen erdiak *lanean* ari dira, eta oso atzetik daude lanik ez dutenak. Nahiz eta ez den alde esanguratsurik identifikatu sexuaren arabera, ikusten da era horretako lanak egiteko prest dauden emakume ez-aktiboen pisua (ikasleak alde batera utzita) handiagoa dela (% 17,9 eta % 8,8).

**Boluntario potentzialen banaketa, jarduerarekiko erlazioaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** 106. TAULA

| Jarduerarekiko erlazioa | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Landunak | 50 | 52,6 | 48,2 |
| Langabeak | 21,6 | 21,9 | 21,4 |
| Ikasleak | 14,2 | 16,7 | 12,5 |
| Beste ez-aktibo batzuk | 14,2 | 8,8 | 17,9 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

Borondatezko lanen bat egiten hastea baztertzen ez duten lau pertsonatik hiru egun osoz aritzen dira lanean, batez ere gizonen kasuan (% 86,2 eta % 65,8).

**Boluntario potentzial landunen banaketa, lanaldi-motaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** 107. TAULA

| Lanaldi-mota | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Egun osoz | 74,6 | 86,2 | 65,8 |
| Egun zatiz | 23,1 | 13,8 | 30,3 |
| Lanaldi murriztua | 2,2 | 0,0 | 3,9 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

Ondoren, xehekiago aztertuko dugu boluntario potentzialen artean zer faktorek eragin lezaketen boluntariotzan sartzeko edo erakunde bat hautatzeko orduan, zein erakundetan lagundu nahiko luketen edo borondatezko zer ekintza egin nahiko luketen eta zenbat denbora eskainiko lioketen ekintza horri.

## Zein arrazoik eragin lezakete oraindik boluntario ez direnek boluntario izateko erabakia har dezaten?

Faktore ugarik eragin dezakete pertsonengan boluntario egiteko. Bildutako informazioaren arabera, badirudi pisu handia dutela *pertsonei laguntzeak dakarren gogobetetzeak* (8,7 puntu 0tik 10erako eskalan), *norberaren burua*

*aberasteak eta gogobetetzeak* (8,1 puntu), *eraldaketa eta justizia soziala sustatzeak eta hurbileko ingurunea hobetzen parte hartzeak* (biek 8 puntu).

Gutxien aipaturiko faktoreak *arazoak ahaztearekin* du zerikusia da (batez beste 5,7 puntu), nahiz eta kasu honetan alde esanguratsuak dauden gizonen eta emakumeen artean; hain zuzen, gizonek nabarmen garrantzi gutxiago ematen diote horri (5,1 eta 6,0).

**Boluntario potentzialek boluntariotza garatzeko orduan faktore bakoitzari ematen dioten garrantzia. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. Batez besteko puntuazioa 0-10eko eskalan**

30. GRAFIKOA



Boluntario potentzialek besteei laguntzeak ematen duen gogobetetzea aipatu dute faktore garrantzitsuentzat aztertutako adin-talde guztietan; nolanahi ere, faktore horietako batzuekin lotura handiagoa sumatzen da adin-talde jakin batzuetan. Hala, esate baterako, profesionalki prestatzeko eta/edo esperientzia lortzeko aukera izatea askoz ere faktore erabakigarriagoa da boluntario potentzial gazteenentzat, boluntario adintsuagoentzat baino. Era berean, boluntario potentzial adintsuenek boluntario potentzial gazteenek baino garrantzi gutxiago ematen diete arazoak ahazteari, esperientzia berriak bizitzeari edo ingurune hurbilena hobetzen parte hartzeari.

### Boluntario potentzialek boluntariotza garatzeko orduan faktore bakoitzari ematen dioten garrantzia. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. Batez besteko puntuazioa 0-10eko eskalan

108. TAULA

| Erakundea hautatzeko orduan eragiten duten faktoreak | Boluntario potentzialak | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Besteei laguntzeak dakarren gogobetetzea | 8,70 | 8,66 | 8,97 | 8,63 | 8,58 | 8,83 |
| Eraldaketa eta justizia soziala sustatzea (ekintzaren gizarte-baliagarritasuna) (*) | 8,03 | 8,02 | 9,00 | 7,67 | 7,56 | 8,83 |
| Profesionalki prestatzeko eta/edo esperientzia lortzeko aukera izatea (*) | 6,93 | 7,80 | 6,94 | 7,00 | 6,16 | 3,80 |
| Nire ingurune hurbilena hobetzen parte hartzea (auzoa, herria...) (*) | 7,98 | 8,07 | 8,56 | 7,77 | 7,84 | 6,50 |
| Bakardadea saihestea, jende berria ezagutzea, nire gizarte-sarea handitzea... | 7,02 | 7,32 | 6,19 | 7,26 | 7,14 | 6,17 |
| Esperientzia berriak bizitzea (*) | 7,43 | 8,08 | 7,22 | 7,55 | 6,92 | 5,67 |
| Nire arazoak ahaztea | 5,66 | 6,08 | 4,81 | 6,12 | 5,62 | 3,83 |
| Nire astialdia eta aisialdia betetzea, gozatzea, ondo pasatzea... | 6,42 | 7,03 | 5,58 | 6,56 | 6,22 | 6,17 |
| Aberaste pertsonala, gogobetetze pertsonala... | 8,11 | 8,27 | 8,17 | 8,09 | 7,84 | 8,67 |
| Ezagutzen dudan jendearekin egotea | 6,76 | 7,00 | 5,94 | 6,67 | 7,16 | 6,50 |

Oharra: (*) ikurrak asoziazio estatistikoki esanguratsu bat adierazten du (F <0,05).

## Zein faktorek eragiten dute erakunde bat hautatzeko orduan? Zer erakunde-mota hautatuko lukete?

Erakunde bat hautatzeko orduan faktore askok eragin dezakete. *Jardueraren gaineko interesa* boluntario potentzialen % 88,6k nabarmendu dute, eta atzean dagoen *giza taldea* % 87,5ek; faktore horiek dute garrantzi handiena boluntario potentzialentzat parte hartzeko erakunde bat hautatzeko orduan.

Sexuak soil-soilik aztertutako faktoreetako batean ezartzen ditu alde esanguratsuak. Emakumeentzat, erakundea etxetik edo lantokitik gertu edukitzea askoz ere faktore garrantzitsuagoa da gizonentzat baino (hurrenez hurren % 79,7k eta % 56,8k adierazi dute hori).

**Boluntario potentzialengan erakundea hautatzeko orduan (asko edo dezente) eragingo luteken faktoreak. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** 109. TAULA

| Erakundea hautatzeko orduan eragiten duten faktoreak | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Jarduerak zuretzat daukan interesa | 88,6 | 90,5 | 87,4 |
| Atzean dagoen erakundea | 75 | 82,4 | 70,3 |
| Erakundea osatzen duen giza taldea | 87,5 | 89,2 | 86,4 |
| Jardueren ordutegia | 73,2 | 65,8 | 77,8 |
| Etxea edo lantokia gertu izatea (*) | 70,8 | 56,8 | 79,7 |
| Erakundeen ideiekin bat egitea | 78,5 | 79,5 | 78 |
| Erakundean dagoen jendea ezagutzea | 52,4 | 50,7 | 53,4 |

Oharra: (*) ikurrak asoziazio estatistikoki esanguratsu bat adierazten du ($x^2$<0,05).

Badirudi boluntario potentzialak lehenik eta behin *Gizartekintzako erakundeetara* lerratzen direla, eta ondoren *osasun*-erakundeetara edo *Giza Eskubideei* loturikoetara.

Sexuaren arabera, nabarmentzekoa da *gizonezko boluntario potentzialek* joera handiagoa dutela *kirolaren, garapenerako lankidetzaren eta ingurumenaren arloko erakundeetan parte hartzeko*. Aldiz, *emakumeek irmoago egiten dute gizartekintzaren edo herritarrekin loturiko arloaren alde*.

**Boluntario gisa lan egin nahiko luketen jardun-esparrua. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %** — 110. TAULA

| Jardun-esparrua | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Gizartekintza (horren barruan sartuta daude bazterketa, desgaitasuna...) | 30,7 | 25,0 | 34,2 |
| Osasuna (horren barruan sartuta daude droga-zaletasunak, gaixotasun arraroak...) | 24,3 | 20,8 | 26,5 |
| Giza Eskubideak | 21,7 | 19,4 | 23,1 |
| Ingurumena | 15,9 | 20,8 | 12,8 |
| Herritarrak (horren barruan sartuta daude bizilagunen elkarteak, emakumeen elkarteak, erretiratuenak...) | 14,3 | 6,9 | 18,8 |
| Kultura (barruan sartuta dago euskara...) | 12,7 | 13,9 | 12,0 |
| Aisialdia eta astialdia (gazteria barne dela) | 12,2 | 8,3 | 14,5 |
| Kirola | 11,6 | 23,6 | 4,3 |
| Garapenerako lankidetza | 11,6 | 18,1 | 7,7 |
| Ez dut planteatu / ez du pentsatu | 10,1 | 8,3 | 11,1 |
| Lana | 4,2 | 1,4 | 6,0 |

Oharra: ehunekoek ez dute 100 egiten, erantzun-aukerak ez direlako baztertzaileak.

*Lan egin nahiko luketen taldeei dagokienez, batez ere haurtzaroa eta gazteria (% 33,2) eta adineko pertsonak (% 29,9) nabarmentzen dira.*

Nolanahi ere, sexua oinarritzat hartuta zenbait alde esanguratsu sumatzen dira. Hala, emakumeek *aldez aurretik joera handiagoa dute hartzaileak emakumeak diren erakundeetan laguntzeko, bai eta haurrak eta gazteak nahiz adinekoak dituztenetan laguntzeko ere*. Aldiz, *gizonek hein handiagoan aukeratzen dute biztanleria oro har edo Hirugarren Sektorea*.

## Boluntario potentzialek lagundu nahiko luketen taldea. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

111. TAULA

| Taldea | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Haurrak eta gazteak | 33,2 | 28,6 | 35,9 |
| Adinekoak / Hirugarren adina | 29,9 | 24,3 | 33,3 |
| Desgaitasunen bat duten pertsonak | 16,0 | 18,6 | 14,5 |
| Biztanleak oro har | 15,5 | 20,0 | 12,8 |
| Gaixoak | 15,5 | 12,9 | 17,1 |
| Hirugarren Mundua | 15,5 | 20,0 | 12,8 |
| Emakumeak | 14,4 | 2,9 | 21,4 |
| Etorkinak - Errefuxiatuak | 12,8 | 15,7 | 11,1 |
| Ez dut planteatu / ez dut pentsatu | 8,6 | 10,0 | 7,7 |
| Drogazaletasun-arazoak dituzten pertsonak | 4,8 | 1,4 | 6,8 |
| Iragaitzazko bidaiariak / aterperik gabeak | 4,3 | 5,7 | 3,4 |
| Presoak – espetxean egondakoak | 4,3 | 2,9 | 5,1 |
| Gutxiengo etnikoak | 2,1 | 4,3 | 0,9 |

Jardun-eremuari dagokionez, ikusten da *etorkizunean boluntario aritzeko aukera ikusten duten 10 pertsonatik 4k nahiago dituztela tokiko eremuan jardu-ten duten erakundeak, herrikoak edo eskualdekoak.*

Kasu honetan, sexuak ez dirudi alde esanguratsurik ezartzen duenik, nahiz eta emakumezko boluntario potentzialek hein handiagoan egingo luketen bizilagunen eremuko edo auzoko erakunde baten alde.

## Boluntario potentzialen banaketa, jardun-eremuaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

112. TAULA

| Erakundearen eremu geografikoa | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Bizilagunak / auzoa | 14,5 | 6,8 | 19,3 |
| Tokikoa / udalerria edo eskualdea | 40,4 | 40,5 | 40,3 |
| Probintzia / Lurralde Historikoa | 11,9 | 13,5 | 10,9 |
| EAE / Euskal Herria | 4,7 | 5,4 | 4,2 |
| Estatua | 0,5 | 0,0 | 0,8 |
| Europa | 1,6 | 2,7 | 0,8 |
| Mundua, Nazioartea | 9,8 | 12,2 | 8,4 |
| Ez daukat lehentasunik | 16,6 | 18,9 | 15,1 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

Nahiz eta arlo honetan ere ez den alde esanguratsurik izan adinaren arabera, auzo eta tokiko eremuaren pisu gutxiago sumatzen da gazteenen artean –lehentasunezkoa biztanle adinekoenen kasuan–, EAEn edo nazioartean eta are munduan jarduten duten erakundeen mesedetan.

## Boluntario potentzialen banaketa, jardun-eremuaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

113. TAULA

| Erakundearen eremu geografikoa | Boluntario potentzialak | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bizilagunak / auzoa | 14,5 | 5,1 | 16,7 | 14,3 | 22,0 | 33,3 |
| Tokikoa / udalerria edo eskualdea | 40,4 | 32,2 | 38,9 | 47,6 | 44,0 | 50,0 |
| Probintzia / Lurralde Historikoa | 11,9 | 11,9 | 8,3 | 14,3 | 14,0 | 0,0 |
| EAE / Euskal Herria | 4,7 | 8,5 | 2,8 | 4,8 | 2,0 | 0,0 |
| Estatua | 0,5 | 0,0 | 0,0 | 2,4 | 0,0 | 0,0 |
| Europa | 1,6 | 3,4 | 0,0 | 0,0 | 2,0 | 0,0 |
| Mundua, Nazioartea | 9,8 | 18,6 | 5,6 | 7,1 | 6,0 | 0,0 |
| Ez daukat lehentasunik | 16,6 | 20,3 | 27,8 | 9,5 | 10,0 | 16,7 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

*Boluntario potentzialek neurri handiagoan egiten dute unean uneko edo aldizkako inplikazioaren alde (% 52,8), baina deigarria da pertsonen % 47,2k egin dutela ekintza jarraitu edo egonkor baten alde hasieratik.* Alde horretatik, ez dirudi sexuak edo adinak erabaki horretan eragiten dutenik.

### Boluntario potentzialen banaketa, izango lukeen inplikazio-mailaren arabera. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

114. TAULA

| Inplikazioa | Boluntario potentzialak | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Unean unekoa edo aldizkakoa | 52,8 | 58,9 | 49,5 |
| Jarraitua edo egonkorra | 47,2 | 41,1 | 50,5 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

### Boluntario potentzialen banaketa, izango lukeen inplikazio-mailaren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

115. TAULA

| Inplikazioa | Boluntario potentzialak | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Unean unekoa edo aldizkakoa | 52,8 | 52,8 | 48,3 | 54,8 | 54,8 | 50,0 |
| Jarraitua edo egonkorra | 47,2 | 47,2 | 51,7 | 45,2 | 45,2 | 50,0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

*Dedikazio-denborari dagokionez, boluntario izatea baztertzen ez duten 10 pertsonatik ia 7k astean sei ordu baino gutxiago eskainiko lizkiokete lan horri.* Oraingo honetan, ez sexuak eta ez adinak ezartzen dute alde esanguratsurik.

## Boluntario potentzialen banaketa, astean boluntariotzari eskainiko lioketen denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

116. TAULA

| Dedikazio-denbora | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Astean 5 ordu edo gutxiago | 69,0 | 60,0 | 72,5 |
| Astean 5 ordu baino gehiago | 19,7 | 30,0 | 15,7 |
| Ez du planteatu | 11,3 | 10,0 | 11,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

## Boluntario potentzialen banaketa, astean boluntariotzari eskainiko lioketen denboraren arabera. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

117. TAULA

| Dedikazio-denbora | Boluntario potentzialak | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Astean 5 ordu edo gutxiago | 69,0 | 61,9 | 93,3 | 64,3 | 63,2 | 50,0 |
| Astean 5 ordu baino gehiago | 19,7 | 14,3 | 0,0 | 28,6 | 31,6 | 50,0 |
| Ez du planteatu | 11,3 | 23,8 | 6,7 | 7,1 | 5,3 | 0,0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

*Boluntario potentzialen ia erdiek (% 48,6) borondatezko jarduera astegunetan egin nahiko lukete*. Nahiz eta ezin den alde estatistikoki esanguratsurik ondorioztatu sexuaren arabera, badirudi gizonek gehiago egiten dutela aukera horren alde, eta emakumeak gertuago daudela astegunetan eta asteburuetan aritzeko.

## Boluntario potentzialen banaketa, borondatezko jarduera asteko zein egunetan egingo luketen kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta sexuaren araberakoak. %

118. TAULA

| Asteko egunak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Astegunetan | 48,6 | 61,9 | 43,1 |
| Asteburuetan | 19,4 | 14,3 | 21,6 |
| Astegunetan eta asteburuetan | 31,9 | 23,8 | 35,3 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

Adinak ere ez dirudi alde esanguratsurik ezartzen duenik, nahiz eta, dirudienez, astegunetan aritzearen alde egiten den nagusiki 50 urtetik aurrera.

### Boluntario potentzialen banaketa, borondatezko jarduera asteko zein egunetan egingo luketen kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

119. TAULA

| Asteko egunak | Boluntario potentzialak | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Astegunetan | 48,6 | 47,8 | 28,6 | 35,7 | 68,4 | 100,0 |
| Asteburuetan | 19,4 | 30,4 | 21,4 | 14,3 | 10,5 | 0,0 |
| Astegunetan eta asteburuetan | 31,9 | 21,7 | 50,0 | 50,0 | 21,1 | 0,0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

*Oporraldiaren eta ikasturtearen konbinazioa da boluntario potentzialek gehien adierazi duten aukera (% 56,2), baina 10etik ia 4k nahiago dute borondatezko ekintza soil-soilik ikasturtean zehar egin*. Oraingo honetan ere sexuak eta adinak ez dute ezarri alde esanguratsurik.

### Boluntario potentzialen banaketa, borondatezko jarduera zein garaitan egingo luketen kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

120. TAULA

| Aldia | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
|---|---|---|---|
| Oporraldiak (uda, Aste Santua...) | 5,5 | 0,0 | 7,7 |
| Ikasturtean zehar | 38,4 | 42,9 | 36,5 |
| Oporraldian eta ikasturtean zehar (urte osoan) | 56,2 | 57,1 | 55,8 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** |

## Boluntario potentzialen banaketa, borondatezko jarduera zein garaitan egingo luketen kontuan hartuta. Emaitza orokorrak eta adinaren araberakoak. %

121. TAULA

| Aldia | Boluntario potentzialak | 18-29 | 30-39 | 40-49 | 50-64 | 65 edo gehiago |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oporraldiak (uda, Aste Santua...) | 5,5 | 13,0 | 0,0 | 7,1 | 0,0 | 0,0 |
| Ikasturtean zehar | 38,4 | 30,4 | 46,7 | 35,7 | 47,4 | 0,0 |
| Oporraldian eta ikasturtean zehar (urte osoan) | 56,2 | 56,5 | 53,3 | 57,1 | 52,6 | 100,0 |
| **Guztira** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** | **100** |

# 7.

# Laburpena eta ondorioak

## Zenbat pertsona dira, izan dira edo egongo lirateke prest boluntario izateko?

Boluntarioak, gaur egun, *euskal biztanleen % 8,6 inguru dira,* hau da, 156.358 bat boluntario zenbatetsi litezke.

Kontsultatutako *biztanleen % 9,8k* adierazi dute boluntario izandakoak direla, nahiz eta orain ez izan; *«galdutako» boluntarioak* dira horiek. *% 11 boluntario «potentzialtzat»* jo litezke; izan ere, ez dute baztertzen etorkizun hurbilean lan hori egitea. Pertsona horien % 4 ez bakarrik daude prest boluntario izateko, baizik eta aukera gehiago dituzte boluntario izateko, aurrez boluntario-esperientzia bat izan dutenez.

Lurraldeen artean, *Arabak* du *boluntarioen indizerik altuena (% 10,4)*, eta *Gipuzkoak*, ostera, *tasarik baxuena (% 8,2)*. Dena dela, kopuru absolutuetan, Bizkaiko Lurralde Historikoak dakarkio boluntario gehien guztizkoari.

## Bada aldagairik boluntarioei aldez aurretik jarrera hori harrarazten dienik?

*Sexuaren* araberako aldeak nabarmenak dira; emakumezko boluntarioen tasa gizonezko boluntarioena baino handiagoa da; hain zuzen, emakumeen % 9,7 eta gizonen % 7,4 dira boluntarioak.

Boluntario-tasarik handiena duen *adin*-taldea 18 eta 29 urte bitarteko gazteena da (% 17,2), eta, ondoren, 50 eta 64 urte bitarteko pertsonek osaturikoena (% 8,9).

Gainera, asoziazio bat ikusi ahal izan da pertsona bat boluntario izatearen eta pertsona horrek jarduerarekin duen erlazioaren artean, bai eta boluntario izatearen eta beren kargura ondorengoak izatearekin edo ez izatearekin ere,

nahiz eta ikusi den, orobat, aldagai horiek ez dutela modu berean eragiten gizonen eta emakumeen artean.

Adinaren araberako tasen aldakuntza estuki lotuta dago bizi-zikloekin. Esan liteke 18 eta 30 urte bitartean, biztanle gehienak ikasten ari direnean eta beren kargura mendeko pertsonarik ez dutenean eta oro har asti gehiago dutenean, boluntarioen tasak handiagoak direla, baina batez ere nesken artean direla handiak. 30 eta 49 urte bitartean, lan- eta familia-erantzukizunek dedikazio handiagoa eskatzen dute, eta horrek azal lezake boluntarioen tasetan oro har izan den beherakada; dena dela, nabarmentzekoa da adin-tarte horretan emakumeen boluntario-tasa gizonezkoena baino handiagoa dela. 50 urtetik aurrera, aurretiko erretiroaren eta erretiroaren prozesuen ondorioz, bai eta seme-alabak emantzipatzearen ondorioz ere, biztanleek ostera asti gehiago izaten dute eta tasa lehengoratu egiten da, nahiz eta kasu honetan boluntarioen proportzioa handiagoa den gizonen artean.

Gazteenen artean (18-29 urte) dago etorkizun hurbilean boluntario izatea baztertzen ez dutenen proportziorik handiena; zehazki, taldeen % 21,4 har litezke boluntario potentzialtzat. Ondoren, 40 eta 49 urte bitarteko biztanleen segmentua dago; izan ere, gaur egungo boluntarioen tasarik txikiena badu ere, boluntario-lana egiteko prest leudekeen pertsonen % 14,1 biltzen ditu.

*Ikasketa goi-mailakoenak* (bigarren mailako ikasketak, LH edo unibertsitate-ikasketak) dituzten boluntarioen proportzioa nabarmen da handiagoa, batez ere emakumeen kasuan.

*Gizarte-gaiekin zerikusia duten lanbideak* dituztenen artean (arlo hauei loturiko lanbideak: giza zientziak, gizarte-zientziak eta hezkuntza, gizarte-zerbitzuak eta politika, Hirugarren Sektorea edo gizarte-mugimenduak), boluntarioen proportzioa nabarmen da handiagoa arlo horiei loturiko lanbiderik ez dutenen artean baino.

Nahiz eta ez den agertzen asoziazio argirik *maila sozioekonomikoaren* eta boluntario aritzearen artean, badirudi emakumezko boluntarioen proportzioa handiagoa dela hilean 3.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi direnen artean; halakorik ez da gertatzen, ordea, gizonen kasuan.

Boluntario gehiago sumatzen da *gizartean* modu aktiboagoan *parte hartzen* dutenen artean, hau da, elkarteetako kide direnen artean, alderdi politikoetan edo sindikatuetan aktiboki parte hartzen dutenen artean edo gizarte -mugimenduetan parte hartzen dutenen artean (% 15,1 eta % 1,4). Joera hori gizonetan eta emakumeetan ikusten da.

## Zein dira inoiz boluntario izan ez direnek boluntariotzara ez gerturatzeko izan dituzten arrazoi nagusiak?

Euskal biztanleen % 81,7 inguru inoiz ez dira boluntario izan. Lan hori inoiz zergatik ez duten egin azaltzeko orduan gehien aipaturiko arrazoia hauxe izan da: «ez dut horretan aritzeko *astirik*, nire erantzukizunen ondorioz»; hain zuzen, kontsultatutako pertsonen % 57,3k adierazi dute hori. Bigarren arrazoia, % 35,5ek aipaturikoa, «*inoiz ez dut halakorik pentsatu*» izan da, eta hirugarrena, «ez dut *inolako interesik* boluntario izateko edo jarduerak ez zaizkit interesatzen» (% 8,8).

Emakumeen artean, pisu handiagoa dute astirik ez izatearekin eta adinarekin edo osasunarekin zerikusia duten arrazoiek; hain zuzen, alde esanguratsua dago gizonekin konparatuz gero. Aldiz, gizonezkoek askoz ere irmoago aipatu dute inoiz ez dutela halakorik pentsatu edo ez dutela interesik halako lanik egiteko.

## Zer iritzi dute inoiz boluntario izan ez diren biztanleek boluntariotzaren inguruan

Inoiz boluntario izan ez diren pertsonen % 79k boluntariotzari buruzko ikuspegi positiboa dute, haren balioak goraipatzen dituzte (*ordainetan ezer espero gabe egiten da, altruista da, elkartasunaren eta eskuzabaltasunaren adierazpena...*), meritua (*goraipatzekoak dira, goresgarriak, lan goraipagarria da, lan ezin baliotsuagoa, apartekoa, bikaina, primerakoa...*) eta emaitzak onartzen dizkiote *(beharrezkoa da, baliagarria da, onura ekartzen dio gizarteari, oso garrantzitsua da, motorra da...)*. Emakumeen kasuan, ehunekoa % 82ra ere iristen da.

% 19,3k nolabaiteko ezaxola agertzen dute; pertsona horiei hasiera batean iruditzen zaie boluntariotza ez dagoela gaizki *(mundu guztia errespetatzen dut, bakoitzak egin dezala nahi duena*), baina ez dute goraipatzen boluntarioen ontasuna *(astia badute, gustuko badute...)*, eta ez dute iritzirik horren inguruan (*ez zait interesatzen, ez dut gaia ezagutzen, ez dut iritzirik, e.a.)*.

Biztanleen gainerako % 1,7k iritzi negatiboa dute, eta adierazi behar da gizonen kasuan nabarmenagoa dela (% 2,6), emakumeen kasuan baino (% 0,9). Pertsona horiek errefusatu egiten dute boluntariotza; izan ere, ez diote emaitzarik aitortzen, ez meriturik ere, ikuspegi kritikoa dute erakundeen edo

bertan laguntzen duten pertsonen inguruan *(beti dago interesen bat atzean, iruzur handia dago, batzuk aprobetxatu egiten dira, negozio bat da, ez naiz fidatzen...)* edo uste dute administrazioek erabili egiten dituztela *(lehenik haiek hondatu dutena konpondu behar dute, instituzioek egin beharko lukete, lana kentzen du...)*.

Adin bateko eta besteko emakumeen artean ez da alde aipagarririk ikusten boluntariotzari eta boluntarioei buruz duten iritziari dagokionez, baina gizonen artean sumatzen da adinean aurrera egin ahala zertxobait jaisten dela iritzi positiboa dutenen pisua eta oro har handitu egiten dela iritzi epelagoa dutenena edo ezaxola direnena, 65 urtetik gorako taldean izan ezik; izan ere, aurreko bi adin-taldeek baino iritzi hobea dute horiek.

## Zein dira gaur egungo boluntarioen ezaugarriak? Zein taldek osatzen dute gehienik?

EAEko gaur egungo boluntario *gehienak emakumeak dira:* % 64,5 emakumezko boluntarioak dira, eta % 35,5 gizonezko boluntarioak.

Boluntarioak nahiko *heterogeneoak* dira *adinari dagokionez*, nahiz eta azken bi taldeek (50 urtetik aurrerakoak) boluntarioen % 53,6 biltzen dituzten.

*Euskal boluntarioen hiru laurdenak* baino gehixeago *(% 77)* EAEn jaio dira, % 19,1 gainerako estatuan eta % 3,9 atzerrian.

*Euskal boluntarioen erdiak baino gehixeago (% 55,3) ezkonduta daude* eta heren bat (% 30,7) ezkongai. Gainera, ia % 8 alargunak dira.

*% 31,1 bikote edo familia gurasobakar batek eta seme-alabek osaturiko etxeetan bizi dira*. *Antzeko ehuneko bat (% 28,3) ondorengorik gabeko bikoteek osaturiko etxeetan bizi da*. Ia % 20 gurasoekin edo behintzat horietako batekin bizi dira. Gainera, % 10 bakarrik bizi dira, eta gainerakoak beste era bateko etxeetan bizi dira.

*Gaur egungo boluntarioen % 42k erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzte*. % 19,8k oinarrizko ikasketak dituzte, eta beste hainbestek bigarren mailako ikasketak lortu dituzte.

*Lau boluntariotik bat ez-aktiboen kategoriaren barruan sartuko litzateke (ikasleen taldea alde batera utzita)*. *Ia proportzio bera (% 38,3) lanean dabil*. Gainera, taldeko % 12,1 lanik gabe daude, eta % 9,2 ikasleak dira.

## Zer adinekin hasten da boluntario-esperientzia? Zenbat irauten du? Zenbateraino eteten da?

*Euskal boluntarioak batez beste 35 urterekin hasten dira*, hala gizonetan nola emakumeetan, nahiz eta ohikoena (moda) 18rekin hastea den. Hain zuzen, erdiak 30 urte baino lehenago hasi ziren.

Emakumezko boluntarioek *batez beste 15 urteko esperientzia dute*, ia bi urte gehiago gizonezko boluntarioek dutena baino. Erdiek baino gehiagok 10 urtetik gorako ibilbidea dute.

*Hamar* boluntariotik *lau* baino gehixeago *beteranotzat har daitezke erakundean* (izan ere,10 urte baino gehiago daramatzate bertan lanean), eta beste *lau boluntario berritzat har daitezke* (5 urte baino gutxiago daramatzate).

*Boluntario gehien-gehienak boluntariotzan modu jarraituan* –etenik gabe– *aritu dira* (% 84,1), nahiz eta 30 eta 49 urte bitartean areagotu egiten den uneren batean boluntariotza eten dutenen proportzioa. 65 urtetik gorako pertsonak dira eten gutxien egin dutenak. Inguruabar pertsonaletan izandako aldaketak dira jarduera aldi batez eteteko arrazoi nagusia.

## Zein faktorek eragin zuten gaur egungo boluntarioengan laguntzaile dabiltzan erakundea hautatzeko orduan? Nolakoak dira gaur egungo boluntarioek parte hartzen duten erakundeak?

Laguntzeko erakunde bat hautatzeko orduan eragiten duten faktoreen artean nagusiki lau nabarmentzen dira: *boluntarioen % 91k jarduerak beraientzat zuen interesa adierazi dute; % 81,2k erakundearekin bat zetozela; % 79,5ek erakundea osatzen zuen giza taldea; eta % 76,4k atzean zegoen erakundea.* Dirudienez, atzean dagoen erakundeak garrantzi handiagoa du adina handitu ahala.

*Boluntario gehien biltzen duen arloa gizartekintza da* (babesik gabe edo egoera oso ahulean dauden taldeak gizarteratzeko lanean dihardutenerakundeak), % 35,2k arlo horretako erakundeetan parte hartzen dute, eta, batez ere, emakumezko boluntarioek hautatzen dute arlo hori. Horren atzetik daude herritarren erakundeen arloa (bizilagunen elkarteak, erretiratuen el-

karteak, emakumeenak eta abar), boluntarioen % 17,2k parte hartzen baitute, eta kulturaren arloa (% 13,8), non gizonezko boluntarioen pisua handiagoa den. Zenbait arlo bereziki lotzen zaizkie pertsona adintsuenei, hala nola gizartekintzaren edo herritarren arloa, eta 30 urtetik beherako pertsonen artean, berriz, ohikoagoa da aisialdia edo astialdia eta kultura hautatzea.

## Zer eginkizun dakartza berekin borondatezko ekintzak? Zenbat denbora eskaintzen zaio? Noiz egiten da?

Gaur egungo boluntario gehienek, *hamar boluntariotik ia zazpik, zuzenean esku hartzekoak diren era guztietako lanak egiten dituzte* (lagun egitea, aisialdiko jarduerak eta abar), *hamarretik bik kudeaketa- eta administrazio-lanak* egiten dituzte soilik, eta *hamarretik batek bi lanak batera* egiten ditu. Administrazio- eta kudeaketa-lanak hein handiagoan egiten dituzte 30 eta 39 urte bitarteko pertsonek eta lanean dabiltzanek.

*Kasuen % 83,3tan,* erakundean egiten den *borondatezko lana egonkorra edo jarraitua da*, eta gainerakoetan boluntariotza aldizkakoa edo noizbehinkakoa da. Boluntariotza egonkorraren tasa handienak gizonezkoetan, pertsona adintsuenetan eta ez-aktiboetan (ikasleak alde batera utzita) erregistratu dira.

*Hamar* boluntariotik *seik astean 5 ordu edo gutxiago eskaintzen diote boluntariotzari*. Astean 5 ordu baino gehiago sartzen dituzten emakumezko boluntarioen proportzioa nabarmen txikiagoa da gizonezkoena baino (ia 16 puntu gutxiago).

Boluntarioen *erdiek baino gehixeagok astegunetan soilik egiten dute boluntario-lana. Boluntarioen erdiek arratsaldez jarduten dute. Boluntarioen erdiek baino gehiagok urte osoan laguntzen dute* (hala ikasturtean zehar nola oporraldietan). Adinak aldeak ezartzen ditu: pertsona adintsuenek batez ere astegunetan egiten dute boluntario-lana, eta pertsona gazteenek gehiago bateratzen dituzte asteguneko jarduera eta asteburuetakoa. Zenbat eta adinekoago, badirudi inplikazioa ikasturtean zehar soilik izaten dela, eta boluntario gazteenek hein handiagoan egiten dute borondatezko jarduera oporraldian.

*Boluntarioen % 41,5ek adierazi dute denborarekin areagotu egin dutela borondatezko ekintzan zuten inplikazioa;* emakumeek gutxitu dute hein handia-

goan beren inplikazioa, eta 50 urtetik gorako pertsonek uste dute bere hartan eutsi diotela inplikazioari edo, izatekotan, handitu egin dutela. Bestalde, erakundean zenbat eta denbora gehiago eraman, astean zenbat eta ordu gehiago sartu eta zenbat eta lan gehiago egin (zuzeneko laguntza eta kudeaketa bateratzea), handiagoa da inplikazioa areagotzen duten pertsonen proportzioa.

## Zerk motibatzen ditu biztanleak boluntariotzan hastera?

Pertsona bakoitzak bere motibazioa du, eta askotarikoak dira boluntariotzaren parte izatera iristeko arrazoiak. Baina, laburbilduz, esan liteke *bi arrazoi handi* daudela, maiz batera agertzen direnak: motibazio *altruista*; kasu horretan, laguntza norberaren borondatez eskaintzen da eta beste pertsona batzuei egiten die mesede, norberarentzat probetxurik espero gabe; horren barruan sartzen dira hala beste pertsona batzuei laguntzeko elkartasun-interesa (% 33,1ek aipatu dute arrazoi hori) nola eraldaketa eta aldaketa soziala sustatzeko nahia (aipamenen % 27,2). Eta motibazio *pertsonala*; hain zuzen, motibazio hori lotuta dago gauza berriak probatzearekin, gizarte-gaien mundua ezagutzearekin, laneratzea errazteko esperientzia hartzearekin, gogobetetze eta garapen pertsonalarekin eta abarrekin (aipamenen % 10,8 inguru).

Desberdintasun batzuk ikusten dira boluntarioek lan horretan hasi zirenean zeukaten adinaren arabera. Boluntario 65 urte baino gehiagorekin hasi ziren pertsonen kasuan, pisu nabarmena du beste pertsona batzuen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeak (adin horretako pertsonen % 56,2k aipatu dute). Gainera, astia izatea da pisu gehien duen faktorea boluntario -lanetan 45 urtetik aurrera hasi ziren pertsonentzat. Bestalde, gozatzeak eta ondo pasatzeak pisu handiagoa dute boluntario oso gazterik hasi zirenen artean (18 urte baino gutxiagorekin) edo 65 urtetik aurrera hasi zirenen artean (% 12 inguru bi kasuetan). Orobat, badirudi ideia erlijiosoekin koherente izateak ere pisu handiagoa duela pertsona adintsuagoen artean.

Pertsonak boluntariotzara gerturatzea laguntzen duten faktoreen artean honako hauek nabarmentzen dira: boluntariotzan sartuta dauden lagunak edo senideak izatea, astia izatea edo kaltetuen erakunderen bateko erabiltzaile izatea edo bertan senideren bat izatea. Horrez gain, beren sozializazio

goiztiarrean presente egon dela-eta boluntariotza bizi-estilotzat daukaten pertsonen taldeaz ere hitz egin behar da.

Kontsultatutako euskal boluntarioen erdiek baino gehixeagok (% 53,8) adierazi dute gaur egun dituzten motibazioak hasieran zituzten berberak direla. Oro har, badirudi hasierako motibazioek hor jarraitzen dutela boluntario-ibilbide osoan, eta aldaketak gizartea eraldatzeko edo talde jakin batzuk hobetzeko nahiarekin loturik egon ohi direla, eta interes pertsonalagoek, ostera, behera egiten dutela (esperientzia hartzea, baliagarri sentitzea, harremanen gizarte-sarea zabaltzea eta abar). Gainera, badirudi motibazioak areagotu egiten direla halako esperientzia bat hartu ondoren, estutu egiten dela erakundearekiko lotura eta gehiago parte hartzen dela bertan.

## Zer da boluntariotza boluntarioentzat?

*Ia boluntarioen erdiek (% 47,5) dute boluntariotzaren ikuspegi pragmatikoa* (beste pertsona batzuei laguntzearen *emaitza* konkretuei lotua), % 30ek traszendetalista (*militantziari* eta *gizarte-aldaketari* lotua) eta gainerako % 22,5ek pertsonalista (*gogobetetze* eta *saritze pertsonalari* lotua). Emakumezko boluntarioen artean ikuspegi pertsonalistak pisu handiagoa du, eta txikiagoa ikuspegi traszendentalistak.

Boluntarioek uste dute beren lanak *Hirugarren Sektoreko erakunde asko iraunarazten* dituela; izan ere, haien parte-hartzeari esker, erakundeek abian jartzen dituzten *jardueretako asko garatzen dira, bai eta zabaltzen ere,* eta, hala, *onuradunen taldea handitu daiteke.*

Haien iritziz, *boluntarioen egitekoa giltzarria da erakundeen garapenerako*; izan ere, erakundearen eta gizartearen arteko maila dira, erakundearen eta boluntario potentzialen arteko elkarbidea eta erakundearen eta erabiltzaileen arteko lotura.

Gainera, erakundeen *balio erantsia* dira, erakundeen alderdi sozialena dira. Borondatezko ekintza garatzea *gizartean modu aktiboan parte hartzeko* modu bat da, eta, beraz, *ingurunearen aldaketaren sustatzaile* dira, eta, azken batean, *gizarte-ongizatearen sortzaile* eta *gizarte-eraldaketaren* motor.

## Pozik al daude boluntarioak egiten dituzten lanekin?

*10 boluntariotik ia 8 pozik daude boluntario gisa egiten dituzten lan konkretuekin*. Dena dela, % 46,7k adierazi dute ezin dituztela hautatu gogokoen dituzten lanak, eta boluntarioen % 20,5ek adierazi dute beren lanak monotonoak direla.

Boluntarioek onartzen dute beren eginkizunak hautatzeko erabateko askatasunik ez izatearen arrazoia, hots, boluntarioak ondoen egin ditzaketen lanetara bideratzen saiatzen direla erakundeak, borondatezko ekintzari ahalik eta errendimendurik handiena ateratzeko; horregatik, gehienek uste dute muga batzuen barruan hauta dezaketela egin nahi duten jarduera, eta oso pozik daude.

Badirudi gogobetetze handiagoa dagoela lagun egiteko lanetan jarduten duten eta lagundutako pertsonekin harreman zuzenagoa duten pertsonen artean; hain zuzen, lagundutako pertsonak dira motibazio- eta aintzatespen-iturri garrantzitsuenetako bat boluntarioentzat. Aldiz, *lorpenak ikustea zail den lanetan edo lorpenak epe ertain edo luzera etortzen* diren zereginetan dabiltzanetariko batzuek etsipen handixeagoa sentitzen dute.

## Nola balioesten dute boluntarioek erakundeek egiten duten harrera, jarraipena eta laguntza?

*Boluntarioen % 97,4 nahiko pozik edo oso pozik daude erakundean egin zieten harrerarekin. Erakundeak egiten duen jarraipena edo laguntza ere modu positiboan balioetsi dute % 89,3k.*

Nahiz eta balioespena positiboa den, agerian jarri da beharrezkoa dela erakundeek jarraipena eta laguntza indartzea. Alde horretatik, erakundeetan bermatu beharreko funtsezko alderdiak aipatu dira, hala nola: harrera eta jarraipena egiteko protokoloak izatea, boluntarioen arduradun bat izatea, probaldi bat eta boluntarioak hautatzeko prozesu bat ezartzea, lanak behar bezala banatzea eta boluntarioek erakundean parte har dezaten sustatzea.

## Nola balioesten dute boluntarioek erakundeetan eskaintzen den prestakuntza, informazioa eta parte-hartzea?

*% 78,9k uste dute garrantzitsua dela prestakuntza-ekintzaren bat egitea borondatezko lana hastean, eta % 79,8k uste dute garrantzitsua dela denboran zehar prestatzen joatea; alabaina, hamar boluntariotik lauk adierazi dute ez dutela egin garatzen dituzten lanekin loturiko prestakuntzarik.* Hori bai, prestakuntza -motaren bat egin dutenen % 95,1ek adierazi dute prestakuntza hori oso edo nahiko egokia izan dela.

Boluntarioentzat, prestakuntza funtsezkoa da; izan ere, nahiz eta eskuarki ez duten traba handirik izaten beren lanak egiteko, bide ematen die beren jarduera hobeto egiteko (batez ere talde bereziekin lan egiten denean) eta erakundean gehiago inplikatzen laguntzen du.

*Boluntarioen % 88,6k adierazi dute beren erakundean badirela informatzeko eta parte hartzeko bideak.* Erakunde bakoitzak bere bide propioak ditu, baina horiek denek dirudite ondo baloratuak: bilera aldizkakoak boluntarioekin, jarduera konkretuak, gogobetetzeari eta hobekuntzari buruzko inkestak, bilerak boluntarioen arduradunarekin, bilerak boluntarioen artean esperientziak partekatzeko, eta abar.

Erakundearen helburuei edo lorpenei buruzko *informazioa* faktore giltzarria da boluntarioak pozik egoteko eta inplikatzeko. Alde horretatik, *% 81,4k adierazi dute badutela informazio-mekanismo formalen bat eta horren bidez informatuta daudela erakundearen lorpenen inguruan.*

Zalantzarik gabe, gogobetetze handia dago informatzeko eta parte hartzeko bideekin –% 92,3 pozik edo oso pozik daude bide horiekin–, eta gogobetetze hori oso loturik dago galdetzen dietela, entzuten dituztela, iritzia eskatzen dietela eta iritzi hori aintzat hartzen dutela sentitzearekin, batez ere egiten dituzten jarduera konkretuei dagokienez. Gainera, boluntarioek beharrezkotzat eta are ezinbestekotzat jotzen dute hori. Zenbat eta informatuago egon boluntarioak, partaideago sentitzen dira eta parte hartzeko aukera gehiago sumatzen dituzte. Horregatik *eskatzen dituzte erakundearen makineria eta planteamenduak hobeto ezagutzen lagunduko duten informazio-bideak.*

Badirudi boluntarioentzat erakunde barnean parte hartzeko *bi maila* daudela: *egiten dituzten jarduera konkretuei loturiko alderdietan parte hartzea eta erakundearen erabakietan parte hartzea.* Nahiz eta parte hartzeko bi moduak diren garrantzitsuak, gaur egun, boluntario gehienek nabarmentzen dute

beren zuzeneko jarduerari dagozkion kontuetan parte hartu ahal izatearen garrantzia, eta hain zuzen ere hor eskatzen dute beren proposamenak aintzakotzago har daitezen. Erabakiak hartzean inplikazio handiagoa izateko jauzia egiteari dagokionez, ez dirudi adostasuna hain handia denik; izan ere, konpromiso eta erantzukizun handiagoa eskatzen du, eta horrek boluntarioengan gogobetetzea sor dezake, baina baita errefusa eta gainkarga ere. Dena dela, adierazi behar da hasiak direla erakundeetan boluntarioen pisua handitzea xede duten ekimenak.

Parte-hartzeak bide ematen du erakundearen parte sentitzeko, eta, aldi berean, gogobetetzea areagotzen du. Azken batean, lotura hori honela definitzen da: *zenbat eta parte-hartze handiagoa, aintzatespen handiagoa; zenbat eta aintzatespen handiagoa, inplikazio eta konpromiso handiagoa; eta zenbat eta inplikazio handiagoa, gogobetetze handiagoa.*

## Zein dira erakundeen erronkak boluntarioen iritziz?

Boluntarioek beren jarduera garatzea zailtzen duten zenbait alderdi sumatzen dituzte, eta horiek aztertu egin beharko lirateke, erakundea behar bezala garatzeko eta borondatezko ekintza hobetzeko:

- Zuzendaritza- eta kudeaketa-lanetan gehiago inplikatuko diren boluntarioak lortzea.
- Boluntario gehiago atzematea, batez ere gazteak.
- Kudeaketa boluntarioen profiletara egokitzea.
- Izapide burokratikoak arintzea.
- Boluntarioen kudeaketa hobetzea, lanak, rolak eta eginkizunak zehazteari dagokionez.
- Erakundeentzako laguntza instituzionala areagotzea, diru-laguntzak eta erakundeen eta administrazioaren arteko komunikazioa hobetuta.
- Erakundeen eta boluntarioen arteko koordinazioa hobetzea.
- Boluntarioen nekea, arnasa hartzeko beharra eta muga pertsonalak kontuan hartzea.
- Erakundeen profesionalizazioan aurrera egitea.

## Nola balioesten dute erakundeen aintzatespena?

Boluntarioek garrantzizkotzat jotzen dute egiten duten lana erakundeek aintzatestea. Zenbaitetan, esker onaren keinu gizatiarra edo behar bezalako harrera edo agur bat nahikotzat jotzen dira aintzatespena adierazteko. Batez ere, *giltzarri gizatiar eta pertsonalena* direlako; eta, hain zuzen, horrek aintzatespenaren parte izan behar du, eta pertsonaren bizipenekiko hurbiltasunaren eta interesaren bidez adierazten da.

Beste batzuetan, aintzatespena prestakuntzari (hitzaldiak, bilerak eta abar) edo ekimen konkretuei lotzen zaie, hala nola boluntarioen senidetasun -bazkari bat egiteari. Beste maila batean, erakundearen erabakietan parte hartzeko aukera handiagoa izateari loturiko aintzatespena dago. Baina, batez ere, *boluntarioek aintzatespena boluntarioen kudeaketa egokiarekin, informazio eta prestakuntzarekin eta barneko parte-hartzearekin lotzen dute*. Hori guztia da, boluntarioentzat, *erakundeak babesten eta entzuten dituela sentitzea*.

## Nolakoa da boluntarioek sumatzen duten gizarte-aintzatespena?

Boluntarioek *aintzatespen sozial handiagoa sumatzen dute aintzatespen administratibo-politikoa baino*. Boluntarioen % 73,6 pozik edo oso pozik daude gizartearen aintzatespenarekin, eta % 57 hala daude administrazioak boluntarioen egitekoari egiten dion aintzatespenarekin ere.

Nolanahi ere, uste dute *boluntarioen irudi soziala positiboa dela, baina desitxuratua*. Alde batetik, bada irudi on bat, konpromisoa, elkartasuna eta doakotasuna bereizgarri dituena, baina, beste alde batetik, oraindik bada irudi lausoago bat, ekintzaren beraren ikusezintasunak markatua; hori bai, ingurune hurbilenean indargabetu egiten da irudi hori.

Horregatik, zenbaitetan boluntarioak ez ulertuak sentitzen dira; izan ere, itxuraz ez datoz bat gaur egungo gizartean nagusi diren printzipio materialista eta indibidualistekin. Horregatik iruditzen zaie askotan jendeak beren ekintzan denbora pasatzeko modu bat ikusten duela eta ez duela ulertzen beren lanaren benetako helburua zein den: gizartea eraldatzea.

## Zer proposatzen dute boluntarioek borondatezko ekintza sustatzeko?

Administrazio publikoari gizartea sentsibilizatzearekin eta boluntarioak atzematearekin loturiko ekintzak proposatzen dizkiote (publizitate-kanpainak; hitzaldiak eta lantegiak ikastetxeetan; erakunde bateko eta besteko boluntarioen arteko topaketak...), bai eta boluntarioen aintzatespena hobetzeko (zerga-onurak, prestakuntzaren egiaztagiri ofiziala...) eta boluntarioen erakundeak laguntzeko ekintzak ere (baliabideak...).

Komunikabideei bereziki proposatzen diete albisteetan boluntarioen tratamendua eta irudia hobetzea, gizarte-sentsibilizazioarekiko konpromisoa sendotzea, boluntarioei buruzko albisteak gehitzea eta haien eta erakundeen arteko harremanak erraztea.

## Zein da gaur egungo boluntarioek beren esperientziaren inguruan egiten duten balioespen orokorra? Zer asmo dute etorkizunerako?

*Boluntarioak oso pozik daude egiten duten borondatezko jarduerarekin; zehazki, batez besteko gogobetetzea 8 puntukoa da 10etik.* Boluntarioen % 96,3 nahiko edo oso pozik daude beren boluntario-jarduerarekin; beraz, ezaxolaren (% 2,6) eta asegabetasunaren (% 1) ehunekoak guztiz dira txikiak.

Ia ez da alderik ikusten sexuaren, adinaren eta egiten diren lanen arabera, baina boluntarioek erakundean daramaten denborak bai ezartzen du aldea. Talde muturrekoenek agertzen dute gogobetetze handiena –erakundean denbora gutxien daramaten pertsonek 8,14 puntu, eta gehien daramatenek 8,08 puntu–.

Alderdi batzuk estuki lotuta daude boluntarioen gogobetetze-mailarekin, eta horiek neurri batean azaltzen dute zerk eusten dien boluntarioei lan horretan: *hasierako motibazioak betetzea, gizarte-aintzatespenak* (hala erakundearena berarena nola oro har gizartearena), *boluntarioen kudeaketak* (hurbilekoa, parte-hartzailea, informazioan eta komunikazioan oinarritua) eta *boluntarioentzat boluntariotzak duen esanahiak berak* (gizarte-eraldaketa, inplikazioa, konpromisoa, beste pertsona batzuei laguntzea eta abar).

% 92k adierazi dute dezente edo asko bete zaizkiela hasierako igurikimenak. Gainera, badirudi, hasierako igurikimenez harago, borondatezko ekintzak hasieran espero zutena baino gehiago eskaini diela, *ekarpen ukiezin bat, pertsona bakoitzean modu batera eragin duena baina hasierako motibazioen gainetik bertan jarrai dezaten eragiten duena*. Honako hauek nabarmentzen dira nagusiki: harreman pertsonal berriak, haziera eta ikaskuntza pertsonala, esperientzia eta garapen profesionala, ikuspegi bateratua gizartea eraldatzeko bidean, talde bateko kide izatearen sentimendua (boluntarioen espiritua), beste gizarte-errealitate batzuk ezagutzea, errutinatik ihes egiteko bide bat, baliagarri izatearen sentimendua, aisialdi aktibo bat izatea, bizitza ikusteko eta errealitateari aurre egiteko beste ikuspegi bat edo Hirugarren Sektoreko erakundeak gehiago ezagutzea.

Nahiz eta alderdi negatiboek pisu txikiagoa izan duten boluntarioen diskurtsoetan, besteak beste honako hauek aipatu behar dira: norberaren aisialdia gutxitzea inplikazio handiaren ondorioz, esperotako emaitzak ez lortzeak sortzen duen frustrazioa, administrazio publikoekiko zailtasunak, erakundearen eguneroko gorabeherak (bakardadea, erantzukizuna, monotonia eta abar), gizartearen ulertezintasuna edo ezaxola eta inplikazio falta, batzuetan boluntarioez egiten den abusua, errealitate batzuen gordintasunak dakarren higadura emozionala eta gatazka pertsonalak.

Gaur egungo boluntarioek adierazi dute borondatezko jarduera egiten jarraituko dutela, zehazki *kontsultatutako hamar boluntariotik bederatzik aurreikusten dute datozen urteetan boluntario-lanak egiten jarraituko dutela*. Boluntariotza uztea pentsatu duten gutxienek arrazoi hauek eman dituzte: nekea borondatezko lana egiten daramaten urteengatik, adin aurreratua eta jarraitzeko motibaziorik eza.

## Zer adinekin uzten da boluntariotza? Zerk utzarazten du boluntariotza?

*Inkestatutako pertsonek, batez beste, 31,1 urterekin utzi zuten boluntariotza, eta boluntario-esperientziaren batez besteko denbora 7 urtekoa da gutxi gorabehera.*

Borondatezko lana *utzi zuten pertsonek emandako arrazoi nagusiak* dira *borondatezko lana bateraezina zela ikasketekin edo lanarekin eta astirik ez zutela*. Boluntarioek adinean aurrera egin ahala, erabaki hori hartzeko orduan garrantzia hartzen doaz *inguruabar pertsonaletan izandako aldaketak, aldi bat amaitu zela sentitzea* eta halako arrazoiak.

## Zein dira gaur egungo boluntarioen ezaugarriak?

*Galdutako boluntarioen artean aldizka aritzen ziren pertsonen proportzioa handiagoa da* gaur egungo batezbestekoa baino, eta horrek pentsaraz lezake profil horretakoek hein handiagoan uzten dutela boluntario-lana.

Dedikazioaren arabera, datuek itxuraz erakusten dute *astean bost ordu baino gehiago sartzen dituzten boluntarioen gutxitzea*.

Jarduera-mota hartzen bada kontuan, badirudi *batez ere zuzenean esku hartzekoak diren lanei loturiko boluntarioak galtzen ari direla*.

## Zein dira boluntario potentzialen ezaugarriak?

Boluntario potentzialen profilak antz handia du gaur egungo boluntarioen profilarekin: gehienak *emakumeak* dira (% 59,5), baina ezin da esan *adinari dagokionez profil bat gailentzen denik* (% 31,3k 30 urte baino gutxiago dituzte, eta ia % 25ek 50 urte baino gehiago).

Talde hori nagusiki *hiriburuetan* pilatzen da (% 47,3); gainera, *laguntzeko prest dauden udalerri txikienetako emakumeen pisua handiagoa da gizonena baino*.

Ohikoena da boluntariotzara gerturatzeko jarrera aldekoagoa duten pertsonek *goi-mailako* ikasketak izatea (% 40,1), eta, jarduerari dagokionez, horien bereizgarria da *lanean ari direla* (% 50), gehienak *egun osoz* (% 74,6).

## Zein arrazoik eragin lezakete oraindik boluntario ez direnengan boluntario izateko erabakia har dezaten?

Ez da alde handirik ikusten gaur egungo boluntarioak hartaratu zituzten motibazioen aldean. *Pertsonei laguntzeak ematen duen gogobetetzea* (8,7), aberaste eta gogobetetze pertsonala (8,11), *eraldaketa eta justizia soziala sustatzea* (8,03) *eta ingurune hurbila hobetzen laguntzea* (7,98) *dira boluntario potentzialak borondatezko lanen bat egitera bultzatuko lituzketen faktore nagusiak*.

Adinak ezartzen ditu desberdintasun batzuk kontu honetan, eta, oro har, 65 edo urte gehiagoko boluntario potentzialek garrantzi gutxiago ematen die-

te profesionalki prestatzeko aukera izateari edo esperientzia hartzeari, arazoak ahazteari, esperientzia berriak bizitzeari eta ingurune hurbilena hobetzen parte hartzeari.

## Zein faktorek eragingo lukete inoiz boluntario izan ez direnen artean erakunde bat hautatzeko orduan? Nolako erakundeak hautatuko lituzkete?

*Egin beharreko jardueraren gaineko interesa (% 88,6) eta erakundea osatzen duen giza taldea* (% 87,5) dira boluntario potentzialek gehien baloratuko lituzketen alderdiak laguntzeko erakunde bat hautatzeko orduan. Nahiz eta sexuak ez duen alde esanguratsurik ezartzen faktore gehienetan, emakumeentzat erakundea etxetik edo lantokitik gertu edukitzea askoz ere faktore garrantzitsuagoa litzateke gizonentzat baino (% 79,7k eta % 56,8k hurrenez hurren hala adierazi dute).

*Gizartekintza, Osasuna eta Giza Eskubideak dira boluntario potentzialek hautatuko lituzketen arloak*. Boluntario potentzial gizonezkoak gertuago egongo lirateke Kirolaren, Garapenerako Lankidetzaren eta Ingurumenaren arloko erakundeetan laguntzeko. Emakumeek, ostera, irmoago egingo lukete Gizartekintzaren edo Herritarren Arloaren alde.

*Lan egin nahiko luketen taldeei dagokienez, batez ere haurrak eta gazteak (% 33,2) eta adineko pertsonak (% 29,9) dira nagusi*. Emakumeek aurrez jarrera hobea dute hartzaileak emakumeak zein haurrak eta gazteak eta adineko pertsonak dituzten erakundeetan laguntzeko. Gizonek, berriz, neurri handiagoan hautatuko lituzkete biztanleria oro har edo Hirugarren Mundua.

*Boluntario potentzial gehienek nahiago lukete tokiko eremuan jarduten duten erakundeetan lagundu (% 40)*.

## Zer lan egiteko prest egongo lirateke boluntario potentzialak? Zenbat denbora eskainiko liokete? Noiz arituko lirateke?

*Boluntario potentzialak hein handiagoan arituko lirateke aldizka edo noizbehinka (% 52,8)*, eta pertsonen % 47,2k hasieratik hautatuko lukete ekintza jarraitu edo egonkor bat.

*Dedikazio-denborari dagokionez, boluntario izatea baztertzen ez duten 10 pertsonatik ia 7k astean sei ordu baino gutxiago eskainiko lizkiokete lan horri.*

*Boluntario potentzialen ia erdiek (% 48,6) borondatezko lana astegunetan egingo lukete.* Nahiz eta itxuraz ez sexuak eta ez adinak ezartzen duten alde esanguratsurik, ikusten da hala gizonek nola 50 urtetik gorakoen taldeak hein handiagoan egingo luketela boluntario-lana astegunetan bakarrik.

Oporraldia eta ikasturtea konbinatzea izango litzateke boluntario potentzial gehienen aukera (% 56,2), baina 10etik ia 4k nahiago lukete borondatezko ekintzak soil-soilik ikasturte barruan egin.

## Azken balioespen batzuk:

Boluntariotzak, zalantzarik gabe, *gogobetetze handia* sortzen du horretan jarduten duten pertsonen artean. Uki daitekeena baino askoz ere harago doa, eta sortzen dituen onurak nabarmen dira pertsonek hasieran espero duten baino handiagoak. Boluntariotzaren sinonimo dira baliagarritasuna, gizarte-eraldaketa, komunitate-lana, itzulketa, erantzukizunak, ikaskuntza, inplikazioa, konpromisoa eta abar.

Besteak beste, faktore hauek laguntzen dute *boluntarioek lanean jarrai dezaten:* hasierako motibazioak eta igurikimenak betetzea, espero baino gehiago aurkitzea, ematen den baino gehiago jasotzen dela sentitzea, ezartzen diren harremanak, egiten diren lanek sorturiko gogobetetzea, lorpenak ikustea, erakundeak aintzatestea eta erakundearen parte izatea. Azken batean, funtsezkoa da erakundearen proiektuaren partaide egitea boluntarioak, ez tresna bihurtzea, lagun-egitea sustatzea eta borondatezko ekintza aintzatesteko lan egitea.

Aurretiko zenbait azterlanek aipatu dute jadanik zein garrantzitsua den boluntarioak entitateen kudeaketaren zikloan sartzea, honako honi lotuta: barneko parte-hartzea areagotzea (prestakuntza, erabakiak hartzea, parte hartzeko espazioak eta abar); boluntarioen egitekoa argitzea eta kontratatutako pertsonen egitekoarekin koordinatzea edo boluntarioen ibilbideak malgutzea; nahiz boluntarioen eta erakundeen konpromisoak formalki bilduko dituzten mekanismoak ezartzea.

Erakundearen egitekoarekin, helburuekin eta filosofiarekin bat egiten duten boluntarioak irmotzea lortzen ez duten erakundeek zailtasunak izan ditzakete epe ertain-luzera irauteko.

*Borondatezko ekintza uzteko arrazoietako* batzuk honako hauek dira: boluntarioek egiten dituzten lanak behar bezala ez kudeatzea (eginkizunik ez izatea, jarraibiderik ez izatea eta abar), rol eta eginkizunak zehaztu gabe egotea, borondatezko lana gainkargatzea, boluntariotza betebehar gisa bizitzea, egiten diren jardueretan ez parte hartzea, hasierako igurikimenak ez betetzea edo erakundearen emaitzak edo lorpenak ez ikustea.

Eskuarki, gizartean ez dira asko ezagutzen boluntarioak eta boluntariotzako erakundeak, baina ezta boluntarioen artean ere. Maiz, boluntarioek eurek beren erakundearen antzeko jarduerak egiten dituzten erakundeak edo gizartean garrantzi handia dutenak soilik ezagutzen dituzte, baina ez hainbeste gainerako borondatezko ekimenak edo beste pertsona batzuek egiten duten boluntariotza-mota.

Horregatik, batzuek diote beharrezkoa dela *sarean lan egitea* erakundeen artean, baina baita garrantzitsua dela boluntarioen artean sinergiak edo elkarteak izatea ere, egiten diren gainerako jarduerak hobeto ezagutzeko. Azken ideia hori oso lotuta dago parte hartzen den erakundeaz harago dagoen talde bateko kide izatearen sentimenduarekin. «Boluntariotzako kide izatearen espiritua» da, egiten dituzten ekintzen bidez gizartea eraldatu eta justizia soziala lortuko dutela uste duten pertsonen taldeko kide izatearen espiritua.

Lehen esan dugun bezala, gazteenak eta adinekoenak gailen dira hala gaur egungo boluntarioen artean nola boluntario potentzialen artean; Europako Kontseiluak 2011ko Boluntariotzaren Europako Urterako ezarritako zuzentarauek bi talde horiekin lan egitearen garrantzia azpimarratzen dute.

Kontuan izan behar da boluntario gazteek ez dutela presentzia bera erakunde-mota guztietan: aisialdiarekin eta astialdiarekin zerikusia duten horietan dira nagusiki gehienak, baina gizarte-bazterketarekin, gaixoei lagun egitearekin eta halako zereginekin loturiko beste erakunde batzuek gabezia handi bat sumatzen dute alde horretatik. Nahiz eta erakunde guztiek izan dezaketen erakundearen iraupena ahalbidetuko duten boluntario gazteen gabezia, zenbaitek zailtasun handiagoak dituzte. *Gazteek parte har dezaten* lortzea ezinbestekoa da, ez bakarrik ordezpenagatik eta, beraz, erakundeen iraupenagatik, baizik eta baita gizartearen barruan parte hartzeko kultura normalizatua dagoen seinale delako ere –boluntariotza gizartean parte hartzeko modu bat da, eta, hala den aldetik, ez bakarrik laguntzen du ingurunearekin inplikatzen, baizik eta baita gizarte-errealitate edo talde estigmatizatu batzuen gainean sentsibilizatzen edo aurreiritziak hausten ere–.

Bestalde, astia izatea da pertsonak boluntariotzara erakartzen dituen giltzarrietako bat, batez ere *adineko pertsonen* kasuan, lana uzten dutenean eta hutsune bat edo errutina berrien premia sentitzera irits daitezkeenean. Talde horrentzat, parte hartzen eta gizartea eraldatzen modu aktiboan hasteko eta jarraitzeko modu bat da. Zahartzaro aktiboari loturiko ikerketek nabarmendu dute boluntariotza oso onuragarria izan daitekeela adineko pertsonentzat.

Ez da ahaztu behar boluntariotzak zer funtzio bete dezakeen gizarteratu edo ingurune berria ezagutu nahi duten etorkinentzat, bai eta enplegagarritasuna hobetzeko arautu gabeko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko ere.

Bestalde, sumatzen da boluntariotzari lotzen ez zaizkion profil profesionalak ez direla behar beste bideratzen. Borondatezko ekintza gizarte-izaerako ekintzei lotzen zaie, eta horietara bideratzen da gehienbat (adineko pertsonei lagun egitea, haurrentzako aisi jarduerak eta abar). Gizarte-izaerako profil profesionalak dituzten pertsonak (hezitzaileak, psikologoak eta abar) edo jarrera eta gaitasun sozial konkretuak dituztenak (zaintzea, entzutea eta abar) errazago sartzen dira boluntariotza-mota hori nagusi den erakundeetara, eta profil teknikoagoa dutenek, hala nola informatikari eta ingeniariek, ez dirudi ikusten dutenik zer laguntza eman diezaieketen inguruko erakundeei.

Badirudi ahoz ahokoa dela pertsonei boluntariotza ezagutarazteko edo boluntariotzara erakartzeko giltzarrietako bat, baina ez dira alde batera utzi behar boluntariotza sustatzen lagundu dezaketen beste estrategia batzuk, eta, alde horretatik, *administrazio publikoak* gehiago parte har dezan eskatzen da. Finantzaketa gehiago eskatzen da erakundeentzat, baina baita adin goiztiarretan boluntariotzaren gainean gehiago sentsibilizatzea ere, esate baterako hezkuntzaren bidez (boluntariotza ikastetxeetan ezagutaraztea, boluntariotzako praktikak sustatzea, eta abar). Gainera, borondatezko ekintza formala aintzatestea exijitzen da: borondatezko ekintza aintzatestea lana bilatzeko orduan, formalki aintzatestea boluntariotzaren bidez eskuratutako trebetasun eta gaitasunak, zergak murriztea, langileentzat berariazko baimena ematea, eta abar.

Bestalde, *komunikabideak* iturri giltzarri bat dira boluntarioen irudia hobetzeko eta zabaltzeko orduan. Horregatik, boluntarioen irudia hobeto tratatzea eskatzen da, ez unean-unean, eta gaur egun duen baino pisu handiagoa izan dezala.

Garrantzitsua da boluntario berriak atzematea, baina baita boluntario aritzen direnek ahalik eta modurik onenean jardutea ere. Horretarako, garrantzitsua da erakundeek boluntarioen prestakuntza sustatzea lan espezifikoei edo

esku hartzeko teknikei dagokienez, zein talderekin lan egiten duten kontuan hartuta. Halaber, zereginen edo gaitasunen arabera boluntarioen profila egoki hautatzea –batez ere prestakuntza handiagoa eskatzen duten ekintzetan– lagungarri izan daiteke boluntario inplikatuak eta aldi berean prestatuak izateko.

Borondatez parte hartzeko *joera berriek* erakusten dute aldatu egingo dela boluntariotzan aritzeko modua (ekintzaren intentsitatean, eskaintzen den denboran, erakundearekin ezartzen den loturan, konpromiso-mailan eta abar); boluntariotza horren bereizgarria izango da ekintza unean unekoagoa edo aldizkakoagoa izango dela, erakundearekin lotura ahulagoa eta banakatuagoa izango dela edo beste modu batera gauzatuko dela (esate baterako, ez hain aurrez aurrekoa, ziberboluntariotzarekin gertatzen den bezala) edo erantzukizun gutxiago hartuko dela. Esan liteke, orobat, boluntario horiek zentratuago daudela aurrez zehaztutako lan zehatzak egitea oinarri duten zeregin edo zerbitzuetan. Horregatik identifikatzen dira zenbaitetan boluntarioak gehiago eginkizunarekin erakundearekin berarekin baino, eta horregatik izan lezakete erakunde barruan iraganean baino parte hartze edo inplikazio gutxiago.

Errealitate berrietara egokitzeko, *malgutu* egin behar dira *ibilbideak,* pertsonen bizi-zikloak (familia-erantzukizunak, zahartzea eta abar) kontuan hartuta; horrek arindu egingo ditu zenbait erakundek boluntario hain askotarikoak kudeatzeko orduan aurkitzen dituzten zailtasunak.

# 8.

# Bibliografia

Bizkaiko Foru Aldundia – EDE Fundazioa. *Estudio sobre voluntariado en Bizkaia 2008*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 2009.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia. *Bizkaiko Hirugarren Sektoraren Liburu Zuria*. Bilbao: Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia, 2010.

BOLUNTA. *Ser una organización de voluntariado*. Bilbao: Bolunta, Bizkaiko Foru Aldundia eta BBKren Gizartekintza, 2005.

——— *Ser voluntario... o voluntaria*. Bilbao: Bolunta, Bizkaiko Foru Aldundia eta BBKren Gizartekintza, 2002.

BOLUNTA, EDE FUNDAZIOA. *Estudio sobre voluntariado en Bizkaia 2004*. Bilbao: Bolunta, Bilbao Bizkaia Kutxa eta Bizkaiko Foru Aldundia, 2004.

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA. «Propuesta de acciones a llevar a cabo en Euskadi con motivo del año europeo del voluntariado». Txosten argitaragabea. Eusko Jaurlaritza, 2010eko maiatza.

CIS. ikerketa soziologikoen zentroa. *Barómetro de marzo de 2011. Estudio 2864. Estudio de opinión sobre el voluntariado: la imagen social del voluntariado.* Madril: CIS, 2011.

——— *Encuesta sobre Participación social*. 2008ko Barometroa. Madril: CIS, 2008.

——— *Encuesta sobre Ciudadanía y Participación Local*. 2006. Madril: CIS, 2006.

DELLA PORTA, D. eta DIANI, M. *Los movimientos sociales.* Madril: Ikerketa Soziologikoen Zentroa eta Editorial Complutense, 2011.

DOBKIN HALL, P. *Inventing the Nonprofit Sector: And Other Essays on Philanthropy, Voluntarism and Nonprofit Organizations*, Baltimore: Johs Hopkins University Press, 1992.

EDEX Komunitate Baliabideen Zentroa. *El sector no lucrativo de Acción Social: datos generales y situación en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila, 2004.

Espainia. 6/1996 Legea, urtarrilaren 15ekoa, Boluntarioei buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala,* 1996ko urtarrilaren 17a, 15. zk., 1239. or.

Espainiako Boluntariotzaren Plataforma (PVE) – Folia Consultores. *Diagnóstico de la situación del voluntariado de acción social en España 2011*. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, 2011. 304

Espainiako Boluntariotzaren Plataformako Boluntariotzaren Behatokia. *El perfil del voluntariado en la PVE*. Madril: Espainiako Boluntariotzaren Plataforma (PVE), 2008.

—— *Revista Española del Tercer Sector* [online]. Bartzelona: Luis Vives fundazioa, 2011 [kontsulta: 2012ko martxoaren 21a]. ISSN Bertsio digitala: 1886/0419. Webgunean eskuragarri: <http://www.fundacionluisvives.org/rets/18/articulos/76983/index>.

European Volunteer Center (*CEV*), *Centro di Servizio per il Voluntario del Lazio* (*SPES*), *Johns Hopkins Center for Civil Society Studies* (CCSS*). European Volunteer Measurement Project.* [online]. [Brusela, Belgika]: EVMP, 2011. [2011ko martxoaren 25eko erref.]. Webgunean eskuragarri: <www.evmp.eu >.

Europako Batzordea. *Eurobarómetro Estandar 74. Opinión Pública en la Unión Europea. Informe nacional España.* Brusela: Komunikazio Zuzendaritza Nagusia, 2011.

——— *Eurobarómetro Especial*. Brusela: Komunikazio Zuzendaritza Nagusia, 2007.

Europako Batzordea, GHK Consulting. *Estudio sobre el Voluntariado en la Unión Europea (Study onVolunteering in the European Union*). Brusela: Europako Batzordea, 2010.

——— *Informe España. Estudio sobre el Voluntariado en la Unión Europea (Study onVolunteering in the European Union*). Brusela: Europako Batzordea, 2010.

Euskadi. 30/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 2003ko otsailaren 27a, 188. zk., 2965. or.

——— 169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 2000ko irailaren 29a, 188. zk., 17198. or.

——— *17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria,* 1998ko uztailaren 13a, 130. zk., 12943. or.

